

ORDEZKATUAK ETA IKUSGARRIAK

NEKAZAL-EMAKUMEEN PARTE HARTZE ETA
ORDEZKARITZA SEKTOREKO ERABAKIGUNEETAN

Leire Milikua Larramendi



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDE
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER



Izenburua: ORDEZKATUAK ETA IKUSGARRIAK. Nekazal-emakumeen parte hartze eta ordezkaritza sektoreko erabaki guneeetan.

Egilea: Leire Milikua Larramendi

Azaletako irudien egilea: Iñaki Landa Fuentes ©

Data: 2021eko iraila

Babeslea: EMAKUNDE, 2020 urtean emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak egiteko 3 motako bekaren esleipenaren bitartez.

Lan honen edukia honako Creative Commons lizentziapean dago: Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa ([CC BY-NC-SA 4.0](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0/)).

Atzoko, gaurko eta biharko nekazal-emakume*ei.

Eta,

bereziki,

pedigririk gabekoei.

ESKER ONAK

EMAKUNDERi ikerlan honen balioan sinetsi eta maila askotariko ikasketa prozesu hau gauzatzeko aukera emateagatik.

Silvia Formentí Sabaterri, berak jakin gabe lan honen hasierako hazia sustatzeagatik.

Emakume Nekazarien Estatutuko idazkaritza teknikoari.

Ni artatzeko tarte bat atera duten sektoreko erakunde eta elkarteetako langileei.

Emakumeen kontaktazio-faseko artisautza-lana osatzen lagundu didaten hango eta hemengo aliatuei.

Izaskun Artegi Alcaideri (UPV-EHU) lanaren hasierako egituraketan ondoan egoteagatik, eta Elisa García-Mingori (UCM) lana denbora-tarte labur horretan egingarria izatea posible egin duten tresnak erakusteagatik.

Teresa María Ortega Lópezi (UGR) elkar ezagutu gabe lanaren berri eman eta erreferentzia batzuen inguruan galdetzeko idatzi nionean, eskuzabaltasun ikaragarriarekin hartu eta babesa eskaintzearen.

Azpeitian kokatutako DINAMOA sormen guneari, Gipuzkoako emakumeekin egindako lan saio kolektiboa jaso eta emakume parte-hartzaileei eskainitako hitzengatik.

Irantzu Duro Motari, egoerak egoera, Azpeitiako saioan egoteagatik.

Lasierran kokatutako AZALA kreazio espazioari, doblezka: 2021eko maiatzaren 10tik 14ra diagnosi eta idazketa egoitza eskaintzearen; 2021eko maiatzak 19an Arabako emakumeekin egindako lan saio kolektiboa aterpetzearen.

Mentxu Ramilo Araujori, Arabako atea, hainbestegatik: zure etxeko ateak irekitzegatik, zure hautuzko familiako kide diren emakume zoragarrienganako bidea errazteagatik, AZALako lansaio kolektiboan laguntzeagatik... to be continued.

Aurrez aurre zein telefonoz, banaka, nirekin zuen bizipenak partekatu dituzuen emakume guztiei; topaketetan, taldean, zuen esperientzia saretu eta hedatu duzuen emakume guztiei: zuen konfiantzagatik, eskainitako denbora eta energiagatik, eta, batez ere, etsipena gainditu eta zuen ekarpenak biltzen dituen enegarren ikerlan honi aukera bat ematearren, metatutako neke eta desengainuen gainerik.

Iñaki Landa Fuentesi, mundua irudiz eta kolorez josteagatik.

Bizitzari, denagatik, beti.

AURKIBIDEA

SARRERA.....	7
ABIAPUNTUA	8
1 Nekazal-emakumeak.....	8
Landa-eremuko emakumeak.....	12
2 Emakume Nekazarien Estatutua (ENE).....	20
Estatutua: abiapuntua eta egitura.....	21
ENE-ren eraikuntza prozesua. Hurbilketa xume bat.	23
ENE eta nekazal-emakumeen ordezkartza	26
IKERKETA LANA.....	31
1 Marko teoriko-metodologikoa	31
Ikerketa feminista.....	31
Geografia feminista	34
Metodologia	36
2 Poliedroa eratuz: artisautza soziala	40
Nortzuek eta nondik: begiraden abiapuntua.....	41
Banakako elkarrizketak: sektoreko erakundeetako erabakiguneetan dauden edo egon diren emakumeak.....	41
Emakumeen profilak.....	42
Online galdetegiak: ENE-ren eraginpeko elkarte eta bestelako erakundeak	52
Emakumeen Topaketak.....	59
3 Argazki-collagea: begiraden topalekua.....	60
(Ustezko) Gizonen mundua.....	61
Batzordeak	68
Emakumeak: bazkidetza, ordezkartza eta delegazioa	73
Elkartegintza	80
Adina, genero ikuspegia eta parte hartzea	83
Emakumeek diote.....	88
Nekazal-emakumeak nekazal-emakumeen begietatik.....	99
Bilera espazioak: antolamenduaren erradiografia	106
4 Parte hartzea: Elementu erraztaileak, oztopoak eta orokorreko balorazioa	113
Elementu erraztaileak.....	113
Oztopoak	119

Parte hartzearen balantzea	126
5 ENE, eta emakumeen parte hartzea	128
Irakurketa	128
Formazio eta sentsibilizazio ekimenak.....	128
Lanketa	129
Eragina	132
Balorazioa	135
Gabeziak	140
Lasterbideak.....	142
6 Proposamenak	146
1. Norbanakoaren eskura dauden ekintza edo neurriak.....	148
2. Erakunde mailan bultzatu daitezkeen ekintza edo neurriak.....	151
3. Administrazioek bultzatu ditzaketen ekintza edo neurriak	158
7 Ondorioak.....	162
AIPATUTAKO LANAK	166
ERANSKINAK	169

ABIAPUNTUA atalean ikerlan honen oinarrian dauden ardatzak identifikatu dira: *nekazal-emakumeak eta Emakume Nekazarien Estatutua*. EAEko landa-eremuaren, landa-eremuko emakumeen, nekazal-jardueraren eta nekazal-emakumeen hurbilketa bat egin da deskribapen, esanahi eta datuekin testuingurua ezartzeko. ENE aurkeztu da, haren abiapuntua, egitura, eraikuntza prozesuaren gerturatze xume bat gertaera nabarmen batzuk kronologikoki jasoz. Sakonago aztertu da III. Titulua emakumeen sektoreko ordezkariaren ingurukoa, eta 19. Artikulua, parte hartze hori dirulaguntza publikoak jasotzearekin lotzen duena.

IKERLANA atalean jaso da azterlana.

Lehenengo azpiatalean *marko teoriko metodologikoa* jaso da. Ikerlan honen ezaugarrietako bat hibridotasun metodologikoa da. Ikerketa feministaren gakoetan garatu da lana unibertsaltasunari kritika eginez, intersubjektibotasunaren alde agertuz, helburu emantzipatorio argiarekin, prozesu eta emaitzetan elkarlana eta gardentasuna aplikatuz. Geografia feminista izan da ipar, generoaren eta lekuaren harremana azaleratzen duena. Ikerketa kualitatiboa izan da, eta teoria oinarrituaren prozedura metodologikoak aplikatu dira. Lanaren esentzian egon da hasiera-hasieratik emakumeen benetako esperientziak eta beharrak jasotzea, eta, horietatik abiatuta, ekintzara bideratutako proposamenei forma ematea. Ekintza- eta partaidetza-prozesuak integratu dira, ezagutza-iturri bilakatu. Ikerketa Ekintza Parte-hartzailearen zantzuak argiak dira, izandako denbora-tarteagatik prozesua osotasunean gauzatu ezin izan den arren.

Bigarren azpiatalean eraikuntza korallera egin da salto, aurreko ataleko markoari fidel. *Ikerlanak barne hartzen dituen* ikuspegi guztiak deskribatzen dira, eta *hiru iturri nagusiak xehatu*: banakako elkarriketetan parte hartu duten emakumeak; online galdetegiaren erantzunak igorri dituzten erakundeak eta pertsonak; topaketa kolektiboetan bat egin duten emakumeak.

Hirugarren azpiatalean aurreko atalean deskribatutako begiradek eraikiko dute gaur egun nekazal *emakumeek sektoreko erabakiguneetan duten parte hartzearen argazkia*. Egiazki, argazki-collagea litzateke. Bertan deskribatzen dira: sektorea emakumeen begietatik, (ustezko) gizonen mundua; elkartegintza; batzordeak; bilera espazioak, emakumeen pertzepzio eta bizipenen arabera; bilera espazioen antolamenduaren erradiografia; emakumeak bazkidetza, ordezkarietza, delegazioarekiko; adinaren, genero ikuspegiaren eta parte hartzearen arteko harremana; elkarriketatutako nekazal-emakumeek nola ikusten dituzten sektoreko emakumeak.

Laugarren azpiatalean jasotzen dira emakumeen eta erakundeetako galdetegiak bete dituztenen iritzi eta ekarpenak erabaki organoetan *emakumeen parte hartzea erraztu eta oztopatzen duten elementuen* inguruan. Banaka elkarriketatutako emakumeek beraien parte hartzearen inguruan egiten duten *balantzea* ere bildu da.

Bosgarren azpiatala *ENE*ren inguruan ardatzen da. Banakako elkarriketak, erakundeei zuzendutako galdetegiak eta topaketa kolektiboak kontuan hartuta, *ENE*ren ezagutza, lanketa, eragina, balorazioa, gabeziak eta lasterbideak aztertu dira.

Seigarren azpiatalean bai aurrez aurreko banakako elkarriketetan, bai elkarteei helarazitako galdetegietan, bai talde lan saioetan jasotako *proposamenak* bildu dira, nekazal-emakumeek sektoreko erabaki organoetan duten parte hartzea hobetzearen bidean erabilgarriak izango direnak. 3 kategoriatan banatu dira: norbanakoaren eskura dauden ekintza edo neurriak; erakunde mailan bultzatu daitezkeenak; eta administrazioek egin beharrekoak.

Zazpigarren azpiatalean lanaren *ondorioak* jaso dira.

AIPATUTAKO LANAK atalean, *bibliografia* bildu da.

ERANSKINAK atalean, *Emakume Nekazarien Estatutua* erantsi da.

SARRERA

Ikerlan honek Emakundek 2020. urtean emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzeko ikerlanak egiteko beka-deialdian du jatorria, 3. motako bekaren esleipenaren bitartez. Beka mota horren helburua da erabaki soziopolitikoak hartzeko eremuetan emakumeek duten sarbidea, parte-hartzea eta eragina aztertzea, eta ekimenak eta estrategiak bilatzea emakumeen ahalduntze politikoa, ekonomikoa eta soziala eta lidergoa mesedetzeko eta sistema patriarkala aldatzen edo gaunditzen laguntzeko.

Aurrean duzuen dokumentu honek nekazal emakumeen esferara eraman du azterketa; eta, zehatzago, emakume horiek sektoreko organo ezberdinetako (erakunde, elkarte, sindikatu...) erabakiguneetan duten parte hartzera.

Aurrerago sakonago azalduko diren bi arrazoi nagusik justifikatzen dute esparru horietako emakumeen egungo egoeraren azterketa, eta horien ahalduntze eta lidergoa mesedetu eta sistema patriarkala aldatu edo gaunditzeko ekimen eta estrategien bilaketa: batetik, emakume horien berariazko ezaugarriak, non genero rolek eta mandatuek pisu handia izan duten erabakiguneak eratu eta horien parte-hartzaileak hautatzerako orduan; bestetik, 2015etik existitzen delako lege bat nekazal-emakumeen parte hartzearen inguruko neurri zehatzak proposatzen dituen, egoera horri buelta emateko.

Administrazioak definitutako neurrien eta erabakiguneetan beraien denbora eskaintzen eta beraien gorputza jartzen duten emakumeen artean dagoen distantzia ezagutu nahi izan da. Horregatik, lan honen bidez, honakoa bilatu da: elkarteetan eta horietako zuzendaritza-organoen osieran murgiltzea; elkarteotako kide diren emakumeengan iristea; arreta berezia jartzea profil parte-hartzaile baxua duten emakumeengan eta horren zergatietan; eta, horrekin guztiarekin, modu kolektiboan bilatzea emakumeen ahalduntzerako eta haien parte-hartze eraginkorrerako baliagarriak izango diren ekimen eta estrategiak.

ABIAPUNTUA

Sarreran aurreratu den bezala, ikerlan honen abiapuntuan bi ardatzek egiten dute bat:

1. Batetik, nekazal-emakumeak.
2. Bestetik, Emakume Nekazarien Estatutuak (8/2015 Legea), eta, bereziki, nekazal-emakumeen parte hartze eta ordezkartzeari dagokion atala.


Jarraian, ardatz bakoitza azalduko da modu soilean, hango eta hemengo ahotsak erabiliz, lanean zehar landutakoak kokatu eta ulergarriagoak izateko laguntza eskaintzeko asmoarekin.

1 NEKAZAL-EMAKUMEAK

Entitateak kontuan hartuz gero, eta ez udalerrriak, EAEko azaleraren %88 landa-eremua izango litzateke. Horrek berekin dakar ezaugarri hauek izatea¹:

- Lehen sektorearen Balio Erantsi Gordina > %3
- Biztanleak < 2.000 bizt
- Dentsitatea < 100 bizt/km²

Horrek esan nahi du, lurraldearen gainerako %12a eremu urbano edo erdi-urbanoa dela.



1 Irudia: EAEko azalera (%): Landa-eremua ezkerrean eta gainerakoak eskuman (2020).


Hala ere, biztanleriari erreparatuz gero, EAEko biztanleriaren %11 bizi da landa-izaerako entitateetan, eta %89 gainerakoetan.

¹ Iturria: Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzako Estatistika Organoa.



2 Irudia: EAEko biztanleria (%): Landa-eremuan bizi direnak ezkerrean eta gainerako eremuetan bizi direnak eskuman (2020).

Bi datu horiek gainjarriz gero, zera ondorioztatzen da: EAEko lurraldearen azalera gehienak biztanle kopuru txiki bat hartzen duela, eta azalera-eremu txiki batek biztanleriaren zatirik handiena.




3 Irudia: EAEko landa-entitateen azalera eta biztanleria ezkerrean, eta gainerako azalera eta biztanleria eskuman, ehunekotan (2020).

Irudi horrek honakoa adierazten du: landa-eremuetara begirada luzatzen duten biztanleen %89k, landa-eremutik kanpo kokatutako toki batetik egiten duela.

Datu hori funtsezkoa da ulertzeko nola izan daitekeen hain premia eta aukera espezifikoak dituen ingurune zabal horrek, proportzioan, hain arreta txikia izatea (postal turistikoaz edo igandeko ibilaldiaz harago). Ez dago landa-eremuaren nolakotasunaren ulermen kokaturik, eta begiradek eta beharrek talka egiten dute askotan.


Gure gaiarekiko hurbilketan beste pausu bat emanez, landa-eremuko biztanleen %49 dira landa-eremuko emakumeak.



4 Irudia: EAEko landa-entitateetan azalera eta biztanleria (%); emakumeen ehunekoa landa-eremuko biztanleriarekiko; landa-eremuko azalera eta bertan bizi diren emakumeen ehunekoa EAEko biztanle kopuru osoarekiko (2020).

Baina gaur egun oraindik mantentzen den iruditeria kolektiboarekiko kontrajartzen dira hainbat kontu. Horien artean, landa-eremuko emakumeak eta nekazal jarduera zuzenean lotzen dituen ustea.


Ondoko grafikoak erakusten du zein den landa-eremuko emakumeen eta nekazal-jardueraren arteko lotura: %58ak ez du inongo loturarik sektorearekin; nekazal-jarduerarekin lotura duten gainerako %42tik, %71ak autokontsumokoa du (guztizko %30); eta nekazal-sektoretik beraien diru sarrera denak, gehienak edo zati bat jasotzen dutenen ehunekoak batuta, landa-eremuko emakumeen %12a osatzen dute (Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzako Estatistika Organoa, 2016). Nekazal-jarduerarekin lotura duten emakumeak EAEko guztizko biztanleriaren %2,3a dira.



1 Grafikoa: EAEko landa-eremuko emakumeek nekazal-jarduerarekin duten harremana (2016).

Hortaz, landa-eremuko emakumeak nekazal-sektorean aritzen ez badira, zein sektoretan dute enplegua?


Gaur egun, landa-eremuan bizi diren emakumeen %75ak zerbitzuen sektorean egiten du lan; %9ak industrian, %1ak eraikuntzan; %8ak nekazal-sektorean; eta gainerakoek beste batzuetan (Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzako Estatistika Organoa, 2016).



2 Grafikoa: EAEko landa-eremuko emakumeen sektoreak lan-ordainduaren jardura nagusiarekiko (2016).

Zenbaki horiek modu egokian interpretatzeko, kontuan hartu behar da landa-eremuan aktibak diren emakumeen ehunekoa (%78), hau da, estatistiken arabera enplegua izateko tarte horretan kokatzen direnak, eta landa-eremuko emakumeen aktibitate-tasa, horien artean enplegatuak izan ahal diren estatistik zenbatak diharduten horretan (%46). Horrek erakusten du beraien lan ordainduaren jardura nagusitzat nekazal jardura duten emakumeak EAEko guztizko biztanleriaren %0,15 suposatzen duela, datu ofizialei men eginez.

Hortaz, aurreko bi grafiken informazioa sinplifikatuz, EAEko guztizko biztanleriarekiko honako ehunekoak dira landa-eremuko emakumeei, nekazal-jarduerarekin lotura duten landa-eremuko emakumeei eta beraien lan-ordaindua nekazal-jardueran kokatzen duten emakumeei dagozkienak.



5 Irudia: EAEko landa-entitateetan bizi diren emakumeak; nekazal-jarduerarekin lotura duten landa-eremuko emakumeak; beraien jardura nagusia nekazal sektorean garatzen duten landa-eremuko emakumeak. EAEko guztizko biztanleriarekiko ehunekoak.

Horrekin ez da esan nahi zifra txikia dela-eta garrantzi gutxikoa denik, ezpada kontrakoa: jarraian ikusiko diren aspektuak medio, landa-eremuko emakumeak, nekazal-jarduerarekin lotura dutenak eta jardura hori bizimodu dutenak funtsezkoak dira eremu horien mantenu eta bizirautean.

Hala ere, zera hartu behar da kontuan: datu ofizialetan oinarrituta eraiki dela argazki hori, eta mapak ez du zertan lurraldea izan.

Adibidez, profesionalki lehen sektorean aritzen diren emakumeen % 40 parte hartzen duten ustategien titular edo titularkide gisa agertzen dira (Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzako Estatistika Organoa, 2016:24). Datu positiboa dirudi, baina kontuan hartuta sektorean profesional gisa agertzen diren emakumeen kopurua txikia dela, adorea jaisten hasten da. Eta are gehiago apaltzen da honako errealitate hau ikustean:

1. Titular edo titularkide gisa agertzen diren emakume askok ez dute ustategietako benetako gerentziarik egiten.
2. Beraien parte hartze eta ordezkaritzari dagokionez, nekazal-erakunde eta -elkarte gehienetan emakumeek ordezkaritza txikia dute (ez dago datu zehatzik). Eta, gainera, horrek ere ez du esan nahi erabakiak hartzeko foro horietara doazenik.

Ohiko jardunbideei erreparatuta, bizitza osoan ustategietan lan egin duten emakume asko dago, baina lan hori ez da aitortu, eta, horregatik, ez du eskubiderik sortu ere. "Familia-laguntza" deitu zaio emakumeen nekazaritza-lan gehienak bere baitan hartu dituen figurari. Funtsean, emakume horien eta haien lanaren ikusezintasun formala eta normalizatua izan da.

Elementu guzti horiek eta gehiago aztertuko dira hurrengo ataletan nekazal-emakumeen parte hartze eta ordezkaritzari lotutako iraganeko dinamikak eta egungo egoerak ulertu, eta aurrerabidea irudikatzeko.

LANDA-EREMUKO EMAKUMEAK

Feminismotik autokritika egin behar dugu, isiltasuna gorde delako herrialde industrializatueta landa-eremuko emakumeen inguruan (Rodríguez Palacios, 2021).

Jakina den arren jada feminismoaz hitz egitea baino egokiagoa dela feminismoez hitz egitea, berdintasun eta aniztasunaren aldeko begiradari adi eta zoli egotea tokatzen zaio, erne, opresio eta bazterketak ahalik eta ertz anitz eta aberatsenetatik identifikatzeko. Pribilegioa beti suertatzen delako eroso eta errotiko eraldaketaren aurkako.

XX. mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadara arte feminismoaren korrante nagusia zenak, diskurtso akademiko eta eztabaida sozialean gailentzen zena, eta, tamalez, unibertsaltzat hartu zena edozein testuingurutan aplikagarria zelako usteaz, oso emakume eredu zehatza zuen: zuria, klase ertain edo altukoa, mendebaldekoa... eta hiritarra edo urbanoa.

Emakume horien ikusezintasun hori azaltzeko arrazoi bi eskaintzen ditu Rosario Sampedrok (1996):

- o Landa-eremua bazterreko espazio gisa hartu da, jendarte eta kultura hiritarrak xurgatua izan edo desagertzera kondenatutako atzerapen-eremua.

- Emakumea eta landa-eremua "objektutzat" hartu izan dira tradizioz, gizonen eta hiriaren aurrean, horiek aldaketa sozialaren subjektu kontsideratuz.

Hala ere, Rodríguez Palaciosen hitzetan, landa-inguruneke emakumeen azterketan teoria feministaren edo genero-teoriaren paradigma sartzeak informazio garrantzitsua eskaini du horiek jendartea eraldatzeko duten gaitasunari buruz.

Autore berdinarekin jarraituz, ezerk landa-ingurunearen gizarte-egitura ezaugarritzen badu familiaren nonahikotasuna litzateke hori, honakoen unitate gisa: produkzioa eta kontsumoa, elkarbizitza, elkarren arteko laguntza eta sozializazioa. Nekazaritzako familia-ustiategiak funtsezko unitate horren adibide dira bai ekoizpen- eta erreprodukzio-espazioetan, lan- eta familia-harremanetan, familia-rolen eta -hierarkien arteko identitatea eta lan-antolamenduaren egitura. Familiak tarte txikia utzi izan dio bere kideen indibidualismo ekonomikoari, eta arlo publikoaren/komunaren eta pribatuaren/pertsonalaren arteko banaketa argirik ez egotea dago jokabide pertsonalei buruz, batez ere emakumeenez, gazteentzat hain iraingarria den "kontrol sozial" horren oinarrian.

LANDA-EREMUA

Landa-mundua oso aldaketa sakonak jasaten ari da azken hamarkadetan, eta eraldaketa horren ezaugarri argiena nekazaritza-jarduerak landa-nortasunaren bi dimentsio horietan (ekonomikoa eta sinbolikoa) duen zentraltasun-galera da (Sampedro, 1999). Hala, landa-eremua nekazaritza baino zabalagoa bada ere, nekazal-jarduera ikusten dena baino askoz gehiago da (Vera eta Rivera, 1999), jarraian ikusiko den bezala.

Nekazal-jardueraren funtzioak, labor

Nekazaritza Politika Bateratuak (NPB) aitortzen du nekazal-jarduerak hainbat funtzio onuragarri eskaintzen dizkiola jendarte osoari, lehengai eta elikagaien ekoizpen hutsetik harago doazenak. Horrek sektoreko ikuspegi batetik lurraldeko ikuspegi baterako jauzia ematea dakar. Hala jaso da 2013ko erreforman ere (Fichas técnicas sobre la Unión Europea, 2021). Terminoak berak eztabaida sortu du eremu akademikoan planteatu zenetik (Atance Muñiz & Tió Saralegui, 2000; Murua Múgica, Eguia Peña, Malagón Zaldua, & Albiac Murillo, 2006). Silva Pérezek azterketa zehatza egiten du gaiaren inguruan, eta honako hurrenkera deskribatzaileak jaso (Silva Pérez, 2010:11): **FUNTZIO EKONOMIKO-PRODUKTIBOA** (elikagaiak hornitzea, nekazaritzako elikagaien merkataritza eta eraldaketa sustatzea, aisialdiko espazioak hornitzea); **INGURUMEN-PAISAIAREN FUNTZIOA** (klima-aldaketaren mitigazioa, biodibertsitatearen sustapena, ur-baliabideak, lurzoruen babesa, paisaiak sortzea, kutsadurak); eta **FUNTZIO SOZIOKULTURALA** (elikagaien segurtasuna / osasungarritasuna, enplegua sortzea, bideragarritasun ekonomikoa, kultura ondarea).

Muñiz Espadaren hitzetan, landa-munduak berezkoa du funtzio-aniztasuna; beharrezkoa da nekazal-politikak eta landa-garapeneke politikak bateratzeko beharra onartzea, osotasun zatietan

baten zati gisa, non emakumeak garrantzi berezia duen, biztanleria iraunkor baten giltzarri den aldetik (Muñiz Espada, 2002).

Ezaugarri demografiko esanguratsuak

Rodríguez Palacios (2021) Sampedro Gallego (1996) aztertutako landa-munduaren ezaugarri demografiko batzuk jaso ditu, ikerlan honen protagonisten testuinguruaren inguruko gakoak eskaini ditzazketenak:

Emakumeen gehiegizko emigrazioak eragindako **MASKULINIZAZIOA**, aldi berean honako hauek eragindakoa:

- A) Lanaren banaketa soziala: hirian emakumeen eskulana eskatzen duten enplegu asko daude.
- B) Nekazaritza-jabetzaren jaraunspen-sistema, gizonei mesede egiten diena eta emakumeen deserrotze-joera areagotzen duena.
- C) Emakumeak ezkontza- eta familia-eremutik kanpo laneratzeko eta gizarteratzeko aukerarik ez izatea.

Populazioaren maskulinizazioak familien egoera zibila eta tamaina baldintzatzen ditu, sexuaren arabera bereizita; izan ere, gizonezko ezkongabe gehiago daude eta gizonezkoen familia-nukleoaren tamaina txikiagoa da. Jaiotza-tasa txikia denez, landa-ingurunearen etorkizuna bermatzeko belaunaldien arteko ordezkapena oztopatzen da.

Gazteek eta, bereziki, emakumeek landa-eremua uztea eragin duten **MIGRAZIO SELEKTIBOAK**. Emakumeek landa-eremuari uko egiten diote eta nekazariekin ezkontzeari uko egiten diote, neurri handi batean familiek beraiek bultzatuta. Goi-mailako prestakuntza duten emakume gazteen kasuan, fenomeno horri "ihes ilustratua" esaten zaio. Emakume gazteen emigrazio horrek landa-biztanleriaren piramideei eragiten die; izan ere, piramide horietan emakume gehiago ageri dira gailurrean, bizitza luzeagoa dutelako. Egoera hau kezkagarriagoa da landa-gune txikienetan. Emakumeen biztanleriaren galera horren arrazoi nagusietako bat enplegu-aukerarik eza da, eta horri gehitu behar zaizkio gizarte-egitura bera eta tradizioz haiei esleitutako rola.

LANDA-BIZTANLERIAREN ZAHARTZEA, aurreko ezaugarrien ondorioz. Landa-zahartzearen feminizazioaz hitz egin daiteke. Biztanleriaren zahartze horrek landa-ingurunean mendekotasun-egoeran dauden pertsonetako bizikidetzako egoerak areagotzen ditu, eta horrek zaintzaileen lan-kargan eragiten du, emakumeak oro har, eta horrek murriztu egiten ditu lanean, politikan edo gizartean parte hartzeko aukerak.

Lehenik eta behin, argitu nahi da "emakume" hitza erabiltzen denean horren zentzu biologiko eta kulturalean erabiltzen dela, emakume-sexua kultur eraikuntza bezala.

Rodríguez Palacios (2021) jasotzen duenez, azken batean, landa-eremuko emakumeak egoera bitxi batean aurkitu dira, non lan egitearen eragozpen guztiak pairatu dituzten, eta ia inolako abantailarik ez. Emakumeek egoera horren aurrean izan duten erreakzioa izan da hiri-izaerako etxekotasunaz gozatzeko edo "benetako" enplegua lortzeko borroka egitea, hau da, produkzioaren edo erreprodukzioaren esparruan norberaren posizioa definitzea.

Hori lortzeko biderik errazena (etxekotasuna edo enplegua) herriak abandonatzea izan da, eta hirian harreman modernoa bilatzea jarduera ekonomikoarekin, ezkontzaren edo soldata bat lortzearen bidez.

Landa-eremuko emakumeak bertako biztanleriaren %49a dira (2020)².

Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzako Estatistika Organoak lau urtez behin argitaratzen du *Las Mujeres en el Medio Rural Vasco* dokumentua. 2008an hasi eta 2020an zen laugarren azterlana argitaratzekoa, baina urte horretan lehertutako osasun larrialdiak plangintza aldatu eta 2021 urte amaieran ateratzea dago aurreikusia. Urte berdineko datuak alderatze aldera, 2016ko dokumentua erabiliko da datu-iturri bezala. Landa-eremuko emakumeak biztanleriaren %48a ziren 2016an. *A priori*, ez litzateke zertan hain datu txarra izan, baina landa-eremuko biztanleriaren kopuru murrizta (guztizko biztanleriaren %4,7, eta emakumeen kasuan %4,4), eta emakume horien batezbesteko adina kontuan hartuta (%42a da 55 urtetik gorako landa-eremuko emakumeen ehunekoa), panorama ez da hain abegikorra.

Hala ere, emakume horiek bizi diren eremuari eusteko berebizikoak diren funtzioak betetzen dituzte.

Landa-eremuko emakumeen funtzioak, labor

Rodríguez Palacios (2021) honako funtzioak jasotzen ditu, Martínez León, Navarro Ríos, Martí de Olives eta de Miguel Gómez (2009) lanean oinarrituta:

FUNTZIO PRODUKTIBOA. Landa-eremuko emakumeek oraindik ere zailtasunak dituzte eremu publikoan sartzeko: jarduera-tasa txikiagoa dute gizonek baino, eta langabezia-tasa handiagoa. Lanbide-aukera desberdinen arabera, baldintza hauek dituzte:

A) *Jarduera ekonomiko baten titularrek*, oro har, eskubide berberak dituzte genero-bereizketarik egin gabe, Gizarte Segurantzaren kotizatuz eta jardueraren emaitzetatik datorren

² Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzako Estatistika Organoa.

ordainsari ekonomikoa jasoz. Hala ere, enpresa nekazaritzakoa edo abeltzaintzakoa bada, estatus horrek ez du esan nahi ustiatetikiko buruak direnik, kasu askotan senarrak edo lankideak baitira ustiatetikiko buru.

Emakumeek kudeatutako nekazaritza-ustiatetikien tamaina batez bestekoa baino txikiagoa da. Mugek eta zailtasunek, ingurune horretan dagoen errenta-maila txikiarekin batera, ohiko nekazaritza-jardueraren ordezkotik enplegu-aukera berriak agertzea erraztu dute, eta horrek lan-aukera berriak irekitzen dizkie emakumeei. M^a Consuelo Díez Bedmarren ustez (2007), historian zehar, landa-eremuetako emakumeek zientzia garatu dute. Botanikaren, farmakopearen eta espezialitate mediko batzuen jatorria emakume horiek garatutako naturaren behaketan eta ezagutzan dago.

Enplegu-arlo berri horiek eragiten dituzten aldaketa esanguratsuak gehiago datoz emakumeek jarduera horiek gauzatzaile nagusi gisa egiten dituztelako, nekazaritza- edo abeltzaintza-jarduera tradizionalak direnean maiz betetzen duten rol osagarria alde batera utzita.

B) *Familia-laguntza* gisa familia-enpresan lan egiten duen emakumeak oso egoera zehaztugabea bizi du landa-eremuan, eta bereziki nekazal-sektorean. Etxekoandre gisa duen zereginari nekazaritzako eta/edo abeltzaintzako lanetan egiten duen lana gehitzen zaio, kolaboratzaile ez-produktibo gisa, inolako ordainsari ekonomikorik gabe eta Nekazaritzako Erregimen Berezikotik kotizaziorik gabe, ezkontide eta seme-alabei lehentasuna ematen zaielako emakumearekiko; beraz, emakumeak ez du estatistiketan parte hartzen, ez sozialki, ez politikoki. Nekazal-ustiatetia da ordaindu gabeko etxeko erreproduktzio-lanaren eta ordaindutako produktzio-lanaren arteko nahasmendua hobekien islatzen duen osatura sozioekonomikoa³: bikote baten lanean oinarritutako familia enpresa bat da, non emazteak bere senarrari eguneroko zereginetan laguntzen dion. Beraz, emakumeak esplotazioan egiten duen lana osagarritzat jo da, lan horrek familia eta ustiapenari eusten dion gizarte-ehuna eusten duen arren (Muñiz Espada, 2002:4).

C) *Soldatapeko lana*. Garrantzitsua da, batez ere nekazaritzan eta agroindustrian. Lan-indar handia eta egonkorra da, eta malgutasuna ematen die ustiatetiei, jarraitutasunik gabeko aldietan ekoizpen-sistemak eskatzen dituzten eskulan-beharren arabera.

Las Mujeres en el Medio Rural Vasco 2016ko azterlanean jasotzen da EAEn ordaindutako lanaren figurapean daudela landa-eremuko emakumeen %75; atzetik doaz enpresari eta autonomoak (%23) eta azkenik kooperatibistak (%2).

Sektoreei erreparatuz gero, ordaindutako lanean ari diren emakumeen artean zerbitzuen sektorea nabarmentzen da, emakumeen % 75ekin (EAE osoan % 87tik gorakoa da ehunekoa); industria-sektoreak hartzen ditu landa-eremuko emakumeen ordaindutako lanaren % 9 inguru, eta eraikuntzak, berriz, % 1,3, EAEko ehuneko orokorraren antzera.

Nekazal-sektoreari dagozkio landa-eremuko emakumeen lan ordainduen % 8.

FUNTZIO SOZIALA. Batez ere, emakumeek dute familia-unitateari eusteko ardura, eta, haien dedikazioaren bidez, mendekotasuna duten pertsonen zaintza eta ongizatea bermatzen dute,

³ Martínez León, Navarro Ríos, Martí de Olives eta de Miguel Gómezek (2009) Millánen (2002) hitzak jasotzen dituzte, eta honek, era berean, García Bartolomérenak (1999). Harena da aipua.

adinekoen, haurren, dibertsitate funtzionala duten pertsonen eta gizarte-bazterketako taldeen zaintza eta ongizatea kasu. Gizarte-lan garrantzitsu hori bereziki baliotsua da, nahiz eta ez den aitortua. Emakumeen lan ikusezinaren oinarria da gainera, landa-ingurunea, hain zuzen ere, horrelako pertsonen beharrei erantzuteko zerbitzu publiko nahikorik gabeko eremua baita orokorrean (hautzaindegiak, geriatrikoak, hezkuntza bereziko zentroak). Horrez gain, emakume horiek zeregin garrantzitsua dute herrietako bizitza soziala suspertzeko, kultura- eta artisautza-tradizioei eusteko eta horiek eguneratzen laguntzeko; baliabide turistiko eta ekonomiko bihurtzeko.

FUNTZIO KULTURALA. Oro har, landa-eremuko emakumeak arduratzen dira kultura-tradizio ugari kontserbatzeaz eta transmititzeaz, eta tradizio horiek denboran zehar jarraitu dute emakumeek eskainitako lanari eta nekaezintasunari esker. Horien bidez, belaunaldiz belaunaldi, elikadurarekin lotutako jakinduria gastronomiko izugarria kontserbatzen eta transmititzen da, hala nola artisau-kontserbak edo baratzeak produktuen errezeta bereziak egitea urtarotetan zehar. Jarduera horiek gastronomia hutsa gaintzen dute, beren lan espezializatuarekin eta antolatzeak moduarekin panorama kulturalaren eta herrien bizi-eritmoen eraikuntzan parte hartuz, haien idiosinkrasian eraginez.

Aipatzekoak dira, halaber, artisau-lanak, hala nola ehungintzarekin lotutako jarduerak (bolatxoak ahokatzeko, brodatzea, kakorratza, etab.). Herrien kulturari ekarpena egiteaz gain, kalitate handiko ondasunen ekoizpena sortzen dute, eta, hain zuzen ere, jarduera ekonomiko errentagarrien sorgune berriak izan daitezke, landa-garapenerako politikak gauzatzen laguntzeko. Emakumeak bereziki prestatuta daude horretarako.

INGURUMEN-FUNTZIOA. Beren produkzio-funtzioaren garapenean, landa-eremuko emakumeek lehentasuna ematen diete ingurumena errespetatzen duten ekoizpen-sistemei, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoari kasu (titular gisa agertu ohi dira).

Gainera, emakumeek ekoizpen-jarduerak egiten dituzten bitartean, inguruko lekuak eta parajeak mantentzeaz arduratzen dira, landa-eremua kudeatzen dute, paisaia bizirik mantentzen dute eta baliabide naturalak zaintzen dituzte.

Jakina da gaur egun landa-eremuko emakumea profil oso anitzek osatzen dutela, eta aipu hau ekarri da hori adierazteko:

Landa-eremuko amalgama honetan, esan behar da bertako emakumeen taldea nekazal-emakume edo nekazarien emazteek osatutakoa baino talde anitzagoa direla. Bertan aurki daitezke oso teknifikatuta dauden nekazaritza-ustategiak bakarrik edo beste norbaitekin kudeatzen dituztenak, jarduera aniztasuna naturaltasun handiz praktikatzeko dutenak, ustategi ekologikoak sortzeko ekimena hartzen dutenak, landa-turismoaren negozioari ekiten diotenak, gero eta garatuago dagoen zerbitzu-sektorean lan egiten dutenak, landa-eremuarekin harreman berriak asmatzen eta (ber)asmutzen dituztenak; asteburuetako egoiliarrek aisialdia dela-eta, beste herrialde batzuetako jornalariak... batzuk adinekoak dira, beste batzuk helduak, badaude itxaropen zehatz batzuk dituzten gazteak, berdinaren arteko esperientziak biltzen dituzten emakumeak, baita ezberdinen artekoenak ere (Baylina Ferré & Salamaña i Serra, 2006:108).

Dibertsitate horrek, are beharrezkoagoa egiten du beraien ahotsa entzunaraztea, errealitate aberats eta harilkatu horren adierazgarri:

Emakumeek landa-ingurunearekin duten harremanaren esperientzia eta bizipen ugariak direla eta, beharrezkoa da erantzun gehiago aztertzea, haien konplexutasun aberatsa ikusaraztea, haien beharrak eta asmoak ezagutzea, eragile eragingarri gisa dituzten ahalmenak goratzea eta ezinbestean agenda politikoan sartzea (Baylina Ferré & Salamaña i Serra, 2006:108).

LANDA-EREMUKO EMAKUMEAK ETA NEKAZAL-JARDUERA

Dokumentu honen hasieran jaso diren datuak berreskuratuko dira, testuingurua eraikitzeko. Landa-eremuko emakumeen unibertso horretan, 2016ko *Las Mujeres en el Medio Rural Vasco* dokumentua idazteko inkestari erantzun zioten emakumeen % 42k adierazi zuen nolabaiteko harremana zuela nekazaritzarekin edo abeltzaintzarekin. Harreman hori autokontsumotik hasi eta dedikazio profesionalera artekoa izan daiteke. Azpimarratzekoa da landa-eremuko emakumeen %58k ez duela inongo harremanik nekazal-jarduerarekin.

Lurralde historikoei erreparatuz, Arabak du nekazaritzarekin lotura txikiena (%33,3), baina diru-sarrera gehienak edo guztiak dituzten etxeen ehuneko handiena (% 23). Gipuzkoan eta Bizkaian, familia horiek % 12 eta % 8 dira, hurrenez hurren. Adin-taldean arabera, 65 urtetik gorako emakumeak dira nekazaritza-sektorearekin lotura handiena dutenak (% 61), baina guztizkoaren % 4 baino ez da nekazaritza-ustategi profesionala, eta ehuneko hori % 25eraino igotzen da 40 eta 64 urte bitarteko emakumeen familien artean.

Nekazal-jarduerarekin harremana duten nekazal-etxeen %72k duten harremana autokontsumokoa dela adierazi dute. Hortaz, etxe horiek ezin dira nekazal-ustategizat hartu. Talde horretan sartzen dira, halaber, nekazaritzatik edo abeltzaintzatik diru-sarreraren zati bat soilik lortzen dutenak (% 16), nekazaritza ez baita haien diru-sarreraren iturri nagusia.

Datuetan sakondu ahala, gero eta garrantzi handiagoa hartzen dute nekazal-jarduerarekin harremana duten emakumeek, eta, bereziki, profesionalki horretara jarduten direnek. Urregorria dira.

Ikerlanean zehar ikusiko da emakumeen profesionaltasunak ertz irristakorrak dituela papera denean horren euskarri eta berme. Hala ere, ustategi familiarretan egunez egun diharduten emakumeek zailtasun jakin batekin egiten dute topo: lanen izaeren eta espazioen banaketa. Jarraian hamarkada ezberdinetako aipuak jasoko dira, azkena 2018koa.

“Etxeko lanen izaera eta irismena, ikusezina dena, dibertsifikatu eta zabaltu egiten dira familia-erabilerako ondasunen ekoizpenera bideratutako etxe-ustategietan, sakabanatutako habitata nagusi den lekuetan. Etxe-familiaren eta ustategiaren arteko integrazio espazial horren garrantziak ondorio garrantzitsuak ditu nekazal-emakumeen errealitatean. Etxean zenbait erosotasun ez izatea, harreman sozialen intsularizatzea eta ordaindu gabeko lan multidimentsionala dira, antza, ondorio nagusiak” (Vicente-Mazariegos, 1989:212).

“Izan ere, emakumeen zailtasunetako bat ustategian bertan egindako lanaren, etxeko lanaren eta landa-lan jakin batzuen arteko banalerroa egitea da. Esan bezala, emakume nekazariak

familia-esplotazioan egiten duen lana bi aldiz ikusezina da, etxeko lanak ez ezik, kontabilizatzeko zailak diren ustiategiko ekoizpen-lanen zati handi bat ere hartzen duelako” (Muñiz Espada, 2002:5).

“Baserriko emakumearen zereginak elkarri lotuta eta gainjarrita datoz: ez dago ordutegirik. Gainera, zaintza-lanen aintzatespen eskasak areagotu egiten du emakumearen karga sinbolikoa” (Urkidi Azkarraga, 2018:373).

Emakumeen lanaren aintzatesperaren inguruko azalpen interesgarri bat jaso da jarraian:

(Nekazal-arloko) “Lan femeninoak ez du gizonarena mehatxatu behar (Gasson, 1981) eta horregatik ‘laguntza’ hitza erabiltzen da. Nekazaritzaren alorrean hain errotuta dagoen kontzeptu hori da emakumearentzat lan-perbertsio handienetako bat: emakumeak ez du lan egiten, lagundu baizik. Dirudienez, ekoizpen-lan jakin batzuk ez ditu egiten merkataritza-arrazoi batengatik, familiako gizonari laguntza desinteresatua emateko bokazioagatik baizik. Berriz ere, gizona arrazoiaren (diruaren) alde mugitzen da eta emakumea emozioaren alde (maitasunaren alde)” (Urkidi Azkarraga, 2018:370).

Aldiz, tradizioz, gizonak bi funtzio betetzen ditu: titularra eta ustiategiko burua (Muñiz Espada, 2002:5). Hau da, lan produktiboan kokatu izan da (ziurrenik, lan produktiboaren esfera batzuetan emakumeen lan ikusezinari dagozkionak bere ardurapeko kontsideratu gabe), ordezkari eta ikusgarri. Behin eta berriz ikusiko da lerro eta mugak bi aldeetara ez dutela berdin funtzionatzen, ez diotela irakurketa berari erantzuten.

NEKAZAL-EMAKUMEEN PARTE HARTZEA

Nekazal-erakunde sozioekonomikoetan, nekazal-sektoreari eta landa-garapenari eragiten dieten neurriak benetan hartzen diren eremuetan, emakumeen presentzia eta parte-hartzea oso urria da, eta horrek erabakiak hartzerako unean oso maskulinizatutako sektorea dela ondorioztatzea ekar dezake, egunez eguneko landa-lanean hala izan ez arren (Millán Jiménez, 2002).

Millán Jiménez (2002), funtsezko hiru arrazoik azaltzen dute emakumeen parte-hartzerik eza:

- Lehenengoa jendartean eta nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak egiten dituen emakumearengan berarengan **ENPRESA-KONTZIENTZIARIK EZ IZATEA** oinarritzen da. Etxekoandre gisa egiten duen lana, halaber, beste lan horietara ere hedatzen da, eta ez da inola ere kontuan hartzen familia-enpresa bat dela, bera ere enpresaburua baita, bere ondarea eta lan pertsonala ere eman baititu gehienetan.
- Bigarrena **EMAKUMEA IZATEAGATIK DUTEN LAN PILAKETA ITZE**lean oinarritzen da; izan ere, nekazal-lanez gain, bere gain hartzen ditu ia osorik etxeko lanak, eta etxearen, seme-alaben eta adinekoen zaintza. Oraindik ere landa-ingurunean etxeko erantzukizunen banaketarik ez dagoenez, gizonak ordezkatzeko du esplotazioa publikoki.

Landa-inguruneke hurbileko gizarte-zerbitzuen sarea edo garraio-sareak oraindik ez dira nahikoak, eta horrek ideia hori indartzen laguntzen du.

Eremu horretan lan egin behar da, emakume nekazarien eta abeltzainen alderdi profesionala behar bezala eta bete-betean garatzeaz gain, hori guztia beren familia-bizitzarekin guztiz uztartzeko.

- Hirugarrena, neurri txikiagoan bada ere oraindik existitzen dena, **ERAKUNDEEN HERMETISMOA**n oinarritzen da. Erakunde horien osaera nagusiki maskulinoa da, eta kideek oraindik ere emakumeari botere-partzelak lagatzea gai horren gaineko jabari absolutu eta eskusiboaren galera konponezin gisa ulertzen jarraitzen dute.

Eta honako aldarrikapena egin:

Guztiei eragiten dieten erabakiak guztiek hartu behar dituzte, eta emakumea landa-ingurunean erabakiak hartzeko prozesuan sartzeari funtsezkoa eta premiazkoa da; gure zaintza eta lana merezi ditu eginkizun horrek.

2 EMAKUME NEKAZARIEN ESTATUTUA (ENE)

2015eko urriaren 15ean, Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunean, Eusko Legebiltzarrak aho batez onartu zuen Emakume Nekazarien Estatutua⁴ (8/2015 Legea, urriaren 15ekoa, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzkoa), eta 2015eko urriaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko 200 zenbakian argitaratu zen.

Emakumeek nekazaritza-sektorean duten lan-egoera arautzeko helburuarekin sortu zen estatutua, haien lana duintzeko, ikusarazteko eta arautzeko, bai eta ustategien titulartasuna eskuratzea sustatzeko ere. Estatutuak genero-ikuspegia txertatzen du lehen sektorean; emakume nekazarien eskubide profesionalak, sozialak eta fiskalak modu eraginkorrean gauzatzeko neurriak jasotzen ditu.

Lege hori ikerlan honek abiapuntu dituen bi ardatzetako bat izateko arrazoia da ikergaiarekin bete-betean egiten duela bat araudi horretako III. tituluak (emakumeek nekazaritza-sektorean duten ordezkartza buruzkoa), eta, zehazki, 19. artikulua (emakumeek gizartean eta politikan duten parte-hartzeari buruzkoa).

Nekazaritza-sektoreko erakunde profesionalen erabaki-organoetan emakumeen parte-hartzea zuzenean sustatzen duen lege berritzailea da, eta, horretarako, nekazaritzaren arloan eskumena duten euskal administrazioek erakunde horiei laguntza publikoak ematearekin lotzen du emakumeen ordezkartza. Hala ere, kontu horretan buru-belarri sartu aurretik estatutuaren argazki azkar bat jasoko da.

⁴ Ikerlanean zehar, askotan, ENE laburdura erabiliko da lege horri erreferentzia egiteko.

ESTATUTUA: ABIAPUNTUA ETA EGITURA

Estatutuak ZIOEN AURKEZPENA atalean azaltzen ditu hona labur ekarri diren puntuak.

Estatutua onartzeko arrazoiak:

Emakume nekazarien estatutu bat onartzeko arrazoiak da **emakumeek nekazaritzaren sektorean jasaten duten bereizkeriari aurre egiteko beharra**: batik bat, profesionaltzat joak eta gizartean aintzat hartuak izateari dagokionez, bai eta beren eskubide profesional, sozial eta fiskalak egiaz gauzatzeari dagokionez.

Zein da abiapuntua?

Estatutu honen abiapuntuan **emakume nekazarien eskubideak** daude, eta eskubide horiek egiaz gauzatzea bermatzeko herri-administrazioek dituzten betebeharrak zehazten ditu. Hortaz, lege honek beharrezko neurriak jasotzen ditu nekazaritzaren sektorean emakumeek eta gizonen tratua eta aukera berberak izatea lortzeko eta genero-ikuspegia sektorearen arlo guztietan sartzeko, emakumeen eta gizonen baldintzak eta beharrak diferenteak izaki.

Horrela, honako aspektuak azpimarratzen dira estatutuko lehen atal horretan, abiapuntu horren testuinguruan: titulartasuna, sektoreko kontratazioak, gazteak, erabakimena eta ordezkaritza, arduren banaketa, lan-arriskuen prebentzioa, sexu-jazarpena eta jazarpen sexista.

Atal berberak⁵ adierazten du Emakume Nekazarien Estatutu horrek ez duela aurrekaririk araudian, nahiz eta estatutuak lantzeko gomendioak eta baita aginduak ere ugari izan. Estatutuaren osakeran eragina izan duten lege-mugarriak biltzen ditu, Europa mailatik hasi eta EAE mailaraino.

Azkenik, estatutuko hitzak erabiliko dira bere egitura argi eta labur azaltzeko; letra txikiz ekarri da hitzez hitz hark dioena. Letra lodiak gehitu zaizkio.

Estatutuak hogeita hamaika artikulua ditu, hiru xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bost azken xedapen. Sei titulutan egituratuta dago: xedapen orokorrak, nekazaritza-ustategien titulartasuna, **emakumeen ordezkaritza sektorean**, gizarte-eskubideak, haien lana aintzatestea eta ikusaraztea eta, azkenik, estatutuaren segimendu-batzordea.

I. tituluan, xedapen orokorre berraztertzeko, estatutuaren **xedea** eta oinarrian dituen **printzipioak** definitzen dira. Orobat, **definizioak** dituen artikulua bat dago: horietako batzuk kontzeptu orokorrak arau honen esparrura moldatzeko dira; eta gainerakoetan, beste arau batzuetan definituta dauden kontzeptuak bildu dira, testu hau errazago ulertu eta erabiltzeko.

II. titulua emakumeek nekazaritza-ustategien **titulartasuna** eskuratzeari buruzkoa da. Emakume nekazariak titulartasuna eskuratzeko neurriak jasotzen ditu. Titulartasun partekatuen figura garrantzi handiko tresna izatera deitua dago, nekazaritzaren sektorean emakumeen eta gizonen arteko benetako eskubide-berdintasuna lortzeko; estatutu honek sustatzen du, bizikidetzaren unitateko kide biek lana ustiatzeko egiten dutenean, ustategiaren

⁵ ZIOEN AZALPENA.

titulartasun-araubide horri heltzea, laguntzak ematean eta esleipenak egitean ustategi horiek lehenetsiz, bai eta emakume nekazariak Gizarte Segurantzari afiliatzeko laguntzak finkatuz.

III. titulua **emakumeei nekazaritzaren sektorean dagokien ordezkaritza**ren ingurukoa da. Hor, esku hartzeko hiru arlo nabarmentzen dira, tratatu bereizia ematen zaienak: Administrazioa eta haren enpresak; **profesionalen erakundeak eta elkarteak**, eta **enpresa pribatuak**. Hirurek izendatzaile komun bat dute: emakumeek nekazaritza-politikan parte hartzeko duten eskubidea gauzatzeko eta emakumeak baliozko solaskidetzat hartzea haien interesak eta beharrak ordezkatzeko dituzten politikak bultzatzeko lanean. Arlo horiek diferente tratatuak dira; batetik, epe diferenteetan lortzeko modukotzat jotzen diren helburuengatik, eta bestetik, eta batez ere, helburu horiek lortzeko erabili nahi diren neurriengatik. **Legeak helburu batzuk finkatzen ditu, eta epe batzuk ezartzen; epe horiek bukatzean, helburuak bete diren ebaluatu beharko da.**

IV. tituluaren, **gizarte-eskubideei buruzkoan**, lan-arlo batzuk azpimarratzen dira; beren berezitasunagatik nekazaritzaren sektorean berariazko tratamendua ezarri behar zaiela pentsatzen da. Horrela da ardura partekatuko **kontziliazioari** dagokionez, nekazaritza-jarduera ziurtatzeko duten programak bermatzeko; edo **emakumeen aurkako indarkeriaren edo jazarpenaren** arazoei dagokionez, sektore horretan ingurune itxiago eta bakartuago batean gertatzen baitira eta horrek zaildu egiten baitu prebentzioa eta arreta.

V. tituluaren helburua da nekazaritzaren **sektorean emakumeek egin eta egiten duten lana ikusaraztea eta aintzatestea**. 4/2005 Legean ezarritakoa bildu eta sektore horretara moldatzen du, emakumeak bereziki ikusezin izan diren sektore batean haien lanaren errealitatea beti kontuan izango dela ziurtatzen saiatzeko.

VI. tituluaren, azkenekoan, lege honetan xedatutakoa betetzen den egiaztatzeko **segimendu-batzordea** sortzen da. Izaera teknikoa eman nahi izan zaio; horrela, kargu publikodun bakarrek dago harentzat ezarritako osakeran, landa-garapenera gaian eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzako titularrak, eta kasu horretan, gainera, eskuordetza aurreikusten da. Irizpide tekniko berarekin, ebaluazioak egin eta txostenak lantzeko zeregin zehatzak esleitzen zaizkio batzordeari.

Estatutua eranskinetan oso-osorik atxiki da, ikerlanean zehar zenbait atalei egingo zaielako erreferentzia.

ENE-REN ERAIKUNTZA PROZESUA. HURBILKETA XUME BAT.

Hasierako abiapuntua den argazkiaren eta legearen onarpenaren arteko tartean, nola harilkatu dira eragile ezberdinen bultzadak? Zein izan da eraikuntza-prozesua? Iturri ezberdinetatik edan da ibilbide hori berrikusteko: garaian alde teknikoan egon zen pertsona bat; kargu politikoa izan zuen bat; nekazal-emakumeen elkarte bateko ordezkaria; nekazal-sindikatu bateko ordezkaria. Egia esan, nori galdetzen zaionaren arabera alde handia dago prozesu horren deskribapenean. Ez da ikerlan honen helburua orduan jazotako kontakizun sakona egitea, estatutuaren garapen-prozesuaren koordinatuak eskaintzea baizik; gainera, koordinatu horiek ondorengo gertaerak ulertu ahal izateko gako interesgarriak eskaini ditzakete.

2004an Landa-Emakumeen Batzordea sortu zen. Landa-eremuan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburuarekin Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun sailak bultzatu zuen lantaldea izan zen, gaurdaino dirauena. Hurrengo kideek osatzen dute: Landa Eremuko emakumeen elkarteak (Landa XXI, Arabako Landa Eremuko Emakumeen Sarea, Gure Soroa eta Hitzez Baserriko Emakumeen Elkartea), Foru Aldundiek (Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza saila, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasuna eta Ingurune Naturaleko saila eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako saila), Emakundek, HAZI Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzak.

Talde horren sorreran sartuta egon zen pertsona baten adierazpenen arabera, Batzorde horren zereginetako bat izan zen estatutua sortzea. Gainera, Batzorde hori eratzen zutenen artean motibazio handiko zenbait pertsonak egin zuten bat, eta, horrek, eragina izan zuen prozesuaren indar eta bultzadan.

Sasoi hartarako 90. hamarkadan probintzia ezberdinetan sortu ziren nekazal-emakumeen elkarteak lan izugarria egin zuten emakumeen topagune izan, beraien ahotsak jaso eta horiei tokia egiten. Nekazal-emakumeen ikusgarritasunaren alde ekimen interesgarri ugari gauzatu zituzten gainera: erakusketak, artistekin elkarlanak, antzezlanak... Sektoreko sindikatuaren ere aldaketa usaina nabaritu zitekeen, eta horren adierazgarri gorena izango zen 3 emakume biltzen zituen Arabako UAGA sindikatuaren zuzendaritza-batzordea 2007-2011 aldirako. Atmosfera hori gorpuzten joan zen pixkanaka.

2008an 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. Lege horrek 75. artikuluan jasotzen zuen "Emakume Nekazarien Estatutua eta ekintza positiboak bultzatzeko politikak" egiteko agindua. Sektoreko emakumeen aldarrikapenak hasiak ziren oihartzuna izaten.

Hala ere, ezin da ahaztu 2005ean 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa onartu zela. Lege horrek, ordura artekoarekin alderatuta, gaiekiko hurreratze berri bat eskaini zuen, eta berdintasunaren oinarriak sektorerantz eramanez.

Estatutua egiteko komisia bat sortu zen. Komisia horretan zeuden hiru aldundietako ordezkariak, Landa XXI elkarteak, Arabako Landa Eremuko Emakumeen Sarea, Gure Soroa elkarteak, Hitzez

Baserriko Emakumeen Elkartea, Emakunde, Eudel, ENBA eta EHNE sindikatuak, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak eta idazkari bat.

Oso dinamika aktiboa eraman zuen komisiok, eta 2009 amaiera 2010 hasieran existitzen ziren jada estatutuaren inguruko lehen dokumentuak.

2011ko martxoan, Landa Eremuko Emakumeen Batzordeak Laguardiako Adierazpena⁶ aurkeztu zuen. Testu horretan, gizarte, politika eta ekonomia arloetan emakumeek zuten parte-hartzearen inguruko gogoetak eta aldarrikapenak bildu zituzten. Dokumentuak 2010eko urriaren 15eko Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunean Biasterin egin zen lan saioan izan zuen jatorria. Bertan, landa eremuko 300 emakume baino gehiago elkartu ziren, eta emakumeek nekazal-sindikatuetan, elkarte profesionaletan eta eremu politikoan zuten papera eta ordezkaritza aztertzen zituzten.

Adierazpen hartan jasotakoak ekarri dira ikerlanean zehar azaldutakoekin zerikusi estua dutelakoan. Duela 10 urte panoramaren diagnostiko argia egina zegoen jada.

- Landa eremuko emakumeok ez dugu parte hartzen gizonen baldintza beretan landa eremuan erabakiak hartzen diren esparruetan; eta desberdintasun horiek handiagoak dira postuek aintzatespen handiagoa dutenean.
- Berdintasunez parte hartzeko aurkitzen dugun oztopo nagusietako bat erantzukizun partekaturik eza da: zaintza-lanak ez partekatzea (bai umeenak eta bai adineko pertsonenak edo/eta menpekotasuna dutenenak). Zaintzari balioa eman behar zaio, eta denok ikasi behar dugu egiten, balioa eman behar diogu, eta partekatu egin behar dugu.
- Erabakiak hartzeko postuetan emakumeok zalantzan jartzen gaituztela sentitzen dugu oraindik, gure lekua ez balitz bezala eta egin ezin bagenu bezala; geure burua justifikatu beharra daukagula eta gaitasuna gizonen baino gehiago erakutsi behar dugula ematen du. Hori dela eta, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunerantz jotzeko, aldeztu aurretik pentsatutako ideia horiek gaingitu egin behar dira, eta egiten dugun lanari eta ekarpen guztiari balioa eman; gainera, gure esperientziak ikuspuntu eta aukera berriak eman ditzake, eta orain arte proposatu diren ikuspuntuez bestelako aukerak.
- Zenbait postutan parte hartzeko, emakumeok, askotan, gure bizitzako aukera garrantzitsuak baztertu edo atzeratu behar izaten ditugu: adibidez, amatasuna. Oztopo horiek gaingitu egin behar dira.
- Erabakigune horietan parte hartzea gizonen beharretatik abiatuta antolatu da (bileren ordutegiak, etab.). Hori dela eta, ez garela antolamendu horretara moldatu behar uste dugu, baizik eta emakumeen eta gizonen beharrak aintzat hartuko dituzten lanak egiteko modu berriak ezarri behar direla.

⁶ <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/5090-las-mujeres-del-medio-rural-presentan-declaracion-laguardia>

- Emakumeen jabekuntza pertsonala eta kolektiboa ezinbesteko estrategia da, berdintasunerantz jotzeko. Garrantzitsua da berdintasunean hezten jarraitzea.

- Gizonak berdintasunean hezi behar dira.

- Belaunaldi berriek kezkatu egiten gaituzte, eta arlo horretan lana egin behar dugu, berdintasun faltsu baten ustean besoak uztartuta gera ez daitezen.

Hausnarketa horiek bide bati ekiten laguntzea espero dugu, gure etorkizuna erabakitzen den guneetan denok baldintza berberetan egon gaitezen.

2012ko ekainean Emakume Nekazariaren Estatutuaren Lege Proiektua onartu zen, baina urte hartako hauteskunde autonomikoen aurreratzeak Eusko Legebiltzarreko tramitazioa bertan behera geratzea ekarri zuen.

Azkenik, **2014**ko uztailaren 8an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak, Arantza Tapiak, Emakume Nekazarien Estatutuaren aurreproiektua aurkeztu zuen, emakume nekazarien aintzatespen profesionalerako lege gisa.

2015eko urriaren 15ean, Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunean, Estatutua aho batez onartu zen Eusko Legebiltzarrean. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoa nekazaritza-sektorean emakumeen lan-egoera erregulatzen duen lehen erkidegoa bilakatu zen.

Legearen onarpenetik aurrerako ibilbidean, azpimarratzekoa da **2017**an Europako Parlamentura eraman zela Emakume Nekazarien Euskal Estatutuaren eredua balizko Emakume Nekazarien Europako Estatutua egiteko ekarpen-iturri gisa, eta ekarpen horiek Europatik New Yorkera egin zutela salto, Nazio Batuen Erakundearen egoitzara, **2018**an.

2018ko urtarrilaren 23an eratu zen Estatutuaren Jarraipen Batzordea, haren betetze-mailaren jarraipena egiteko. Estatutuaren Idazkaritza Teknikoa ere urte berean eratu zen.

Maila politikoan, Eva Lopez de Arroyabek, EH Bildu taldeko legebiltzarkideak, interpelazio bat aurkeztu zion Arantza Tapi sailburuari **2018**ko martxoan, Emakume Nekazarien Estatutua abian jartzeko Eusko Jaurlaritzak hartu beharko lituzkeen neurriei buruz. Nekazal-emakumea izateaz gain, estatutuaren sorrera prozesuan parte hartu zuen Lopez de Arroyabek, eta gaiarekiko utzikeria salatu zuen.

2018ko abenduan egin zen Emakundek antolatutako Berdintasunerako XV. Foroaren barruan “Nola bultzatu emakumeen parte hartzea Nekazaritza Sektoreko erakundeetan?” izeneko jardunaldia, Arkauteko Zalditegietan. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordetzaren erakunde hauek antolatu zuten: NEIKER-Tecnalia, ELIKA Fundazioa eta HAZI Fundazioa.

Jardunaldi horrek lehen sektoreko enpresentzat 2015eko urrian indarrean sartu zen Emakume Nekazarien Estatutua abian jartzeko gida bat izan nahi zuen.

2021eko irailean, lan hau bukatzeaz zegoela, dirulaguntza bi argitaratu zituen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak:

1. Antolaketa-aldaketarako laguntzak. Emakume Nekazarien Estatutuaren 19. artikulua eragiten dien erakundeek laguntza tekniko kontrata dezaten, diagnostiko bat eginez antolaketa-aldaketako prozesu bati ekiteko.
2. Emakume nekazariak aintzatesteko laguntzak. Emakume nekazarien lana aintzatestea dakarten irabazi-asmorik gabeko erakundeek egindako ekintzak finantzatzeko. Jarduketak 2021eko edozein unetan hasi ahal izan dira, eta, beraz, dagoeneko hasita dauden jarduerak jaso ahal izango dituzte laguntza horiek, betiere Aginduan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

ENE ETA NEKAZAL-EMAKUMEEN ORDEZKARITZA

Esan bezala, ikerlan honek ENErekin duen lotura nagusia nekazal-emakumeen ordezkari eta parte hartzeari buruzko III. tituluan kokatzen da. Egituran jaso den paragrafoa joko da berriz, hitzak nabarmenduz:

III. titulua emakumeei nekazaritzaren **sektorean dagokien ordezkariaren ingurukoa** da. Hor, **esku hartzeko hiru arlo** nabarmentzen dira, **tratu berezia** ematen zaienak: Administrazioa eta haren enpresak; profesionalen erakundeak eta elkarteak, eta enpresa pribatuak. Hirurek **izendatzaile komun bat** dute: **emakumeek nekazaritza-politikan parte hartzeko duten eskubidea gauzatzea eta emakumeak baliozko solaskidetzat hartzea haien interesak eta beharrak ordezkatzeko dituzten politikak bultzatzeko lanean**. Arlo horiek diferente tratatuko dira; batetik, epe diferenteetan lortzeko modukotzat jotzen diren helburuengatik, eta bestetik, eta batez ere, helburu horiek lortzeko erabili nahi diren neurriengatik. Legeak helburu batzuk finkatzen ditu, eta epe batzuk ezartzen; epe horiek bukatzean, **helburuak bete diren ebaluatu** beharko da.

Artikulu horretako lehenengo puntuak emakumeen parte hartzeko eskubidea aldarrikatzen du.

19. artikulua.– Parte-hartze sozial eta politikoa.

1.– Emakume nekazariak baliozko solaskidetzat hartuak izateko eskubidea dute haien interesak eta beharrak ordezkatzeko dituzten politikak bultzatzean, autonomia susta dadin eta haien maila sozial, ekonomiko eta politikoa indar dadin.

Artikuluaren bigarren puntuan, zuzendaritza-organoetako ordezkaritza orekatua lortze aldera, hirugarren puntuaren eraginpean dauden elkarte eta erakundeei zuzendutako berariazko prestakuntza-planak martxan jartzea aurreikusten da.

2.– Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek sustatuko dute emakumeen presentzia gutxienez orekatua izan dadin nekazaritzaren arloan jarduten duten profesionalen, enpresen, sindikatuen edo bestelakoen elkarte eta erakundeen zuzendaritza-organoetan. Horretarako, elkarte eta erakunde horiei zuzendutako berariazko prestakuntza-planak martxan jarriko dituzte.

Hirugarren puntuan, arau zehatz bat ezartzen da:

3.– Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek ez diete ez laguntzarik ez diru-laguntzarik emango nekazaritzaren arloan jarduten duten profesionalen, enpresen, sindikatuen edo bestelakoen elkarte edo erakundeei, baldin zuzendaritza-organoetan emakumeen presentzia gutxienez orekatua ez badute. Estatutu honen bigarren xedapen gehigarrian adierazten den bezala ezarriko da neurri hori.

Esan beharra dago hau izan dela estatutuak jasotako arloan zalaparta handiena sortu duen puntua. Eta bigarren xedapen gehigarriak zera dio:

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Laguntzak elkarte eta erakundeei.

Alde batetik, laguntzak kuantifikatzeko irizpideetan lortu daitekeen puntuazioaren inguruko zehaztapenak eskaintzen ditu 1 puntuan:

1.– Nekazaritzako elkarte eta erakundeei ematen zaizkien laguntzak kuantifikatzeko irizpideetan guztira lor daitekeen puntuazioaren %15 balioko du, gutxienez, emakumeen presentziak: lege hau indarrean sartu ondorengo lau urteetan egiten diren deialdietan, nekazaritzako elkarte eta erakundeen zuzendaritza-organoetan emakumeak egoteak; eta hurrengo hiru urteetan, haien presentzia gutxienez orekatua izateak.

Eta, bestetik, sektoreko erakundeek dirulaguntza publikoak jasotzen jarraitzeko baldintzak, letra lodiak gehituta:

2.– Lege hau **indarrean sartu ondorengo lehen lau urteak igarota**, nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek ez diete ez laguntzarik ez diru-laguntzarik emango nekazaritzaren arloan jarduten duten profesionalen, enpresen, sindikatuen edo bestelakoen elkarte edo erakundeei, baldin **zuzendaritza-organoetan**

emakumerik ez badute; eta sei urteren ondoren, ez zaie emango zuzendaritza-organoetan emakumeen presentzia gutxienez orekatua ez dutenei.

Zer esan nahi du horrek? ENE 2015eko urriaren 22an sartu baldin bazen indarrean, lehen lau urteak igarota, hau da, 2019ko urriaren 22tik aurrera, gutxienez emakume bat izan behar zutela sektoreko elkarte eta erakundeek zuzendaritza-organoetan laguntza eta dirulaguntzak jasotzen jarraitzeko; eta, sei urteren ondoren, hau da, 2021eko urriaren 22tik aurrera, emakumeen presentzia gutxienez orekatua.

19. artikuluko azken puntua ekartzea falta da, eta garrantzitsua da bertan segimendu batzordeak salbuespenak jartzeko duen ahalmena jasotzen delako:

4.– Segimendu-batzordeak salbuespenak jarri ahal izango ditu; horrela, eskaerak balioesteko ardura duen administrazio-organoak estatutu honek finkatutako emakumeen partaidetza ezin dutela bete egiaztatzen duten elkarte eta erakundeen kasuak segimendu-batzordeari igorriko dizkio, eta segimendu-batzordeak aztertu egingo ditu eta irizpena igorriko dio eskaerak balioesteko ardura duen administrazio-organoari. Ezinezkoa dela ulertuko da, baldin eta elkarteko edo erakundeko emakumeen kopurua txikiagoa bada presentzia orekatua izateko ordezkaritza-organoetan parte hartu beharko luketenen bikoitza baino.

Baina zein da segimendu-batzordea? Nola dago eratuta? Zeintzuk dira bere funtzioak?

ZIOEN AZALPENENKO laburpen paragrafoa berreskuratu da, letra lodiak gehituz:

VI. tituluan, azkenekoan, **lege honetan xedatutakoa betetzen den egiaztatzeko segimendu-batzordea** sortzen da. **Izaera teknikoa** eman nahi izan zaio; horrela, kargu publikodun bakarra dago harentzat ezarritako osaeran, landa-garapenaren gaian eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzako titularra, eta kasu horretan, gainera, eskuordetzea aurreikusten da. **Irizpide tekniko berarekin, ebaluazioak egin eta txostenak lantzeko zeregin zehatzak esleitzen zaizkio** batzordeari.

Eta, jarraian, VI. TITULUA bera jaso da.

VI. TITULUA SEGIMENDU BATZORDEA

Hasteko, **osaketa**:

29. artikulua.– Sorrera eta osaera.

1.– Lege honetan xedatutakoa betetzen den egiaztatuz segimendua egiteko, segimendubatzerde bat sortzen da, eta kide hauek izango ditu:

- a) Landa-garapenaren gaian eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzako titularra edo hark ordezkari izendatzen duena. Batzordearen buru izango da.
- b) Nekazaritzaren gaian eskumena duen saileko berdintasunerako administrazio-unitateko langileen artean hautatutako pertsona bat.
- c) Nekazaritzaren gaian eskumena duen zuzendaritzako langileen artean hautatutako pertsona bat.
- d) Nekazaritzaren gaian eskumena duen saileko lege-aholkularitzako langileen artean hautatutako pertsona bat.
- e) Foru-aldundien ordezkari bana, nekazaritzaren gaian eskumena duten sailetakoak.
- f) Emakunderen ordezkari bat.
- g) Landa Eremuko Emakumeen Batzordearen ordezkari bat.
- h) Eudel Euskadiko Udalen Elkartearen ordezkari bat.
- i) Hiru ordezkari Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren arloko ordezkaritza handieneko sindikatuenak.

2.– Gaiaren berezitasunagatik beharrezkoak baldin badira espezialistak edo zerikusia duketen beste pertsona batzuk, eta horiek batzordekide ez badira, batzordeburuaren eskariz deitu ahal izango zaie.

3.– Batzordean, emakumeek presentzia orekatua izango dute.

Jarraian, **funtzioak**:

30. artikulua.– Funtzioak.

1.– Segimendu-batzordeak aztertuko du lege honen xedeak zenbateraino betetzen diren, eta urtero txosten bat egingo du, non ebaluatuko baita, bereziki, II, III eta IV. tituluetan xedatzen diren neurriek nolako eragina duten sektorean. Ahalik eta zabalkunderik handiena emango zaio txosten horri.

2.– Ikusten bada ez direla betetzen ari hartutako betebeharrak edo ezarritako helburuak, edo aurreikusitako epeetan ez direla lortzen ari, Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordeari berariazko komunikazio bat bidaliko zaio atzematen diren ez-betetzeen ingurukoa.

Eta, azkenik, **funtzionamendua**:

31. artikulua.– Funtzionamendua.

Segimendu-batzordeak berak finkatzen dituen arauak beteko ditu, eta arau horien ordezkaria izango da, kide anitzeko organoei dagokienez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa.

2018ko urtarrilaren 23an eratu zen Estatutuaren Jarraipen Batzordea, haren betetze-mailaren jarraipena egiteko. Estatutuaren Idazkaritza Teknikoa ere urte berean eratu zen.

Ikerlan hau abiatu zenean, idazkaritza teknikoari galdetu zitzaion ea estatutuaren xedeak zenbateraino bete ziren jakiterik zegoen. 2019ko denbora-mugarria igarota hasi ziren datu horiek jasotzen, eta 2020ko ariketako datuen zain zeuden bien arteko aldea ikusteko. 2020ko martxoan lehertutako osasun-krisiak datu-bilketa zaildu zuela adierazi zuten.

Estatutuak, aitzindaria izaki, ez zuen erreferenterik izan ez haren diseinuan, ezta ondoren aplikatzerakoan ere.

Lanketa fasean bertan desadostasun gehien sortu zituen puntua izan omen zen emakumeen ordezkartzari zegokiona, eta gero ere hori izan da buruhauste gehien ekarri dituen.

IKERKETA LANA

1 MARKO TEORIKO-METODOLOGIKOA

Hainbat modu eta ikuspegik eratzen dute ikerlan honen marko teoriko-metodologikoa; denek ala denek norabide berean egiten dute beraien ekarpena. Guztien arteko hibrido bat litzateke, hortaz, egiaz gidatu duena.

Atal honetan jasoko dira hibrido hori identifikatzeko koordinatuak, ikertzaile ezberdinen aipuekin eratuko direnak. Hitz eta kontzeptu horien tarteko espazioan kokatzen da ikerlan hau. Mugariak honakoak izango dira: ikerketa feminista, geografia feminista, metodologia kualitatiboa, teoria oinarritua eta ikerketa ekintza parte-hartzailea.

IKERKETA FEMINISTA

Abiapuntu teoriko-metodologikoa ikerketa feministaren gakoetan aurki daiteke.

“Epistemologia feminista batek generoa zentralizat hartzen du ezagutza sortzerakoan, eta ikerketa prozesu osoan duen eragina onartzen du. Generoa garrantzitsua da galderak egiten direnetik ikerketaren emaitzak irudikatzen diren arte. Ikertzaile feministek generoari buruzko galderak egiten dituzte hasieratik” (Baylina Ferré, 2004:9).

Unibertsaltasunaren kritika

Autore berdinen lan ezberdinak harilkatuz, ikerlan honen DNA kodetuko da, ikerketa feministaren ezaugarriak jarraituz. Unibertsaltasunarekiko kritika izango da horietako bat, lan honetan emakumeen esperientziak eta emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak ikertuz gaiarekin lotutako emakumeen bizipenetatik abiatuta.

“Feminismoak azken hogeitun urteetan egin duen ekarpen nagusietako bat zientziaren maskulinizazioa ikusaraztea izan da” (Baylina Ferré, 2004:17-18).

“Oro har eta Gilberten (1994) diskurtsoari jarraituz, genero-ikuspegitik egindako ikerketak, lehenik eta behin, unibertsaltasuna kritikatuko du; hau da, baztertu egiten da gizonei buruz egindako ikerketak dagoeneko gizateria osoa ordezkatzeko duelako ideia, eta emakumeen esperientziak eta emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak ikertzearen alde egiten da, haien eguneroko bizitzatik abiatuta” (Baylina Ferré, 1997:132).

Intersubjektibotasuna

Objektibotasuna zalantzan jarriko da, eta analisiaren beraren parte izango den subjektuen arteko harremana ezarriko da. Intersubjektibotasunaren alde egingo da.

“Objektibotasuna zalantzan jartzen da, ikerketa orotan posible eta desiragarri den zerbait hori bezala. Ikertzaileak eta ikertutako pertsonak posizionamendu edo jarrera bat dute, eta analisiaren beraren parte den subjektuen arteko harremana ezartzen da” (Baylina Ferré, 1997:132).

“Beraz, objektibotasunaren eta subjektibotasunaren arteko fusioa dago (Eyles, 1993; Moss, 1993), intersubjektibotasuna, eta horrek zientzia tradizionalarekiko desberdintasun erradikala markatzen du” (Baylina Ferré, 1997:133).

Helburu emantzipatorioa

Ikerlan honek ikergaiarekiko emakumeen egoera hobetzen laguntzeko borondate argia du, eta aldaketa soziala eragiteko ekarpen gisa planteatzen da.

“Emantzipatzeko asmoa agerian uzten da; suposatzen da ikerketa emakumeentzat egiten dela, haien bizitzak hobetzen laguntzeko. Linda McDowellek (1988) azpimarratzen duen bezala, eremu akademikotik ‘bizitza erreal’era igarotzea oso estimulagarria da, aldaketa soziala helburu duen ikerketa batean lan egiten delako” (Baylina Ferré, 1997:133).

Aurreko hiru puntuak batuz,

“Garrantzitsuena ez da ikertzailearen eta ikertuaren jarrera subjektiboak berdinak izatea, baizik eta datuak biltzeko eta ikerketa zabaltzeko estrategiak bat etortzea ikertzen ari den pertsonaren ezaugarri, esperientzia eta premiekin” (Baylina Ferré, 2004).

“Emaitez agerian utzi dute feminismoaren printzipio teorikoek eta praktikak jarduera ez-neutraltzat hartzen dutela zientzia, eta, beraz, aztertzen ari den errealitatearen aldaketarekin konprometitu dagoela; eta horren helburua ezagutza esperientzia subjektibotik abiatuta eraikitzea da, zientziaren ustezko objektibotasuna eta subjektuaren eta ikergaiaren arteko bereizketa baztertuz” (Baylina Ferré, 2004).

Aipatutakoez gain, ezin da alde batera utzi ikertzailearen posizioa zein den. Zerrenda bat gauzatu da botere-harremanen koordinatuak interpretatzen laguntzeko bere pribilegioak esplizitatzetik abiatuta, bai landa-lanerako materiala prestatzerako garaian, landa-lana bera egiterakoan zein ondoren interpretatzerakoan. Arreta berezia jarri da kontu horretan, eta ondorengo hiru aipuek eraikitzen dute markoa:

“Botere-harremanak ezinbestean existitzen dira, eta ondorio jakin batzuk eragiten dituzte ikerketan; beraz, horiek aitortzeak aukera eman behar digu haien ondorioak arintzeko edo berdintasunezko harreman bihurtzeko. Ildo horretan, areagotu egin dira ikertutako pertsonen lankidetzak sustatzen duten eta zuzenago inplikatzeko dituzten metodoak, elkartasun-loturak sortzen dituztenak eta pribilegioen aurka borrokatzeko aukera ematen dutenak (McDowell,

1988, 1992; Townsend et al., 1994; Esim, 1997; Baylina, 1997; Prats, 1998; Monk et al., 2002)” (Baylina Ferré, 2004:19).

“Ikertzailearen posizioa (generoa, klasea, adina, etnizitatea, sexualitatea...) ez da soilik botereari dagokionez, baizik eta ikertuarengana nola jotzen dugun eta emaitzak nola interpretatzen ditugun (WGSG, 1997)” (Baylina Ferré, 2004:19-20).

“Azken batean, geografoek metodo parte-hartzaileak bilatzen dituzte (Cotterill, 1992), helburu nagusizat hierarkikoak ez diren eta manipulaziorik ez duten ikerketa-harremanak sortzea dutenak, elkarriketatzailaren eta elkarriketatutaren arteko distantzia ezabatzeo gai direnak” (Baylina Ferré, 1997:132).

PROZESUA ETA EMAITZAK

Bai prozesuaren egikaritzean zein emaitzen interpretazio eta elaborazioan, ikerlariaren eta parte-hartzaileen arteko harremanean botere-dinamika tradizionalak hausteko formulengatiko hautua egin du, gardentasuna eta zaintza ardatz hartuta.

Elkarlana eta gardentasuna

“Emaitzen irudikapenean, genero-ikuspegiak, ikertzailearen eta ikertuaren arteko botere-dinamika tradizionala hausteko formulen bilaketan eragiten du (adibidez, emaitzen eztabaida parte-hartzaileekin, edo horien egilekidetasuna (Townsend, 1995, 1999), ikerketaren koprodukzioa, elkarlaneko ikerketa (Monk et al., 2002; Manning et al., Manning et al., 2002), edo pertsonengan eragin zuzenagoa izan dezaketen hainbat forotan emaitzak azaltzea (politikarientzako txostenak, prentsa, telebista, etab)” (Baylina Ferré, 2004:10).

“Adibidez, garrantzitsua da azpimarratzea ikerketa-prozesuaren alderdi guztietan gardentasuna funtsezko irizpidea dela sinesgarritasuna eta emaitzekiko konfiantza handiagotzeko” (Baylina Ferré, 2004:19).

LABURBILDUZ

“Ikerketa feminista batek kontuan hartu behar du anbiguitasuna, konplexutasuna, ez-unibertsaltasuna, subjektibotasunaren rola, posizionaltasuna eta gogoeta ikerketa-prozesuan, eta, azkenik, aldaketa sozialerako konpromisoa” (Baylina Ferré, 2004:20-21).

GEOGRAFIA FEMINISTA

Geografia feminista da marko honen bigarren premisa, jarraian azpimarratzen diren alderdiengatik:

Generoa eta lekua

Generoaren geografia ezinbesteko tresna da bizi garen tokia hainbat prozesuk nola eraikitzen duten ulertzeko, prozesu horien emaitza den toki horrek gure arteko harremanak nola zizelkatzen dituen ezagutzeko, eta, aldi berean, horien eraginak aztertzeko. Gizon eta emakumeek lekuekiko duten harremana ezberdina da. Generoak eta lekuak elkar osatzen dute oraino. Lekua testuinguru geografikoaz gaindi doa, eta kultura-espazioarekin uztartuz, mundu-ikuspegi jakin batean kokatzea dakar.

"Generoaren geografia "prozesu sozioekonomikoek, politikoek eta ingurumenekoen, bizi garen lekuak ez ezik, gizonen eta emakumeen arteko harreman sozialak sortzeko, erreproduzitzeko eta eraldatzeko moduak aztertzen dituen geografia da, eta, era berean, genero-harremanek prozesu horietan eta horiek espazioan eta ingurunean dituzten adierazpenetan duten eragina aztertzen du" (Little et al., 1988:2)" (Baylina Ferré & Salamaña i Serra, 2006:100).

"Geografia feministak dio gizonak eta emakumeak modu desberdinean kokatuta daudela munduan, eta bizi diren lekuekin duten harremana ere desberdina dela. Eta desberdintasun horiek emakumea gizonarena baino beheagoko postu batean kokatzen duten desberdintasunen ondorio dira, non zapalkuntza jasaten duen hainbat espazio eta denboratan (McDowell, 2000)" (Baylina Ferré, 2004:8).

"(...) generoak eta lekuak elkar osatzen dute, eta, gaur egungo jendartearen eguneroko bizimoduaren ezaugarri diren mugikortasuna eta globalizazioak dakartzan eredu homogeneizatzailerak gorabehera, lekuak oraindik ere garrantzitsuak dira" (Baylina Ferré & Salamaña i Serra, 2006:100).

"Horrekin guztiarekin, lekua funtsezko elementu bihurtzen da genero-rolen eta -harremanen analisisian (...). Izan ere, lekuaren kontzeptuak esanahi oso zabala hartzen du, testuinguru geografikoaren eta testuinguru kulturalaren batura irudikatuz. Geografiak espazio fisikoari eta espazio horrek beste espazio batzuekin duen loturari eta bereizketari buruzko informazioa ematen du, eta feminismoak kultura-espazioaren edo ezagutza kokatuaren nozioa ematen du (Hanson, 1992), pertsona bakoitzaren mundu-ikuspegia ezinbestean taxutu eta modelatzen duen kultura-espazio batean kokatzea bezala ulertuta" (Baylina Ferré, 1997:130).

Emakumeak landa-eremuko azterketatan

"Landa-eremuko ikasketak, genero-ikuspegitik, hirurogeita hamarreko hamarkadan hasi ziren Europan, eta haien helburu nagusia emakumeak ikusaraztea da; geografo feminista guztiek bat egiten dute erabaki politiko horrekin, ikerketa geografikoko subjektu gisa emakumeen

absentzia zuzentzeko (Hanson & Monk, 1982; WGSF, 1984; García Ramon et al., 1988; Sabaté, 1989; Bowlby et al., 1989)” (Baylina Ferré, 2004:11).

“Hasiera horietan, emakumeak ziren aztergai, eta arreta gutxi jartzen zen emakumeen eta gizonen arteko genero-harremanetan. Munduko hainbat lekutan emakumeei eta haien jardueri buruzko informazioa emateko materiala sortzea zen helburua; hau da, Doreen Mattingly eta Karen Falconer-Al-Hindik (1995) adierazten duten bezala, haien absentzia emakumeak aintzat hartuz zuzentzea, emakumeek jendartearentzat garrantzia zutela erakusteko. Euren bizitzei buruz ikertzen zen, eta talde homogeneo bat bezala hartzen ziren, gizonen bizitzekin gertatzen ez zen bezala. Hala, bada, geografia feministaren helburu nagusia zen erakustea nola emakumeak diziplina geografikotik kanpo uzten ziren, eta, oro har, soldatapeko lanaren eta politikaren esparru publikotik” (Baylina Ferré, 1997:129).

Emakumeetatik genero-harremanetarako jauzia

“Enfasia emakumeetatik genero-harremanetara aldatzeak honakoen inguruko lan teoriko konplexuagoa dakar: generoaren eraikuntza espazialaren barietatea, eta maskulinitatea eta feminitatea espaziotik espaziora aldatzeko modu espezifikoak, baita klase, arraza, adin, sexu-eta kultura-identifikazio ezberdinen artean ere (England, 1994; Kobayashi, 1994)” (Baylina Ferré, 2004:13).

Genero-harremanak eta epistemologia feminista

“Epistemologia feminista oinarritzkoa da landa-gizartea aztertzeko, generoak jakintzat hartzen den horretan duen eragina kontuan hartzen baitu, baita gizartean eraikitako genero-rolek eta -harremanek jakintza horren produkzioan duten eragina ere. Generoak baldintzatzen du pertsonen nola esperimendatzen duten mundua, nola elkarreragiten duten beste batzuekin eta zer aukera edo pribilegio eskaintzen edo ukatzen zaizkien” (Baylina Ferré, 2004:8).

Interseksionalitatea

“Beraz, azken urteotan, geografiako genero-ikuspegia barietatearen kaltetan emakumeen esperientzien alderdi komunak nabarmentzen zireneko fasetik askoz harago garatu da. Gaur egun onartzen da emakumeen esperientziak aldatu egiten direla arrazaren, klase sozialaren, adinaren, sexu-lehentasunaren, kultura-identifikazioa eta abarren arabera, gizonen kasuan bezala (England, 1994; Kobayashi, 1994). Ildo horretan, arraza eta klase desberdinetako emakumeek menderatze patriarkala nola esperimendatzen duten eta menderatze hori gertatzen den leku desberdinak ezagutzea komeni da” (Baylina Ferré, 1997:130).

“Lan-ildotik horrekiko egungo interes gero eta handiagoa arrisku handiena baztertze moduan bideratu behar da: generoa sartzeko ez du esan nahi 'emakumeak' ikerketan sartzeko besterik gabe; esan nahi du teoria feminista sartzeko gertaera geografikoen azalpenean, eta, beraz, asmo politikoa duen proiektua da. Ezin dugu arriskuan jarri irekitasunean irabazten dena sakontasunean galtzea” (Baylina Ferré & Salamaña i Serra, 2006:108).

METODOLOGIA

METODOLOGIA KUALITATIBOA

Ikerketa kualitatiboa, berez, dialektikoa eta sistemikoa da; izan ere, bertan, etapa batetik bestera, maila teorikotik enpirikora, abstraktutik konkretura joateko eta etortzeko etengabeko prozesu bat gertatzen da.

Jiménez-Domínguez en arabera (2000), metodo kualitatiboa jendartea esanahiz eta sinboloz eraikita dagoela dioten oinarritzko hipotesitik abiatzen dira. Hori dela eta, intersubjektibotasuna ikerketa kualitatiboaren funtsezko pieza bat da, eta esanahi sozialak modu gogoetatsuan atzemateko abiapuntua. Horrela ikusitako errealitate soziala modu intersubjektiboan partekatutako esanahiez eginga dago (Salgado Lévano, 2007). Aurrez definitutako ikerketa feministen atalarekin bat egiten du ikuspuntu honek.

Salgado Lévanok (2011:71) zera jasotzen du bere lanean:

“Gaur egun, ezin dugu analisi kualitatiboaz hitz egin, analisi kualitatiboez baizik (Amescua & Galvez, 2002). Autore batzuen arabera, arazoa hainbat ikuspegi ikerketa kualitatibotzat hartu direla da (Tesch, 1990, 26 mota kokatzen ditu), eta oinarri epistemologikoak askotarikoak dira. Hala ere, Mertensen arabera (2005), konstruktibismoa da ziurrenik ikuspegi kualitatiboan eragin handiena izan duen paradigma, nahiz eta batzuk ados ez egon” (Hernández, Fernández & Baptista, 2006).

Eta honela jarraitzen du (Salgado Lévano, 2011:71):

Zer proposatzen du konstruktibismoak?

- Ez dago errealitate objektiborik, errealitatea sozialki eraikia da, eta, ondorioz, hainbat eraikuntza mental haren gainean atzeman daitezke, eta horietako batzuk beste batzuekin gatazkan egon daitezke; horrela, errealitatearen pertzepzioak aldatu egiten dira azterketa-prozesuaren bidez (Mertens, 2005).
- Ikerketan parte hartzen duten pertsonak eraikitzen dute ezagutza sozialki.
- Ikertzailearen funtsezko zeregina bizipen-esperientziaren mundu konplexua esperimendatzeko dutenen ikuspuntutik ulertzea da, bai eta gertaeren esanahiari eta ezagutzari buruz dituen gizarte-eraikuntzak ulertzea ere.
- Ikerketa, neurri batean, ikertzailearen balioen emaitza da, eta ezin da izan haietatik independentea.
- Ikertzaileak eta ikertutako norbanakoek prozesu interaktibo batean parte hartzen dute.
- Ezagutza interakzio sozial horretatik eta kulturaren eraginetik dator.

Pérez Serranok bere lanean jasotzen duen bezala (2011), Taylor eta Bogdan bezalako egileek hiru urrats gomendatzen dituzte ikerketa kualitatiboaren testuinguruan: deskubritzea, kodetzea eta erlatibizatzea. Aldiz, Miles eta Hubermanek eskema errekurritzaile, zirkular eta atzeraelikatzailea proposatzen dutela dio, hiru azpiprozesu hartzen dituen: datuen diseinua eta murrizketa; aurkezpena; sintesia egitea eta ondorioak egiaztatzea.

Bide hau da ikerlan honetan jarraitu dena, eta teoria oinarrituaren (Grounded Theory) printzipioak eta ezaugarriak hartu dira kontuan. Pérez Serranoren hitzak berreskuratuz, metodo eta teknika ugari erabiltzen ditu teoria oinarrituak, batez ere benetako datuetatik hurbil egoteko aukera ematen diotenak, eta, horietatik abiatuta, pertsonen beren eguneroko borrokan sentitzen eta jasaten dutena ezagutzeko aukera ematen dutenak.

TEORIA OINARRITUA

Teoria deitu arren, proposamen honen prozedura metodologikoetan jarriko da arreta. San Martín Canteroren lanetik jasotako zatiekin eratuko da ikerlan honekiko teoria horren osaketa:

“Testuak interpretatzeko metodo bat da, eta metodo konparatibo konstante bihurtzen da, lehenagoko kodeak eta sortutako berriak modu sistematikoan behin eta berriz alderatzen direnean” (San Martín Cantero, 2014:109).

“Ikuspegi metodologiko horren funtsezko ezaugarria prozesuaren izaera zirkularra da (Flick, 2007); horrek urrats berri bakoitzeko ikerketaren prozesu osoari buruz hausnartzera behartzen du ikertzailea, eta lotura argia erakusten du datuen bilketaren eta interpretazioaren eta material enpirikoaren hautaketaren artean” (San Martín Cantero, 2014:114).

“Hau da, kodifikatzen den aldi berean, kontzeptuak sortzeko azterketa egiten da, datuen gertatze espezifikoaren etengabeko konparazioen bidez, "...ikertzaileak kontzeptu horiek findu, haien propietateak identifikatu, haien arteko erlazioak aztertu eta teoria koherente batean integratzen ditu” (Taylor eta Bogdan, 2000:155)” (San Martín Cantero, 2014:109).

“Teoria oinarrituak bere erroak interakzionismo sinbolikoan hondoratzen ditu (Blumer, 1969). Subjektuen artean eraikitako esanahien ulermena kausazko azalpenari gainjartzen zaiolako (Erklären). Ondorioz, subjektuen munduaren interpretazioak beren interpretazioen arabera garatzen saiatzen da, giza ekintza ikergaitzat hartuta. Horren ondorioz, munduan eta munduarekin ditugun harremanen amalgamak garesti planteatzen da; mundua beti dago gurekin (Merleau-Ponty, 1962)” (San Martín Cantero, 2014:107).

“Teoria oinarrituan ikertzaileen eta parte-hartzaileen artean intersubjektiboki eraikitako esanahiak funtsezkoak dira ikertutako errealitateari buruz teorizatzeke. Hain zuzen ere, ikertutako testuingurutik ondorioztatzen den teoria aurkitu eta garatzea da teoria oinarrituaren helburua, eta ez aurretiazko esparru teoriko batean oinarritutako dedukziozko arrazoibide bati men egitea (Charmaz, 2007)” (San Martín Cantero, 2014:107).

Ikerlan honek teoria oinarrituaren premisak jarraitu ditu. Ardatz-ideia honetan datza: nekazal-emakumeek sektoreko erakundeen erabakiguneetan duten ordezkaritza eta parte hartzea. Bereziki kontuan hartu da Emakume Nekazarien Estatutuak proposatutako neurriek izan duten eragina.

Informazioa biltzeko hainbat bide erabili dira:

- Neurrien eraginpeko erakundeei online galdetegi bat helarazi zaie.
- Erabakiguneetan dauden edo egon diren nekazal-emakumeei elkarrizketa erdi egituratuak egin zaizkie.
- Erakundeetako zenbait langilerekin telefono bidezko elkarrizketa informalak izan dira, gai zehatzen inguruan sakontzeko.
- Erakundeetako zenbait kiderekin banakako aurrez aurreko bilerak izan dira, gai zehatzen inguruan sakontzeko.
- Elkarrizketatutako nekazal-emakumeekin lan saio kolektiboak egin dira.

Araba eta Gipuzkoako elkarrizketa eta lan saio kolektiboetako informazioa hitzez hitz transkribatu ondoren, analisi kualitatiboa egiteari ekin zitzaion teoria oinarrituan jatorria duen berariazko programa informatiko bat erabiliz, laguntza-tresna gisa.

IKERKETA EKINTZA PARTE-HARTZAILEA (IEP)

Ikerlan honen emaitzetako bat izango da nekazal-emakumeek sektoreko erakundeen erabakiguneetan egun duten ordezkaritza eta parte hartzearen argazkia. Baina are garrantzitsuagoa da ikerlariaren eta parte-hartzaileen artean, baita parte-hartzaileen beraien artean ere, sortutako elkarrizketa, hausnarketa, baterako ikaskuntza eta atzeraelikadura-prozesua.

Ikerlan honen ezaugarrietako bat hibridotasun metodologikoa da. Ikerketa Ekintza Parte-hartzailearen zantzuak argiak dira, izandako denbora-tarteagatik prozesua osotasunean gauzatu ezin izan den arren. Lanaren esentzian egon da hasiera-hasieratik emakumeen benetako esperientziak eta beharrak jasotzea, eta, horietatik abiatuta, ekintzara bideratutako proposamenei forma ematea. Hau da, azken helburua izatea inplikaturako pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko praktikara eraman daitezkeen proposamenak lortzea.

IEPko proiektu bakoitzean, Eizagirre eta Zabala arabera (Eizagirre & Zabala, s.f.), hiru osagaiak proportzio aldakorretan konbinatzen dira:

- a) *Ikerketa* prozedura gogoetatsu, sistematiko, kontrolatu eta kritiko bat da, eta helburu praktikoa zehatz batekin errealitatearen alderdiren bat aztertzea du helburu.
- b) *Ekintza* ez da soilik ikerketaren azken helburua, baizik eta bera ere ezagutza-iturri bat da, eta, aldi berean, azterlana egitea bera esku hartzeko modu bat da.
- c) *Parte-hartzaileak* esan nahi du prozesuan parte hartzen dutela ez bakarrik ikertzaile profesionalek, baizik eta proiektua jasotzen duen komunitate edo kolektiboa ere, ez

direlako ikerketaren objektu huts kontsideratzen, beraien errealitate propioa ezagutu eta eraldatzearen bidean ekarpenak egiten dituzten subjektu aktibo gisa baizik.

Ikerketa-metodologia horren bidez ekintza- eta partaidetza-prozesuak integratzen dira; ekintza bera ezagutza-iturri bat da.

IEP metodologian, 3 fase nagusi bereizten dira:

1. **AUTODIAGNOSTIKOA:** ikerketako subjektu protagonistek beren errealitatearen inguruan hausnartu eta ikuspegi kritikotik aztertzea. Hasierako elkarrizketen bitartez egin da hori. Elkarrizketa espazio bakoitza emakumeen errealitate horren inguruan hausnartzeko parada bihurtu da, beraien bizipenei tokia egin eta horiek jasoz; ikerlaria berrikuspen horren bidelagun izan da, baina ez errelato-sortzaile.
2. **INFORMAZIOA ITZULTZEA ETA PROPOSAMENAK BILTZEA:** itzulketa hori taldean egiteak eragin biderkatzailea du, eta ideala da ikerketan parte hartu dutenek (edo parte hartu ez duten arren profil hori betetzen dutenek) problematikaren ikuspegi desberdinak ikus ditzaten. Baterako hausnarketa eta eztabaida dira proposamenak sortzeko haztegi egokiena, eta hala gauzatu da ikerlan honetan, talde lan saioen bitartez.


Puntu honekin lotuta, prozesuaren beste helburuetako bat izan da elkarrizketatutako emakumeei subjektu aktibo eta protagonista direla ikusaraztea, lan saio kolektiboetan batez ere; hortik eratorritako proposamenak izango dira eragiten dieten gaien kudeaketa eta eraldaketarako eraginkorrenak.

3. **GAUZATZEA ETA JARRAIPENA:** prozesuaren azken fasea da, non taldearen ideiak gauzatzen diren, proposamenak ekintza bihurtzen diren eta prozesuak planteatutako helburuen arabera egoeraren eraldaketa ondo burutzen den egiaztatu beharko den. Hirugarren fase hau ez da ikerlan honen denbora-tartean egin, eta etorkizunean gauzatu ahal izateko aukera irekita gelditzen da. Eredu parte-hartzailearen aldeko hautuak ezarritako helburuak arrakastaz lortzeko aukera areagotzen du, halako moduak parte-hartzaileen aldetik motibazio eta lankidetzaren eta inplikazio-maila handiagoak dakartzalako.

2 POLIEDROA ERATUZ: ARTISAUTZA SOZIALA

Marko teoriko-metodologikoan jaso den bezala hainbat faktorek eragiten dute errealitatearen eraikuntza horretan, eta aukera bakarraren sinpletasunetik eraikuntza korralera egin da salto, aurreko ataleko markoari fidel.

Ikerlan honek ez du egia bilatzen, baina gerturaketak, izatekotan, borobilak beharrean esferikoak izango dira. Ahal bezainbat ikuspegi jaso dira, bakoitzak esfera bat litzatekeen osotasun fiktizio horren bidean alde bat ekarriko duelako lanera; eta ekarpen bakoitza beti izango da bakarra, askotariko ezaugarrien emaitza. Gero eta alde gehiago batu, orduan eta lausoagoak izango dira ertzak, baina denen informazioa barne hartuko du sortzen den talde-eraikuntzak.



6 Irudia: Poliedroa eta esfera. Egileak egina.

Hartara, ikerlan honek ondoko ikuspegiak jaso ditu⁷, honako formatuetan:

- Sektoreko erabakiguneetan egon diren edo dauden emakumeenak:
 - Banakako elkarrizketa bitartez soilik (4)
 - Talde lan saioen bitartez soilik (22)
 - Banakako elkarrizketan eta talde lan saioan parte hartu duten emakumeak (17)
 - Telefono-hizketaldi bitartez (4)
- Estatutuaren neurrien eraginpean dauden elkarte eta erakundeak, online galdetegi baten bitartez (51)
- Estatutuaren sorrera-prozesuan egon ziren emakumeenak, banakako topaketa bitartez (3)
- Estatutuaren Idazkaritza Teknikoarena, bilera bitartez (4)
- Estatutuaren neurrien eraginpean dauden elkarte eta erakundeetako langile eta kudeatzaileenak, telefono hizketaldi bitartez (4)

⁷ Parentesi artean inplikaturako pertsona kopurua jasotzen da.

NORTZUEK ETA NONDIK: BEGIRADEN ABIAPUNTUA

Atal honetan ikerlanaren hiru iturri nagusiak xehatuko dira: banakako elkarrizketetan parte hartu duten emakumeak; online galdetegien erantzunak igorri dituzten erakundeak eta pertsonak; topaketa kolektiboetan bat egin duten emakumeak.

Garrantzitsua da erantzunak nork eta nondik ematen dituen kokatzea, horien irakurketa eta interpretazioetarako. Hortaz, halako begiradek eratu dute, besteak beste, lan hau:

BANAKAKO ELKARRIZKETAK: SEKTOREKO ERAKUNDEETAKO ERABAKIGUNEETAN DAUDEN EDO EGON DIREN EMAKUMEAK

14 elkarrizketa egin dira 2021eko martxoa eta maiatza bitartean, Araba eta Gipuzkoan. Hala ere, horrez gain, 2019an Bizkaian gauzatutako *Landa eremuko elkarteetako erabakiguneetan emakumeen parte hartzea normalizatzeko proposamenak* izeneko ikerlana baliatuko da zenbait ataletan 3 lurralde historikoetako argazkia eskaintzeko. Hori zerak egiten du posible: lan biak ENEk jasotako bi denbora mugarren artean kokatzen direla, 2019ko urriaren 22aren eta 2021eko urriaren 22aren artean; eta, gainera, elkarrizketatutako emakumeen profilak⁸ bat egiten du, nekazal-erakundeetako erabaki organoetan egondakoak baitira denak, eta hori baita ikerlan honen ardatza beraien egoeraren diagnostiko eta aurrera begirako pausuak eraikitzeko. Aldiz, beste hainbat kontu Araba eta Gipuzkoako emakumeen ahotsek eratuko dituzte soilik, 2019ko lan hartan jasoak izan ez zirelako.

Ikerlan honek badu subjektu nagusi bat: nekazal-emakumea. Emakumeei parte hartzearekin lotutako beraien bizipenen inguruan galdetu zaie, hainbat eremutan; beraien esperientzian oinarritutakoak izan dira ekarpen horietatik gehienak. Alabaina, honako ariketa ere proposatu zitzaion: beraien pertzepzioetik abiatuta, partekatu zezatela orokorrean nola hautematen zituzten nekazal-emakumeak parte hartzearekin lotura zuten gai jakin batzuen inguruan. Argi dago kanpo-faktore eragingarriak daudela lehen sektoreko erakundeetako erabakiguneetan emakumeen parte hartzeari forma ematen diotenak. Halere, barne-faktoreak ere badaude, eta garrantzitsua da horiek ere ekuazioan txertatzea. Elkarrizketatutako emakumeez gaindi zabaldu nahi izan da begirada, eta elkarrizketatutako emakumeen begietatik jaso da, oro har, emakumeen barne-agertokien argazkia. Nola sumatzen dituzte nekazal emakumeak parte hartzeari lotutako kontuekiko? Bat egiten al dute emakumeen irakurketek? Posiblea al da jasotako informazio hori emakumeen parte hartzea erraztearen bidean pausuak emateko erabiltzea?

⁸ 2019ko lanak sasoi hartan edo iraganean nekazal-erakundeetako erabaki organoetan parte hartu zuten 7 emakumeren hitzak jasotzen ditu.

EMAKUMEEN PROFILAK

Jarraian, elkarrizketatutako emakumeen ezaugarriak zehaztuko dira, horien profilak zeintzuk diren ikusteko. Aztertutako aspektu bakoitzean ahalik eta aniztasun handiena biltzeko saiakera egin da, emakumeen profilak osagarriak izatea bilatu, ahal adina ñabardura jasotzeko. Hala ere, bestelako aniztasun geruza asko gelditu dira kanpoan, zapalkuntza eta botere-harremanen bestelako begirada bat eskainiko luketenak ziurrenik: arraza, genero identitatea, orientazio sexuala, klasea... itxura batean behintzat, elkarrizketatutako emakumeek talde homogenea eratzen dute, eta ez da kasualitatea izango jendartearentzat ikusezina den kolektibo baten baitako ikusezinen taldean egotea horiek. Etorkizuneko lanetan osatu⁹ beharko litzatekeen aspektu bat litzateke.

Elkarrizketak eta emakumeen hitzak anonimoak dira. Hala izango zirela hitzeman zitzaizen emakumeei, eta hala izatea beharrezkotzat jo da emakume horiek beraien benetako usteak trasladatu ahal izateko. Haatik, badaude ikerlanerako garrantzitsuak diren alderdi batzuk, hitz horiek nondik datozenarekin harremanean; hala nola pertsona horren adina, gaur egun zenbat batzorderen parte den, bere parte hartze ibilbidearen antzintasuna eta ea iraganean batzorderen baten parte izan.

Anonimotasuna eta informazio baliagarri hori ahokatzuz, kodetze bat sortu da. Emakumeen identitatea ezkutuan mantendu baina datuak interpretatzeko nahikoak diren tarteak sortu dira faktore bakoitzean.

A	<40	Batzorde	X	<5	Batzorde
B	40-54	kopurua	Y	5-15	kopurua
C	55<	ORAINALDIAN	Z	15<	IRAGANEAN

1 Taula: Banaka elkarrizketatutako emakumeen profilen kodetzea.


Ez da emakume bakoitzarentzat kode bat sortu. Emakume guztiei kodetze berdina aplikatu zaie eta errepikatutako profilak egonez gero, ez da ikur bereizgarriarik egongo. Helburua ez da emakume bakoitzak esandakoen trazabilitatea ahalbidetzea, ezpada kontrakoa. Helburua testigantza horiek sektoreko emakumeen parte hartzearekin lotura duten faktore zehatz batzuekiko kokatzea da: adina; parte hartu duten batzorde kopurua, lehen eta orain; antzintasuna. Horrek lanean jasotakoak interpretatzeko beste geruza interesgarri bat gehitzen duela kontsideratzen da.

Emakumeen profilen deskribapen eta ehunekoetan Bizkaiko emakumeen datuak kontuan hartu dira, hainbat atal beraien erantzunekin ere aberastu direlako eta informazio hori eskuragarri egon delako, ahalik eta aterki irekiena osatzeko. Emakumeen erantzunen ehunekoak aipatzen direnean, Araba eta Gipuzkoako emakumeei badagozkie berariaz azalduko da.

⁹ Hitzaren adiera guztietan.

ADINA

Elkarrizketatutako emakumeen %24 40 urtetik beherakoak dira; heren bat, %33, 40-55 artekoak; beste heren bat, %33, 55-65 artekoak; eta %10 65 urtetik gorakoak.




3 Grafikoa: Banaka elkarrizketatutako emakumeen adin-tarteen ehunekoak.

BATZORDEAK

Batzordeetako kideetza

Elkarrizketatutako emakumeen gehiengoa batzorde bateko kide da gaur egun (%86), eta erdia pasatxo batzorde bateko kide izan dira iraganean ere, gaur egungo batzorde(et)an egon aurretik (%52). Egun batzordeetan dauden %73 junta bakarrean dago, %22 bi juntatan, eta %6 hirutan.




4 Grafikoa: Banaka elkarrizketatutako emakumeek parte hartzen duten batzorde kopurua.

Batzordeetako sarbidea

Ehunekoek behera egiten dute oraingo ordezkapena kargua errepikatzearen ondorioz izan den galdetuta, %10. Aldiz, kargu berdina errepikatzetik ez, baina batzordean beste izendapen bat izatetik etorri direnak gehixeago izan dira, %14. Ea gaur egun duten kargua ENEgatik den galdetuta, %29k baieztatzen dute hala dela. Agian horrek azaldu dezake batzorderako beraien sarbidea, elkarriketatutako emakumeen %38ak sentitzen baitu ez dela ohiko bidea erabili.

Antzinatasuna

Antzinatasunari dagokionez, emakumeek junta batean izan zuten lehenengo esperientzia erregistratu da: %29k 5 urte baino gutxiago daramatza batzordeetan parte hartzen; %52ak 5 eta 15 urte bitartean; eta ia bostenak, %19, 15 urtetik gora.



5 Grafikoa: Banaka elkarriketatutako emakumeek batzordeetako parte hartzean duten antzinatasuna.

Ordezkaritza

Elkarriketen bitartez, gaur egun emakumeek parte hartzen duten 24 batzorderen inguruko informazioa jaso da, eta iraganeko 34rena.

Datuak interpretatzeko orduan, zera izan behar da kontuan: gaur egun parte hartzen duten batzordeak elkarriketatutako emakumeek gaur egun duten ordezkaritza adierazten dutela; hau da, 21 emakume horien artean 24 elkarteren bateko edo hainbat elkarteetako batzorde(et)an daude. Aldiz, iraganean parte hartu izan duten batzordeak zenbatzerako orduan, ez da denbora puntu zehatz bat esleitu ("orain"gotasunaren parekoa). Emakume berbera egon ahal izan da ordezkaritza bakarrarekin baina elkarteiz elkarte; edota hainbat elkartetan aldi berean.

Datu bezala kontuan hartzeko baliagarria da, baina ez bere horretan ondorioak ateratzeko. Guztirako elkarte-kopurua ezberdina denez, 24 eta 34 hurrenez hurren, horrek jada ehunekoen esanahia aldatzen du. Adibidez, nekazal-emakumeen elkarteetako 5 juntatako ordezkaritza erregistratu dira iraganean, orainaldian beste; aldiz, batean %15eko ehunkoa suposatzen du, eta

bestean %21ekoa. Gaur eguneko datuak aldiberekotasuna islatzen du, elkarrizketatutako emakumeek ordezkari batzuk dute halako 5 elkartetan 2021eko udaberrian; iraganeko datuak ez du aldiberekotasun hori adierazten ostera. Izan zitekeen duela 20 urte emakume bat egotea halako junta batean, duela 10 bi eta duela 8 beste bi. Iraganeko zenbakiak emakumeen esperientzien pilaketa adierazten dute, egon diren jentilak eta metatze ariketa bat dira.

Haatik, oraindik ordezkari batzuk eremutan zabalitzen ari den ikusteko balio du.

Beste kontu bat da elkarrizketetan jasotako testigantzek zenbait joera edo zenbaki interpretatzeko gakoak eskaintzea. Horiei ere tarte egingo zaie.

Izendapenak

Izendapenak dagokienez, elkarrizketatutako emakumeen artean honakoak izan dituzte: Lehendakari bat, Lehendakariorde bat, Diruzaintza, Idazkari bat, Batzordeorde bat, Lidergo partekatua, Talde eragilea, Komisioa.


Bai gaur egun bai lehenaldian, izendapen gehienak batzordeordetza dira, 8 eta 17 hurrenez hurren. Hurrengo izendapen ugariena litzateke lehendakari bat, 7 orain eta 8 lehen. Aurretik komentatutakoa berretsiz, indar handia du gaur egun iraganeko garai ezberdinetako junta ezberdinetan metatutako lehendakari bat izendapenen kopuru ia berdina izateak; eta, beste maila batean, baina lehendakariorde bat izendapena ere esanguratsua da: 1 lehenagoko esperientzia denak bilduta, eta 3 orain.

Gainerako izendapenak dagokienez, idazkari bat kopuru berdinean mantentzen da (hortaz, orain aurrez metatutako beste idazkari bat), baina zifra txikia da, baina. Zifra txikia da baita diruzaintza, esperientzia guztietan zehar diruzain bakar bat identifikatu baita, eta egun bat ere ez.

Jarraian, komisioren figura jarri nahi da arreta. Nekazal-emakumeek sektorearekin lotutako entitateetako erabaki-guneetan duten parte hartzea aztertzea helburu duen lan honetan, elkarrizketatutako emakumeek entitate horietako komisioren izenak duten parte hartzea ere kontuan izatea erabaki da. Figura hau batez ere sindikatu jakin batzuekin lotu da, batzorde exekutibo eta probintziales gain, bai eta sektore zehatzen inguruko eztabaida-gune bilakatzen baitira: norbere azpisektoreari dagokion komisioren izenak egon daitezke bat, edota sindikatuarentzat estrategiko eta transbertsalak diren beste batzuetan (gazteak, emakumeak...). Oso garrantzitsutzat jotzen dira, bestelako espazio batzuetan egon aurreko parte hartze eremu naturaltzat jo baitaitezke. Iraganeko esperientziak bilduta 5 izendapen identifikatu dira, eta gaur egun bakar bat.

Horrez gain, lehenago ez zeuden izendapen-figura bi nabarmentzen dira gaur egungo batzorde batzuetan: lidergo partekatua (LP) eta talde eragilea (TE). Formalki beste edozein elkarteetan bezalako izendapenak izan arren, egitura hauen jardunean izendapen horiek ez dute indarrik. Lehenengo kasuan (LP), junta eratzen duten maila berean egiten dute lan, eta erabaki dinamikak horizontalak dira. Ordezkari bat eta ikusgarritasuna modu parekatuan gauzatzen saiatzen dira. Elkarrizketatutako emakume bat daude halako egitura batean, baina berdinean.

Bigarrenengo kasuan (TE), kudeaketa hedatu antzeko bat litzateke: ez lukete beraien burua inongo lidergotzarik ordezkatzeko ikusiko, talde eragilearen, elkarteko oinarriaren eta kasuan kasuko aholkulari edota aliatuen ekarpen eta aliantzarekin garatuko litzateke beraien jarduna¹⁰. Emakume bakarra dago halako egitura batean.



6 Grafikoa: Banaka elkarrizketatutako emakumeen batzordeetako izendapenak (lehen eta orain).


Bada mugimendu guzti hauetan kontuan hartu daitekeen beste faktore bat: ENE betetzea errazte aldera, hainbat elkartetan juntakideen kopurua murriztu dute. Junta horiek elkarte bat eratzeko gutxienekora mugatu dituzte: 3. Lan honen “Lasterbideak” atalean sakonduko da gehiago gai horren inguruan.

ELKARTEAK

Kide diren elkarten eragin-eremua

Elkarrizketatutako emakumeen bitartez aztertu diren elkarten eragin-eremuari dagokionez, probintzia mailakoak dira gehienak. Gaur egun probintzia-mailako 15 elkarteetako batzordeetan daude elkarrizketatutako emakumeak, eta iraganean hedapen horretako 19 elkarteetako esperientziak bildu dira. Erkidego mailakoak doaz ondoren: 4 gaur egun, eta 6 iraganeko esperientziak batuta. EAEtik haragokoak gero, 2 egun, eta 5 iraganean. Eta, azkenik, eskualde mailakoak, hiruna; gaur egun, iraganeko esperientzien batura beste.


¹⁰ Eredu honen parte den elkarrizketatutako pertsonak (B1Y1) onartzen du taldeko besteren bati galdetuz gero erantzuna desberdina izan daitekeela... baina komentatutako eran bizi du berak, eta hala behar duela ulertzen du.



7 Grafikoa: Banaka elkarrizketatutako emakumeek parte hartzen duten erakundeen eragin-eremua.

Elkarte motak

Elkarte motei erreparatuz gero, sektorekoak gailentzen dira, 7 egun eta 11 iraganeko esperientziak batuz. Atzetik doaz nekazal sindikatuak, 5 orain eta 10 lehen. Ondoren, nekazal-emakumeen taldeak, bosna. Aipatu behar da elkarrizketatu diren emakumeen ia laurdena dela gaur egun nekazal-emakumeen talderen bateko batzordeko kide. Gainerako elkarteak honako motakoak dira: Landa Garapen Elkarteak, 3 orain eta 1 lehen; nekazal-kooperatibak, 2 orain eta 1 lehen; Jatorri Izendapenak, 1 orain eta 2 lehen; Kontseilu Erregulatzailerak, 1 orain eta 1 lehen; eta kudeaketa zentroa, 0 orain eta 2 lehen. Bai LGEtako eta bai kudeaketa zentroetako batzordeetara, beste elkarte batzuetako ordezkariaren bitartez heltzen dira ordezkariak. Beste elkarte horietan hautatutako ordezkariak eragina dute bi horien batzordeetako eraketan.



8 Grafikoa: Banaka elkarrizketatutako emakumeek parte hartzen duten erakunde-motak.

Nekazal-jarduera

Elkarrizketatutako emakume guztiak **titularrak** dira edo izan dira (jada erretiratuta daudenen kasuan). Nekazal-jarduera senarrarekin batera izan zuten bi emakume titularkideak izan ziren urte luzez, eta senarrak jarduera utzi zuenean pasatu ziren titular izatera.

Elkarrizketatutako emakumeen %95en **lanbidea** da edo izan da; bakarraren kasuan ez da bere ogibidea. Nekazal-jarduera lanbidetzat duten edo izan duten emakumeen %40 **elkarketa figura** bateko kide da, eta %60 ez da elkarketa figura bateko kide.

21 emakumeetatik, %71ak **familia-ustiapen** batean dihardute edo jardun dute lanean. Familia-ustiapenean diharduten edo jardun duten 15 emakume horietatik %73ren kasuan, **belaunaldi-erreleboan** jaso da. Belaunaldi erreleboa jaso duten 11 emakume horietatik %91 familia barruko erreleboak izan dira, eta %9 familia kanpokoak.


Erreleboa jaso duten emakumeen %64k dio, nolabait, ustiapenarekin batera berau kide deneko elkarteetako parte hartzea ere oinordetzen dela, etxea delako ardura hartzen duena eta horri ematen zaiolako jarraipena. Aldiz, gainerakoek diote ezetz, pertsonarekin doan kontua dela gehiago.

Emakumeei, nekazal-jarduerarekin lotutako beraien **eguneroko jardunen** inguruan galdetu zitzaion: elkarrizketatutako emakume guztiek hartzen dute parte bai bakarka zein elkarlanean ustiapeneko berezko lanetan eta kudeaketa lanetan; elkarrizketatutako emakumeen %67k eraldatu egiten dute beraien jardueraren baitan, eta emakume horien %100ak hartzen du parte prozesu horietan; elkarrizketatutako emakumeen %95ak egiten ditu harreman-lanak, %90ak kontuenak, eta %71ak merkaturatze-lanak.

'**Jardunaldi** osoa' labur gelditzen zaie elkarrizketatutako emakume gehienei: "beno, jardunaldi osoa diozunean... oso osoa" (CoY4); "lanaldi bikoitza, hirukoitza... ordutegiak ez dira existitzen" (A1X1); "lau lanaldi, 24 orduz, asteko 7 egunetan" (A1X3); "Lanaldi osoa? Lanaldi amaigabea" (A2Y2). Eta gehienek gaizkien daramatena "paperen beste laborantza hori" da, "uf, hori da nire gogokoena" (C1Y1).

Gehiegizko burokrasia dagoela salatzen dute, lan ordu asko kentzen eta burukomin asko gehitzen diena.

Azpisektorearen arabera, urte osoan zehar ez da lan karga berdina egoten. Jardueraren beraren izaeraren eta horren dimentsioaren arabera ere, ezberdina da. Ustiapen ugarik jarduera ezberdinak dituzte, eta bakoitzaren exigentzia-aldiek bat egin ez arren, exigentzia handiko aldiak kateatzen dituzte. Belar-sasoia da askoren ustez urteko gogorrena.




9 Grafikoa: Banaka elkarrizketatutako emakumeek gauzatzen dituzten nekazal-jarduerak.

Etxeko jarduerak

Elkarrizketatutako emakumeen %90ak ditu etxeko erosketak egiteko ardurak, izan bakarka zein elkarlanean; %90ak baita (ez dute zertan emakume berdinak izan) otorduen prestaketa; %90ak garbiketa-lana; emakumeen %71ak ditu zaintzapeko pertsonak inguruan, izan nagusiak zein adin txikikoak, eta horien %100ak hartzen du parte zaintza lanetan. Emakume horien %20ak, gainera, iloben zaintza lanak dituzte beraien arduren artean. Gainerako %29ak ez du seme-alabarik edota horiek autonomoak dira, eta ez dute adinekoen zaintza lanen ardurarik.

Araba eta Gipuzkoako elkarrizketetan emakumeei etxeko lanen banaketaren hurbilketa bat egitea eskatu zitzaient, eta beraiei eta beraien kideei ehunekoak egozte. Galdera hori egindako 14 emakumeetatik erdiek erantzun zuten 50/50 eta 75/25 tartean kokatzen zirela: lehenengo zifra emakumeek hartzen zuten arduraren ehunekoa da, eta bigarrena kideena. Bigarren horren figura hedatua ere izan daiteke, etxean bizi diren beste pertsonen artean, edota horretarako kontratatutako pertsona bat izanez gero. 14 emakume horietatik %36 75/25-100/0 tartean kokatzen ziren. Hortaz, emakumeen herenak baino gehiagok ditu etxeko lanen ardura gehien-gehienak bere gain.

Elkarrizketatutako emakume batek ironiaz erantzuten zion galderari: "Bai, bai, guk lanak banatzen ditugu: nik ohea egiten dut, berak desegin; nik otorduak prestatzen ditut, berak jan... Horrekin ezin dut, egundoko haserrealdiak izaten ditugu" (CoY4). Emakume horren kasuan 100/0 da ehunekoa. Elkarrizketatutako 14 emakumetatik %14 dira soilik, hau da, 2, lanen erdia baino gutxiagoren ardura dutenak: bataren kasuan, bere kidearen eta bere artean 40/60ko banaketa dutela jaso da; bestearen kasuan, nekazal etxe bat dute, eta nekazal etxeko lanekin batera kontratatu dituzte beraien etxeko kontuetarako ere ordu batzuk.



10 Grafikoa: Banaka elkarriketatutako emakumeek gauzatzen dituzten etxeko jardueren ehunekoak.

Ardatz ezberdinak marrazten dira hemen. Landa-eremuko emakumeen inguruko beste ikerketa batzuetan jaso den bezala, emakumeek etxeko lanen barruan sartzen dituzte etxetik kanpo egin beharrekoak: sutarako egurra moztu, etxe ingurua atundu, ganadua jagon, ortuko lanak... (Milikua 2018:61). Nekazal-emakumeen kasuan, aldiz, landa-eremuko etxe askotan 'kanpoko lan osagarriak' kontsideratzen diren horiek dira beraien jarduera profesionala eratzen duten lanak. Nekazal-jarduera lanbidetzat ez duten beraien kideek lan horietan laguntza ematen diete askotan, eta barruko lanak era argian etxeko lanekin lotu arren, kanpokoak hala kontsideratzeko dauden irakurketa ezberdinei profesionaltasun eta domestikotasunarekin lotutako irakurketa gehitu behar zaie.

"Hori nire senarrarekin sarri-sarri izaten dudana eztabaida bat da. Berak etxeko lanak egiten ez dituela dio, baina niri bestelako (kanpoko) lanen egitekoak kentzen dizkidala. Adibidez, bera gehiago arduratzen da tresneria guztia mantentzeaz, nik egiten ez dakidana: olio-aldaketa bat, sega-makinarentzako hortzei ez dakit zer... Ba azkenean ez da etxea egiten ari, baina nire jarduerarekin lotutako lana egiten ari da, bestela kontratatatu beharko nukeena, eta horregatik ordaindu. 'Zer nahiago duzu: nik tresna horri olio aldatzeko edo garbigailua jartzeko?' (B1X2).

Etxea eta lantokia toki fisiko berean daudenean, nola banatzen dira lanak? Lan-eremuan zein aisia-eremuan ematen diren ekintzak berdinak baldin badira, nola egin bereizketa?

"Labadora bat jartzean izan daiteke laneko ordutegiaren bateratzea [nekazal turismoa dute], etxeko gauzak ere bertan jarri arren, pixka bat elkarrekin doaz. Baina gero dago bizitza familiarra. Umea jaio zenetik elkarrekin bazkaltzea erabaki genuen, eta momentu horiek ditugu oso babestuta, bestela dena bilakatzen delako lana baserrian. Daude lanak (berdin da ardi bat, behi bat, bilera bat, BEZa egitea edo erabaki bat); eta gero daude familiako momentuak. Edozein izanda ere, lana lana da. Gero erabaki behar izan genuen zer den lana eta zer ez: adibidez, mendira joan eta begiratu bat eman ez da lana guretzako, paseo moduan erabiltzen dugu, edo gustuko ditugun gauzen barruan. Baratza ez da lana, aisialdiarekin lotzen dugu. Edo oilategia ere ez, gehiago da etxabere bat bailitzan, duten txikitutasun eta familiaritasunagatik. Banaketa bat egin genuen eta oso garrantzitsua da hori guretzat" (B1X1).

Hala ere, kanpo-barru edota domestiko-profesional tankerako lanak nahasten diren *pack* horietan, beste jardueren pisu berdina ez duen lan bat dago, eta, hortaz, sarri halako banaketa orekatzaileak

lortzeko formuletatik at gelditzen dena: menpeko pertsonen zaintza lanak, batez ere adinekoenak edota haurrak ez direnenak.

“Gero lanetik aparte dago etxeko burubidea. Guraso zaharrak izanez gero, bat siestara eraman beharra, gero jaiki, gero umeen bila joan... (hasperen). Eta gizonari gauzak prestatzea ondoan izan ditzan. Etxeko lanetan baserri munduan zaintza aldetik oraindik lan handia dago egiteko. Baserri munduan gizonak bere lanean jartzen du fokua, ez zaizu jarriko adinekoari kasu egitera, etxera joan eta hura artatzera. Niretzat, akats handiena hori da. Nik etxean ikusten dut, gure gazteetan. Nire gizona jada ez da aldatuko, eta hura bere lanetik ez da aterako, baina inertzia horien jarraipena ematen da” (C2Z4).

Haurren zaintzari dagokionean, ordea, lanaren beraren malgutasuna (azpisektorearen arabera) edo muga zehatz falta hori, familia eta lan eremuak kontziliatzeko indargune bezala bizi izan dute emakume batzuek.

“Nik orain perspektibarekin ikusten dut, eta seme-alabak izan bai baina egon behar hori, seme-alabak etxean egon arren lanean eta gauzak egiten jarraitu behar hori bestela egoera ez delako eusten... Kontziliatu beharra dago orduan, baina kasu horretan nik dudatan lanbide hau (nekazaria) kontziliatzeko onena dela diotsut, ‘orain eskolan daude eta ordu batzuk ditut’. Beraien aita ere badute, noski, eta berarekin daudenean nik nire lana egin dezaket” (A1X3).

Eta, ama izan diren elkarrizketatutako emakume gehienek errepikatu dute beraiena izan dela umeen irakasleekin bilerak egiteko ardura, beraien lanak eskainitako ‘malgutasun’agatik (A1X3, B1Z3, C1Y2, C2Z4...).

Ikerlanean zehar jaso da nekazal-emakumeen kasuistika zabala eta konplexua. Konplexutasun horrek ez dakar ezinezkorik, begirada ahalik eta irekien mantentzeko beharra baizik, kasuistika horietan gurutzatzen diren ardatz ezberdinetan erreparatzeko.

Elkarrizketatutako emakumeen artean, egun sektorean dauden emakumeen isla gisa, herriguneetako pisu estandarretan bizi diren emakumeak daude; baita landa-eremuan metro karratu asko eta zenbait belaunaldi jasotzen dituzten baserrietan bizi direnak. Bataren eta bestearen kasuan, lan-banaketen esparrua oso ezberdina izan daiteke, bizilekuaren egiturazko faktoreak bakarrik kontuan hartuta ere.

Puntu horren harira, ikerketa honek hari-mutur bi jaso nahi ditu, beste norbaitek aurrerago horietatik sakonago tiratu nahiko balu.

Batetik dago zenbait nekazal-etxeetan indarrean dirauen emakumeen arteko etxeko- eta zaintza-lanen kateena. Lehenagoko moduen oinordetzan jasotakoa izan arren, gaur egun ere dirau:

“Nik lehen nire ama laguntzaile nuen bezala, orain ni nauka nire alabak. Hark egiten zizkidan etxeko jatorduak... ikaragarritzko laguntza zen. Nik umeak prestatzen nituen, asko ibili behar izaten zelako. Orain autobusak daude umeak eskolara eramateko, baina lehen ez zeuden, eta agobio bat zen, bazkaltzera etxera, gero berriz eraman... Amak ez zuen karnetik eta bueltaka nik ibili behar nuen, baina amak lan asko kentzen zidan. Orain nire alabak ez duen bezala, etxeko lanak nik ere libratu nituen” (C2Z4).

Kasuaren arabera, ezberdin bizi du elkarrizketatuak egoera hori. Hala ere, esandakoen sintesi bat kontsideratu daiteke ondorengo testigantza, osagai berriekin: etxeko/ustiapeneko lanentzako laguntza hedatua (seme-alabak, ahizpak, edota bestelako senitartekoak); eta guzti horrek emakumeari berari eragiten diona (buruhaustea, karga eta poza).

“Nik nire lana daukat, nekazaria naiz, baina baserri batean bizi bazara bizitzeko era bat da, ez da bakarrik lana, orduan familia guztia inplikatzeko da hasi aiton-amonetatik eta... Batzuetan tamalez, ze niri horrek buruhauste asko ematen dizkit, azkenean adinean aurrera doaz, jubilatzen zara baina ez zara jubilatzen, zaude hor eguneko 24 ordu ondorengoei laguntzen... haurrak ere bai. ‘Azterketak ditut’, eta ‘ikasi azkar-azkar eta etorri laguntzera’. Ahizpak-eta etortzen direnean ‘gaur patata ateratzea tokatzen da’ (barreak). Da pixka bat bizitzeko era bat karga bat suposatzen duena alde batetik, ze azkenean laguntza asko behar duzu eta horrek psikologikoki asko minatzen zaitu; baina, beste alde batetik, niri gustatzen zaidan ingurune bat da, orduan, denak horra bideratzen ditut (barreak)” (B1Z3).

ONLINE GALDETEGIAK: ENE-REN ERAGINPEKO ELKARTE ETA BESTELAKO ERAKUNDEAK

Sektoreko erakundeetako erabakiguneetan nekazal emakumeen parte hartzea aztergai den honetan, funtsezkoa kontsideratu da sektoreko erakunde horien begirada ere jasotzea. Gainera, ENEren 19. artikulua bete-betean eragiten ditu.

Horretarako galdetegi bat diseinatu zen, emakumeekin egin bezala, elkarteen egoera, uste eta iritziak lanean barneratzeko.

Eragozpen handi bat topatu da ordea: gaur egun ez dago zerrenda bat 19. artikulua eraginpeko erakundeak biltzen dituen. ENEren Idazkaritza Teknikoa orain ari da lehen denbora mugarriaren ondorengo datuen bilketa eta eguneraketan, Covid-19arekin lotutako 2020ko martxoko eta ondorengo gertaerek nabarmen zaildu baitute eginkizuna. Lanketa horretan jasotako datuak izango dira ENEren eraginaren neurketarako abiapuntua. Gaurdaino ez da existitzen horren inguruko daturik argitaratuta.

Hortaz, ez dago modu zuzenik ENEren 19. artikulutik eratorritako neurrien eraginpeko erakundeekin kontaktatzeko.

Hori nolabait soluzionatzeko, honako bidea hartu zen: Lursail, Mendinet eta Konfekoopi helarazi zitzaizkien galdetegiaren esteka Emakume Nekazarien Estatutuko Idazkaritza Teknikoarekin elkarlanean. Horiek beraien egituretako elkarteei birbidali zieten, eta elkarte horiek, era berean, beraien egituretakoei... ur-jauzi efektu horren bitartez, ahalik eta elkarte gehienetara iristeko asmoarekin.


2021eko ekaina eta uztaila bitartean bidali zen galdetegia, eta 51 erantzun jaso ziren.

GALDETEGIA BETE ZUTENEN PROFILA


51 erantzun jaso ziren guztira, 51 erakunderi zegozkienak. Horrek ez du 51 pertsona ezberdinek erantzun zutenik esan nahi: 30 pertsonak erantzun zituzten. Lau teknikarik beraien kudeaketa pean zeuden hainbat elkarteren inguruko datuak eman zituzten: batek 9, beste batek 7, hirugarren batek 6 eta azkenak 3.

Erantzuna eman zuten 30 pertsonen profila honakoa da:


%63 emakumeak izan ziren, eta %37 gizonak. %57 40-55 urte bitartekoa izan zen, %37 55 urtetik gorakoa, eta %7 40 urtetik beherakoa. %53 teknikariak izan ziren, %13 elkarteetako lehendakariak, %10 idazkariak, %3 batzordekideak eta %20ak beste figura baten pean erantzun zuen.



11 Grafikoa: Erankundeetara zuzendutako galdetegiak erantzun dituztenen profila: sexua.



12 Grafikoa: Erankundeetara zuzendutako galdetegiak erantzun dituztenen profila: adina.




13 Grafikoa: Erakundeetara zuzendutako galdetegiak erantzun dituztenen profila: izendapena.

Datu horiekin kodetze-ariketa bat egin da, erantzun dutenen profilak definitu eta, ondoren, galdetegietako ekarpenak sexua-adina-izendapena parametro horiek kontuan izanda nondik egin diren kontuan hartzeko.

1 <40	BA Batзорdekidetza Vocabía
2 40-55	BB Beste bat Otros
3 55<	ID Idazkaritza Secretaría
E Emakumea Mujer	LH Lehendakaritza Presidencia
G Gizona Hombre	TK Teknikaria Personal técnico

2 Taula: Erakundeetara zuzendutako galdetegia erantzun dutenen profilaren kodetzea.



14 Grafikoa: Erakundeetara zuzendutako galdetegia erantzun dutenen profila eta ehunekoak.

Grafikoan ikus daitekeen bezala, erantzun dutenen %37 gizonak, 55 urtetik gorakoak eta teknikariak dira. %23, aldiz, emakumeak, 40-55 urte bitartekoak eta teknikariak. Eta, %13 emakumeak, 40-55 urte bitartekoak eta zehaztu ez den beste izendapen batekoak. Gainerako profilek ordezkari askoz baxuagoa dute.

ELKARTE MOTAK, AZPISEKTOREAK ETA ERAGIN-EREMUAK

Galdetegia erantzun duten elkarteak mota hauetakoak izan dira: sektorekoak 31, Kontseilu Erregulatzaile 1, nekazal kooperatibak 8, kudeaketa zentroak 3, Landa Garapen Agentziak 7 eta Emakume baserritarren elkarte 1.


Azpi-sektoreei dagokienez, haragitarako abeltzaintzakoak 14 dira (%27,5), zaldienak 5(%9,8), esnetarako abeltzaintzakoak 3 (%5,9), astoenak 2 (%3,9), hegaztienak 2 (%3,9), untxienak 2 (%3,9), erleena 1, barazkigintzako 1 (%2), frutagintzako 1 (%2), ardogintzako 1 (%2), sagardogintzako 1 (%2) eta eraldaketako 1 (%2). Gainerako %31,4 beste mota bateko erakundeei dagokie.

Elkarteen eragin eremuei dagokienez, gehienak probintzia mailakoak dira (33), eta atzetik doaz erkidego mailakoak (11) eta eskualde mailakoak (7). Erkidego-mailakoak direnak kenduta, elkarten erdia Bizkaikoak dira, laurden bat Gipuzkoakoa eta beste laurden bat Arabakoa.

BATZORDEAK ETA BATZORDEKIDEAK


Galdetegien bitartez 51 elkarteetako batzordeak aztertu ahal izan dira. Batzorde horietan 280 juntakide biltzen dira guztira.

Batzordeen tamainari erreparatuz, 3 kidez eratutako 3 batzorde identifikatu dira; 4 kidez eratutako 9; 5 kidez eratutako 24; 6 kidez eratutako 6; 7 kidez eratutako 3; 8 kidez eratutako 3; 9 kidez eratutako 1; 10 kidez eratutako 1; eta 15 kidez eratutako 1.




15 Grafikoa: Galdetegia bete duten erakundeetako batzordeen tamaina, kopurua eta ehunekoak.

Identifikatutako 280 juntakideetatik, %18k lehendakari izendapena dute; %17k lehendakariorde; %16k diruzain; %18k idazkari; eta %31k batzordekide.




16 Grafikoa: Galdetegia bete duten erakundeetako juntakideen izendapenak, ehunekotan.

Juntakideen sexuagatik galdetuta, 270 erantzun jaso dira. Horietatik %65 gizonak dira, eta %35 emakumeak.




17 Grafikoa: Galdetegia bete duten erakundeetako juntakideen sexua, ehunekotan.

Adinagatik galdetuta, 272 erantzun jaso dira: juntakideen %79 40-65 urte bitartekoak dira, %14 40 urtetik beherakoak, eta %7 65etik gorakoak.




18 Grafikoa: Galdetegia bete duten erakundeetako juntakideen adina, ehunekotan.

Juntan berriztapenarekin harremanean, 280 pertsonetatik, %45 kargua errepikatzetik datoz; %17 kargu berbera errepikatzetik etorri ez arren, aurreko batzordean egondakoa izan zen; eta %38 ez da aurreko batzordean egon.



19 Grafikoa: Galdetgia bete duten erakundeetako juntakideen kargu/batzorde errepikapenak, ehunekotan.

Juntakide diren pertsonen laurdena pasatxo, %26, batzorde batean dago lehenengoz, eta %13 aurreko batzordean egon ez arren, lehenago beste batzorde batean egondakoa da.



20 Grafikoa: Galdetgia bete duten erakundeetako juntakideen aldiak, ehunekotan.

Aurretiaz aipatutako alderdi guztiak kontuan izanez gero, 173 profil ezberdin identifikatu dira: 25 lehendakari; 28 lehendakariorde; 31 diruzain; 36 idazkari; 53 batzordekide.

Gizona	G	<40	a
Emakumea	E	40-65	b
Juntako kideen kopurua		65<	c
Lehendakaritza	LH	Kargua errepikatzetik	KE
Lehendakariordetza	LO	Batzordean errepikatzetik	BE
Diruzaintza	DI	Lehen aldia da juntan	o
Idazkaritza	ID	Iraganean juntan (ez aurreko juntan)	1
Batzordekideetza	BA	Ez da aurreko aukeretako bat ere ez	_
Daturik ez denean jaso izartxo batez adierazi da *			

3 Taula: Galdetgia bete duten erakundeetako juntakideen profilen kodetzea.

Gehien errepikatutako hiru profilak honakoak dira: lehenengoa G5LHbKE_ izan da, lehendakarien %24 eta juntakide guztien %4; atzetik jarraitu dio G5DlbKE_ profilak, diruzainen %18 eta juntakide guztien %3; eta, azkenik, E8BAb_o, batzordekideen %8 eta juntakide guztien %3.

LEHENDAKARITZA				LEHENDAKARIORDETZA				DIRUZAITZA				IDAZKARITZA				BATZORDEKIDETZA								
G5LHbKE_	12	24%	280	4%	G5LObKE_	6	13%	280	2%	G5DlbKE_	8	18%	280	3%	G5lDbKE_	6	12%	280	2%	E8BAb_o	7	8%	280	3%
G4LHbKE_	4	8%	280	1%	E5LOb_o	6	13%	280	2%	E5Dla_o	3	7%	280	1%	E5lDbBE_	4	8%	280	1%	E5BAb_o	5	6%	280	2%
G3LHbKE_	3	6%	280	1%	G4LObKE_	4	9%	280	1%	G6DlbBE_	3	7%	280	1%	G5lDbKE1	3	6%	280	1%	G8BAbKE_	5	6%	280	2%
G5LHbKE1	3	6%	280	1%	G5LObBE_	4	9%	280	1%	E5DlbKE_	2	4%	280	1%	E8lDb_o	2	4%	280	1%	G15BAb_o	3	3%	280	1%
G6LHbKE_	3	6%	280	1%	G5LObBE1	2	4%	280	1%	G5DlbBE_	2	4%	280	1%	G4lDb_o	2	4%	280	1%	G15BAbKE_	3	3%	280	1%
G8LHbBE_	3	6%	280	1%	G6LObBE_	2	4%	280	1%	G5DlbBE1	2	4%	280	1%	G5lDa_o	2	4%	280	1%	G5BAbKE_	3	3%	280	1%
G5LHa_o	2	4%	280	1%	G8LObKE_	2	4%	280	1%	G5DlbKE1	1	2%	280	0%	E4lDb_o	2	4%	280	1%	E15BAcKE_	2	2%	280	1%
G5LHbBE_	2	4%	280	1%	E5LObKE_	1	2%	280	0%	E15lDbBE_	1	2%	280	0%	G5lDbBE_	2	4%	280	1%	E5BAb_	2	2%	280	1%
G5LHbBE1	2	4%	280	1%	E7LOb_1	1	2%	280	0%	E3Dlb_o	1	2%	280	0%	G6lDbBE_	1	2%	280	0%	E5BAbKE_	2	2%	280	1%
G7LHbKE_	2	4%	280	1%	E3LOa_o	1	2%	280	0%	E4DlaKE_	1	2%	280	0%	E4lDb_1	1	2%	280	0%	E7BAa_o	2	2%	280	1%
E1oLHbKE_	1	2%	280	0%	E4LOb_o	1	2%	280	0%	E4Dlb_o	1	2%	280	0%	E4lDcKE1	1	2%	280	0%	E7BAb_	2	2%	280	1%
E5LHc_	1	2%	280	0%	E5LO*_	1	2%	280	0%	E5DI*_	1	2%	280	0%	E5lDaBE_	1	2%	280	0%	E8BAbKE_	2	2%	280	1%
E7LHaKE_	1	2%	280	0%	E5LOa_o	1	2%	280	0%	E5Dlb_o	1	2%	280	0%	E5lDb_	1	2%	280	0%	G5BAa_o	2	2%	280	1%
G15LHbKE_	1	2%	280	0%	E5LObBE_	1	2%	280	0%	E5DlbKE1	1	2%	280	0%	E5lDb_o	1	2%	280	0%	G5BAbKE1	2	2%	280	1%
G4LH*_	1	2%	280	0%	E5LObBE1	1	2%	280	0%	E6Dlb_o	1	2%	280	0%	E5lDbKE_	1	2%	280	0%	G6BAb_	2	2%	280	1%
G4LHaKE1	1	2%	280	0%	E6LOb_o	1	2%	280	0%	E7Dlb_	1	2%	280	0%	E5lDbKE1	1	2%	280	0%	G6BAbKE_	2	2%	280	1%
G4LHb_o	1	2%	280	0%	E9LOb_o	1	2%	280	0%	G3DlbKE_	1	2%	280	0%	E6lDbBE_	1	2%	280	0%	G7BAb_	2	2%	280	1%
G4LHbKE1	1	2%	280	0%	G1oLOcKE_	1	2%	280	0%	G3lDbKE_	1	2%	280	0%	E7lDb_	1	2%	280	0%	G9BAbKE_	2	2%	280	1%
G4LHc_o	1	2%	280	0%	G15LOb_1	1	2%	280	0%	G4DlaBE_	1	2%	280	0%	E7lDb_1	1	2%	280	0%	*7BA*KE1	1	1%	280	0%
G5LHc_o	1	2%	280	0%	G4LO*_	1	2%	280	0%	G4Dlb_o	1	2%	280	0%	G1oIDb_o	1	2%	280	0%	*7BA*_o	2	2%	280	1%
G5LHcKE_	1	2%	280	0%	G4LOb_o	1	2%	280	0%	G5DlaKE_	1	2%	280	0%	G15lDbKE_	1	2%	280	0%	E1oBAa_o	1	1%	280	0%
G6LHb_	1	2%	280	0%	G4LObKE1	1	2%	280	0%	G4Dla_o	1	2%	280	0%	G4BAbKEo	1	2%	280	0%	E1oBAbKE_	1	1%	280	0%
G6LHcBE_	1	2%	280	0%	G5LOb_1	1	2%	280	0%	E4DlbBE1	1	2%	280	0%	G4lD_	1	2%	280	0%	E15BAa_o	1	1%	280	0%
G7LHbKE1	1	2%	280	0%	G6LOaKE_	1	2%	280	0%	E1oDlbKE_	1	2%	280	0%	G4lDbKE_	1	2%	280	0%	E15BAb_o	1	1%	280	0%
G9LHb_1	1	2%	280	0%	G6LObKE_	1	2%	280	0%	G5DlcKE_	1	2%	280	0%	G5lDaKE_	1	2%	280	0%	E4BAb_o	1	1%	280	0%
[25]	51		18%	G7LOaKE_	1	2%	280	0%	G6DlcKE_	1	2%	280	0%	G4lDa_o	1	2%	280	0%	E4BAbBE_	1	1%	280	0%	
				G7LObKE_	1	2%	280	0%	G7DlaBE_	1	2%	280	0%	G5lDb_o	1	2%	280	0%	E5BAa_o	1	1%	280	0%	
				G7LObKE1	1	2%	280	0%	G7Dlb_	1	2%	280	0%	E3lDaKE_	1	2%	280	0%	E5BAbAKE_	1	1%	280	0%	
				[28]	47		17%	G7DlbKE1	1	2%	280	0%	E3lDbKE_	1	2%	280	0%	E5BAbKE1	1	1%	280	0%		
								G8DlbKE1	1	2%	280	0%	G5lDbBE1	1	2%	280	0%	E6BAa_o	1	1%	280	0%		
								G9DlbKEo	1	2%	280	0%	G6lDbKE_	1	2%	280	0%	E6BAb_	1	1%	280	0%		
								[31]	45		16%	G6lDcKE_	1	2%	280	0%	E6BAb_o	1	1%	280	0%			
												G7lDbBE_	1	2%	280	0%	E6BAc_o	1	1%	280	0%			
												G7lDbKE1	1	2%	280	0%	E7BAbBE1	1	1%	280	0%			
												G8lDbKE_	1	2%	280	0%	E7BAc_o	1	1%	280	0%			
												G9lDa_o	1	2%	280	0%	E8BAb_	1	1%	280	0%			
												[36]	51		18%	E9BAa_1	1	1%	280	0%				
																E9BAb_o	1	1%	280	0%				
																G1oBAaKE_	1	1%	280	0%				
																G1oBAbKE_	1	1%	280	0%				
																G1oBAC_o	1	1%	280	0%				
																G1oBACKE_	1	1%	280	0%				
																G15BAC_o	1	1%	280	0%				
																G4BAb_	1	1%	280	0%				
																G5BAa_1	1	1%	280	0%				
																G5BAb_o	1	1%	280	0%				
																G5BAb_1	1	1%	280	0%				
																G5BAbBE_	1	1%	280	0%				
																G5DlbKE1	1	1%	280	0%				
																G6BAbBE_	1	1%	280	0%				
																G6BAC_	1	1%	280	0%				
																G7BAaBE_	1	1%	280	0%				
																G9BAaKE_	1	1%	280	0%				
																[53]	86		31%					

4 Taula: Galdetegia bete duten erakundeetako juntakideen profil guztiak, izendapenka eta ehunekotan.

Erakundeen estatutuak

Galdetegia bete duten erakundeen gehiengo zabal batean gizon eta emakumeen berdintasunaren inguruko aipamenak jasotzen dira (%84,3). Halako aipamenik jasotzen ez duten entitateen estatutuak 1969, 1983, 1989 (2), 1992, 1994, 2017 eta 2020koak dira.

Datu desagregatuak

Erakundearen inguruko datuak jasotzen direnean, sexuen araberako datu-bereizketarik ez da egiten 51 erakundeetako 38tan (%74,5).

Genero berdintasuna: sustapena, formazioa, sentsibilizazioa, difusioa

Erakundeen erdiak baino gehixeagok (%54,9) ez dute parte hartu genero berdintasuna sustatzeko inongo proiektu, programa edo ekintzatan.

Eta ezezkoen ehunekoak gora egiten du erakundeak genero berdintasunaren inguruko formazio, sentsibilizazio edo difusio ekintzarik eskaini duen galdetzean (%74,5).

EMAKUMEEN TOPAKETAK

Ikerlan honen ekarpen garrantzitsuenetako bat 2021eko maiatzean Araban eta 2021eko ekainean Gipuzkoan gauzatutako emakumeen arteko topaketak dira.

Planteamendu berdina jarraitu zen bi kasuetan: batetik, banakako elkarrizketetan osatutako argazkia erabakiguneetan parte hartu izan zuten edo parte hartzen zuten emakumeekin partekatu; bestetik, emakume horiek beraien artean ezagutzeko dinamiken bitartez, beraien egoera hobetzeko ekarpen propositiboei forma ematea.

25 emakumek hartu zuten parte: Araban 13k eta Gipuzkoan 12k.

Elkarrizketatutako 14 emakumeetatik 11 bertaratu ziren: bik ezin izan zuten azken orduko eragozpenengatik, eta beste batek covid txertoa jarri berri ziotelako egun hartan. Gainerako parte-hartzaileak banan-banan telefonoz kontaktatuz gonbidatu ziren. 10 emakumek baieztatu zuten parte hartzea, baina azken orduko beste baja bat egon zen.

Talde horiek eratzeko, 17 emakume gehiago kontaktatu ziren ordea. Gonbidapenari ezetza emateko arrazoiak artean, honakoak jaso ziren: zaintza-lanekiko kontziliazio arazoak (4); urteko opor-egunak (1); beste elkarte batzuetako konpromezuak (2); beraien ustiapenetako aurpegi

ikusgarriak izan arren, inongo erabakigunean ez egotea (2); lan-karga handia, halako ekimenekiko fede justua eta neke itzela (7). Azken talde horretako batzuei oraindik gelditzen zitzaien itxaropen pixka bat, baina beste batzuek guztiz galduta zuten. Erreta ageri ziren gainera, betiko leloaren betiko leloa iruditzen zitzaien.

Nekearen kontu hori ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Emakumeak susmabera daude, eta lehenengo hitzetan ageri diren galderak honakoak izaten dira: Nork manatu du lana? Zertarako? Bateko ikerlana, besteko tesia, besteko unibertsitateko ez-dakit-zer... nekazal-emakumeak kokoteraino daude beraien denbora eta energia beraien uste eta iritziak emateko eskaini, eta denak berdin-berdin jarraitzeaz. Batzuek jada halako gehiagori ez erantzuteko hautua hartu dute. Zaindu egin behar dira espazioak, zaindu momentuak eta zaindu pertsonak. Ikerketa sozialaren orbitan beti ez dira gauzak ondo egiten, eta administrazioaren orbitan ezta. Baldankeria beti batzuen gain aplikatzen denean, logikoa da halako erantzuerak aurkitzea. Horri ere eman beharko litzaioke buelta bat.

Emakumeen topaketetako berriketaldi zatiak komatxo artean azalduko dira, eta lan saioetako audioen transkripzioetatik gehitutakoek kodetze¹¹ simple bat izango dute. Kasu horretan, adin tartearen arabera baizik ez da izango: A 40tik beherakoentzako; B 40-55 artekoentzako; eta C 55tik gorakoentzako.

3 ARGAZKI-COLLAGEA: BEGIRADEN TOPALEKUA

Aurreko atalean deskribatutako begiradek eraikiko dute gaur egun nekazal emakumeek sektoreko erabakiguneetan duten parte hartzearen argazkia. Abiapuntu desberdin bakoitzak osagarria den informazioa eskainiko du, egoeraren konplexutasunaren adierazgarri: konplexutasun hori ez da negatiboa, ezpada aberatsa. Eta aberastasun hori kontuan hartzeak emakume horien parte hartzearen balioan du eragin zuzena.

Emakumeen parte hartzea ardatz harturik, eskala ezberdinetako hurreratzea planteatzen da, jakinik ez direla konpartimentu estankoak, horien arteko mintzak iragazkorak direla eta aspektu asko transbertsalak: elkarrekiko erlazioan daude, eskala bakoitzean ematen diren aldaketek gainerakoetan eragiten dutelarik.

¹¹ Oraingoan ere ez da emakume bakoitzarentzat kode bat sortu: errepikatutako profilak egonez gero, ez da ikur bereizgarririk egongo. Transkribatutako elkarrizketen kasuan nolabaiteko bereizketa bat egon behar da ahots ezberdinen artean. Hala denean, errepikatzen diren adin-tarte bereko ahotsei zenbaki bat gehituko zaie. Zenbaki hori elkarrizketa labur horretarako bakarrik izango da baliagarria: hurrengo elkarrizketan zenbakitzea berrabiaraziko da.

(USTEZKO) GIZONEN MUNDUA

Bakarka elkarrizketatutako emakume gehienak bat datoz sektorea, historikoki, gizonen mundu bezala irudikatu dela. Emakumeen tokia beti izan dela atzean, etxean, itzalean, eta gizonak izan direla feriara, tratura, ordezkaritzara joan direnak. Emakumeen lana kasu askotan giltzarri izan arren ustiapen horren bizirautean: izan bertako lan eta ardurak eraman dituztelako, edota lan eta ardura horiek bete dituztenek hori egitea ahalbidetu duten gainerako lan eta ardurak beraien gain hartu dituztelako. Edo, baita ere, ustiapeneko lan eta ardurak eta gainerako lan eta ardura denak beraien gain hartu behar izan dituztelako.

“Lehen sektorean, emakumea arduratzen zen guztiaz: baserria, baratzea, haurrak, ganadua, bestea... Plazara tratura zihoana senarra izaten zen. Bada, nik uste dut aldaketa asko eman direla, eta duela 60 urteko kontuez ari naiz, ez Paleolitikoaz. Hori zen nire amonak zuen egoera” (A2Y0).

Hala ere, historikoki horrela irudikatu den hori gaur eguneraino ekarri dute zenbait emakumek Jarraian oraindik orain (2021ean) jasotako adierazpena:

“Nik beti esaten dut gizonen mundu batean bizi naizela. Nik ustiapena hartu nuenean, lehenengo abere-tratuetarako ukuilura etortzen zirenean, esaten zuten: ‘Ez dago zure aita, maja? Noiz etorriko da zure aita?’ ‘Ez, ez, ustiapena nik...’ ‘Tira, beste egun batean etorriko naiz orduan’. Eta zu azaltzen saiatzen zinen ustiapena zeneramala, eta ez zuten entzun nahi edo ez dakit. Kasu horretan, nire irudia aldatzen ari da urte askoren ondoren, azkenean ustiategiarekin lotzen nautelako. Ni une honetan onartuta nago, urte asko baitaramatzate ni bilera guztietan ikusten. Baina hortik pasatua naiz gero, eh. ‘Aizu, maja, non duzu senarra tratua egiteko?’ Hori nik bizi izan dut. Agian hainbeste diru eskatu animalia-gatik, eta esaten zuten ‘tira, maja, etorriko naiz senarra dagoen beste batean’. ‘Ez, ez, hona ez da senarrik etorriko, hau daramana ni naiz’. Batzuek alde egin dute. Orain, adibidez, gaur egun tratulariek edo ustiategira datozenek badakite ustiategian ni nagoela eta ni naizela agintzen duena. Beraz, orain onartua nago zentzu horretan. Hala ere, nire ustez oraindik gauza batzuk nire senarrak agintzen edo esaten baditu... Adibidez, atzo bertan gertatu zitzaidan: senarra etorri zen eta esan zidan ‘halakok deitu dit, gure ez dakit zein soro mozteko’. Niri amorru handia ematen dit, eta esaten diot ‘Zertarako deitu behar dizu zuri ustiapena eta ganadua nik daramadala baldin badaki?!’. Baina saihestezina da. Saihestezina. Gauza horiek oraindik gertatzen dira. Horrela da” (B1X2).

Testuinguru horrek eragin nabarmena (izan) du sektoreko ordezkaritzan eta erabakiguneen eraketan. Parte hartu zuten lehenengo emakume horiek, gehienetan, salbuespenak salbuespen, ez zuten panorama samurra aurkitu.

“*Las primeras machotas*, horrela deitzen zitzaien, ez zeuden ongi ikusiak” (C3Y4).

Aurkitu zutena izan zen genero rolen pisua.

Genero rolak

Horrela kontatzen du duela 30 urte bileretan parte hartzen hasi zenean izan zuen esperientzia emakume batek:

“Ba begira, gogoan dut hasieran eskualdeko bilera batera joan eta batek esan zidala: ‘Zer, ez duzu zereginik, edo ez duzu ezer lisatu behar?’ Eta nik esan nion: ‘Senarra utzi dut niretzako afaria prestatzen eta lisatzen’. Gezurra zen, sofan etzanda egongo zen, baina berdin zion horrek, hori esan nion” (CoY4).

Eta genero rolen pisu hori barru-barruan daramate zenbait emakumek. Elkarrizketatutako emakume batek hala adierazi du inguruan entzundakoa:

“Oro har, emakumeek esaten dute: ‘Nola esango diot nik senarrari bilera batera noala?’ Hara! Medikuairengana edo erosketak egitera zoazela esaten diozun bezala. Etxeko gauzak egitea, non dago idatzita? Baina hori datorkigu burura, ala ez? Ikasitakoa da, txiki-txikitatik sartutakoa” (C1Y1).

Elkarrizketatutako emakumeen %48ak orokorrean genero rolek pisu handia izan dutela sentitu du erabakiguneetako beraien parte hartze esperientzian. Aldiz, %28ak genero rolak gainditu eta modu berriak praktikan jartzen direneko espazioetan kokatzen du bere esperientzia. Gainerako %24ak bi bizipenak izan ditu bere ibilbidean zehar.

“Gizonek eta emakumeek beraiek ere uste dute askoz gehiago emango duela bilera horretan gizonak. Buruan hori sartuta dute. Nik ezagutzen ditudanak, emakume horiek ere ondo egingo lituzkete gauzak! Zergatik ez doaz? Gizona hor sartuta dagoelako betidanik. Kasu horretan biak dabilta ustiapenean, eta emakumeak probatu ere ez du egin” (C2Z4).

Hala ere, batzorde-bileretatik kanpo, bestelako esparruetan ere kasu askotan hala izaten dela adierazi dute; eta, azkenean, batzordean ildo berdina jarraitzen dela.

Elkarte-esferatik kanpo, batzuei eta besteei sektorearekiko egozten zaien tokiak markatzen du joera.

“Nik uste dut gatzela heziketa modu batetik, eta are gehiago baserri munduan, bakoitzak oso banatuta izan dituela bere zereginak: kanpora begira eta irudi bat eman behar izan denean, edo bilera batean parte hartu, iritziak eman, erabakiak hartu ‘Ni joango naiz (gizona)’; eta ‘Zuk sozializatu nahi baduzu joan azokara saltzera’. Espazio modu ezberdinak izan dira orain arte” (B1Z3).

Hau guztia kontuan hartuta, ez da harritzekoa elkarrizketatutako emakumeek erabakiguneetako beraien parte hartze esperientzian oztupo bezala identifikatu dituzten erresistentziekin topatu izana.

Erresistentziak

Elkarrizketatutako emakumeen %52k bere esanak jarraitzeko erresistentzia topatu du bilera espazioaren batean bere ibilbidean zehar, gizonen esanekin gertatu ez bezala.

"Beno, inoiz gertatu izan zait teknikariren batekin, baina tira, ez dakit emakume izateagatik edo, baina errezelo eta erresistentziak egon dira. Jarduteko modua asko da pertsonena, baina, orokortuz, emakumeek gai bat hartzen dugunean amaitu egiten dugu, ez dugu 'Aurrerago egingo da' esaten. Orduan gogoratzen dut langileen artean zalaparta handia zegoela, 'Hauek zer egingo dute, hauek...' Tira, guk gogoak jarri genituen. Jakina, ezin dira hormigoizko hormak bota, baina aldaketa txikiak bai, egin ziren" (CoY4).

"Zerbait egiten saiatzen zara eta... zenbat ezizen izango ote ditut? Ba ez dakit zenbat izango ditudan... Hala ere, pozten naiz bertan egoteaz. Fisiora joatea bezalakoa da, *gustomina*. Bertara noa, kaña sartzen dut, ez du ezertarako balio, baina gustura geratu naiz" (A2Y2).

Emakumeen topaketetan ere atera zen erresistentzien gaia. Izan ere, erresistentziek behar dute egon, bestela beste moduz egongo lirateke gauzak honezkero. Batzordeez hitz egitean, gauzak aldatzearekiko erresistentziak ezinbestean dakar berarekin emakume eta gazteak kanpoan uzteko joera. Historikoki gizonek eratu dituzte erabakiguneak, eta, orokorrean, gizon heldu edo adinekoek. Beraiek izan dira subjektu eta beraiek izan dira neurri.

Gainera, emakumeen esanetan, kasu askotan hainbeste urte daramatzate batzuek bertara pega-pega eginda gelditu direla ematen duela, solidotuta. Eta pausu bat harago doaz zenbaitzuk: beraien azpisektoreko gizon edadetu horien interesen mesedetan ordura arte erabakiguneen parte izan diren horiek (gazteak, emakumeak...) bertan onartzeko erresistentziatik beraien onura partikularra soilik ikustera iritsi dira.

A- Askotik ikusten dena da urte asko daraman horrek aldaketa baten aurrean esaten duela 'ea, eta niri nola eragiten dit horrek?'. Eta 'niri, eta 'niri, eta 'ni'... eta 'ni' ez, aldatu txipa, zeren hemen (batzordean) gaude 8 baina gara 95 (elkartean), orduan, 'gu'. Beste horiek ere ahots bat badute.

Erresistentzia modu bat ere izan daiteke sartzen diren berri horiekiko jarrera zakarra. Edonor ez da gai lehen eraso horri buelta eman eta bere lekua egiteko.

C- Ni batzorde oso desatseginetan egon naiz. Gogoan dut batean esan zidaten lehenengo gauza, blasfematu ondoren: "Zer maila eskasa duzun". Eta nik esan "Tira, nahiko gaizki hasi gara, eh". Ni kikiltzen den pertsona bat izango banintz, 'ez naiz gehiago itzuliko' pentsatuko nuke, eta kito. 'Ez naiz gehiago itzuliko eta ez dut botorik emango eta ez dut ezer egingo'.

Eta, atentzioa ematen duen beste kontu bat da esan nahi denaren eta esaten denaren arteko aldea.

C- Nik, egia esan, ez dut inoiz arazorik izan parte hartzeko, eh. Behin barruan, ez da hain txarra. Zangotrabak jartzen dizkizute, baina...

Arazorik ez izatea zeri deitzen zaion, eta zerekiko alderatuta kontsideratzen den hala, aztertzeke gai interesgarria litzateke.

Matxismoa

Tamalez, matxismoa ez da atzoko kontua...

B- Ulertzen dut nekazal sektorean matxismo handia dagoela, zein den mugitzen gareneko eremua. Beste emakume bat eta biok elkarte bateko batzordean egon gara. Sartu ginenean gorriak ikusarazi zizkiguten. Batez ere, beste emakumeak, lehendakaria zenak, lan asko egin zuen, eta kostata baina batasun handia lortu genuen, guztien babesa izatea. Noski, hasieran ez gintuzten ikusi ere egin nahi, lan handia egin behar duzu.

...ezta gizonezkoena bakarrik.

C- Ni egon naizen bi azpisektoreak bata bestea baino matxistagoak dira, eta zera esan behar dizuet matxismoaren inguruan: kasu askotan, emakumeak eta gazteak oso matxistak dira, dira oso tradizionalak, eta hori ere hor dago.

Sexismoa

Banaka elkarrizketatutako emakumeen %67k jarrera sexistak jasan ditu bilera espazioen batean bere ibilbidean zehar.

"Orain umilago. Ez dakigu azpitik zer, baina orain horrekin badu errespetua jendeak" (C2Z4).

"Batzorde ondorengo bazkari batean, beste kide batzuekin hitz egiten nengoela, lehendakaria hurbildu eta 'Ni neskataren ondoan eseriko naiz' esan zuen. Ez zitzaidan batere gustatu, oso gaizki hartu nuen tratua hori. Neskatxa, neskabila, hankatxoa, besotxoa, bestea..." (A2Y2).

Kasu horretan, emakumea ez zen besoak uztarturik gelditu.

"Bazkaltzen ari ginela gurea bezalako ustiapenen arazoen berri ematen hasi nintzen, ekin eta ekin. Berak zerbaiti kontra egin eta nik argudio gehiagorekin egiten nion aurre. Postrerako esan zuen: 'Beno, altxatuko naiz, eh'. Eta esan zidan: 'Zure ondoan bazkaltzera esertzen naizen azken aldia izan da'" (A2Y2).

Paternalismoa, adultismoa, korporatibismoa.

Banaka elkarrizketatutako emakumeen %52k jarrera paternalistak jasan ditu bilera espazioen batean bere ibilbidean zehar.

"Bai, baina ez nirekin bakarrik, gazteekiko: 'Hauek ez dakite', 'Irakatsi egingo diegu', 'Gu joango gara...'" (A1X3).

Aldiz, paternalismoa beharrean, adultismoa ere jasan dute batzuek.

“Paternalismoa beharrean, adultismoa. Inork ez dizu erakutsiko” (B1Z3).

Eta korporatibismoa.

“Gizonen artean korporatibismo handia topatu dut nik, batez ere akatsak egon direnean tarteko” (C3Z2).

Azpisektoreen artean alderik?

Banaka elkarrizketatutako emakumeen %48ak argi eta garbi ikusten du azpisektoreen artean alde nabarmena dagoela.

“Bai, asko. Azpisektore batzuk beste batzuk baino askoz aurreratuago daude, eta emakumeak integratuago. Aaaaaaaskoz gehiago, bai. Giro ezberdinak dira, eta batean eta bestean zeuden gizonak ez dute zerikusirik” (B1X2).

“Bai, oso desberdina. Ni hiru eremutan egon naiz: bata niretzat modernoena, bidezkoena dena, berdintasunezko tratua bat dagoela ikusten dudana; bestea oso maskulinizatua, dena gizonak, gizonen gauzak, gizonen txisteak; eta, azkenik, dagoeneko beste liga bat dena, ez dagoena zer eginik” (A2Y2).

“Sektoreen artean alde handia dago. Batzuk ikusten dira emakumeentzakoago bezala, eta beste batzuk gizonen espazio bezala” (C3Y4).

Eta emakumeak beraiek izan daitezke hala barneratuta dutenak.

“Nik uste dut azpisektore batzuk beto handiagoa dutela emakumeentzat, edo emakumeek jartzen diotela betoa beraien buruei” (A1X3).

Banaka elkarrizketatutako emakumeen %10ak uste du ez dagoela alderik, antzekoa dela.

“(Hasperen egiten du) Oro har, nik uste dut dena nahiko antzekoa dela” (A1X1).

Elkarrizketatutako emakumeen %24ak ez du galdera erantzun bere jarduna sektore bakarrean gauzatzearren, hortaz, beste sektoreekiko esperientziarik ez izatearren; eta, azkenik, %18ak ez du argi ikusten.

Eta desberdina da baita ze elkarre motatan parte hartu. Hau da, azpisektore jakin batekoa bada, kideen artean, lantzen diren gaien artean... badago eremu komun bat. Aldiz, nekazar sektore osoa hartzen badu elkarrearen jardunak, hor bestelako desorekak ere ematen dira. Zein gailentzen den zeinekiko, eta aztertzea azpisektore horiek nagusiki nortzuek eratzen dituzten, gizon edo emakume, interesgarria litzateke.

“Elkarreetan denak azpisektore berdinekoak izaten dira gehienetan. Baina sektoreko erakunde batek hartzen du dena. Nik beti esan izan dut, juntan momentu horretan dauden kide gehienek sektorea zein den (adibidez, esne-behiak), beste hainbat esparru gelditzen dira gutxi kanpo (adibidez, lorezaintza edo erlezaintza bat), minoritarioak direnak, edo oso gutxi direnak azpisektore horietan. Ez dira jorratu ere egiten” (B1Z3).

Eta, pertsona berdinak, oso egoki harilkatu ditu azpiordezkatutako azpisektoreen eta gizon eta emakumeen berdintasunaren alde lan egiten duten ordezkarien kasua.

“Berdin, azpisektoreen pare jarriko nituzke emakumeen problematika, edo horren inguruko ekarpenak... Pertsona bat egotearekin junta horretan emakume nekazarien elkarte bateko ordezkari bezala beti gelditu izan da 'listan jarriko dugu protokoloa bete behar delako eta bestela politikoki oso itsusia gelditzen delako, baina jarriko dugu listan azkena eta gero ai, denbora, benga esan tita tita...'. Hori da nire sentsazioa” (B1Z3).

Animalien munduak behin eta berriz jaso ditu aipamen bereziak:

“Nik bertatik bizitzea erabaki nuenean, ni joan nintzen animaliak erostera, eta denek barre egiten zidaten” (CoZ2).

“Ganadu asuntza gizonetakoek daramate betidanik” (C1Y0).

Emakumeen lan saio kolektiboan ere aipatu zen gaia.

B- Sektorearen arabera, oso desberdina da. Nagoen azpisektore batean, emakume gehiago daude, ez esan zergatik; bestean, emakume bakarra naiz; eta, azkenengoa, berriz... itzela da hura (hasperen egiten du). Matxista totala.

Aldaketarik?

Banaka elkarrizketatutako emakumeen %71k uste du egoera aldatzen ari dela.

“Badabil aldatzen kontua. Beti egongo da norbait atzean geldituko dena baina...” (C3Y4).

“Aldaketak ematen ari dira: bilera batean parte hartzeko moduak, beste bati hitz egitekoak, bazterrean ingurukoak, komentario sexistenak... ematen ari dira aldaketak” (B1Z3).

Eta, aldaketetako bat da emakumeak bileretan egotea bera:

“Batzorde horretan egoteak bakarrik gauza asko aldatu ditu, eta (emakumeok) batzorde horretan bagaude jada” (B1X1).

Oro har, emakumeek aldaketak nabari dituzte, bai, baina sektorearen egunerokotasunean, azpisektore batzuetan batez ere, oso errotuta dagoen kontua dela diote.

Eta, gainera, aldaketa horiekiko mesfidati azaltzen denik ere badago.

“Nik susmoa dut ematen ari dela aldaketa bat, baina oraindik, azkenean, gauza asko aldatzen direla ezer ez aldatzeko (edo intentzio horrekin). Aldaketa horien sakontasunak zalantzak sortzen dizkit” (A1Y0).

Aldaketa ematen ari den edo ez neurtzeko batzordeetako emakumeen ehunekoa erabiltzea ezereen berme ez dela adierazi du emakume batek:

"Nik etxe honetan irailean %40a egotea juntan ikusten dut *lejos no, lo siguiente*. Orain, 'hemendik 15 egunera eduki behar duzue %40a juntan'. Zu lasai egon egongo dela. Eta hori da tristea, forma aldatu fondoa aldatu gabe" (B1Z3).

Aldaketak aldaketa, gaur egun gizon eta emakumeak toki askotan ezberdin ikusi edo kontsideratuak izaten jarraitzen dutela baieztatu dute zenbait emakumek:

"Nik uste dut gaur bertan elkarte batera joan eta nire burua batzordean parte hartzeko aurkezten badut, eta, aldi berean, beste gizon bat aurkezten bada, edozein eh, nik uste dut niri ez lidakeela inork bozkatuko" (A1X3).

"Modu orokortuan sumatzen da 'emakumeei behartzen gaituztelako' bozkatzen zaiela, eta behartuko ez balute, ezer ez. Azkenean, gizon bat sartzen denean, beti joango dira botoak harengana. Ederra egin behar du bat-batean bozketa berriak egin eta botoak erabat alda daitezen" (A1X1).

2021eko adibide bi jarriko dira segidan:

1- Sektoreko elkarte bateko batzorde-bilera baten gertatutakoa:

"Elkartetik elkartera ere aldea dago, baina batzuetan... Ni nagoenetako batean, ez da berdin kontuan hartzen gizon bat eta emakume bat. Aurreko egunean, bileran, azken unean lehendakariak galdetu zuen ea gai gehiago zeuden aztertzeko, eta emakumeetako batek txanda eskatzeko keinua egin zuen pantailan (bideobilera izan zen). Gizon zahar batek hitz egin zuen, eta emakumeak txanda eskatzen jarraitu zuen. Bada lehendakariak esan zuen: "Beno, beste gairik ez dagoenez bilera bukatutzat emango dugu". Mundu guztiak ikusi genuen emakumea txanda eskatzen" (A2Y2).

2- Batzorde bat bere ahotsa eta ekarpenak kontuan hartzen ez zirelako utzi ondoren, emakume horri buruz entzundakoa:

"Niri ez didate zuzenean esan, baina beste batzuk entzun eta kontatu didate: 'Zer espero zuen ba, gizonen mundu batean sartu bada'. Barkatu, ni ez naiz gizonen munduan sartu, niri gizonen munduan sartzeko deitu didate, eta ni gizonen munduan 18 urte nituenetik nabil, lehenagotik ere bai. Ez da ni ez dakit nora sartu izana, jaiotzetik bizi naiz mundu honetan. Baina tira" (A1X3).

Aldaketekin lotuta, 2020ko martxotik honako testuinguruak langa bat suposatu du hainbatentzat, zenbait aurrerapen bertan behera gelditu direlako ikerlan honetako atal ezberdinetan zehar ikusi ahal izan den bezala. Baina, gainera, aldaketarik nahi ez dutenek salbuespeneko egoera nolabait alde erabiltzen ari direla adierazi dute emakume batzuek.

"Uste dut koronabirusarena aprobeztatzen ari direla lanik ez egiteko. Primeran etorri zaie. Agian zerbait aldatzen ari zen, mugimendu pixka bat sortzen, baina berriro ere dena lehengora bueltatu da. Eta azkenean, aitzakia bakoitza ezer ez egiteko edo gutxiago egiteko baliatzen dute" (A1X1).

BATZORDEAK

EMAKUMEAK ETA PARTE HARTZEA

Esperientziadun emakume batek adierazi zuen, bere kasuan, iraganean izan zuela aukera batzorde berdinazale baten lanaz gozatzeko, elkarteko kide bezala:

“Orain emakume gehiago egongo dira, baina ni hasi nintzenean oso gutxi geunden. Batzorde gehienak (eskualdeetakoak, sektoreetakoak) gizonetzko hutsez eratuta zeuden. Izan zen emakumeak zituen batzorde bat, eta horrek asko ireki zuen emakumeen presentzia eta parte hartzea. Emakumeak egotearen alde zeuden gizonak ere bazeuden, jarrera abegikor eta irekidunak” (C1Y2).

Irabazitakoa ez da betirako, eta lorpenetan arreta jarri ezean, zaindu ezean, etorri bezala desagertzeko arriskua egoten da.

“Emakumeak egon ziren batzordea ederra izan zen, eta nik esan diezazuket nabari zela, aldaketa bat ikusi zela. Bileretan bertan bazeuden atseginagoa egiten zuten xehetasun txikiak. Emakumeen partaidetza handiagoa ikusten zen. Ondoren egon zen beste batzorde bat ere emakume bat izan zuena, baina gainerako emakumeak oso ordezkatuak sentiarazten ez gintuena... Nik justifikatu egiten dut, ulertzen dudalako emakumeek, gizonen mundu batean, forma berberak hartzen dituztela batzuetan. Aldaketak ikusi nituen, eta zenbait pertsona aldentzen joan ziren, baina tira, emakumeen gaia lantzen jarraitzen zen. Eta gero oraingo batzordea sartu zenean, emakumearen gaia ez da batere tratatzen, ez dago emakumearen arlorik, orduan atzera goaz karramarroa bezala. Egindako guztiaren ezintasuna sentitzen duzu, hor egoteko ahalegin guztiena, parte hartzearena, eta dena joan da pikutara. Hori da elkarrearekiko dugun penetako bat. Gaur egun oso gutxi parte hartzen dute emakumeek, egituragatik eta erakundea egiten ari denagatik. Sinesgarritasuna galdu du emakumeari dagokionez; orduan, oso parte hartze txikia dago, emakumeen parte hartzea jaitsi egin da, eta parte hartzeko interes gutxiago dago. Momentu honetan emakumeen ordezkartza zero da. Zero sentitzen gara, ez dago dinamikarik ere, ez zuzendaritza nagusian ez sektoreetakoetan... Ni joan izan naizen azken bileretan hogeitaka pertsona izango ginen, eta agian ni bakarrik izan naiz emakumea, edo asko jota ni eta beste bat. Bazkide gisa. Eskualdeetako karguak ordezkatzuz ere emakumerik ez, bat ere ez. Atzera egin da” (CoY4).

Emakumeen parte hartzeak dakartzan onurak, horren beharraren inguruko sentsibilizazioa eta halakoak hizpide izaten direnean, askotan imajinatzen da gizonen artean egin behar dela sentsibilizazio-lan hori, eta emakumeen artean ahaldundutze-lana. Aldiz, jendarte heteropatriarkal honen seme-alabak izaki, sexuak ez du zertan genero ikuspegia edo berdintasunarekiko sentikortasuna berekin ekarri. Aurreragoko testigantzan emakumeek parte hartzearen alde zeuden gizonak aipatu diren bezala, emakumeen parte hartzea uzkur eta errezeloz hartu izan duten emakumeak ere egon dira, eta badaude.

“Batzordera sartu ziren emakumeak berdintasunari buruzko gai horiek guztiak aktibatzen hasi zirenean, esango nuke, bazkideen artean, %50 alde eta %50 kontra izan zituztela. Gainera, orduan (gutxitan gustatzen zait hau esatea, eh), baina emakumeok ere kontra egiten genion

elkarri, beraz... Eta ez dut uste emakume batek hori esan behar duenik, baina aldaketarekiko erresistentzia horren zati bat beste emakume batzuengandik zetorren. Hauek asko borrokatu zuten eta asko berdindu zuten, eh? Baina kontra zuten %50aren buelta hori ez dizut esango denak gizonak zirenik” (C1Y2).

Hori oso beharrezkoa da kontuan hartzea, errealitatearen isla baino ez da eta. Zenbat eta irakurketa onestagoa egin, orduan eta aukera gehiago egongo dira egoerari buelta emateko irtenbide egokiak topatu eta proposatzeko.

NAHIKOA PERTSONA ANIMATZEN AL DIRA?

Emakumeei, ea beraien esperientzian oinarrituz orokorrean elkarteetako batzordeak eratzeko nahikoa pertsona animatzen al diren galdetuta, gizon zein emakume, %14ak soilik erantzun du baiezkoa.

“Beti jendea falta da denean, eta pandemia honekin are gehiago. Arrazoiak: batetik, denbora; bestetik, instituzioak eta erabakiguneak ez daude ondo ikusita, ‘zertarako joango naiz nahi dutena egingo dute-eta’. Gainera, indibidualizazio ikaragarria dago”(C3Y4).

“Oso zaila da. Izan ere, bada jendea, ez emakumea izateagatik edo gizona izateagatik, ezertan parte hartu nahi ez duena. Eta noski, hain emakume gutxi daudenez gero, gehiago kostatzen da”(A2Y2).

Batzordeak aurrera atera daitezen, sukalde-lana garrantzitsua da.

“Nik 4 urte egin nituen, eta gero hasten zara begiratzen nor izan daitekeen zure atzetik sartuko dena. Gauza bat da zein izan daitekeen pentsatzea, eta beste bat da ea prest dagoen, ea sartu nahi duen. Eta orduan joan behar zara sukalde lan hori egiten, jendearengana joan eta konbentzitzen etortzeko, ze bolondres lan handia da, eta egon behar duzu horretarako: batzuk gehiago beste batzuk baino, batzuk sentimendu batzuekin, beste batzuk beste batzuekin... eta ez da erreza”(B1Z3).

Normalean, sukalde lan horrek kutsu jakin bat izaten du, aurretik zegoen batzordearen antzekoa. Nolabaiteko betiraute bat bilatzen da, lehenagokoaren jarraipena. Eta, inertziaz, izaera hori izaten dute batzordeen segidek, ezohiko zerbaitek dinamikak astindu ezean.

“Junta eratzerako garaian, hariak mugitzen dituen horrek edo horiek bermatuko dute lehendakaria ez bada ere, lehendakariordea izatea karismaduna, edo gogoko duena, edo beraien lineakoa, edo beraiek nahi duten hori; lehendakari ezin bada, jarriko dugu hor jarri beharrezkoa, eman dezala aurpegia, baina ziurtatuko dira 2-3 pertsona egongo direla beraien legatu hori mantentzeko, eta beste tokiak ea nola betetzen ditugun, ea nor harrapatzen dugun”(B1Z3).

Elkarriketatutako emakume askok adierazi dute elkarteetatik batzordeetan parte hartzera animatzen dutela jendea, baina hala ere atzetik ibili behar izaten direla beti.

“Beti bilatzen ibili behar da. Oso jende gutxi esaten du ‘Ni jarriko naiz’. Zergatia? Gure etxeetan dugun lan-karga horrekin, 24 orduko lan karga baita animaliak ditugunon kasuan, bilatu behar duzu tarte bat elkarteari dedikatzeko, eta da handia. Benetan lan bat egin nahi baduzu tarte handi bat bilatu behar duzu, eta bolondres lan izugarria da. Azkenean borondatezko lana da, joan behar zara, egon behar zara... Ez da batere erraza jendea topatzea. Kargu horietan jartzen direnei nik miresmen bat diet, ze ni pasatu naiz hortik eta badakit zer den, eta bakoitzak kudeatzen du bere erara: batzuk gehiago entregatzen gara, beste batzuk gutxiago...” (B1Z3).

Baina, elkarte batzuetan, animatze hori ez da orokorra, ez da denei zuzendua. Hortaz, ez da gardena.

“Izan ere, batzordeko kide berri bat aukeratu behar denean, bazkide guztiei dei diezaiekete ea interesatzen zaien ikusteko, baina ez da hala izaten. Beti dago ‘sektore jakin bati bakarrik abisatuko diogu, ez dakit noren lagunak’ edo ‘horri’. Beraz, ez da bazkide guztiei argi eta garbi parte hartzera animatzeko egiten zaien deialdia. Gezurra da hori, irreal da. Zuzenean deitzen zaie pertsona jakin batzuei. Egon nintzen beste elkartean zen: ‘Honi ez, ez dakit zergatik; besteari, ez dakit zer beste gauzogatik...’. Nik esaten nuen: ‘Zer axola dio, nahi duen guztiak parte hartzea, ezta?’ Azkenean, sigla (politiko) batzuekin janzten bazaituzte, horrek proposatua izateko edo ez izateko aukerak baldintzatzen dituela dirudi. Baina baliteke baztertutako pertsona horrek agian parte hartzeko aukera izanez gero ideia itzelak izatea...” (A2Y2).

Askotan, gauzak bideratzen direneko moduak berak bide bat edo bestea hartzea dakarrela salatu dute elkarriketatutako emakume bat baino gehiagok. Hau da, formak berak ahalbidetu dezakeela modu askean norbere iritzia ematea, edo, aitzitik, iritzi hori ezin adieraztea.

“Batzordea eratzeko bilera egiten denean bozkatu egiten da. Ozen esaten dute ‘dena berdin jarraitzea nahi baduzue’... Gauza horiek ondo egin behar direla uste dut nik, gutunazal bat izatea hautagaitzaz aldatzen denean, gauza serioa. Ez esan ‘berdin jarraitzea nahi duzue edo aldatzea nahi duzue?’ ‘Eskua altxatzea nahi duenak’. Nik ez dut eskua altxatuko, tuntuna ematen dut. Agian nahi dut, baina ez zait eskua altxatzea bururatzen. Horrek gutunazal bat izan beharko luke” (A1X1).

Kasu horretan, gauzak aldatu nahi izateak (inertziak?) ezarritako moduei aurre egitea dakar, eta norbere burua bistaratzea. Bilera espazio askotako egiturazko planteamenduak aurretik datorrenari jarraitasuna ematea faboratzen du, eta beste edozein aldaketa edo ekarpen egitea zaildu; pausu hori ematen duena dagoenarekin ados ez dagoela ulertzen baita, horrek dakarren pertsonen arteko harremanen gaiztotzearekin.

“Beraz, jendea horrela geratzen da (besoak gurutzatuta) eta beti bezala jarrai dezala, zer egingo zaio bada. Eta orduan, aukera hori egun dauden aldeko boto bilakatzen da, azkenean beti bezala jarraitzea nahi dutelako” (A1X1).

Gainera, irekitasun horrek posizioen polarizazio eta enkistamentua gorpuztu eta areagotu dezake:

“Azkenengo botazioa, irekian, lotsagarria izan zen. Oso konfrontazio handia dago bi talderen artean, eta baserritar zahar asko dagoenez, *están como una cabra*” (C3Y4).

Halako kontuek ez dute parte hartzea errazten.

Emakumeek tokia hartu eta aurrera pausua eman behar dutela uste dute elkarrizketatutako zenbait emakumek, ardurak hartu, ausartu. Emakumeen inplikazioari egiten diote dei.

“Nik ez diet gizonei erru dena botatzen, eh. Emakumeek ere badute. Beraiek ez badute beraien tokia hartzen... ‘Ni ez naiz inoiz joan-eta...’. Noski, lehenengo aldiz joaten ez bazara ez zara sekula joango; zu baldin bazara bazkidea, zuk joan behar duzu. Eta gero iruditzen bazaizu han (bileran) lekuz kanpo zaudela, zure erabakia izango da, baina zure ustiapenari lotutakoak interesatuko zaizkizu ba, etxera gutuna iritsi orduko ‘hau edo beste hau’ egingo direla esanez. Zeren eta elkarreak horretarako dira; ez dakit horretarako erabiltzen diren orain, baina horretarako beharko lukete. Juntan daudenei bazkideei baino lehen iritsiko zaie, eta haien lana da beste kideei zabaltzea, eta kideen lana da entzutea. Niretzat utzikeria bat da emakumeen partetik” (C2Z4).

Aldiz, elkarteei helarazitako galdetegian ea orokorrean elkarteko batzordea eratzeke nahikoa pertsona animatzen al diren galdetuta, galdetegia bete duten 51 elkarteetako gehienetan erantzuna baiezkoa da (%56,9); heren batek ezetz dio (%33,3) eta gainerako %9,8ak ez du erantzun.

Baiezkoa erantzun dutenen arteko ekarpenak kontuan hartuz gero, horietako gehienetan juntak beste entitate batzuetako ordezkariak osatuta daudela ikus daiteke. Kasu horietan, ordezkariak bilatzeko lanak beste elkarteek egin behar dituzte, kasu gehienetan estatutuek jasotzen baitute entitate bakoitzak egin beharreko ordezkari-ekarpena. Arreta deitzen du sektoreko elkarteak kontuan hartuz gero mota honetakoak direla gutxiengoa, baina helarazitako galdetegia bete dutenen artean gehiengoa direla.

Ezezkoa erantzun dutenen arteko ekarpenak kontuan hartuz gero, bazkideen kopuru txikia, adina eta parte hartzearekiko errefusa aipatzen dira. Azken alderdi horren muturreko kasu bat litzateke elkarrea uztea parte hartzea eskatzeagatik; bi emakumeren kasua da hori. Hala ere, egoera zehatza aztertu beharko litzateke.

BATZORDEETAKO HAUTAKETA PROZESUA

Batzorde horien eraketa beste alderdi batetik begiratuko da orain. Galdetegia erantzun zuten 51 elkarteetan, hautaketa prozesuari dagokionez, hautagaitza bidez osatzen dira erabaki-organoak erakunde gehienetan (31, %60,8). Ehuneko txiki batek txandakatzea erabiltzen du (3, %5,9). Gainerakoek, bestelako bideak (17, %33,3).

Bestelako bide horietan indarrean dagoen juntak duen pisua esanguratsua da (5)¹²: kasu batzuetan, hark proposatutako plantilla da bozkatzeko dena, horretan oinarritzen da organo berria (3) (aurretiazko tanteo bat egon daiteke, aurrera egiteko benetako aukerak ziurtatzeko); beste kasu batean (1), junta horrek adosten du hurrengo juntaren eraketa; eta, beste batean (1), indarrean dagoen juntak erabakitzen du asanbladara bertaratutako pertsonen artean, horien dedikazio-gaitasuna kontuan hartuta.

¹² Parentesi artean adierazten da erantzun hori eman duten elkarte-kopurua.

Hurrengo bide ohikoena asanblada orokorrean erabakitzea izaten da (4). Erabaki hori adostutakoa izan daiteke (2), edota bozketa bidezkoa (2). Azken kasu horretan, bazkideak beraien artean bozkatzeko dira, eta bozka gehien dituztenek eratzeko dute organoa.

Galdetegia erantzun duen elkarteetako batean (1), adostutako 4 urteak pasatzen direnean, erabaki-organoa eratzeko dutenei galdetzen zaie ea aldaketarik egin nahi duten. Ezezkoa bada, denak berdin jarraitzen du; baiezkoa bada, bozketa bidezko kontsulta egiten da.

Beste elkarte baten kasuan (1), ea era bolondresean interesa nork duen galdetzen da, eta inor ez azaltzekotan, lan talde desberdinetako bileretan eta talde eragilean erabakitzen da nor egon daitekeen, eta pertsonari proposamena luzatzen zaio.

Elkarte bakarrean (1) funtzionatzen du borondateak juntak eratzeko bide gisa.

Azkenik, erakundea bestelako elkarte batzuek osatzen duten kasuan (2), elkarteetako ordezkarien artean egiten da hautaketa (1), edo elkarte bakoitzak kargu finko batzuk izaten ditu (lehendakaritza, idazkaritza...), eta horrela mantentzen da (1). Gainerako 3 kasuek ez dute 'bestelako bidea' zehaztu erantzunetan.

BATZORDEEN BERRIZTAPENAK

2015eko urriaren 22an onartu zen Emakume Nekazarien Estatutua, eta 2019ko urriaren 22an gairitu zen lehen denbora-mugarria. Dirulaguntza publikoak jasotzekotan, emakumeen presentzia bermatu behar zuten nekazal-erakundeek beraien erabaki-organismoetan. 2021eko urriaren 22an, aldiz, %40koa izan beharko da emakumeen parte hartzea laguntza publikoak jasotzen jarraitzeko.

Galdetegia bete duten 51 elkarteetatik 13k (%25,5) berritu zuen zuzendaritza batzordea 2019an azkenengoz; 15ek (%29,4) 2020an, eta beste 13k (%25,5) 2021ean. Gainerakoetatik, 3k (%5,9) 2018an, 5ek (%9,7) 2017an, 1ek 2016an (%2) eta beste batek 2015ean (%2). Jarraian ikus daiteke berriztapen horien eta batzordeetako emakumeen ehunekoen arteko harremana.

Elkarte kop.	13	15	13	3	5	1	1
Berrizt. urtea	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015
Emak batezb.	36%	34%	34%	14%	20%	60%	100%

5 Taula: Galdetegia bete duten erakundeetako batzordeen berriztapen urtea eta emakumeen batezbestekoa.

Aztertutako 51 elkarteetatik 4k ez dute emakumerik beraien batzordean: batek 2021ean berriztu zuen batzordea, eta 4 kidek osatzen dute; beste batek 2019an, eta 4 kide dira; hirugarrenak 2018an, 5 kide; eta, laugarrenak 2017an, 5 kide.

Galdetegia bete duten 51 elkarteetatik 38k, ia hiru laurdenek (%74,5), 4 urtero berritzen dute junta; 10ek (%19,6) 2 urtero; 2k (%3,9) urtero, eta bakarrak (%2) beste maiztasun batekin, 7 urtero.

28 elkartetan (%54,9) juntak osorik berrizten dira, horietako batzuetan hautagaiak errepikatu daitezkeen arren; 13tan (%25,5) junta erdia berrizten da aldiro; baten (%2), juntaren %30-40 bitartean; eta gainerako gutxi (%17,6) ez dago berriztatu beharreko zenbaki finkorik, aurkeztutako hautagaien eta bozkaketen arabera izaten baita.

Emakumeak eta errepikapenak

Lan saio kolektiboetan, emakume parte-hartzaile askok adierazi zuten beraiek ekarpenak egin eta gauzak hobetzeko hartzen zutela parte, eta beraien ekarpenek kabidarik ez zuten momentuan nahiago zutela parte hartzeari utzi. Emakumeen parte hartzeak intentsitate handikoak dira orokorrean, buru-belarri ibiltzen dira. Eta, hori, oso zaila da denboran iraunaraztea. Hori identifikatzen dute emakumeek kargua ez berriztatzeko eta ez errepikatzeko joeraren atzean dagoen arrazoietakoa bat bezala.

B- Gizonek ez diote guk adina buelta ematen gauzei. Horregatik ez dugu inork berritu nahi, erre egiten zarelako.

Oinarrien aberastearen beharra

Gainera, topaketetan beste alderdi hau ere azpimarratu zen: ezinbestekotzat jotzen dute emakume askok elkarrekin oinarriei buelta ematea. Elkarrekin bazkideek eratzen dute, eta horiek dira gero batzordeak osatzen dituztenak. Oinarrietan haize berririk sartu ezean, ezinezkoa da batzordeak orain arteko moduak ez diren beste batzuek elikatzea. Eta, printzipio berbera aplikatuz, oinarrietan parte hartzen duten emakume gehiago egon ezean, ezinezkoa da batzordeetan betikoak ez diren emakumeak egotea, hain onuragarria litzatekeen emakumeen arteko txandakatzeko baterako, adibidez.

A1- Nik ez dut nahi ni sufritzen ari naizena berak edo beste emakume batek sufritzea; nik bi izan beharrean, gehiago izatea nahi dut.

A2- Hori da kontua: zer ari da huts egiten emakume asko titular gisa egon daitezen, eta gero bileretara joan eta inor ez azaltzeko. Hor klik bat dago huts egiten duena. Beste emakume bat gehiago bakarrik badago, hari emango diozu dena. Nire kasuan gertatu da, gazteago bat sartu dela, eta ahal dudana guztia berarentzat. 'Hona ez naiz iristen, eta zure txanda da'.

EMAKUMEAK: BAZKIDETZA, ORDEZKARITZA ETA DELEGAZIOA

'Oinarrien aberastearen beharra' azpiatalak ondoren jorratuko direnei bide ematen die. Elkarrekin ba al dago emakumerik bazkide? Asko, gutxi? Zein harreman dago elkarrekin dauden emakume kopuruaren eta batzordeetan dauden emakume kopuruaren ehunekoen artean? Proporzionala al da? Ez bada hala, norantz okertzen da balantza? Zein arrazoi uste dute elkarriketatutako emakumeek dagoela horren atzean?

Aipatutakoez gain: Bat al datoz zerrenda eta paperetako emakume kopurua eta gero bileretara (izan bazkide edo batzordekide bezala) bertaratzen diren emakumeena? Zergatik? Ordezkaritza besteren ezina da, delegazio formalik egin ezean. Zein harreman dago ordezkariaren eta delegazioaren artean? Modu formalean edo informalean ematen al da? Zein ondorio dakartza?

Eta, nola ez, ustategiko titulartasunak ze harreman du guzti horrekin?

Galdera horiei erantzuteko borondatea du hurrengo atalak.

ORDEZKARITZA

Banaka elkarrizketatutako emakume gehienek (%71) esango lukete ez datozela bat elkartean dauden eta batzordean dauden emakumeen ehunekoa.

“Inondik inora” (B1Z3).

Hala ere, puntu honetara iristean, gai garrantzitsu eta konplexu bat azaleratzen da: Zein da elkartean dauden emakumeen ehunekoa? Teoria eta praktikaren arteko talka bortitza da.

“Lehenago bazkide, normalean, izaten ziren gizonak. Oraingo dirulaguntza sistemarekin dena aldatu da. Gizona kalean badago lanean, emaztea jartzen du; gizona jubilatuta bada, emaztea jartzen du, nahiz eta gutxi egon emaztea ere, zenbat, 4-6 urte? Orain aldatu da, baina lehen gehiena gizonak ziren. (...) Dirulaguntzen klika 2000tik hona-edo kokatuko nuke” (C2Z4).

Aldaketa hori positiboa litzateke benetakoa balitz. Haatik, itxura guztien arabera, batez ere maila burokratiko eta estatistikoan eman den aldaketa bat izan da; aurrerago azalduko den bezala, sektorea eratzen dutenen desitxuraketa areagotu duena.

“Titulartasuna paperetan badago. Nik bazkideen zerrenda hartzen badut emakume asko gaude, baina nik bileretan gizonak baino ez ditut ezagutzen” (A2Y0).

“Zerrendak hartuta emakume asko daude, bai, baina izena bakarrik. Erretiroa hartu duen gizon batek ustiapena emaztearen izenean jartzen du, baina emakumeak ez du ustiapenaren erdia ezagutzen, adibidez”(A1X3).

Gezurra dirudien arren, paradoxa latz hau ematen da egun, honako sekuentzia honetan adierazten dena:

1. Ordezkaritza titulartasunarekin lotuta dago. Hau da, ustiapeneko titularra da elkarte bateko kide izan daitekeena; eta, kide denez gero, bertako bilera orokorretara joan, bozkatu, batzorderako hautagai izan edota batzordekide bihurtu.
2. Emakume titularrak daude¹³. Titulartasunak edo titularkidetzak berarekin dakarren eskubideen aitortza, lorpen garrantzitsua izan da sektoreko emakumeentzat.

¹³ Pertsona juridiko eta fisikoen urte berdineko datuak jakiteko Euskadiko 2009ko nekazaritza-errolako datu-bankura jo beharra dago. [EAEko lan familiarra lehen sektorean: titularrak (pertsona fisikoa) sexuaren

3. Hala ere, titular diren emakumeetatik zenbaitek (itxuraz, ehuneko esanguratsu bat) ez dituzte ustiapeneko lanen ardurak beraien gain, ez da beraien lanbide nagusia, eta bada sektorearekin inongo harremanik ez duenik ere.
4. Titularrak diren emakumeak dira sektoreko elkarte eta erakunde ezberdinetako kide, erakunde gehienetan ustiapena bera (baserria, etxea) barik titularra den pertsona baita bazkidea.
5. 1 puntura itzuliz gero, ordezkaritza titulartasunarekin lotuta dago. Alabaina, praktikan ez da hala izaten.
6. Salbuespen gutxi batzuk kenduta, nekazal emakumeak ez diren eta bestelako arrazoiengatik ustiapenetako titular diren emakumeak ez dira erabakiak hartzeko espazioetara joaten: ez bazkideen bileretara, eta are gutxiago hautagaitza bat eratu eta batzordeetara. Inguruko gizonen bat joaten da emakume titular horren ordezkari.
7. Eta nekazal emakumeentzat ere, oro har, titular izan arren ez da kontu erraza: denbora falta, genero rola, kanpo eta barne oztopoak... Kasu horietan ere ez dira gutxi beren ordezkari gizon/semeei/aita/neba joaten diren kasuak; eta, iraganean are gehiago baina egun ere gertatzen da, espazio horietara bertaratzeko erabakitzen duten emakumeek bidesari pertsonala ordaindu behar izaten dutela sarritan.

Hemen jasotakoa egungo egoera ulertzeko hurreratze bat izan daiteke. Orain arte aurkeztutakoa kontuan hartuta, zeintzuk dira guzti horren berehalako ondorioak?

Hasteko, historikoki sektoreko emakumeen aldarrikapena izan dena, ustiapenetan lan egiten zuten emakumeak horien titular edo titularkide izatea horrekin zegozkien eskubide sozial eta ekonomikoak berenganatzeko, adierazle arriskutsu bat bilakatu da.

Elkarrizketatutako emakume adinekoenak gogoan dute beraien ustiapena, labore motak, bertan lanean zebiltzanen kopuru eta profilak (ustiapen burua, langilea, familia laguntza...) zehaztu eta jarduna erregulatzea eskatu zitzaizkien. Etxeko emakumeen lana itzaletan gelditu izan da, beraiek beste edo lan gehiago eginagatik ere gizonak izan direlako ustiapeneko buru eta titular administrazioaren begietara.

“Emakumeak beti egon izan dira ustiatzearen. Kontua da: nor zen altan ematen zena? Gizona. Baina emakumeak, nire inguruan behintzat, beti joan izan dira uzta biltzera edo beti joan izan dira erreiterara... Eta abeltzaintzan emakume asko zeuden, baina ez zeuden altan emanda, eta haiek beste ez zekien inork” (A1X3).

arabera 2009] 5.286 emakume, guztizkoaren %34; [Pertsona juridiko bat titular duten ustiatzearen emakume eta gizon bazkideen kopurua 2009] 548 emakume, guztizkoaren %29.

Genero rola definitu eta horiek iraunarazteko eginahalak egin zituen frankismoak, eta nekazal emakumeen kasuan, landa-eremuetan bizi zen biztanleria oro har eta arrazoi ezberdinengatik tradizionala izaki, egundoko kortsea izan zen.

Ez ziren samurragoak sasoiko eta ondoz ondoko urteetako administrazioak jarritako trabak emakumeek alta eman nahi zutenean. Parean suertatutako teknikariak botere izugarria zuen orduan, ez zegoen inongo harmonizaziorik, eta bulego bakoitza mundu bat zen. Zer esanik ez eskualde ezberdinetako edota probintzia ezberdinetako bulegoen artean egon zitekeen aldea.

“Arazoak izan nituen nekazaritzako erregimen berezian alta emateko. Niri hiru urtez ukatu zidaten alta ematea Nekazaritzako Gizarte Segurantzari, legeak oso zaharrak baitziren, Francoren garaikoak, eta esaten zuten nire senarrak irabazten zuenarekin nahikoa zela familia-unitateari eusteko. Eta nik ez nuen laguntzarik eskatu, baina gogoan dut emakume batek laguntza-plana eskatu zuela eta esan ziotela: ‘Emakume batek gizonik gabe ezin du-eta... Gero umeak izatea pentsatuko duzu, noski. Orain laguntzak jaso, eta gero seme-alabak izatea eta baja hartzea pentsatuko duzu, ezta?’” (CoY4).

Esan daiteke, sektorea eratzen zutenen argazkiaren desitxuraketa ildo horretatik joan dela urte luzez, emakumeen lanen ikusezintasunean oinarrituta.

Hala ere, azken hamarkadetan egon izan dira kasuak non emakumeak nekazal gizarte segurantzari alta emanak izan diren nahiz eta beraien lanbidea ez izan, eta etxetik kanpo lan egiten zuten senar edo semeek (kasu askotan, gizonak) gauzatzen zuten jarduna. Oro har, planteamendu horren arrazoi nagusia izan da emakumeak etorkizunean erretiroa kobratu ahal izatea. Kasu horretan, familia erabakia izan da emakumearen kotizazioa ordaintzea biharko egunean hark ere diru-sarrera bat izan zezan.

Makurra da gero egoera, beste diru-iturri batek ahalbidetzen baitu nekazal gizarte segurantzari ordaintzea; aldiz, sektoretik bizi diren eta izan direnentzat oztopoa da bigarren kotizazio bati aurre egitea. Eta, areago, ez da izan lehentasunezkoa, kasu askotan argi ez izatearren zer suposatzen zuen horrek. 2012an argitaratu zen *Landa-garapena eta Nekazaritza. Generoaren arabera eraginaren ebaluazioa* dokumentua. Bertan, *Las mujeres en el entorno rural* (2011) azterlaneko datuetan oinarrituta zera jasotzen da:

Zehazki zer erregimenetan dauden kontuan hartu gabe (nekazaritzakoa, orokorra edo autonomoena), titularrak diren edo titulartasuna partekatzen duten emakumeen % 74k dio Gizarte Segurantzari «kotizatzen» duela. Inkestan lortutako ehunekoak ez datoz bat gizarte-segurantzako afiliazio-estatistikekin. Horrenbestez, baliteke informazio okerra edukitzea gizarte-segurantzari afiliatzeak dakartzan eskubide eta betebeharrei buruz: baliteke osasun-laguntza jasotzeko eskubide hutsarekin nahastea, edo familia-eskubideak sortzen dituela uste izatea; alegia, pentsatzea gizonak kotizatuz gero, emakumeak eskubide berak dituela, berak kotizatu izan balu bezala.

Gaizki-ulertu hori hedatua izan da (Milikua Larramendi, 2018:74).

Alabaina, gaur egungo egoera ez da egundo lehenago existitu. Itxuraz, emakumeek etorkizunean erretiroa kobratzeko aukerari gehitu behar zaizkio azken hamarkadetakoko dirulaguntzen esleipen sistema, fiskalitatean emandako aldaketak... emakumeak itzaletatik atera eta ustiapenen arduradun gisa azaltzeko. Zer gertatzen da hor? Neurri horiek ekarri izango dutela agian egiaz

nekazal emakumea den norbait titular edo titularkide bilakatzea, altan ematea... baina lehenago ez zegoen beste perbertsio bati ere eman dio bide: onurengatik emakumearen izenean jartzea, atzetik emakume horren benetako lana egon ez arren.

“Nik uste dut hor badagoela... Uste dut emakume asko daudela zelanbaiteko onurengatik. Ez dakit nola esan. Badakit emakume asko daudela nekazaritzako gizarte-segurantz ordaintzen, baina ez dute inoiz traktorik hartu edo ez dakite non dauden partzelak; edo agian dirulaguntza baten eskaerari begira emakume bat jarrita puntu gehiago lortzeagatik izan daiteke; edo onura fiskalen batengatik; edo senarra erretiratuta dagoelako eta NPB kobratzen jarraitzeko... Baina egiaz, adibidez, gure inguruan nik dakidala traktorea hartzen duten emakumeak nire ahizpa, nire herriko beste bat eta ni gara. Eta badakit elkartean emakume bazkide asko daudela” (A1X3).

“Ni nagoena gizonen elkarte bat da. Nire kasuan ez, nik esplotazioa hartu nuelako, baina normalena ustiapena emaztearen izenean egotea da, senarrak fabrika lan egiten duelako, eta zergengatik edo errenta-aitorpenagatik edo horrelako zerbaitengatik egiten dute horrela. Baina haiek (gizonak) doaz bileretara. Hori pixkanaka aldatuz joan da, sistema osoa aldatuz joan da, baina nik ez ditut (emakume horiek) inoiz ikusi” (B1X2).

Zer dugu, hortaz? Deformazio bikoitza: batetik, lanean dauden eta aitorpenik ezta eskubiderik ez duten emakumeak daude, inongo izendapen eta estatistiketatik kanpo gelditzen direnak; eta, bestetik, ustiapenetan lan egiten ez duten eta izan beharko luketen emakumeek ez duten aitorpen eta eskubideak dituzten emakumeak, izendatuak izan daitezkeenak, eta estatistikak loditzen dituztenak.

“Guk gure elkartean beti zehaztu dugu nekazari eta abeltzainak nahi ditugula. Eta dagoeneko batzuek zahartzen ari gara, eta jende gazte asko dago agertzen direnak (titular) baina hau (nekazal mundua) ez dute bizi izan, ezta bizi ere. Horrenbestez, zaila da hortik abiatuta ezer partekatzea. Ideiak eta beharrak ez dira berdinak, desberdinak dira” (C1Y2).

Nekazal emakumeen parte hartzeari dagokionez, aurreko sekuentziako 1 puntura bueltatuz (Ordezkaritza titulartasunarekin lotuta dago), zein da argazkia? Bada baditugula emakume batzuk emakumeen lanen eta eskubideen aitorpena faboratzeko tresnak medio ustiapenen titulartasunaren parte bilakatu direnak. Aldiz, ez dakigu zenbat diren zehazki, aipatutako distortsio berria dela-eta, ez baitakigu titular bilakatu diren emakumeetatik zenbat diren nekazal emakumeak eta zenbat diren bestelako arrazoiengatik pausu hori eman dutenak, sektorearekin lotura esturik izan beharrik gabe.

Eta baditugu beste emakume batzuk, oraindik ere, historikoki sektoreak jasan izan duen desitxuraketagatik (gizonak soilik ikusgai) itzalean jarraitzen dutenak, ez direnak titullarrak, ez daudenak altan emanda...

Hortaz, gaur egungo antolamendua kontuan hartuta, **titulartasuna giltzarri** den faktore bilakatzen da, horrek eskainiko baitu elkarreetan parte hartu ahal izateko giltza.

Arazoa zein da? Orain arte kontatutakoa, era sintetikoan adierazia:

- A. Badaude emakumeak titullarrak BAI direnak, beraz, parte hartzeko eskubidea (eta betebeharra?) BAI dutenak, eta sektorean BAI dihardutenak. ZUZEN.

- B. Badaude emakumeak titularrak BAI direnak, beraz, parte hartzeko eskubidea (eta betebeharra?) BAI dutenak, eta sektorean EZ dihardutenak. OKER.
- C. Badaude emakumeak titularrak EZ direnak, beraz, parte hartzeko eskubidea EZ dutenak, eta sektorean BAI dihardutenak. OKER.

Titulartasunen inguruko azken datu ofiziala Nekazaritza-ustategien egiturari buruzko 2016ko inkesta da. Hala ere, INEk ez ditu aintzat hartzen, titulartasuna pertsona juridiko bati dagokion kasuan, haren bazkide titularkideak. Hortaz, datu horiek honi dagozkio: *EAEko lan familiarra lehen sektorean: titularrak (pertsona fisikoa) eta ustategiko buruak, adinaren eta sexuaren arabera, 2016*.

Pertsona juridiko eta fisikoen urte berdineko datuak jakiteko Euskadiko 2009ko nekazaritza-errolako datu-bankura jo beharra dago. Hamar urterik behin egiten den azterlana osasun larrialdi egoerak atzeratu egin du, hortaz, ez dago datu eguneratuagorik oraingoz. Honakoei dagozkie hemen bildutakoak: *EAEko lan familiarra lehen sektorean: titularrak (pertsona fisikoa) sexuaren arabera, 2009* eta *Pertsona juridiko bat titular duten ustategietako emakume eta gizon bazkideen kopurua 2009*.

1 sektoreko ustategien titularrak	2009 Pertsona juridikoa	2009 Pertsona fisikoa	2016 Pertsona fisikoa
Gizonak	1341 71%	10380 66%	9012 62%
Emakumeak	548 29%	5286 34%	5568 38%
Guztira	1889	15666	14580

6 Taula: Sektoreko ustategien titularrak, sexuaren arabera: pertsona fisikoak eta pertsona juridikoak (bazkideak).

Ondorioz, ikerketa lan honen markoa eratzen duen Emakume Nekazarien Estatutura bueltatuz, emakume titularrei dagozkien ehuneko horiek A eta B taldeetako emakumeek elikatzen dituzte, barne egon beharko liratekeen C taldekoak kanpo utziz. Bi talde horien artean, A taldekoak ikerlan honetan zehar aztertu diren oztopoak dituzte; eta B taldekoak emakume izatearren dituzten egiturazko trabez gain, iheskor agertzen dira, kasu gutxi batzuk salbu.

“Emakume bakarra ezagutzen dut jarduera egiaz bere senarrak eta semeak eraman, eta bere bazkide-izendapenaren ardura betez bileretara bera joaten dena” (A2Yo).

Elkarte gutxi batzuek era naturalean egin dute trantsizioa, baina askok ENEn eraginez eraldatu dute batzordearen osaketa. Horren beste ondorioetako bat izan da elkartearen eta batzordearen dauden emakumeen ehunekoa bat ez datozela adierazi duten emakumeen %20ak (elkarriketatutako emakume guztien %14) adierazi duen emakumeen gainordezkapena.

“Ez, emakume gehiago daude juntan. Teorian, bazkideen artean %25, eta juntan ia %40” (A1Yo).

“10 batzordekidetik 3 gara emakumeak. Bazkideen artean ez dira hainbeste emakume egongo, are gutxiago bertaratuko” (C1Y0).

Orokorrean, desitxuraketa horien inguruan galdetuta, emakumeek argi dute:

“Niri gaizki iruditzen zait, gero estatistikak jartzen ditugulako eta ‘Emakume asko daude’ diotelako. Bai, noski badirela emakumeak, baina benetan lana egiten dutenak nortzuk dira? Bi edo hiru, ez daude askoz gehiago. Gero eskatzen dugu karguetan emakumeak egotea, eta karguetan egon nahi duen emakumerik ez dago, edo zer egiten den dakien emakumerik ez dago. Orduan, aspalditik egiten ari garen horretatik dator orain arazo hau, orain arazo bat baita” (A1X3).

“Oso gaizki baloratzen dut zerrendetan hainbeste emakume azaltzea eta gero benetako parte hartzearekin zerikusirik ez izatea” (C1Y2).

Sektorekoak diren erabakigune berdinazale horiek nola eta nondik eraikitzen diren aztertzea proposatzen da, jakina baita hautagarriak diren emakumeen ehuneko bat ez dela nekazal emakumea, eta nekez defendatu ahalko dituela horien beharrak. Aldiz, nekazal emakume ugari gelditzen dira hor egoteko aukeratik kanpo (azken hau ez da arazo berria, baina ez da horregatik garrantzia gutxiagokoa, ezpada gehiagokoa).

Egiturazko hainbat gai berrikusi eta birplanteatu beharko lirateke.

DELEGAZIOA

Banaka elkarrizketatutako emakumeen %38ak, noizbait, beste norbaiten esku utzi du bere botoa, izan bazkide gisa edo batzordekide gisa.

Ehuneko berbera da, %38, batzorderen batean bere botoa beste norbaiten esku utzi duen emakumeren bat ezagutzen duena.

“Asko ematen da emakumeen izenean egotea bazkidetza eta senar edo semea joatea: asanbladatan asko, eta juntetan ere” (C2Z4).

Azken aipu horrek aditzera eman bezala, ehuneko hori bikoiztu egiten da (%76) batzorde mailatik bazkide gisa bertaratu beharreko bileretara jauzi egin, eta ea honako kasurik ezagutzen duten galdetuta: emakumea bazkide izan arren, bileretara bere ordezkari inguruko gizonen bat (aita, senarra, semea, neba...) joaten deneko kasua.

“Beno, nik orain nagoen elkartean ez diet emakumeei aurpegirik jartzen, adibidez; ez dut bat bera ere ikusi, eta bazkide bezala badaude” (B1X2).

“Esango dizut (emakume) batek elkarteak utzi duela orain dela gutxi, eta elkarteko WhatsApp taldean dagoena senarra dela, eta nik beti hitz egin dut harekin, senarrarekin. Eta halako beste pare bat kasu bururatzen zaizkit, emaztearen izenean egon eta WhatsApp taldean eta bileretan senarra dagoena” (A2Yo).

Kuriosoa da parte hartze ‘maila’ ezberdinen artean egiten den hierarkizazioa. Ordezkaritzaren delegazioa hizpide hartzen denean, elkarrizketatutako emakume gehienei batzorde eremua datorkie gogora, eremu ‘ofiziala’: izen zehatzak azaltzen diren hautatuen zerrenda murriztuta hori.

“Bazkide bileretan, bai, oso ohikoa da emakumearen ordezkari gizona joatea. Batzordeetan, kargua duen pertsonari deitzen zaio, izenduna da deia, eta ezin da beste pertsona bat joan. Beno, edo ez litzateke hori egin beharko” (A2Y2).

Elkarrizketatutako emakume batek mahaigaineratu zuen zein puntura arte den hain hedatua dagoen jardunbide hori legezkoa:

“Hor bazkideei dei egiten zaie, eta elkartekidea da atzetik dagoen ustiapen edo jardueraren titularra. Ni hor Monserrat deitzen nabil, eta bat-batean Javi agertzen da, baina nik Monserrat deitu dut. Ni ustiatagietako titularrei deitzen ari naiz, eta gero edonor dator. Ez dakit hori zenbateraino den legezkoa; izan ere, bozketa bat egiterako orduan, nor zara zu? Baduzu pertsona horren boto delegaturik? Baina tira, begira, norbait etortzearekin konformatzen gareneko puntuan gaude; ez dut gai horretan sartzeko asmorik, orduan teknikariak eta nik bakarrik amaituko genukeelako han” (A2Yo).

ELKARTEGINTZA

Elkartegintzaren osasunak ardura sortu du parte hartu duten emakumeen artean. Lan saio kolektiboetako batean izan zen mintzagai, bereziki, gai hau. Estatutuaren proposamenak sektoreko erakunde ezberdinetako erabakiguneak ditu jomuga, baina zein da erabakigune horiek jasotzen dituzten egituren egoera? Zeri erantzuten diote? Funtzionalak al dira? Inklusiboak al dira? Erakargarriak al dira?

Kezka: ereduaren erreplikapena

Elkarteen funtzionamendua hizpide hartuta, nahitaez heldu behar zaio ereduaren kontuari. Zer erreplikatzen da? Zer uzten da albo batera?

B- Nire kezka da, sektorean orokorrean eta seguru beste sektore batzuetan erreplikatzen den kontua dela iruditzen zait, oso egitura hertsia eta oso eredu patriarkala dela funtzionamendua. Eta ez dakit, iruditzen zait zenbaitetan emakumeok erreproduzitu egiten dugula egitura hertsia hori eta funtzionamendu hierarkikoa; eta botere-harremanak oinarritzen direla goitik beherako egituretan. Eta orduan, funtsean, seguruenik izango dira inertziak, eta talde-eragileetan urte luzez dauden pertsonen esperientziak-eta, baina nolabait dinamika horrek jan egiten gaitu eta azkenean bukatzen dugu erreplikatzen guretzat gustuko ez ditugun

dinamika eta jarrerak. Horrek nigan kezka sortzen du, ze agian guk gure burua jan egingo dugu istorio horretan. Zuzendaritza batean tokatzen zaizu egotea eta erabakia zurea da, baina agian hasi beharko genuke buelta ematen, eta bazkideekin elkartzen, eta agian gogoratu beharko dugu noiz delegatu genituen ardurak, eta, horrekin batera, erabakitzeke ahalmena utzi.

A- Emakumeak batzordeetan ez zeudenean.

Besteek- (Barreak)

B- Egungo elkarteak oso bertikalak direla iruditzen zait, eta talde eragile edo batzordeetan handik edo hemendik ardura dugunok pixka bat zapatista izan behar dugula, eta agindu obeditzen, eta gure elkarteetako oinarriei heldu, eta behetik gora egin lan.

Existitzen al da emakumeen estilorik?

Hainbat banakako elkarrizketatan antzeman da emakumeek bestela egiten dituztela gauzak. Ez emakume denek, gizon denek berdin egiten ez dituzten moduan. Baina badagoela joera bat, kasuan-kasuan sotilagoa edo nabariagoa, beste leku batetik abiatzen dena. Esandakoetatik honako ezaugarriak azpimarratu dira, eta bakoitzeko aipamen bat jaso da, hainbat emakumek transmititutako ideiak adierazteko:

Diskrezioa eta behaketa

“Nik beti daukat oroitzapen hori. Nire belaunaldiko lehenengoetakoa izan nintzen. Hasieran ez duzu galdetzen, ez duzu hitz egiten, behatu egiten duzu, ‘Nor da hori?’, ez duzu atentzioa eman nahi. Diskrezioz jarduten duzu bilera horietan hitz hartze asko entzuten dituzulako, eta beraien ahotsa entzutea gustatzen zaien gizonen galdera asko, ezer ez esateko. Eta gero badakizu bileretan nor izango den beti hitz egingo duena” (CoY4).

Gatazken kudeaketa eta konponbideak

“Uste dut emakumeok profesionalagoak garela gatazka baten aurrean, eta askoz ere irtenbide azkarragoak eta adimentsuagoak bilatzen ditugula. Badakigu erdibidera iristen: batek A eta besteak B esaten badu, emakumea da esaten duena ‘Aizu, zergatik ez...’ Agian oker nago, baina uste dut emakumeekin egiten diren bilerak eraginkorrak direla eta konponbideak gizonekin baino azkarrago aurkitzen direla. Izan ere, gizonez eraturako bilera bat baino gehiagoren ondoren, nik askotan pentsatu izan dut, eta kudeatzailearekin (emakumea) komentatu: ‘Bilera hau zuk eta biok 20 minutuan bukatua genuen’. Tontakeriengatik haserreak, deitu ordezkari mezu elektronikoko bat bidali baitzidan, ez dakit zer... Eta gu ‘Barkatu, hau enpresa bat da, konpondu egin behar dugu’. Askotan ama bakegilearen papera egiten” (A2Y2).

Adierazpen moduak

“Ezberdintasun handia dago batek nola esaten edo agintzen duen eta besteek nola egiten dutenen artean. Tamalez, horregatik joan gara pixka bat emakumeak espazio horietan gizonen moduak hartzen. Gure eran egin beharrean gauzak, nahi baldin baduzu entzuna izan jarri behar zara besteen mailan, gizonezkoen molde horretan” (B1Z3).

Harrera

"Ni beti errespetatua sentitu naiz, baina nire hastapenei buruz hitz egitean, bazkide gisa bileretara joaten nintzenean, izugarri gaizki pasatu nuen. Gero, noski, puntua hartzen diozu, parte hartzera heltzeraino. Ez da atsegina hasiera hori, are gutxiago emakume bakarra zarenean, niri gertatu zitzaidan bezala. Horregatik saiatzen naiz inoiz kide berriren bat etortzen denean harrera egiten. Ni beti egoten naiz hor, badakidalako nik nola pasatu nuen. Baina orokorrean ez da harrerarik egiten, ez dizute egiten, niri ez zidaten egin" (CoY4).

Talde topaketetan ere mahaigaineratu zen gaitako bat izan zen. Emakume batzuek baietz erantzun zuten, eremu ezberdinetan gainera. Jarraian, gaiarekin lotutako elkarrietzeta zati transkribatuak jaso dira.

Batzordearen bueltan...

C- Burura etorri zait gauza bat, eta ez da ni hori analizatzen aditua naizela, baizik eta esan didatelako besteek, eta da: emakumeak gauden lekuan lana berdin egiten da? Gauzak berdin erabakitzen dira? Edo beste era batera funtzionatzen dugu? Niri da gauza bat transmititu didatena. Zuk bizi dituzu gauzak eta naturalki egiten dituzu ahalik eta hoberen hanka sartze guztiekin, baina ez dakit baloratzen gizonak modu bat ote duten eta emakumeek beste bat. Esaten didate hala dela, eta hausnarketa hori partekatu nahi nuen. Eta hala balitz, oso inportantea iruditzen zait kontziente izatea horretaz. Ni ez naiz kontziente.

B- Guk aldaketa handi bat egin genuen elkartean, eta horrek isla izan zuen batzordean, noski. Gutxi gorabehera erdia eta erdia gaude, eta badago beste giro bat, beste patxada bat... teknikariak eta gu berdinak gara. Beraiek kobratu egiten dute, baina hor egon da kristoren lanketa, laguntzarekin, eh.

Eta botatako galderari erantzuna, bai. Badago beste energia bat. Ez horrela esateko, agian sotilagoa da, baina begirada aldatzen da. Nire ustez, oharkabeen pasatzen diren beste gauza batzuk hartzen dira kontuan, eta detaile horiek klik bat egiten dute. Bestea ere behar da, niretzat biak behar dira, baina emakumeen tonua, forma... ez dakit zer den baina beste zerbait da.

... eta handik kanpo.

B1- Nik uste dut desberdinak gairela berez: gizonak sutsuki eztabaidatu dezakete, eta bost minututan pasa zaie. Zu etxera zoaz, eta hilabete baten ondoren erretxinduta jarraitzen duzu, nik behintzat.

B2- Bakoitzaren nortasunarekin ere badu zerikusia, baina zuk zerbait esaten duzu eta gero mila buelta ematen dizkiozu, "Agian ez nuen esan behar, edo ez nion horrela esan behar..." Hurrengo egunean "gogoratzen al duzu hau?" esaten diozu, eta berak ez daki zertaz ari zaren ere.

B3- Eta, gainera, haiek botatzen dioten muturra bota behar diogu. Gero gu joaten gara eta hor gaude 'hau esango ote du, edo ez du esango...?'.
C1- Nik nahi nuke oheratzean hori guztia mesanotxean utzi, baina ni ez naiz gai.

Denak- Ni ere ez.

C2- Eta haiek bai, nik egiaztatuta daukat. Inoiz bueltaka ibili naiz buruari, telefonoa hartu, deitu, eta barkamena eskatu diot dena delakoari: 'Sentitzen dut, agian paperak galdu ditut'. Eta besteak: 'Ah, lasai, nik ahaztua nuen'.

ADINA, GENERO IKUSPEGIA ETA PARTE HARTZEA

Ikerlan honetan hiru faktore horien arteko harremana aztertu nahi izan da, nekazal-sektorean eta sektoreko emakumeen ustez erabakiguneetan izan dezaketen eragina kontuan izateko asmoz.

Abiapuntua zera izan da: elkarriketatutako emakumeei galdetzea, batetik, adinaren eta genero ikuspegiaren artean ea loturarik ikusten duten; bestetik, adinaren eta parte hartzearen artean ea loturarik ikusten duten; eta, azkenik, genero ikuspegiaren eta parte hartzearen artean.

Ertz malguak eta ideia argi bi aurkitu dira:

1. Elkarriketatutako emakume gehienek ustez parte hartzean eragina duten bi faktore dira adina eta generoa.
2. Adina eta generoa elementu baldintzatzaile bezala elkarrengandik banatzen dituen mintza iragazkorra da.

ADINA ETA GENERO IKUSPEGIA

Ea adinaren eta genero ikuspegiaren artean harremanik ikusten al duten galdetuta, banaka elkarriketatutako emakumeen %57ak baiezkota erantzun du.

“Gazteetan ikusten dut diferentzia badagoela. Kanpotik askotan etxeetan zer dagoen ez da jakiten, baina nik sentrazio hori dut. Gure garaian baino hobeto dago” (C2Z4).

“Adin pixka bateko jendea, mota bateko jendea, oso-oso matxista izan direnak izan ditut juntan, eta beraiei naturaltasunez ateratzen zaizkien komentario, esaldi eta abarrak dira...” (B1Z3).

“Bai, bai, bai, nik uste dut baietz. Nik gazte talde bat ezagutzen dut, ni beraiek bezala tratatzen nautena, ni eta beste emakume batzuk, baina nik nire ikuspuntua ematen dizut. Ni berdin tratatzen naute, eta entzuten eta baloratzen naute. Aldiz, egon nintzen batzordean, adibidez, zaharragoak ziren. Badiotsut, ez dakit emakumea edo gaztea nintzelako, baina ez zuten kontuan hartzen nik esaten nuen. Entzuten zizuten entzun behar zintuztelako, baina... Aldiz, gazte hauen artean galdetu egiten dizute, ea zer iritzi duzun galdetzen dizute. Nire ustez, adinak badu zerikusia” (A1X3).

Adina eta genero ikuspegiaren artean harremana dago... gizon zein emakumeengan:

“Batez besteko adinak zerikusia du. Ni baino hamar urte zaharragoak diren elkarteko emakumeek esan izan didate ‘zuri senarrak utzi egiten dizu-eta’. Eta nik izt egiten diet, ‘Nik neure kabuz erabakitzen dut. Ez dit inork utzi behar’” (CoY4).

Emakume batzuen ustez badu eragina, baina...

“Neurri bat arte, gazteek berdintasunaren aldeko ikuspegia naturalizatuta dutela uste dut, eta testuinguruak badu zerikusia. Guk landu egin dugu, adinduagoekin ere. Errespetu bat badago, baina horrek ez du esan nahi emakumeok ahots berdina dugunik” (A1Yo).

“Adinekoen imaginario horretan, ‘lehen’ nola egiten zen horretan, emakumeek ez zuten presentzia askorik, ez. Atzetik datozenenean suposatzen dut normalagoa izan beharko litzatekeela, baina ez dakit zer puntutara arte den egia esaten den guztia, edo atzetik badakigu bakoitzak gure etxean ze errealitate ditugun” (B1Z3).

Dena den, sartzen dena emakumea bada, lehenengo bere balioa erakutsi behar du, eta gero gerokoak:

“Gu batzordean sartu ginenean oso errespetatua izan zen, errespetatuak sentitu ginen, baina baita kritikatuak ere. Zenbat eta zaharrago, orduan eta... Baina gero zure jarduteko eta lan egiteko modua ikustean harritu egiten dira, eta aurreiritzi hori aldatzen doala iruditzen zait” (CoY4).

“Noski. Zenbat eta zaharrago, orduan eta gutxiago baloratzen zaituzte eta dezente gehiago erakutsi behar duzu balio duzula. Emakumea izateagatik, zuzendaritza batzordera nindoanean askoz gehiago prestatzen nituen gaiak joaten ziren gizonen baino. Dokumentazioa irakurri ere ez zuten egiten; asko arratsaldea pasatzera joaten dira hara, edo dieta kobratzera. Nik lan asko egiten nuen, eta komisiara joaten nintzenean gai ordenako azken puntua, eskari eta galderena, ‘nire momentu’ bezala ezagutzen zen. Orduan landutakoa mahaigaineratzen nuen. Eta noski, hori egiten duzunean, gehiago hartzen zaituzte kontuan” (A2Y2).

Aldiz, badira adinaren eta genero-ikuspegiaren edo genero-berdintasunaren arloko kontzientziaren artean inongo erlaziorik ezartzen ez duten emakumeak.

“Ez, ez, jarraitutasuna dago” (C1Y2).

“Nik uste dut oso itxiak diren gazteak ere badaudela. Nagusiek ‘Zer gertatzen da ba, zergatik ez dute nahi?!’ (emakumeek batzordeetan egon) esan diezazukete. Gazte batek agian badaki esaldi mota hori matxista dela, eta ez du esango, baina pentsatu egingo du. Izamolde-jarraitutasuna ikusten dut, denetarik dagoen arren” (B1X2).

ADINA ETA PARTE HARTZEA

Banaka elkarriketatutako emakumeen %38ak parte hartzerako orduan adina eragin zuzena duen alderdia dela kontsideratzen du. Hala ere, denetariko iritziak aurkitu dira.

"Nik uste dut adinak eragina duela. Pertsona gazte bat, berdin dio gizona ala emakumea, errazagoa da hura isiltzea-edo. Esperientzia falta zaizunez gero, oso ausarta izan behar duzu zerbait egin ahal izateko" (A1X3).

"Nik dudan pertzepzioa da, azkenean, sektore honetako emakume gehienak helduak direla. Orduan, oso desberdin ikusten dut. Sartzen diren (emakume) gazteak bai ikusten ditudala beste energia batekin, beste gogo batekin, aldamenekoa isildu arazteko gaitasun horrekin. Ni sartu nintzenean ez nintzen gai aldamenekoa isilarazteko, baina gaur egun bai ikusten dut. Lana egitera sartzen den gazteari uzten bazaio pixka bat kriston lana egingo du" (B1Z3).

Adinean gora egiteak lan-karga eta zaintzen karga arintzea badakar (kontrako zentzua ere har lezake), lehenago ez zuten denbora-irabazi bat izaten dute emakumeek.

"Orain ni naiz gehien mugitzen naizena denbora dudalako" (C2Z4).

Hala ere, horrek ez du esan nahi denbora hori irabazi dutenek parte hartzera dedikatzea.

"Zenbat eta zaharragoak izan, orduan eta parte hartze txikiagoa. Bai, hori ikusten dut, bai" (CoY4).

Elkarte batean, horrela irudikatu dute adinaren eta parte hartzearen arteko harremana:

"Irteeretan bai, irteeretan (emakume) edadetuak denak, tope autobusa. Baina lana egin behar den horretan... ñe. 'Erabakiko dute, politikoak horretarako daude...'" (C3Y4).

Bizitzako aroek zuzenean eragiten dute gainera, hainbat faktoregatik:

"Tira. Zenbat eta urte gehiago izan, onenak emanda zaude, gainbehera zoaz... atzetik datozen hauek borroka dezatela, nik bizitza osoan egin dut-eta. Halaber, zenbat eta gazteago ere bizitzako beste eremuetan inplikazio handiagoarekin zaude: 'Lan egin behar dut hau ordaindu behar dudalako', 'Ume txikiak ditudalako', 'Gustatuko litzaidake baina ezin izango naiz bilera hauetara joan, ezin dut, nik une honetan ezin dut parte hartu'. Hori izan da askotan eman diguten erantzuna. Eta zaharrago harrapatzen bazaitu, bueltako bidean harrapatzen zaitu 'Ez, nire bidea egin dut, atzetik datorrenak egin dezala berea...' Norbait egongo da beti bihotza eta borroka-boterea duena" (CoY4).

"Gazteak pixka bat galduta daudela edo gaudela (ez dakit nire burua non sartu) dirudi. Edo desilusionatuta, edo ez dakit zer. Edo gainera datorkizun guztia ikusten duzula, eta 'nik nahikoa daukat nire ustiapenarekin', nahiz eta txikia izan, baina 'ez naiz ez dakit zenbatero bileretara joaten hasiko...'" (A1X1).

Eta adinaz eta bizitzako aroez gaildi, bestelako aroek, norbere fase propioek ere badute eragina:

"Emakumeak bizitzako zein fasetan gaudenaren arabera, batzuetan esaten dugu 'Begira nik nahi dut joan bilera horietara, hemendik atera, beste batzuekin hitz egin, pixka bat mundua ikusi, eta ni joango naiz'. Eta beste batzuetan 'Joan zu', ze agian zaude barrura begira... beste batzuetan kanpora begira zaude eta joan nahi duzu, eta joaten zara. Joan nahi duzunean joaten zara" (B1X1).

“Honek lehen bezala jarraitu behar du”

Adinekoenen artean behin eta berriz errepikatzen den mantra bat aukeratu behar izatekotan, esaldi hori litzateke.

“Hautagaitzaz aldatu behar bada, gazteok zer bait berria nahi dugu, baina azkenean betiko hautagaitza da bozkatuena. Hortaz, botoa emateko orduan, nire ustez, betiko hautagaitzak jarraitzen badu, pertsona berberak agintzen badute, azkenean adineko jendeagatik dela. Nik uste dut gazteek aldatu egin nahi dutela. Adineko jendea tradizionalagoa da ‘Hau ez dadila asko aldatu... Gazteek zer diote, beste hautagaitza bat? Ai, hauek zein errebeldeak diren’” (A1X1).

“Zer erakutsiko didazu zuk niri (gazte, emakume)?”

Bigarren postuan legoke beste esaldi hau.

“Une honetan, adineko jendea da hor dagoena, eta gazteak sartzea asko kostatzen da, ez dira sartzen. Ni egon nintzen batzordean lan handia egin genuen bide horretan: adinekoek ekarpenak egin behar dituzte, baina gazteek ere bai. Orduan lehengoarekin egiten dugu topo berriz, ‘Niri erakutsiko al didazu zuk, lau egun baizik ez daramatzazkizu eta’” (B1X2).

“Oso adinekoek ‘Zer esango didazu zuk emakume edo gazte gisa (ez dakit emakume edo gazte gisa den)? Zer erakutsiko didazu zuk niri?’ Uste dut oraindik hori dela, zuk niri zer erakutsiko didazun. Edo nola esango didazu zuk niri nola egin behar dudun. Ez dakit, uste dut hortik doala. Ez dakit emakume izateagatik edo gazte izateagatik den” (A1X3).

Hala ere, badira bidea egiten ari direnak...

“Badago mugimendu bat bai gazteen eta bai emakumeen aldetik. Gauza ezberdinak proposatzen ari dira orain arte ez direnak kontuan hartu, *ABC* tik kanpora, ereduaz harago. Eta ibilbidetxo bat dago esperantza posible dela erakusten duena; bidean, desgraziaz, gauza asko gelditu arren.

Bestalde, badago sektore zaharkitu bat. Dirua, pisua, legitimitatea dituen sektore zaharkitua, hein handi batean maskulinizatua. Etorkizun bat nahi baldin badugu, bi mundu horiek uztartu behar dira. Eta bakoitzak bestea errespetatu beharko du...” (A1Y0).

...eta bide berriak errezeloz ikusten dituztenak.

“Beste zera batetik datoz egitura berriak, kaletik baserrira etorritakoak ere badaude bertan... eta ez dakit hauek aparte samar ez ote diren gelditzen ari betiko modu eta moldeetatik” (C2Z4).

Aurrez aipatu bezala, gazteei tokia egitea beharrezkoa da:

“Askok dugu ikasteko. Gazteak hobe datoz, 40tik gorakoak aurreiritzi gehiago ditugu. Hoberantz doa baina lekua utzi behar zaie. Ze dugunean dirua, kotxea, dena antolatuta, eta joaten garenean bilera horietara eta hitz egiten dugunean dena jakingo bagenu bezala, gazteak hortxe daude, kriston esfortzua egiten hor egoteko, oraindik beraien negoziarik gabe,

lurrak ez dakizkitela nola erosi... Ikuspuntua daukate irekiagoa, parte-hartzaileagoa, baina utzi behar zaie beraien modura egiten, eta hori asko kostatzen zaigu” (B1X1).

“Nagusiak hor daude, azkenean urte asko daramatzatelako eta *status* bat dutelako: 'Besaulkia hartu dut eta hemendik ez naiz mugituko'. Ni, adibidez, sartzen azkenetakoa izan naiz, bai elkarte batean, bai bestean, eta kosta egiten da bidea irekitzea. Eta hor berdin da gaztea gizona edo emakumea izan, izaera pixka bat ez baduzu behintzat. Nik ikusten ditut elkarteetan sartu diren gazteak nola dabiltzan. Azken batzorde-berriztatzean kide berriak gazteak izateko egin zen lan, eta karguak gazteekin berritu ziren. Baina bileretara doazenean isilik geratzen dira, orduan landu egin behar da hori, eta hala egin genuen. Gai bat jorratzean, sartu berriei beraien iritziagatik galdetzen genien, espazio hori guk sortzen genuen” (B1X2).

Betiko modu eta moldeek eta proposamen ezberdinek topo egin eta elkar elikatzea litzateke idealena. Gutxienez, elkar errespetatzea.

Beldurrak eta motxilak

Parte hartzerako orduan gazteek duten abantaila bat inongo zorrik ez izatea da.

“Jakina, azkenean jendea dago hautagaitzetan lagunak dituztenak politikan, eta horrek eragin handia du. Gauza horiek ez ditugu gazteok. Gazteok, azkenean, ez gaude hain sartuta herrietako udaletan, ez dugu lagunik Aldundian... Ez gaude esan dezakegunari edo ezin dezakegunari begira, ez diogu inori ezer zor. Erretiro eta errenta onak imajinatu ere ez ditugu egiten, imajinatu ere ez! Zentzu horretan tolesgabeak gara, egiaz egoera nola dagoen esango dugulako, gauzak ondo eginda nahi ditugulako, prezio justuetan... Orduan guk ez daukagu adineko jendeak daukan beldur hori. Ez dugu motxilarik” (A1X1).

Deskolektibizazioa

Batek baino gehiagok aipatu du bai gazteen artean, bai sortzen diren talde berrien artean, begirada ez dela kolektibotasunetik jaiotzen, eta ez dagoela kolektibotasunera bideratuta. Kezka sortzen du horrek.

“Atzetik datozenak ez dira parte-hartzaileagoak. Ikuspegi kolektiboa, talde lana, kooperazio-lana... asko galdu dela uste dut. Gizarte honek zerbait egin badu izan da indibidualizatu gero eta gehiago; horrez gain, gero eta gutxiago gara, eta jendeak ez dauka saltsatan sartzeko gogorik, ez kolektibo baten alde egiteko behintzat. Gazteak badaude, baina... Ikuspegi hori adinekoen artean gehiago mantendu dela esango nuke” (B1Z3).

“Lehengoak gaude beti, bai gizon zein emakume. Errelebo aldaketan gazteak jartzean, beraiek egindako elkarte eta abarretara pixka bat gerturatzen dira, baina gurean lana egiteko ez ditut ikusten.

Baratza zaleek badute elkarteak, baina gero badaude otarrak egiten dituztenak. Indibidualismoa ikusten dut hor: norberak bizitzeko badu eta... Baina hori hari batekoa da. Kolektiborako hobekuntzak lantzeko elkarteek ez dute jenderik erakartzen. Nire ustez, sortzen ari diren talde berriak ez datoz sektoreari buelta bat eman edota lehengoari aire berria ekartzera... oso ikuspegi ezberdin batetik sortuak dira, beraien jarduna salbatzeko.

Gu, adibidez, denok geunden handik eta hemendik ezer gabe, orduan bat egin genuen elkarte horietan hobetzeko sektorea, eta heldu gara momentu batera beste gauza batzuk ere badaudela. Orain, talde bat sortzeko motibazioa beste toki batetik dator. Orain dena eginda dago, bakarrik da berriak sartu eta berritzen jarraitzea. Baina beste toki batean dago kokatuta jendea orain. Nik horrela ikusten dut. Teorian askok helburu berdinak dituzte, baina puskatu egiten da hor zerbait. Bakoitza berera doa” (C2Z4).

PARTE HARTZEA ETA GENEROA

Adina ekuaziotik aterata, parte hartzearen eta generoaren arteko harreman argia ikusi duenik ere izan da. Honela ikusten ditu emakume honek beraien gogoz, gizonekiko aukera berdintasunean, parte hartzen duten emakumeen ekarpenak:

“Maila berdinean gizon eta emakume bat erabakitzen dutenak beraien gogoz parte hartzea, emakumeen aldetik beste freskura bat, beste aportazio batzuk sumatzen ditut. Agian urteetan gordeta izan dugun hori ondorengo bitartez ateratzen dabilelako izango da” (B1Z3).

EMAKUMEEK DIOTE

Erabakiguneei begiratzeko ikuspuntu-aldaketa proposatu da beste behin. Orain arte ere jaso dira emakumeen begirada eta bizipenak espazio horien deskribapena eraikitzerako orduan. Bide horretan sakonduko da, baina beste geruza bat ere gehituko zaio: emakume horiek beraien barrura ere begiratu dute, parte-hartzearekiko harremanean kanpo faktoreek bezainbat eragin baitezakete barnekoek. Horrek azaldu dezake, hein batean, egoera antzekoen aurrean emakumeen esperientzien arteko aldea. Horrez gain, beraien ibilbidean topatutako gainerako emakumeen edota sektoreko beste emakumeen inguruan ere galdetu zaie.

Argitu behar da ez dela emakumeek parte hartu duten batzorde bakoitzeko azterketa egin, baizik eta emakumeen esperientzien bilketa bat. Eta, noski, esperientzia subjektiboetan oinarritzen dela.

Elkarrizketatutako emakumeei ondoren aurkeztzen diren aspektu ezberdinen inguruan izan dituzten bizipenengatik galdetu zitzairen, beraien batzordeetako esperientzia osoa kontuan hartuta. Hortaz, emakume batek 4 batzordetan parte hartu baldin badu, eta horietako 3tan esperientzia onak izan baditu eta batean ez, posiblea da kontrajarriak diruditen erantzunak ematea, bere ibilbidean espazio abegikorak eta ez abegikorak topatu izan baditu, adibidez.

Horien arteko harreman kualitatiboa aurrerago adieraziko da, emakumeei beraien parte hartzearen inguruko balantzea egiteko eskatzen zaienean. Hor ikusiko da balantza norantz inklinatzen den, zein motatakoak izan diren emakume horien bizipenak oro har, edo horiekiko irakurketa.

Aipatutako bikoizketa horien jarraipena egin daiteke grafikoetan. Emakume bakoitzari kolore bat dagokio. Erantzunak ordenan jarrita daude, eta, hortaz, ikus daiteke emakume bakoitzak galdera bakoitzari zer erantzun dion, goitik behera kolore bakoitza jarraituz.

ABEGIKORTASUNA

Banaka elkarrizketatutako emakumeen %52ak orokorrean abegikorrak izan diren espazioetan parte hartu duela sentitu du bere esperientzian, eta %14ak orokorrean ez abegikorrak izan diren espazioetan. Gainerako %33ak bi bizipenak izan ditu bere ibilbidean zehar.

“Parte hartzea kostatu zitzaidan asko. Sentitzen nintzen *bicho raro* bat bezala toki horretan. Ia %100 gizonetzkoak, ni baino askoz nagusiago... tarte egitea ez da erraza, ez zaizkizu hurbiltzen, eta 25 urterekin ere ez zara orain zarena. Batzuekin zera handia egin nuen gozotasuna eman didatelako, baina beste batzuekin, uf...” (B1Z3).

ESPAZIOEN PROBETXUA


Elkarrizketatutako emakumeen %67ak orokorrean probetxuzko espazio batera joan dela sentitu du bere esperientzian, eta %10ak orokorrean probetxuzkoa izan ez den espaziora.

“Oro har, probetxuzko espazioak izaten direla uste dut, eta joan egin beharko litzatekeela” (B1X2).

Gainerako %24ak bi bizipenak izan ditu bere ibilbidean zehar.

“Nik denetarik espazioak partekatu ditut, denetarik egon da. Hala ere, balantza beti doa alde positibora” (CoY4).

Aldiz, badira elkarrizketetan zehar azaldu diren hainbat faktore espazio horien probetxuan eragina dutenak: ea bilera norbaitek bideratzen duen edo ez, nork parte hartzen duen, gai zerrendarik dagoen, hasiera eta amaiera ordua zehaztuta dauden...



21 Grafikoa: Banaka elkarrizketatutako emakumeen parte hartze espazioen inguruko irakurketa (I).

BEHATUA, KUESTIONATUA

Elkarrizketatutako emakumeen %48ak orokorrean behatua eta kuestionatua izan dela sentitu du bere esperientzian, eta %38ak orokorrean ez dela behatua eta kuestionatua izan. Gainerako %14ak bi bizipenak izan ditu bere ibilbidean zehar.

“Oro har, ez, salbuespenak egon diren arren. Madrilekoa izan zen... (arnasotsa ateratzen du). Euskadiko ordezkari gisa joaten nintzen. Orduan, jakina, oroitzen dut Madrilera joan nintzen lehen aldia, autobusean joan, nondik ez dakizun metroa hartu, eta jakintsuen mahai horretara iritsi, hogeitik gora gizon, denak batzordean 16, 20... ez dakit zenbat urte zeramatzenak, denak gizonak, de-nak-gi-zo-nak, eta kontuz ibili behar duzu daramazun arroparekin ere. Gogoan dut, 'Ene, nola datorkigun gaur *la vasquita*', belaunerainoko jantzi bat bazeneraman. Orduan, zin dagizut ni beti izan naizela oso apurtzailea, bizitza osoan nahi izan dudana bezala joan naizelako, baina horrela jantzita joateari utzi nion, ez bainuen nahi ni epaitzerik, 'begira honek zer nolako jantzitxoak dakarkigun gaur'. Ez zenuen beste zama bat nahi, parte hartzea jada ez delako atsegin eta zure ekarpenak serio har ditzaten nahi duzulako” (CoY4).

Hala ere, bilera espazioetan izandako esperientzien inguruan galdetuta, %38ari bere gaitasunak kuestionatu zaizkio bilera espazioaren baten bere ibilbidean zehar, eta %71ri bere iritziak. Parte hartzea oztopatzen duten elementu bezala identifikatzen dira horiek.

ARDURAK HARTZEA

Elkarrizketatutako emakumeen %76ak orokorrean ardurak hartzera adoretu dutela sentitu du bere esperientzian.

Hala ere, adoretze horretan pixka bat sakonduz gero, azterketa-ildo interesgarriak azaleratzen dira.

Batetik, esleitutako arduren izaera. Ardura denak ez dira berdinak: nortzuek hartzen dituzte ardura eta ordezkaritza-lan 'garrantzitsuak'? Nortzuek txikikeriak edo bigarren mailakoak?

“Orokorrean esan beharko banu, batez ere txikikeria edota txindurri-lanak egitera bideratu nautela sentitu dut. Zuk lan horiek egin, eta beste maila batean mugitu behar ditugunetara joango naiz ni. Baina Aldundira joan behar bada eta interesatzen bada emakumea ere hor egotea, etorri, jarriko zaitut eta isilik egon. Sentimendu hori izan dut” (B1Z3).

Aurreko testigantzan aipatutako komenentzia (emakume baten presentzia behar denean, bertan egonaztea), ardurak hartzearen aferan ere sumatzen dute batzuek. Eta, horrek, mesfidantza sortzen die.


“Faktore ezberdinak nahasten dira berriro ere. Bai, animatzen zaituzte, baina zergatik animatzen zaituzte? Benetan baloratzen eta estimatzen zaituztelako edo zu bertan bai ala bai egotea interesatzen zaielako? Beti dago zalantza hori” (B1X2).

Azkenik, bada arrazoi ezberdinengatik (dagoen bizitzako momentua, bere izaera, parte hartze profil baxua...) atea irekita izan arren ere uko egiten dionik. Hortaz, batzordeko kideen partetik ardurak hartzeko gonbidapenak ez du esan nahi ezinbestean gero emakumeek beren gain hartzen dituztenik.

“Ardurak hartzera animatzen naute, baina (momentu honetan) ez ditut hartzen” (B1X1, C1Y0).

Elkarriketatutako emakumeen %10ak, aldiz, adierazi du orokorrean adoregabetu egin dutela.

“Ez, ez, nik ez dut ezertan parte hartu, ez dut inongo ardurarik izan... Zuzenean ez naute ez adoretu ez adoregabetu, baina zeharka bai. Zeren zu indartsu sartzen zara, baina denborak aurrera egin ahala ez badizute ezer egiten uzten, ezin baduzu ezer egin, husten zoaz, adoregabetzen, eta esaten duzu: ‘Zertarako nago hemen orduan? Gauza asko dauzkat egiteko, ez daukat hainbeste denbora horrela galtzen ibiltzeko. Bada, nire etxean gelditu eta gutxienez beste zerbait egiten dut; besterik ez bada sofan eserita egon, atsedean hartzen’” (A1X3).



22 Grafikoa: Banaka elkarriketatutako emakumeen parte hartze espazioen inguruko irakurketa (II).

HITZA ALA ISILTASUNA

Beraien iritzia kuestionatuak izatearen edota gainerakoen komentario negatiboak jasotzearen beldurrez inoiz iritzirik eman gabe gelditu al diren galdetuta, elkarriketatutako emakumeen %33a inoiz ez da bere iritzirik eman gabe gelditu.

“Ez, ez, nik nahiago dut hanka sartu, baina hitz egin” (C1Y1).

Hala ere, isilik ez gelditzeak ez dakar derrigorrean kontuan hartua izatea.

“Ez nintzen isiltzen, baina hortik aurrera ez dut uste gehiegi hartu zitzaidanik kontuan. Emakumeaz gain, gazteena, edukietan ere berritzailea... *rara avis* nintzen” (BoZ1).

Beraien iritzia kuestionatuak izatearen edota gainerakoen komentario negatiboak jasotzearen beldurrez inoiz iritzirik eman gabe gelditu al diren galdetuta, %48a noizbait gelditu da bere iritzirik eman gabe.

“Agian lehenengo aldian zerbait esateko gogoekin geratuko zara, baina bigarrenean ez zara geratuko. Azkenean zuk ere hartu behar diozu puntua. Ez da erraza leku berri batean sartzea, eta azkenean praktika hartu behar duzu, eta joateari ez utzi, bestela irabazitakoa galdu egingo duzu. Konstantea bazara, gero esan behar duzuna esatea errazagoa da. Hala ere, asko kostatu zait, asko” (A1X1).

Eta, azkenik, elkarrizketatutako emakumeen %19a askotan gelditu da bere iritzirik eman gabe horiek kuestionatuak izateko edo komentario negatiboak jasotzeko beldurragatik.

“Batzuetan, leku batzuetan, nahi eta nahi ez, isildu egin behar zara” (CoY4).

Datuok interpretatzerakoan kontuan izan behar dira, beste faktore batzuen artean: nolakoa den parte hartzen deneko espazioa (abegikorra, etsaitasunezkoa...), emakumearen izaera (irekia, barnerakoa...), parte hartzealdiak emakumearen bizitzako zein faserekin egin duen bat (zaintza ardurak, amatasuna, sendo sentitzen da, zaurgarri)...

KONTUAN HARTUA

Elkarrizketatutako emakumeen %62ak orokorrean kontuan hartua izan dela sentitu du bere esperientzian, eta %14ak orokorrean ez dela kontuan hartua izan. Gainerako %24ak bi bizipenak izan ditu bere ibilbidean zehar.

“Gaiaren arabera, nik uste. Eta kostata, eh, lana kostatzen da. Nik uste dut gizon baten kasuan urtebete litzatekeena, emakume baten kasuan bi, hiru... Gehiago kostatzen zaigu serio hartzea. Askoz lan gehiago du” (A1X1).

EMAKUMEEN PARTE HARTZEAREN BALIOESPENA

%52k emakumeen parte hartzea ondo ikusia izan dela sentitu du bere esperientzian, eta %19k gaizki ikusia. Gainerako %29ak bi bizipenak izan ditu: bai junta bat baino gehiagotan hartu duelako parte, oso esperientzia ezberdinak edukiz; edota dagoen edo egon den juntan bi muturretako pertsonak daudelako edo egon direlako.

“Badaude pertsona batzuk ilusioa egiten diena zu emakume bezala hor egoteak; baina, beste batzuk, bileran apur bat kontraesanean erortzen bazara eta, gainera, emakumea bazara...” (A1X1).

Horrez gain, emakumeak egotea ondo ikustearena baldintzatua dagoela azpimarratu du elkarrizketatutako batek, dirulaguntzak tartean egoteak egoera desitxuratzen duelako.

“Bai, baina dirulaguntza bat dagoelako tartean. Bestela, ez litzateke emakumerik egongo” (A1X3).

Elkarrizketatutako emakumeen %48ak uste du, orokorrean, batzorde espazioetan emakumeen iritziak gizonenak beste baloratzen direla.

Hala ere, ezin dira azaleratutako ñabardurak alboratu.

Batetik, zenbait espaziotan asko kostatzen da iritziak entzunak izatea, horiek baloratu aurreko nahitaezko pausua:

“Nik uste dut baietz, iritziak berdin baloratzen direla. Zu entzutea eta arreta hori eskaintzea kosta egiten da, baina gero mahaian argi uzten duzunean zerbait aldatu nahi duzula, edo zer eskatu nahi duzun, azkenean kasu egiten dizute. Kontua da, agian, kosta egiten zaiela emakume batek dena delakoa adierazteko duenean arreta jartzea. Ezberdina da” (A1X1).

Bestetik, iritzi horiek behin entzunda, ze ibilbide dute?

“Iritziak positiboki baloratzen dira, bai, baina gero beste gauza bat da zer egiten den iritzi horiekin, ea ezertarako balio duten” (B1X1).

“Momentuan bertan ez dut uste alderik dagoenik, baina gero hori lantzen denean... ea batzuek eta besteek esandakoak nora doazen” (C2Z4).

Gaia ere kontu garrantzitsua da iritzien balorazio eta genero ikuspegiak bat egiten duten puntuan:

“Bai baloratzen dira, baina gaitik gaira alde handia ikusten dut. Eskola-jangelen kontuan oso baloratuak dira emakumeen iritziak, baina beste batzuetan gehiago kostatzen da. Gaiaren arabera” (A1Y0).

Aldiz, elkarrizketatutako emakumeen %42ak uste du, orokorrean, ez direla berdin baloratzen gizonen eta emakumeen iritziak.

“Ez, eta adibide bat jarriko dizut. Elkartean ekintza bat antolatu zen, eta nik modu jakin batean egin behar zela planteatu nuen, bestela ez zela posible izango. Bileran zera esan zidaten: ‘Nolatan? Hori ezinezkoa da! Zu erotuta zaude?’ Egun batzuk geroago mutil batek deitu zuen, ni bezalako gazte batek, eta ‘Aizue, hau horrela egin behar da’ esan zuen. Nik esandako gauza bera esan zuen, eta berari ‘Ah bai, bai, bai, noski, noski’ esan zioten” (A1X3).

Elkarrizketatutako emakumeen gainerako %10ak bi bizipenak izan ditu bere ibilbidean zehar, eta ez luke balantza ez alde batera ez bestera inklinatuko.

“Juntaren arabera da. Batzuetan berdin baloratzen dira iritziak, eta beste batzuetan ez” (C3Y4).

Elkarriketatutako emakumeen %71ak uste du, orokorrean, batzorde espazioetan parte hartzerako orduan gizon eta emakumeei berdina exijitzen zaiela. Hala ere, xehetasunek informazio interesgarria eskaintzen dute beste behin.

Berdina exijitzen zaiela esan dute ondorengo ekarpenak egin dituzten emakumeek, baina beraien adierazpenek bestela diote, eta hausnarketarako bide dira:

“Nik uste baietz. Kontua da ez dizutela modu berean parte hartzen uzten” (A1X3).

Hortaz, zer egin behar dute emakumeek, gizonak egin behar ez dutena, modu berean parte hartzen uzteko?

“Gauza bera eskatzen da, baina nik uste dut askoz gehiago epaitzen dela emakumea gizona baino. Gizonak, burutik etorri zaion txorakeriarik handiena esan dezake, eta ez da ezer gertatzen. Emakume batek berdina egingo balu, aldiz, ‘Zer esan berri du honek, ideiarik ez badu’” (A2Y0).

Epai horietan ere ez al da ba hitz-erdika jasotzen ez dela berdina espero (jarrera mailan) gizon zein emakumeengandik? Batarentzako balekoa dena, bestearentzako kale. Genero rola tinko beste behin.

“Asistentzia mailan bai, baina gero parte hartzerako garaian, emakumeek hitz egin edo ez (ze emakume profil asko daude) hor gelditzen da; baina gizonak pisu gehiago ematen zaienez, gizonari gehiago tiratzen zaio. Emakumeak hitz egin edo ez, emakume bat dugu juntan, eta bale. Gizonak pisu handiagoa dutenez, ordea, beraien ekarpenak espero dira” (B1Z3).

Aurreko aipamenarekin lotuta, hemen ere ez da gauza bera espero batzuen eta besteengandik. Kasu horretan, gizonengandik espero da beraien parte hartzea, beraien ekarpena... eta hala jardun ezean, eskatu egiten zaie. Emakumeak exijitzen zaion bakararra emakumea izatea da antza, dirulaguntza kobratzen jarraitzeko. Ez da beste ezer espero, eta ez da beste ezer proaktiboki bilatzen, gizonen kasuan ez bezala.

Aldiz, elkarriketatutako emakumeen %29ak uste du, orokorrean, ez zaiela berdina exijitzen gizon eta emakumeei batzorde espazioetan parte hartzerako orduan.

“Emakumeak lan gehiago egin behar du. Haiek beti esango dute ‘Hemen denok berdinak gara’. Beraiek lasai daude, azkenean... Baina, egia esan, ez, ez da berdina. Emakumeak bileran zerbait ikusarazteko gizonak baino askoz gehiago eman behar du atentzioa, edo oso ondo frogatuta utzi. Horretara bultzatzen zaituzte nolabait” (A1X1).

AUTOEXIJENTZIA

Elkarrizketatutako emakumeen %86ak uste du, orokorrean, batzorde espazioetan parte hartzerako orduan, gizon eta emakumeek ez dietela berdina exijitzen beraien buruei.

“Emakumeok askoz gehiago exijitzen diogu geure buruari. Beti pentsatzen ditugu gauzak esan aurretik. Gizonak pentsatzen duena gehiago esaten duela uste dut, eta emakumeoi edo niri, agian ni horrelakoa naizelako, kosta egiten zaigu” (A2Yo).

“Erabakitzen baduzu zerbaiten parte izatea, nik hartu badut kargu bat, da betetzeko, ez izena eman eta ez inplikatzeko. Nik inplikazioa eskatzen duela uste dut, nik hala egin dut, eta nik ordu pila bat sartu ditut hemen, pila bat, etxekoa utzita, etxea goitik behera datorrela ere hemen, ze azkenean zure buruari exijentzia bat jartzen diozu hartu duzulako kargu bat” (B1Z3).

Baina emakumeek beraiekiko duten exijentziari kanpo-faktoreek ere eragiten diete. Kasu honetan, zenbait emakumek sentitzen dute gizonak beraiek ere indartzen dutela exijentzia hori.

“Behin bertan egonda, beraiek (gizonak) ere horretara bultzatzen zaituzte nolabait, hobeto egitera... Hau da, azkenean nik uste dut gizon bati baino gehiago eskatzen zaigula” (A1X1).

“Nik uste dut oraintxe emakumeok gehiago exijitzen diogula geure buruari, baina gizonen mundua delako. Orduan ahalik eta ondoen egin behar dut berdin balioets nazaten” (A1X3).

DESADOSTASUNAK

Elkarrizketatutako emakumeen %81ak, orokorrean, desadostasun baten aurrean gizon eta emakumeek ezberdin erantzuten dutela uste dute.

“Pertsonaren arabera ere bada, baina uste dut emakumea desados egonda joera dela isiltzekoa, eta gizonarena ahotsa altxatzekoa. Horrek ere badu zerikusia genero aldetik minoritarioa zaren mahaian egotearekin. Agian desberdina litzateke orekatuagoa izango balitz, zeren eta orduan zuk ere agian hartzen duzu beste leku bat, ikusten duzu zure iritzia eta bestearena parekoak direla... Baina juntetan beti bat edo bi egongo garenez, minoritarioak, ez bazaude ados isilik gelditzen zara” (B1Z3).

“Nik uste dut ez dela gauza bera. Eta gero eskua altxatzea ere ez da erraza. Gorroto handia diodan gauza bat da, eskua altxaraztea. Gauza batzuetarako erraza da, baina beste batzuetarako gizonentzat emakumeentzat baino askoz ere errazagoa da, adostasun eta desadostasuna adierazteko orduan, adibidez. Ez dakit. Nik uste dut horrelako gauzekin serio lan egin nahiko bagenu, serioago hartu beharko genukeela alderdi guztietan, ez eskua altxarazi. Izan ere, ez da erraza altxatzea. Eta, ondorioz, kasu askotan zera diozu, ‘Nik ere gehiagoak esaten duena’” (A1X1).

Desadostasun baten aurrean gizon eta emakumeek tratatu berdina jasotzen al duten galdetuta, elkarrizketatutako emakumeen %57ak uste du, orokorrean, ez dela berdina.

“Nik, azkenean, esaten didatenaren kontra egon naizenean, ez dut beldurrik sentitu. Gaizki ateratzen zara, ‘Zergatik esan dit hau horrela’, edo dena delakoa, baina azkenean ohitzen zara. Baina bai, egia da, zerbaitekiko desados zaudenean, aurka zoazenean, jaso dezakezun errieta handia dela” (A1X1).

“Izandako azken bileran gai batekiko nire desadostasuna adierazi nuen, eta esan zidaten bizitza osoan egin zela horrela, eta horrela dela, ez dudala nik aldatuko orain. Zalantzak ditut egoera hori bera gizon batengan edo adineko pertsona batengan emango ote zen. Ez dakit” (A1X3).

Elkarrizketatutako emakumeen %29ak uste du, orokorrean, gizon eta emakumeek tratatu berdina jasotzen dutela desadostasun baten aurrean. Eta, elkarrizketatutako emakumeen gainerako %14ak bi bizipenak izan ditu bere ibilbidean zehar; hala ere, joera ezezkora da.

“Batzorde batzuetan tratatu berdina jasotzen dute, eta beste batzuetan ez. Nire ustez, gehienetan, oraindik ez dute tratatu berdina jasotzen (emakumeek). Gizona ikusgarriago dago, emakumeak ez gara ikusarazi” (C1Y2).

AKATSAK

Elkarrizketatutako emakumeen %52ak, orokorrean, akats baten aurrean gizon eta emakumeek ezberdin erantzuten dutela uste dute.

“Nik dudan pertzepzioa da emakumea zintzoagoa edo apalagoa dela zentzu horretan, otzanagoa. Beste emakume batekin kointziditu nuen batzorde batean denbora batez, eta hark ez zuen arazorik barkamena eskatzeko akatsen bat eginez gero. Aldiz, kointziditu dudan gizonen irudiak datozkit gogora, eta uste dut ez luketela sekula eskatuko barkamenik, oker daudela jakin arren. Egongo da eskatuko ez lukeen emakumerik ere, baina nire bizipen eta sentipena hau da” (B1X2).

“Gizon bati gehiago kostatzen zaio akatsa aitortzea” (CoY4).

Elkarrizketatutako emakumeen %14ak uste du, orokorrean, akats baten aurreko erreakzioa, gizon edo emakume izatearekin baino, zerikusi handiagoa duela pertsonaren izaerarekin.

Akats baten aurrean gizon eta emakumeek tratatu berdina jasotzen al duten galdetuta, elkarrizketatutako emakumeen %71ak uste du, orokorrean, ez dela berdina.

“Askoz ere zanpatuagoa dago emakumea akats bat egiten badu: *a cuchillo*. Erreakzionatu ere beste txikitasun batekin” (B1Z3).

“Gizonezkoen akatsen kudeaketa askoz malguagoa da: ahaztu egin zaio, ez da etorri... Emakumeek ezin dute gizonezkoek beste akats egin. Emakumeak beti konpondu behar du berak, edo nola konpondu duen galdetuko diote, beti dago bigarren buelta bat exigentzia handiagoarekin. Azkenean, gizonek egiten badute akats bat denen artean konpontzen dugu

eta listo. Emakume batek egiten duenean 'Eta hori noiz egingo duzu?', 'Horren inguruan zer pentsatu duzu?'. Publikotasun horretatik gainera, pribatua izan ordez, behartzeko berak ardura hori berriro hartzea" (B1X1).

Eta norbere ustetan gauza bat pentsatu arren, askotan gaiaren inguruan bozgoran aritu ondoren bestelako ondorioetara iristen da bat...

"Nik uste dut tratu bera jasotzen dutela. Tira, segun eta nor den batzuetan ez dira tratu bera ematera ausartzen, arrazoi duzu. Nik berdina emango nuke, baina..." (CoY4).

Gainera, ze ondorio du horrek etorkizuneko parte hartzeetan?

"Nik uste dut gizon batek huts egiten duenean errazagoa dela berriro parte hartzea, eta emakume bat kikildu egiten dela" (A2Y2).

"Emakume asko isildu egiten dira akats bat egiten dutenean, eta hurrengoan ez dute ahoa zabaltzen, badaezpada" (B2Xo).

HIZKUNTZA

Elkarrizketatutako emakumeen %71ak, orokorrean, hizkuntza zaindu den espazio batean izan dela sentitu du bere esperientzian.

Hala ere, gertu daude bestelako moduak: iragan hurbileko erreferentziak...

"Uste dut gizonak hodeietatik jaisten hasi direla, lehenago esaten zituzten astakeriak ez esaten" (C1Y1).

"Nik esan diezazuket teknikariek esaten zigutela bazeudela eskualdeko batzarrak non irainak, errespetu faltak eta oihuak hain ziren izugarriak, jendea negarrez irteten zela. Baina ni egon naizen gunetan hizkuntza zaindu da, eta arreta deitu zaio bestela egin duenari" (CoY4).

... eta bilera-ondoko espazioak.

"Batzordea amaitzen denean bai, baina batzordean ez" (A2Y2).

Bere esperientziaren arabera, %19ak, orokorrean, hizkuntza zaindu ez den espazio batean izan dela sentitu du, eta gainerako %10ak bi bizipenak izan ditu bere ibilbidean zehar.

"(Barreak) Hori landu egin behar da, bagabiltza horretan. Ezagutu egin behar dira. Nork esaten duenaren arabera kontuan har dakizkieke edo ez..." (B1X2).

"Nik ere ez dut asko zaintzen, eh (barreak). Nik uste dut ez dela zaintzen" (A1X1).

Adierazitako ehunekoak emakumeen ibilbide osoa kontuan hartuta eginiko balorazioari dagokie; hau da, beraien esperientziaren arabera orokorrean egiten duten irakurketa. Alabaina,

elkarrizketatutako emakumeen %57k hizkera ezegokia jasan behar izan du bilera espazioren batean bere ibilbidean zehar, modu puntualean izanagatik ere.

Esperientzia hori traba bezala bizi izan duten galdetuta, batzuek atsegina ez dela aitortu dute, baina, orokorrean, nolabaiteko naturalizazioa atera da erantzunetan: hizkera horren onarpen bat, horrekiko egokitzapen bat.

“Egia da azkenaldian suabeagoa dela dena. Hala ere, nik ez dut oztopo bat bezala bizi, zeren eta, azkenean, ohituta bainago hori entzutera. Eta niri berdin zait” (B1X2).

Zenbait emakume kontziente dira atzetik datozenak ezberdin datozela, marra gorriak beste nonbait dituztela:

“Atzo gauean alabarekin hitz egin nuen, eta hark esaten zidan: ‘Nik entzuten ditudanean oso matxistak direla iruditzen zait. Ama, zu ados al zaude beraiek horrela hitz egitearekin?’ Eta esan nion agian entzutera ohituta nagoelako izango dela, baina niri ez didala belarrira berari egiten dion beste kalte egiten; 30 urteko aldea dago gure artean” (B1X2).

Teknikari eta koordinatzaileen figurek eragin handia izan dute hizkeraren eraldaketan eta zaintzan.

“Joera badago (hizkera ezegokia erabiltzera), baina ez dago lekurik. Koordinatzaileak berehala mozten du” (A1X3).

“Kontu handia izaten zen, teknikariak enfasi handia jartzen zuelako” (CoY1).

“Akta jasotzen da, eta bai edo bai zaindu behar da” (B1X1).

Hitzezkoaz gain, hizkuntza idatziari ere arreta jartzea beharrezkoa da, emakumeek ere beren burua barne ikusi eta sentitzeko:

“Aurretik lehendakari bezala egon nintzen elkartean, ni sartu nintzenetik gutunetan *ellos/ellas* jartzeko lan handia egiten da. Orain batzordekide bezala nagoen elkartean uste dut hori ez dagoela. Tira, hori beraientzat (gizonentzat) tontokeriak dira, baina nik aukera izan nuenean ‘tontokeriak izango dira, baina egin egingo da’, hori oso argi nuen” (B1X2).

“Duela urte batzuk hasi ziren hizkera pixka bat aldatzen akte, idatziei eta guzti horri dagokienez. Lehen dena zen maskulinoan, eta kito, baina orain halakoak gehiago hartzen dira kontuan” (A2Yo).

Hizkuntza hautuak ere badu eragina:

“Printzipioz, egunerokotasunean euskara gailentzen da, eta euskararekin disimulatu egiten da hizkuntzaren erabilera sexista askotan. Dokumentuetan saiatzen gara kontuan hartzen” (A1Yo).

"Euskaraz funtzionatzen dugu eta horrek laguntzen du, baina orain hasi gara kontuan hartzen halako gauzak (genero ikuspegiari lotutakoak), eta, hala ere, ez dut uste garrantzia ematen zaienik" (B1X0).

Broma eta aipamen matxistak

Elkarriketatutako emakumeen %62k broma edo aipamen matxistak jasan behar izan ditu bilera espazioaren batean bere ibilbidean zehar.

"Broma eta aipamen matxistak lehen asko. Baina aspaldian gutxixeago" (C3Y4).

"Noizbehinka jausten da bat edo beste. Txantxa bailitza esaten dute, baina puntadatxoa bota dizute" (B1X2).

"Hasieran isildu egiten zara baina puntu batetik aurrera... (B1Z3).

NEKAZAL-EMAKUMEAK NEKAZAL-EMAKUMEEN BEGIETATIK

Aurreko atalean aipatu da emakumeen parte hartzean kanpo eta barne faktoreek eragiten dutela. Araba eta Gipuzkoan elkarriketatutako 14 emakumeei eskatu zitzaion, beren pertzepzioetik abiatuta, partekatu zezatela orokorrean nola hautematen zituzten emakumeak parte hartzearekin lotura zuten gai zehatz batzuen inguruan, beraien burua ikusi eta hautemateko moduekin harremana zutenak.

AHALDUNTZEA

Emakumeen %79ak ahalduntze falta orokortua nabari du sektoreko emakumeen artean.

"Ahalduntze ikastaroak egin ditugu hainbat; baina, azkenean, zenbat eta gehiago egin konturatzen zara orduan eta handiago dela ahalduntzerainoko koska" (C1Y2).

"Lehen baino gehiago dago, baina bultzada eta parte-hartze handiagoa behar da oraindik" (A1X3).

%7k orokorrean ahalduntuta daudela uste du. Gainerako %14ak bi kasuak era bertsuan identifikatzen ditu.

"Kontua da orokorrean emakumeei ahalduntzea falta zaiela, baina, parte hartze espazioetan daudenak, ahalduntuta daudela. Daudenak dira bi obario dituztelako eta hor daudelako, ahalduntuta daudelako, baina nik uste dut oro har ahalduntzea falta dela" (B1X2).

Hala ere, eremu horietan parte hartzen dabilen emakumeek badituzte beren mugak. Zaintza eta autozaintza ezin dira ahaztu bidean nekearen nekeaz emakume gehiago galdu nahi ez izatekotan.

"Ni sabairaino ahaldunduta nago, argi daukat, baina batzuetan beti hor egoteaz ere nekatu egiten zara..." (CoY4).

Ahalduntzearen eraikuntzan hainbat faktorek hartzen dute parte, eta ez da unibertzala. Elkarrizketatutako emakume batek lurren jabetzarekin lotu du, ezagutu zuen emakume baten testigantza jasoz.

"Azpisektore honetan lursailak seme-alaba guztien artean berdin banatu izan dira, ez da maiorazgorik edo halakorik egon. Orduan, emakumeak oso ahaldunduak izan dira, lur-jabeak zirelako. Nik flipatu egin nuen beste azpisektore eta probintzia batzuetako kasuak aditzean, bizi guztia lanean igaro ondoren ez zutelako ezer beraien izenean. Nola dibortziatuko ziren horrela? Ezagutu genuen emakume bat etorri zait gogora. Bere senarrak makilaka latz zerabilen, eta "Nora joango naiz, inoiz kotizatu ez badut, nire ezer ez badut" esaten zuen. Hori hemen ez da gertatu" (A2Y2).

EKIMENA

Ekimen edo inizatibei dagokienean, nahiko parekatuta dago kontua. Emakumeen erdiak (%50) uste du inizatiba falta dela sektoreko emakumeen artean.

"Nik uste dut ekimen gutxirekin daudela. Jende gaztea, emakume gazteak ere bai, asko erosotasunean erortzen direla uste dut. Ez dakit, ez dakit, agian ni xelebrea izan naiz. Azkenean adinekoak, adinekoak direlako, eta gazteak..." (C1Y2).

%43ak, aldiz, uste du inizatibadun emakumeak direla sektorekoak.

"Nire ustez, emakumeek ekimen handiagoa dute une honetan, eta are gehiago gure sektorean. Aspaldidanik ikusi dut abeltzaintzako ustategia emakumeak hartu eta eraldatzen. Oro har, inguruan ikusi dut aurrera egiteko borroka hori" (CoY4).

Gainerako %7ak ekimena emakumeen adinaren arabera dela adierazi du.

"Nire ustez, adinaren arabera bana genitzake emakumeak: adineko emakumeak 'Bizitza osoan egin dut hori' eta hor daude, eta oraindik ere mantentzen dira; eta, gero, emakume gazteak daude, eta nik uste dut batzuek puntu berritzaileagoa dutela. Kezka ekintzaile hori, nire ustez, batez ere emakume gazteengan dago" (A2Y0).

KONFIANTZA

Emakumeek beraien buru eta gaitasunengan duten konfiantza hizpide hartuz gero, balantzea argia da: emakumeen %71ak uste du konfiantza falta dela sektoreko emakumeen artean.

"Lan bat egiterako orduan gertatu zait gelditzea sektoreko beste emakume batekin, eta beste pertsona uzkur azaltzea, herabe. Orduan esaten duzu 'Egingo dugu ahal dugun moduan, konponduko gara'. Hasten zara lanean eta esaten duzu 'Baina makina bat da, egin dezake hau

eta askoz gehiago. Ez dakit zergatik ez dagoen egiten askoz gehiago'. Eta hori behin eta berriro gertatzen zait landa-eremuko emakumeekin" (B1X1).

Soilik %7ak uste du konfiantzadun emakumeak direla sektorekoak. Eta gainerako %22ak bietariko kasuak daudela.

"Denetarik dago, dena lotuta dagoelako. Emakume batzuek ez dakite norantz doazen ere, uste dute ez dutela ezer balio... Eta badira emakumeak beren ekimen eta indarrean erabat sinesten dutenak, egiten dutenetik aurrera tiratzen dutenak, konfiantza handiz. Biak daude" (CoY4).

BARNE EDO KANPO

Emakumeak ekimen edo arduren barne edo kanpo kokatzen diren galdetuta, emakumeen %64ak uste du, orokorrean, sektoreko emakumeek beraien burua ekimenetatik kanpo kokatzen dutela, baztertu egiten direla. Emakume batzuek beraien bizipenak partekatu dituzte:

"Inoiz gertatu zait, bai... Adibidez, idaztearena. Idazten oso txarra naiz, oso txarra. Orduan, horrek askotan kikildu egin nau. Orain ez hainbeste, tresna teknologikoekin..." (C1Y2).

"Oscoletik atera beharra dago, bestela ez zarelako ezertaz enteratuko. Horretarako, bertaratu beharra dago" (CoY4).

"Gizonek odolean dute parte hartu ahal dutela; emakumeok odolean dugu ezin dugula" (C3Z2).

lkerketa-lana zeharkatzen duen ENEn kuotak ere hizpide izan zituen emakume batek, gai honekin harremanean.

"Emakumeek bertan egon behar dute bai ala bai. Kuotarik ez badago, emakumeek beren burua baztertzen dute. Bi bultzada daude, gurea eta beraiena. Legez ez bada, ezinezkoa da gutxieneko ehuneko bat egotea. Ez luke horrela izan behar, baina errealitatea hori da, aurrera egin nahi izatekotan" (C3Z2).

Aldiz, %22ak uste du ekimenetan barneratzekoak direla sektoreko emakumeak. Eta gainerako %14ak zertarako denaren arabera.

"Lan egiteko barne, ordezkatzeko kanpo" (C3Y4).

Emakume batzuen kasuan, autoezagutzatik dator hautua:

"Ni konturatzen naiz funtzionario, politiko eta maila horietako bileretan, non dena den hain difusoa, ez dakizuna nora doan, zertarako den, horren estrategikoak diren bilera horietan, nik ezin dut. Dudan izaeragatik sumindu egiten naute, haserretu egiten naiz bilera horietan, eta ezin naiz isilik egon. Ez dut balio bilera horietarako: ez dut balio, ez dut joan nahi, ez dut nire denbora hor jarri nahi. Orduan, autoeskluitzen naiz? Bai. Formatu nahi dut hobeto egiteko? Ez, eskerrik asko. Maila horretan gelditzen naiz. Ikusten dut badagoela jendea balio duena eta

egon daitekeena hor, eta ez dagoena, dagoelako beste norbait desegokiagoa. Baina ni ez naiz ikusten horra joaten. Udaletxe-mailako bilerak jada nahikoak iruditzen zaizkit. Ez naiz hor ikusten” (B1X1).

Beste batzuen kasuan, aldiz, aurretiazko esperientzien ondorioengatik:

“Ez prestaketa faltagatik, baizik eta aurretik izandako bizipenek ez didatelako konpentsatu. Nire etxeak pisu handia du nire bizitzan, eta horrek (nire etxeak) izan duen desgastea nik parte hartu dudanean kostatu zaidana errekuiperatzen, eta orain berriz pentsatzeak kargu batean jartzeak, edo mahai baten bueltan, hori kolokan jarriko duela berriz... horrek kriston fobia ematen dit” (B1Z3).


PARTE HARTZE ESPAZIOETAKO JARRERA

Parte hartzeari dagokionez, batzorde batera joaterakoan beraien jarduna 1-4 arteko zenbaki batekin puntuatzeko eskatu zitzaaien emakumeei¹⁴ (1=*Gutxi parte hartzen dut*, eta 4=*Asko parte hartzen dut*). Balorazio hori beraien esperientziaren batezbestekoari dagokio, askok adierazi baitzuten bilakaera bat eman zela beraian, eta ez zela berdina hasiberritan izan zuten jarrera edo karguaren azken fasean.

“Hasieran 1 edo 0. Gero denborak aurrera egin ahala, ni ere hobeto sentitu naiz, eta indarra hartu dut. Orduan, gero 3 bat” (B1Z3).

Orokorrean, joera parte-hartzailea gailentzen da elkarrizketatutako emakumeen artean. %38ak puntuazio gorena eman zion bere jardunari, 4; emakumeen erdiak pasatxo (%52) 3 bat jarri zioten; eta %10ak 1. Elkarrizketatutako emakume batek, 1 eta 4 arteko eskalatik kanpo kokatu zuen bere burua:

“5. Tematia naiz (barreak)” (A2Y2).



23 Grafikoa: Banaka elkarrizketatutako emakumeek beraien parte hartze espazioetako jarreraren inguruan egindako balorazioa.

¹⁴ Araba eta Gipuzkoako datuak, Bizkaiko emakumeen datuekin osatu dira.

Topaketa kolektiboetan ere azpimarratu zen erabakiguneetako jarreraren garrantzia. Batere parte hartzen ez duten gizonak ere badirela jakitun izanik, espazio horietan emakumeek duten jarrerak berebiziko garrantzia duela uste dute emakume askok. Jarrera aktiboa beharrezkoa dela uste dute, eta horrek eragina duela aurreiritzi eta estereotipoen apurketan. Hala ere, faktore asko daude jokoan, ikerlan osoan zehar ikusi den bezala: azpisektorea, batzordearen osaera, emakumearen bizitza momentua, adina, izaera...

KUPOAK ETA LOREONTZIAK

Dokumentuan zehar zenbaki hutsak nabarmendu dira, erabakiguneetan dagoen emakumeen gabezia, askotan paperak bestela esan arren.

Hala ere, ordezkari-tzarekin lotutako beste fenomeno bat ere ematen da: loreontziak jartzea. Pertsona horiek bertaratu egiten dira, baina ez dute erabakietan parte hartzen, ez dute beraiei iritzia adierazten, ez dute ardurarik hartzen beraiei gain.

Banaka elkarriketatutako emakumeetako batzuk ENEko 19. artikulua arrisku-etako bat bezala identifikatu dute, dirulaguntzak jasotzeko emakumeak egotearen derrigortasunarekin lotuta.

“Nik beti esaten dut ordezkari-lanetan daudenak beren balioagatik egon behar direla, eta ez ekonomiari edo zigorrari buruzko gai bat dagoelako kupo bati, ehuneko bati, lotuta. Ez zait inoiz gustatu ‘hainbeste emakume egon behar dira’ esaten zenean, batzuetan loreontzi bezala jartzen direlako, eta hori ez zait gustatzen” (CoY4).

“Baina zenbakietara mugatzea, hainbeste izan behar du eta punto, atzeko lanketa gabe... azkenean nik beti nire terrenora eramaten ditut gauzak, baina azkenean ni jarri nintzen bezala edo organo batean jartzen zaituzten bezala, hori oso gogorra da, eta horrek frustrazioa besterik ez du sortzen” (B1Z3).

Kontzientzia hori hartzen denean...

“Nire kasuan ikusi dut emakumeek parte hartu dutela organo horietan oso gutxi, eta izan denean izan dela beste erremediorik ez delako egon eta beste inor ez dutelako topatu, hori da nik dudak sentzazioa. Eta beti esango dut, loreontzi gisa. Baina ez bakarrik beraiek, eh, ni ere bai. Sentitu naiz oso-oso... ez dut esango erabilia baina... Horrek ere asko irakasten dizu, irekitzen dizu beste ikuspegi bat konturatzen hasten zarenean. Eta berdina zaio bileran edo handik kanpo, gutxi gorabehera duzun rola berdintsua da. Kanpoan fluidoagoa agian, baina bileran zure ahotsa adierazteko borroka handia egin behar da, eta presio asko izaten dira atzetik” (B1Z3).

Orokorrean, loreontzi bezala hautatutako emakumeen profilagatik galdetuta:

Adinekoak

“Urte asko daramatzanez eta gutxi geratzen zaionez 4 urteko fardel hau jarriko diogu, 4 urte barru erretiroa hartuko baitu. 4 urte-edo izango dira bakarrik” (A1X1).

‘Niri ez zait axola’ diotenak

“Beti dago 'Nahikoa daukat, niri ez jarri fardel hau' esaten duenik, baina baita 'Ba niri ez zait axola' dioenik ere; eta horretan berdin da gizon zein emakume. 'Lehendakaritzarako nor?' 'Niri ez zait axola' 'Ba zuri emango dizugu botoa'" (A1X1).

Badira emakumeak rol horretan eroso daudenak, gizonak dauden bezala.

Hala ere, badira beraiek toki horietan egotearen balioaren jabe direnak. Argi ikusten dute beraien presentzia askotariko arloetan egoteak duen garrantzia, eta hor jartzen dute xedea:

"Nik gogoan dut sasoi hartan batzordean egon ginenok argi gnuela ez gnuela onartuko gu loreontzi bezala emakumeen gaitan jarri eta horra mugatzea: denetarik gaiak eramaten genituen" (CoY4).

Talde lan saioetan parte-hartzaileen araberrako edukiak landu ziren, eta, horietako saio batean toki berezia hartu zuen gai horrek. Bertaratutako zenbait emakumek argi utzi zuten fenomeno hori emakume zein gizonentzako dela aplikagarria, eta, areago, askoz gizon gehiago daudela horrela jarduten dutenak emakumeak baino.

Emakumeentzako loreontzi etiketa barra-barra erabiltzen da erabakiguneen esferetan antza. Askotan, emakume izateagatik hori da abiapuntua. Ez dira hutsetik abiatzen, beste edonoren maila beretik: loreontzia dela suposatzen da, eta jasotzen duten isla hori gaintetik kentzeko gizon batek baino gehiago frogatu behar dute.

ENEn eraginez emakumeak erabakiguneetan sartzearen beharra heldu denean, ustez loreontziak diren emakumeak bilatu dituzte gainera elkarre askotan: denari bai esango diotenak, eragozpenik jarriko ez dutenak, isilik egongo direnak... Banakako elkarriketetan emakumeek adierazitako arriskua lan saio kolektiboetako aipamenek baieztatu zuten.

C- Duela bi urte apetz jarri zuten emakume bat, eta boto izugarri pila atera zituen, denak, ez zuelako ezer esango.

B- Noski, loreontzia, beraiek nahi zutena.

C- Nik entzun ditut esaten 'hori jarriko dugu, zeren ez baitu ezer esango'. Lotsagabe halakoak.

Gune horretan parte hartzeko borondatea duen emakumearentzat oso bortitza izan daiteke harrera hori. Badira emakume batzuk hasierako oztopo hori ez dutenak gainditzen: loreontzi etiketa bera bilakatzen da debaldeko tupustarria, geldiarazten dituen. Jarraian datorren testigantza eman zuen emakumeak buelta eman ahal izan zion, baina bere parte hartze esperientzia guztiko unerik mingarrienetakotzat du.

B- Asko mindu ninduen gauzetako bat izan zen niri loreontzi deitzea, aurpegira: 'hor dator ezarri diguten loreontzia'. Min gehien eman didan gauzetako bat da. Egun hartan etxera kasketaldi eta nahigabe itzela eraman nituen, eta esan nuen: "Batzorde guztietatik irtengo naiz!", birao hutsean. Eta etxean esan zidaten 'Baina zergatik egin dizu hainbeste min?' Oso gaizki sentitu nintzelako, oso gaizki hartu nuen hori entzutea. Badakit azkenean hori zela errealitatea, beraiek loreontzi bezala jarri nindutela, baina hain aurpegira esatea, gorritu ere egin gabe...

Batzorde askotan daude aktiboak ez diren profilak, aulkia berotzera doazenak...

C- Badaude lanik egiten ez duten batzordeak ere. Izan zaitezke lehendakari edo batzordekide lanik egin gabe, kontuz. Jende asko egoten da batzordeetan lanik egin gabe, gauzak diren bezala. Poste gehiago daude lana egiten dutenak baino.

Etiketa hori, ordea, ez da gizonen kasuan ematen.

A- Hori ez da inoiz gertatzen loreontzia gizona denean, gizon loreontzi asko baitago, eh.

Denak- Asko! Emakumeak baino askoz gehiago.

B- Gizonak loreontziak ez, tiestoak dira! Bati lehenengo ergelkeria entzun orduko pentsatzen duzu, "Hori esateko..." Horietako asko tiestoak dira, 30 urtetik gora toki berdinean daramatzatenek ekarpen txikia egingo dute, hori horrela da.

Eta dirulaguntzen truke bertan amaituagatik, mahai askotan errepikatu zen ideia berdina: emakumeak beraien parte hartzea kontuan ez hartzeko jarri dituzten kasuetan, emakume horiek parte hartze eskubidea ezin badute baliatu jartzen dizkieten trabengatik, handik joatea zilegia da, nahikoa lan dute eta. Kasu horietan, horren ondorioz, elkarteak dirulaguntzarik gabe gelditzen badira, ez da emakumeen errua: batzordeek berrikusi ditzatela arrazoiak.

C- Emakumeak adorea jarri behar dio, eta dirulaguntzagatik jarri banauzue, orain ni ere honen parte naiz. Eta bestela, ez nator gehiago.

B- Argi izan behar dugu ez dela gure errua dirulaguntzak jasotzeari uzten badiote, dirulaguntza ez baita gurea. Ez badituzte gauzak ondo egin, konpondu daitezela.

BILERA ESPAZIOAK: ANTOLAMENDUAREN ERRADIOGRAFIA

Bilera espazioen nolakotasuna aztertu da elkarrizketatutako emakumeen begirada eta bizipenetatik.

Alabaina, bilera espazio horien eraikuntzan elementu ugari hartzen dute parte. Espazio horien eraketan zerikusia du baita irisgarritasunak eta bertaratu behar dutenen mugikortasun aukerak; gauzatzen direnko tarteak, egunak, orduak; eta, bertaratze-baldintzak, ea ordainsariak jasotzen diren, ez... Kontu guzti horiek ere ematen diete forma bilera espazioei.

Aspektu horien inguruan galdetuak izan dira elkarrizketatutako emakumeak¹⁵.

MUGIKORTASUNA

Elkarrizketatutako emakume gehienak (%86), landa-eremuan lan egiteaz gain, landa-eremuan bizi dira. Mugikortasunean autonomia izatea beharrezkoa iruditzen zaie denei (%100), eta denek dute gidabaimena eta ibilgailu bat eskuragarri. Jarduera profesionalak eta bizitzari lotutako jarduerak toki berdina partekatzen duten horretan, autonomia izatearen garrantzia azpimarratu dute.

“Baserrian bizi diren emakume eta gizon denek behar-beharrezkoa dute autonomia: istripuak, erosketak, umeak...” (C3Y4).

“Orain 49 urte atera nuen gidabaimena, lehen haurraz haurdun nengoenean. Baina uste dut, beti esan izan dut, landa-emakumeentzako gidabaimena dela askatasunik handiena. Izan ere, ez duzu beti besteren menpeko egon behar eramane zaitzaten. ‘Eramango naute’ esaten dute batzuek. Nola zaramatzatela? Ez, ez, ez, ni neu noa. Nik daramat neure burua” (C1Y2).

Parte hartzerako orduan eragin zuzena (izan) duen faktorea da gainera, eta generoak pisu handia izan du.

“Oso-oso garrantzitsua da. Ezagutzen ditut autoa hartzen ez duten emakume asko. Bere garaian atera zuten gidabaimena, eta gero, senarrak zaramatzanez, utzi egin diote erabiltzeari. Eta zenbait, senarra hil ondoren, gidatzeko eskoletara joan dira berriro herrian harrapatuta geratzen zirelako bestela. Beste emakume batzuk ez, eta senitartekoren batek eramaten ditu, edo autobusez...” (A2Y2).

“Beno, nik uste dut nekazal munduan, eremu batzuetan, oraindik ere badagoela egoera hori, dependentzia. Ni ezkondu nintzenean (duela 50 urtetik gora) emakumeen erdiek baino gehiagok zuten arazo hori. ‘Zertarako nahi duzu gidabaimena?’” (C1Y2).

Araba eta Gipuzkoan elkarrizketatutako emakumeen %57ak ezagutzen du emakumeren bat zeinarentzat mugikortasuna parte hartzeko oztopo bat izan den.

¹⁵ Araba eta Gipuzkoako emakumeen erantzunak, Bizkaikoekin osatu ahal izan dira, eta ehunekoek hiru lurralde historikoei dagozkie.

“Bai. Emakume bat zegoen ondoko herritxo batean, oso parte-hartzailea, eta esaten zuen askotan ezin zela bileretara etorri agian semeak autoa eramaten zuelako, edo senarrak... Eta, azkenean, ingurukoek ez zioten garrantzirik ematen berak parte hartzeari, bera bileretara etortzeari, eta ahal zuenetan baizik ez zen etortzen” (A2Y2).

“Jo, bai, nik emakume asko ezagutzen ditut bai, emakume asko. Nik 22 edo 23 urte egingo ditut gure elkartean eta asko ikasi dut. Eta badakizu norengandik ikasi dudan asko? Adineko emakumeengandik. Askok ikasi dut haiek jasan behar izan dutenaz, argi eta garbi. Amarekin ere ikusi dut, bi belaunaldi bizi zirelako, familia osoarentzat, koinatuentzat eta denentzat prestatu behar zutelako janaria. Ez zuten independentziarik, ez zuten ez beren denborarekiko ez beren bizitzarekiko prestasunik: asko ikasi dut haiengandik, haiek errespetatuz. Orduan menpekoak ziren batzuek gidabaimenik ez zutelako, eta beste batzuk miresten ditut 60 urterekin atera dutelako eta jendarteari aurre egiteko ausardia izan dutelako; izan ere, zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta zailagoa da esango dutenari aurre egitea. Miretsi egiten ditut. Eta noski, gidabaimenik atera ez duten asko daude. Menpean egon behar izan dute, ez dute parte hartzen, eta senarrak edo seme-alabaren batek eraman edo ekartzearen mende egon behar dute. Eta oso garrantzitsua da lotura hori. Bestela, ez zarelako harremanetan jartzen, etxean zaude eta ezin zara harremanetan jarri. Izan ere, landa-ingurunean bizi gara, herri txikitxoetan” (CoY4).

Eta oraindik ere...

“Adibidez, nire herrian bada emakume bat autorik ez duena eta beti senarraren mende dagoena. Orain senarra erretiratuta dago eta gauza gehiago egin ditzake, baina lehen bere senarrak lan egiten zuen, orduan bera beti zegoen herrian. Ez dakit gauzak egin nahi nituen ala ez, baina senarraren mende zegoen” (A1X3).

“Bat baino gehiago ezagutu ditut horregatik ez zutenak parte hartzen, eta, gaur egun ere, karneta izan arren kotxerik ez dutenak hartzen beldurra diotelako. Konbinazio ona ere izan dezakezu, non bizi zarenaren arabera, baina halako baserri batean etxetik ateratzeko behar da zerbait, bizikleta bat besterik ez bada” (C2Z4).

Mugitzeko autonomia izan edo ez, emakume askok lotzen dute mugitzea denbora-inbertsioarekin. Eta parte hartzeari lotuta urruti samar joan behar izan direnetan, hor topatu dute traba handia.

“Oztopo bat izan da denbora aldetik, mugitzea=denbora delako. Horregatik hartu dugu neska bat, denbora behar dugulako.

Emakume denak dugu oztopo hori (denbora): gaztetan umeengatik; horiek haztean eraman eta ekarri egin behar direlako; amona egitean, orokorrean, umezaintza egin behar delako...” (C3Y4).

“Agian denbora gehiegi ez edukitzeagatik izan da zenbait parte hartze espaziotatik kanpo gelditzea: ez joan ezin izateagatik edo ezetz esango zidatelako, baizik eta egunak 24 ordu dituelako eta bi esku besterik ez ditudalako” (C1Y2).


Covid-ak ere eragina izan du zenbait emakumeren parte hartze esperientzian, eta lotura zuzena du mugikortasun-denbora harremanarekin.

“Covid-aren onena bideo-deiak izan dira. Hau da, askotan bilera batera joaten zinen, tontakeria baterako baino ez zen bilera batera, eta orain horrelako kasuetarako bideo-deia egiten duzu, eta berehala eta erraz egiten duzu.

Eta gero bileretarako hiribururaino autoarekin joatea batzuetan traba bat da. Niri gidatzeak ez dit axola, baina bai askotan parte hartzea edo ez zalantzan jartzen duzu zeren eta bilerak beti hiriburuan badira...” (A2Y2)

ORDUTEGIA

Bileren ordua eta tokia ezartzerakoan, elkarrizketatutako emakumeak egondako espazioetan kontuan hartu diren edo hartzen diren alderdien inguruan galdetuta, honakoak erantzun dituzte:



24 Grafikoa: Batzordeetako bileren tokia/ordua ezartzerakoan kontuan hartzen diren faktoreak.

Alderdi horiek gehien azaldu direnetik gutxienera ordenatuko bagenu, honela geldituko lirateke: elkarrizketatutako emakumeen %60aren kasuan, bazkideen lan-kontziliazioa izaten da kontuan parte hartzen duten edo hartu duten espazioetan; %43ren kasuan, teknikarien lan-kontziliazioa; %38, bazkideen kontziliazio familiarra; %14 irigarritasuna, tokia ongi komunikatua egotea edo irigarria izatea; eta %14ren kasuan baita bilera aurretik edo ondoren elkartzeko espazioa ahalbidetzea. Alderdi hauek ez dira baztertzailak, eta erantzunetan jasotako horien arteko konbinazioak 24 grafikoa ikus daitezke.

Behin eta berriz azaltzen den faktorea da denbora, eta ezberdina da gizon eta emakumeentzat antza:

“Gizonek beti ateratzen dute tarte eta denbora bileretarako: emakumeek ez” (B2Xo).

Horren inguruan, teoria ezberdinak dituzte emakumeek. Batzuek gakoa antolatzea dela uste dute:

“Nik beti esaten dut libratzeko gai izan behar garela. Orduan, badakizu nola libratzen den? Aurretik lan gehiago egin eta ondoren beranduago amaitzen. Hau da, antolatzea da kontua. Jendeak esaten duenean ‘Ez, ez dut minutu bat libre’ gezurra da” (C1Y1).

Beste batzuek, laneko ardurez harago, emakumeen gainerako ardurak eta horiei dagozkien denborak kontuan hartzea funtsezkoa dela uste dute. Eta, noski, lehenago jada beteta zuten 24 orduko agenda horretan, ezin dela gauzak gehitzen joan ezer kendu gabe.

“Emakume askoren buruan parte hartzea karga bat da: aurretik ditugun ardura eta lan guztiak bere horretan jarraitu eta berriak hartzea. Ezin badugu beste leku batetik kendu ezin da, oraindik estresatuago egoteko ez bada. Etxeko garbigailua ez zen emakumeei bizitza errazteko asmatu, arropa garbitzen zen artean beste lan batzuk egin ahal izateko baizik. Gakoa da gauzei denboraren balioa ematea. Emakumeen orduak balore bat du. Gainera, soldata arrakala bat dago. Gizonezkoek ez dute kobratu parte hartzeko, baina gizona lanera joan da eta lehenago irten da. Emakumeak egiten du lan berdina denbora gutxiagoan, libratzeko gero parte hartu ahal izateko eta jarraitu ahal izateko lehenagotik dituen etxeko eta zaintza-ardura denekin. Denbora kalkulatzeko ezinbestekoa da. Ze agian ez du konpentsatzen protagonismo horrek. Denbora ‘libre’ari kendu, desgastea gehitu... Ondorio negatiboak kontuan hartu behar dira” (BoZ1).

Kontziliazio gaiak hizpide hartuz, emakume gehienak bat etorri ziren: gizonentzako kontziliatu beharrekoa ustiapeneko lana da.

“‘Ukuiluko lanak egin ondoren’ izaten zen gizonen teoria. Ze gizonetzkoen teoria horrek zekarren emakumeentzako ez zela garai ona; gauean zein animatzen da egun osoan lanean aritu ondoren 21:00tan joatera? Oraindik badaude batzuk, baina orain ni joaten naizenak eguerdi aldera izaten dira. Horiek ez zuten ez umerik jasotzeko, ez janaririk prestatzeko... ‘ukuiluko lanak eginda’, hori bai” (C2Z4).

“Bilerak egiteko orduak beti izaten ziren gizonen ondo zetorkien une baten. Nik, suertez, momentu horretan bileretan parte hartzeko nuena zen nire gurasoak etxean (umeez eta etxeko lanez okupatzeko), eta senarra ere han egoten zen gaueko 22:00tan. Ni moldatu ahal izan naiz, baina beste batzuk ezin izaten zuten” (B1Z3).

Familia-kontziliazioa emakumeen kontua zen antza.

“Atzera begira, ni erabaki askotatik kanpo gelditu naizela uste dut, kontu horregatik (kontziliazioagatik). Bilerak 3 ordukoak izaten ziren gutxienez, eta denbora zero produktiboa. Ez ziren bilera efizienteak, eta nik zaintza ardurak eta bestelako ardurak nituen. Beraiek (gizonak) han gelditzen ziren lasai, berdin zitzaien, ez zuten beste kontuen (etxeko/zaintza lanen) ardurarik” (BoZ1).

“Begira, bilerak beti gizonen ordutegiak soilik kontuan hartuz ezartzen zituzten. Eta susmoa dut hala izaten jarraituko duela zenbait kasutan: lehen 85ekoa izango zen ehunekoa agian, eta orain 70ekoa. Baina izaten jarraituko duelakoan nago. Gizonek jartzen zituzten ordutegiak, emakumeenak ez baitziren aintzat hartzen. Eta zer gertatzen zen? Emakumeek ezin izaten zutela joan, arratsaldeko 5:30etatik aurrera izaten zirelako eta beraiek seme-alabak etxean zituztelako, afariak prestatu beharra...” (C1Y2).

Pixkanaka, badirudi zenbait gizon ere badoala bestelako ardurak hartzen:

“Oraindik ere bilera orokorrak egunaren azken orduan izaten dira, baina, azpisektorekoak, normalean, goiz erdian-edo, ganadua zainduta izan ondoren. Eguraldia ere izaten da kontuan,

euria egiten duen egunetan partaide gehiago joaten baitira; kanpoan lan egiteko eguraldi onarekin, adibidez, ez da inor joango, lan handia baitago. Baina euria egiten duen egunetan, goiz erdian abeltzainek ganadua zaindu dutenean, orduan aprobetxatzen da bilerak egiteko. Orain bat edo beste 'Joan egin behar dut' esan eta bilera amaitu aurretik irten egiten da, haurrak-eta jasotzera joan behar direlako. Horiei ez die bilera amaitzeko denborarik ematen" (A1X1).

Eta elkarriketatutako emakume baten iritziz, horrek izan behar du bidea. Itxuraz aurrerapauso bat izan zitekeena, berak zergatik ez duen hala ikusten azaldu zuen.

"Bigarren aldian egon nintzenean jende gazte gehiago etortzen hasi zen, eta atera zen gauzetako bat izan zen bileretan, batzar batean edo kongresu batean parte hartzeko haurtzaindegi zerbitzua jartzea. Ume txikiekin zeudenak etortzen ziren umeekin, bileran titia ematen zieten, edo bulegoko norbaitek bere lana utzi eta ume horiek zaintzen zituen. Nik hori beti ikusi izan dut... Ez dakit, iruditzen zait guk izan beharko genukeela espazio bat non erakundean parte hartu nahi baldin badut, nik hartuko dut parte, ni nator eta ni egongo naiz hor, ez daukat zertan nire umearekin egon. Ume horrek izango du aita bat ere. Niretzako oso garrantzitsua zen erakundera nentorrenean etxeko gauzak etxean uztea; gero bueltatzean han nituen zain, noski. Baina hemen nengoenean honetarako nengoen. Ni etortzen nintzen nire iritziak ematera, nire lan bat egitera. Azkenean zu bilera batean zaudenean umeari ari bazara bularra ematen, edo 'jolasa hemen duzu', ez zaude ez batean ez bestean. Eta, horrez gain, iruditzen zait guk ere behar dugula gure denbora. Badakigu 24 orduz garela amak, baina behar dugu denbora bat umerik gabe, eta ume hori egon dadila bere aitarekin, adibidez. Bileran parte hartzeko beste erremediorik ez dagoela eta bilerara umearekin etorri behar dela ulertzen dut, baina atzerapauso bat iruditzen zait baita" (B1Z3).

Kontziliazio faltaz gain, (auto)zaintza falta ere sumatu da historikoki ordutegiak jartzerako orduan.

"Ordutegiena arazoa izan da beti. Gavez egiten genituen bilerak, gure loari kenduz. Eta iritsi zen momentu bat erabaki zela bilerak bilera-orduetan egin behar zirela, eta gaua zela lo egiteko" (C3Y4).

Bestalde, badago hedatua dagoen beste sentipen bat ere: gaur egungo egitura askotan, teknikariaren figura dela erdigunean dagoena, eta haren neurrira hartzen direla erabaki asko.

"Teknikarien ordutegia, eta teknikarien lekua, eta teknikariei ondoen datorkiena. Izan ere, guri landa-laneko ordutegian geratzea oso gaizki datorkigu, nahiago dudalako nire lana egiten aritu. Orduan, teknikariek beti proposatzen dituzte bulegoko ordutegiak, eta nik ordutegi horretan lanean egon beharko nuke. Eta niri hobeto datozkidan ordutegiak, arratsaldeko 6etatik aurrera, arratsaldeko 7etatik aurrera dira. Orain nagoen elkarte batean saiatzen ari gara bestela egiten. Teknikariari esan genion ezin ginela ordu horietan geratu. Gerenteak ere badu haur bat, eskolatik irteten denean zaindu behar duena, orduan, bazkalorduan geratzen hasi gara, gutxi gorabehera. Goizean lan egin eta 13:30-15:00ak bitarte egoten gara. Eta ordutegi mugatua dugunez, arratsaldean egotea baino askoz eraginkorragoa da. Arratsaldean egon eta 'Gero ardo bat hartuko dugu' baino askoz hobeto" (A2Y2).

"Kontziliazio familiarrari begira, hamabostean behin direnez bilerak, gainerakoa egokitzen duzu horretarako. Juntak erabakitzen du kideen egoeren arabera non/noiz egin bilera. Baina

beti dago joera norbait ez datorrenean-edo 'Ba egingo dugu bulegoan eta lehenengo orduan'. Eta orduan bulegoak eta teknikarien ordutegiak beti dute indar gehiago gutariko edozeinen azken orduko aldaketa batek baino. Eta halakoetan esaten dut 'Ba ez noa'. Eta egiten da bilera *quorum* justu batekin" (B1X1).

Hala ere, identifikatutako joera horri buelta ematean arreta jarri duten elkarteak ere badaude:

"Ni aurretik egon nintzen batzordean, zentzu horretan, asko arduratu nintzen ordua bazkideak etor zitezkeenean izateko, ez teknikariak etor zitezkeenean bakarrik. Eta buelta bat eman nion kontuari. Uste dut hori garrantzitsua dela. Bazkideengan eta datetan pentsatu behar da, zenbat eta jende gehiagok parte hartu ahal izateko. Niretzat garrantzitsua da. Hasieran, hasi nintzenean, ez nituen mugikortasun eta irisgarritasuna kontuan hartzen, baina orain bai. Gertutasuna. Orain nagoen elkartearen, adibidez, bileren tokia zehazterako orduan, bilera hori norekin izango den kontuan hartzen dugu. Batzordekideen artean baldin bada, gehiago zabal bat eskualde berdinekoak gara, eta hor egiteko modua topatzen saiatzen gara. Aldiz, bestelako kontuetarako teknikariren batek edo elkarteko gerenteak egon behar badute, orduan beraien bulegoan egiten dugu, hiriburuan. Baina behintzat saiatzen gara egokitzen; lehen automatikoki hiriburuan egiten ziren bilera guztiak" (B1X2).

Ordutegien gaia mahaigaineratzerakoan, ezinbestean atera da hau: ordutegiak betetzeko dira, eta bileren hasiera eta amaiera orduak zehaztuta egon behar dira.

"Niretzako beti 'oztopo' bat izan dena eta asko minatzen ninduen zen ordutegia sekula ez zela errespetatzen. Niri zerbaitek amorrua ematen badit hori da: denon denborak berdina balio du, eta behin ere ez da hasten bilera bat bere orduan. Orduan, goiz iristen ginenok ba hortxe tartea" (B1Z3).

"Batzordean sartu ginenean deitu genuen lehen bilerara mundu guztia berandu etortzen zela gogoratzen dut. Mundu guztiaren denbora errespetagarria dela uste genuen, eta batzordetik puntu horien garrantzia nabarmendu genuen. Oso garrantzitsua da deialdi bat iristean zuk jakitea zer ordutan hasten den eta zer ordutan amaitzen den bilera, norbera antolatu ahal izateko. Nik neuk ikusten dut, bilera batean nagoenean pentsatzen ari naizelako 'orain hau egin behar dut, gero bestea, ta-ta-ta', dena konbinatuta daukazu. Baina orokorrean hauek (gizonak) erlaxatu eta gelditu egiten dira..." (CoY4).

Orokorrean, emakumeak adiago daude amaiera orduari, bestelako ardurak dituztelako zain. Hori hala, barne erabaki azkarrak hartzen dituzte beraien ahotsa entzunaraztearen edota sasoiz irtetzearen artean.

"Inoiz gelditu naiz iritzirik eman gabe, baina bilera gehiegi ez luzatzeko" (B1X1).

Aipatutakoak kontuan hartuz gero, aldaketak dakartza ezinbestean.

"Emakume batentzat oso garrantzitsua da bileren ordutegia. Zuzendaritza batzordean egon ginenean gauza horiek guztiak aldatu genituen. Horrek ekarri zuen bilerak ez zirela lehenagokoek egiten zituzten orduetan egin behar, gero afaltzera joaten baitziren. Eta orduan beste ordu batzuetan egitea proposatu zen, emakumeak joatera animatzeko" (CoY4).

Hainbat emakume bat etorri ziren: galdetuz gero, errazagoa da asmatzea.

“Guk gizonentzat zein emakumeentzat beren ekoizpen-sektoreei begiratzen genien, gutxi gorabehera dituzten lan-ordutegiei, denboraldiari... Eta, gero, gehiago erreparatzen genien emakumeei: ea haurrak eskolan zituzten, otorduak egin behar bazituzten, adinekoen zaintza beraien gain zuten... Hori guztia oso garrantzitsua zen. Eta, batez ere, haiekin (emakumeekin) adostea, ea zer ordutegi zetorkien ondoen galdetzen genien. Uste dut oso garrantzitsua dela galdetzea” (CoY4).

Historikoki, bilera aurretik edo ondoren tarteak sortu izan dira, nahita edo halabeharrez. Emakume gehienek uste dute halako espazioetan emakumeek ez dutela parte hartu izan orokorrean, baina gaur egun denetariko iritzi eta praktikak daude emakumeen artean:

“Nirekin ez zen espazio informaletarako lehenago edo geroago hutsune bat egotea kontuan hartzen, baina badagoen ohitura bat da. Beno, orain pandemiaren gaiarekin zailagoa da, baina gizona hori kontuan hartzen dute” (B1X2).

“Bileraren ondoren elkargune informal baterako aukera izatea kontuan hartzen da, eta ni oso hori egitearen aldekoa naiz gainera” (A2Y2).

ORDAINSARIAK

Elkarriketatutako 21 emakumeen erdiak pasatxok (%52) jaso du edo jasotzen du nolabaiteko ordaina ordezkari-tza lanagatik. Jasotako ordain hori bidaia-gastuengatik izaten da normalean (ordaina jasotzen dutenen %83, elkarriketatutako guztien %48), eta horien erdiak (elkarriketatutako guztien %24) bileretara bertaratzeagatik dieta txikiren bat ere jasotzen dute edo jaso izan dute.

Kasu askotan, “jaso” esaten denean, “jasotzeko aukera” esan nahi da, zeren eta aldea dago bataren eta bestearen artean.

“Bere garaian bazkideren batek proposatu izan dit: ‘Zuk gastuak, kobratu behar badituzu, kobratu’. Bai, baina elkartean ez daukagu dirurik, ez daukagu mantentzeko nahikoa sosik, eta beraz, nik dietak kobratu behar baditut, akabo mutilak” (A2Y0).

“Hainbat elkartetan nago, eta bakoitzak era batean funtzionatzen du. Horietako batek zuzenean ordaintzen die parte-hartzaileei. Bi urtetan ez dut ezer pasatu baina aurrekoan esan nien baietz, pasatzen hasiko nintzela, krisi handia dagoela-eta (barreak)” (C3Y4).

Eta jaso edo irabazi ez, baizik eta parte hartzeak dirua galtzea badakar?

“Kontua ez da joaten naizenean dirua ez irabaztea, baizik eta dirua galtzea nire lanpostuan ez nagoelako. Alderdi ekonomikotik begiratuta, erabateko defizitariora izan da nire partaidetza guztia. Hau da, ez dut parte hartzen kobratzeagatik, argi dago” (A2Y2).

“Nik ordubetera daukat bilera egiten duguneko tokia teknikariak han daudelako: autobideko ordainsariak, erregeaia, eta, are gehiago, galtzen dudana goiz osoa... Uste dut 30 euroko dieta dela asistentzia bakoitzeko” (A2Y0).

Eta, guzti honekin lotuta, eraginkortasuna.

“Bada, bueltak ematen dituzu, paper bat sinatu behar da, eta orain, beno, teknologia eskertzen dut, batzuetan laguntzaren bat jasotzeko epe kontuengatik hiriburura joan behar izan dudalako paper bat sinatzeko soilik. Eta badiotsut, niri ez didate ordaindu behar, baina gutxienez gauzak modu eraginkorrean egiten saiatu” (A2Yo).

Elkarrizketatutako emakumeen %76ak dio baldintzak berdinak direla bileran parte hartzen duten guztientzat. Ezberdinak direla esan dutenen kasuan, lehendakarien figurak azaldu dira, eta teknikarientzat, bozka izan ez arren bileren parte izaten direlako elkarte askotan.

4 PARTE HARTZEA: ELEMENTU ERRAZTAILEAK, OZTOPOAK ETA OROKORREKO BALORAZIOA

ELEMENTU ERRAZTAILEAK

Aurreko ataleko argazkia abiapuntu izanik, eta berriz ere elkarrizketatuen lagina hiru lurralde historikoetara hedatuz, erabakiguneetako parte hartzea errazten duten elementuak aztertu dira.

Parte hartze esperientzia bakoitza bakarra da, egiturazko elementu ugari errepikatu arren. Egiturazko elementu horiek modu ezberdinetan zeharkatzen ditu emakumeak, faktore ezberdinen arabera: adina, izaera, azpisektorea, parte hartzean antzinasuna...

Jarraian, elkarrizketatutako emakumeekin kontrastatutako hainbat elementu erraztaile jasoko dira. Elementu horiek bibliografiako dokumentuen azterketatik ondorioztatu dira. Bereziki baliagarria izan da Integra proiektuaren barruan 2011an Carretero eta Avellok egindako lana. Cooperativas Agroalimentarias Españak koordinatu zuen, eta izenburuaren itzulpena hau litzateke: ‘Emakumeen parte-hartzea nekazar-kooperatibetan. Emakumeek nekazaritzako elikagaien sektoreko kooperatiben kudeaketa-organoetan parte hartzeko dituzten oztopoei buruzko diagnostikoa eta azterketa’.

Ondoren, erakundeei helarazitako galdetegietan azaleratutako elementu erraztaileak jasoko dira, galdetegia erantzun dutenen ustetan emakume horien parte hartzea zerk errazten duen edo erraztu dezakeen irudikatzeke.

EMAKUMEEI EGINDAKO BANAKAKO ELKARRIZKETAK

Elkarrizketatutako emakumeen %71k positiboki baloratu du eta parte hartzea errazten duen elementua kontsideratu batzordean emakume gehiagoren presentzia egotea.

"Niretzat askoz errazagoa da, edo ni gusturago sentitzen naiz, babestuago, beste emakume bat dagoenean" (B1X2).

Batzuek aukera hori izan ez duten arren, beraien esperientzia osoan emakume bakarrak izan direlako.

"Ez da halakorik izan" (A1X3).

Elkarrizketatutako emakumeen %90ak positiboki baloratu du eta parte hartzea errazten duen elementua kontsideratu batzordea eratzen duten gainerako kideen babes. Hala ere, zenbait emakumek zalantzak dituzte babes hori nondik datorren.

"Bai, baina jarrera inklusibo hori nondik dator? Ez dakit den 'Etorri, animatu!' edo 'Zu hor bazaude, ni libratzen naiz'" (A2Y0).

Elkarrizketatutako emakumeen %86ak positiboki baloratu du eta parte hartzea errazten duen elementua kontsideratu elkarteko bazkideen babes. Baina ez du zertan gehiengoarena izan, ezta beti momentu berean ere.

"Bai, nik, adibidez, alde batetik asko eta bestetik gutxi izan dut, eta eskertzen da izatea" (B1X2).

"Batzordea utzi ondoren bai, aurretik ez" (A1X3).

Talde lan saioetan ere hala jaso zen. Norberak aurrean egoteko hautua egin arren, aurrera egiteko atzean aliatuak izatea ezinbestekoa dela esan zuten emakumeek.

Eta aurrean egote horretan, askorentzat babesaren sinonimoa da beste emakume batekin bertaratzea.

B- Egia da beste batekin joateak babesaren ematen dizula, behar denean hark babestu zaitzakeelako. Bestela jan egiten zaituzte.

Hala ere, azpimarratu zuten elkarrekin joate horrek ez dezala kontrako mezua bidali, ez ditzala emakumeak txikitu edota beraien balioa zalantzan jarri.

C- Esaten duzuenarekin ados, baina ez joan beste batekin zorriak bezala bata besteari pega-pega eginda, esanez biak baldin badaude moldatu egiten direla eta bestela ez.

Babes horren kalkulua ezinbestekoa da gainera norberak ere bere indarrak non eta noiz jarri edo kendu erabakitzeko. Giroa alde ez badago, hobe baldintzak beste batzuk izan arte itxarotea.

A- Bat nator esan duzuenarekin, baina demagun elkarte gogor horietako bilera bat dagoela, eta nik, neska gaztea, hango anarkista gizonezko 80 urteko horiengana joan, eta nola esango diet gauzak aldatu behar dituztela? Ostikoka botako naute. Heltzen zara berria, gaztea, emakumea, eta esaten duzu 'aizu, hau ez dago ondo', eta ziurrenik jasoko dudana izango da 'ea, ixo, tira'. Nondik hasi behar dut?

B- Komentatu den bezala, azkenean babes bat baldin badaukazu ondoan, edo inguruan, edo atzean... ze bakarrik...

C- Egoera zein denaren arabera hori da energia galtzea.

Elkarrizketatutako emakumeen %86ak positiboki baloratu du eta parte hartzea errazten duen elementua kontsideratu gertukoenen babesa: familia, bikotea...

“Nik zentzu horretan ez dut arazorik izan. Are gehiago, nire seme-alabek eta senarrak uste dute hor egon behar dela eta parte hartu behar dela gero protesta egin ahal izateko” (B1X2).

Lan saio kolektiboan ere, talde txiki batean izandako eztabaidatik jaso da ondorengo testigantza. Taldeko gainerako emakumeek, aho batez berretsi zuten.

B- Ni beti izan naiz inon parte hartzeko uzkur. Batzordean irten nintzenean, inposatu egin zidaten. Lehenago denek dimititzen zutenez dimititzea debekatu zuten: lehen legealdia egin ondoren, errepikatuz gero, orduan bai, dimititu zenezakeen, baina lehenengoan ez. Etxera iritsi eta 'Ez dut nahi' esan nion senarrari. Eta berak esan zidan, 'Tira, gauzak hobetu daitezkeela esan ohi duzu, erakutsi zer balio duzun'. Eta pentsatu nuen 'Zuzen zaude, egia da. Zergatik esango dut ezetz saiatu gabe? Gero, ezin badut, ikusiko dut'. Egia esan, oso garrantzitsua da etxeko babesa izatea.

Hala ere, emakume guztiek ez dute halakorik izan. Banaka elkarrizketatutako emakume batek zer esan zuen:

“Nik, batzuetan, garai zaharrak gogoratzen ditut, esan dizudanez, urte asko baitaramatzat. Ez zen erraza izan. Izan ere, nik erabaki horiek guztiak hartzen nituenean, ez familiak ez senarrak ez ninduten babesten. Orduan gidabaimena atera nuenean bezala sentitzen nintzen, 'Ez atera, oso urduria zara-eta' esaten zidaten. Pikutara bidali nituen... Baina, tira, bakoitzaren bizitzan geure nortasuna sortu behar dugu, eta askotan aurkitzen dituzun zailtasunen arabera, era batera edo bestera eraikitzen zara” (CoY4).

Eta, lan saio kolektiboan, adineko emakume batek bere sasoian asko gertatzen zen fenomeno bat zela adierazi zuen etxeko babes falta, edo aurkakotasuna.

C- Gazteek borrokatu behar duzue, lehen ere egin genuelako eta bizitza orain baino zailagoa zelako, batez ere emakumeontzat. Izan ere, lehen, niri ez zait gertatu, baina jende asko egon da trabarik handiena etxean izan duena. Zuek egin behar duzuen lehenengo gauza ondoan dituzuenek eragozpenik ez jartzea da; izan ere, horiek jarri bezain laster, borroka egiteaz nekatzen zara, astunegia delako dena, eta hori gehiegitan gertatu da. Zuek zuen burua autobalioetsi, eta gertu dituzuenek ez zaitzabela izorratu egun batean goizaldeko 1ean iritsi bazarete bilera bat berandu bukatu delako. Izan ere, hori egun batean, eta beste batean, eta beste batean... Bestela etxerako bidean, gazte zarenean bezala pentsatzen ari zara, berandu zoazelako oihu egingo dizutela.

Elkarrizketatutako emakumeen %67ak positiboki baloratu du eta parte hartzea errazten duen elementua kontsideratu bestelako eremuetan parte hartzea, askok lehen sektorea erabat desberdina dela adierazi duten arren.

Eta emakumeen %52ak bere parte hartzean eragin positiboa izan duen elementua kontsideratu du berdintasunarekiko bere konpromiso pertsonala.

Puntu horretan, bere parte hartzea bultzatu duen elementua dela kontsideratu duen pertsona baten eta beraien parte hartzea bultzatu ez duen elementua dela kontsideratu duten zenbait pertsonen kasuan, deigarria da jasotako azalpena.

"Nik beti esan izan dut: ez gizon ez emakume, mundu baten alde, sektore baten alde, edo edozeren alde, borrokatzen eta lan egiten dugun pertsonak. Ez gizonik ez emakumerik" (CoY4).

"Feminismotik berdintasun hori, edo rol hori, edo txip hori aipatzen denean, nik ez dut inoiz esaten emakumea gizona baino gehiago denik. Nik beti esaten dut adostasun bat egon behar dela, inork ez duela bestearen gainetik egon behar" (C1Y1).

"Nik nahi dudalako egiten dut, ez emakume paperagatik edo emakumeak daudela ikusi behar delako. Zenbat eta emakume gehiago egon, hobeto, baina ez dut moda bat egin nahi. Ni azkenean gizon baten berdina sentitzen naiz, orduan ez dut pribilegioa behar. Kexatzen naiz askoz ere zailagoa delako emakume izatea, baina ez dut berdintasun-grina horrek bultzatuta egiten" (A1X1).

Emakumeak gizonen gainetik egotearekin, pribilegioarekin, egin izan dute zenbaitek lotura. Feminismoak azken urteetan izan duen gorakadaren ajeetako bat izan daiteke zenbait emakumek 'berdintasunarekiko konpromiso pertsonala' feminismoarekin berdindu izana, eta termino horren esanahi oker batekin, feminismoak emakumeak gizonen gainetik jartzea aldarrikatuko balu bezala.

Bestelako emakume taldeak

Derrigorrean erabakiguneetako beraien parte hartzea erraztuko duen elementu bezala kontsideratu ez arren, emakumeen %48ak parte hartzen du emakumez osatutako talde edo espazio batean, izan sektorearekin lotutakoa edo ez.

"Oso-oso gustora sentitzen naizen gune bat da, oso lasai, eroso... Ez gaude asko ere, eta gaudenak hor irauten dugu. Etorri nahi duen guztia ongi etorria izaten da, baina talde eragile horren osaketa da modu naturalean ematen dena, gerturatzen dena, pixka bat gehiago inplikatzeko dena... Azkenean niretzat izan da espazio bat nik batzordeko parte hartzean nituen frustrazioen deskarga egiteko, eta indarra hartu eta gora igotzeko. Hori izan da babestuta sentitu naizen gune bakarra" (B1Z3).

"Emakumeen parte hartze sozial eta politikoaren inguruan hitz egiteak positiboki eragin dit, oso positiboa da niretzat halako talde batean egotea. Mugimendu feministari dagokionez, errekatxotik hasi nintzen senak bultzatuta, eta zabalduz doakit. Ozeano bilakatu arteko tarte osoa, bizi osorako izango dela dakit" (B1X0).

Hala ere, parte hartzen ez duten emakumeek arrazoi ezberdinak eman dituzte. Bat, denbora.

"Ez, hori hor daukadan zerbait da, bizitzak ez dit horrenbesterako ematen. Nire seme-alabek behar ez nautenean eta beste gauza batzuk egiteko astia dudanean, beste gauza batzuk egingo ditut. Baina gaur egun ez dut astirik. Nahiko nuke, baina ezin dut" (A2Y0).

Beste bat, aurreiritzi eta epaiak. Zenbait emakumeri asaldura eragiten die feminismoa aipatzeak. Emakumez eratutako taldea feministatzat jotzeko joera ikusi da (jakina den arren ez dela halabeharrez hala), eta, beste behin, nahasmendu deigarria dago *feminismoa* hitzarekin.

"Behin emakumeen topaketa batean hartu nuen parte. Oso ondo hasi ginen, baina nik argi eta garbi esan nien: 'Ez, ez, ez esan txorakeriarik niri. Zuek ez duzue berdintasuna nahi. Zuek erabateko feministak zarete. Niri berdintasuna lanean erakutsi'. Izan ere, emakumeen elkarrekin niretzat duten delitua da zaldiaren goiko partean joan nahi dutela, eta besteak behean. Berdintasuna nahi dugu? Ba berdin nahi dugu. Ona eta txarra. Eta hor bazeuden batzuk feministegiak zirenak. Nik esan nien gauza bat dela berdintasuna nahi izatea, eta beste bat berdingabeak garela pentsatzea. 'Guk bakarrik balio dugu, guk bakarrik egiten dugu, guk bakarrik...' Ez, ez, ez, ez. Niri berdin zait gizona edo emakumea izan. Bide beretik goaz denok" (C1Y1).

Ez parte hartzerako orduan, bi arrazoiak batzen zaizkionik ere bada.

"Ez dut parte hartzen, gero katalogatu egiten zaituztelako: 'Badatoz *Emakundeak*. Dagoeneko parte hartzen uzten diegu, baina zertarako egin behar dute hau?' Egia den arren baita, oraingoz, niri behintzat, ez didala bizitzak horrenbesteko ematen" (B1X2).

Emakumeen sarrera errazteko prozesuak

Elementu erraztaileekin lotuta baina bereiz, banaka elkarriketatutako emakumeen %48k adierazi du emakumeen presentzia/sarrera errazteko birgaitze prozesuren bat egin dela bera egon den elkarrekin batean. Hala ere, ez da apustu egonkor bat egin kasu gehienetan, eta bateren batek oso ibilbide laburra izan zuen:

"Saiakera bat izan zen, baina ez zen lortu lanketarik egitea: 'Betetzen al dugu dirulaguntzak jasotzen jarraitzeko legeak eskatutakoa?' 'Bai' 'Ba listo'" (A2Y0).

Saiakera horiek gauza berria direla adierazi dute zenbaitek. Kasu askotan, borondatea egon arren, ez dakite nola egin. Elkarriketatutako emakume batek elkarteko teknikariaren bitartez laguntza eskatu, eta beraien esperientzia positiboa partekatu zuen:

"Egon nintzen aurreko elkarteetan egin genuen. Nik emakumeak gehiago parte hartzea nahi nuen, eta elkarteko teknikariaren bitartez, laguntza eskatu genuen elkarte moduan. Horrela, bai teknikaria bai ni bi jardunalditara joan ginen. Bi jardunaldi egin genituen enpresa espezializatu batekin, emakumeak parte har zezan nola egin behar genuen ikusteko. Eta orduan jarraibide batzuk ezarri zizkiguten. Gero, hori bazkide batzuekin landu genuen, haien iritziak ezagutzeko. Egia esan, oso gauza onak atera ziren. Eta, gero, egindako lan hori guztia gelditu egin da pandemiarekin; karguak berritzea tokatzen zitzaigun eta dena prest geneukan horretarako... Ni jada ez nago hor, baina teknikariak ildo horretatik jarraituko du lanean" (B1X2).

Eta taldea ea mistoa al zen eta ekimenak nolako harrera izan zuen galdetuta:

"Bai, gizonak eta emakumeak zeuden, eta oso harrera ona izan zuen. Gizon batzuei pixka bat kostatu zitzaien ulertzea. Esaten zuten 'Bada, uzten diegu jada (parte hartzen), zergatik ez

dute nahi?! Ez diegu ezer esaten!' (ahots zakarrez). 'Bai, baina kontua ez da esatea, kontua da gustura ere egon behar dutela espazio horietan, ezta?'. 'Gustura ez badaude, zergatik ez daude gustura?!'(sorbaldak altxatu ditu emakumeak, irribarre eginez)" (B1X2).

ERAKUNDEEI LUZATUTAKO GALDETEGIA

Galdetegia erantzun zuen pertsonaren ustez, gaur egun erabaki organoetan emakumeen partaidetza altuagoa izateko identifikatzen dituzten elementu erraztaileen inguruan galdetu zitzaien, eta 45 erantzun jaso dira.

Ekarpen gehien emakumeen **lan-zama eta bestelako ardurak arintzea**rekin lotutakoak izan dira, beraien **denboran eragin zuzena** baitu, bai etxeko- eta zaintza-lanak, zein ustiapenekoak.

"Etxeko zereginetatik, gurasoen eta seme-alaben zaintzetatik... askatzea. Baina gai horietan zereginak bi generoen artean partekatu beharko lirateke. Horregatik prestakuntza, hezkuntza..." G3TK.

"Eguneroko lana erraztea. Ustiategiak txikiak dira eta eguneroko lanak, batzuetan, parte hartzeko gogoia gainditzen du. Burokrazia handia eta ustiapenak berekin dakarren guztia kudeatzeko erraztasun gutxi" E3ID.

Bileren ordutegia, tokia eta gai-zerrenda ezartzerakoan, emakumeak kontuan hartzea ere elementu erraztailea kontsideratzen da, ikerlanean zehar jaso den bezala.

Bilera-espazio horien **funtzionamendua aldatzea** ere positiboa izan daiteke: dinamikoagoa izatea, bilera zehatz eta praktikoagoak, kudeaketa mota gaurkotuagoa...

Hala ere, emakumeak erabakiguneetan egon eta esperientzia positiboa izateko, beharrezkotzat jotzen dute **lanketa**: elkarrekin (eraginpeko entitateak), bazkideekin (oinarri soziala), emakumeekin eta gizonekin.

"Emakume horien inguruan dauden gizonek emakumeen gaitasunean sinestea, benetako berdintasunean sinestea, beraiekin bizi diren emakumeak animatzea, emakumeek parte har dezaten laguntzea... Azken batean, emakumeekin lan egiteaz gain, gizonekin emakumeekin bezainbat edo gehiago lan egin behar da, eta hori oso zaila da, ez baitute horrelako dinamiketan parte hartzeko interesik" E2BB.

Berdintasun errealaren alde lan egitea, **sakoneko aldaketak** eraginez.

Belaunaldi-aldaketa ere garrantzitsua da, berdintasunaren inguruko gazteen ikuspegia zabaltzeko.

"Gazteetan gertatzen ari den prestakuntza eta kontzientziazio prozesua adin-tarte guztietara hedatu behar da. Zoritxarrez, lehen sektorean hori ezartzea asko kostatzen da, oso berritze gutxi dagoelako" G2LH.

Sektoreko eta elkarteetako **emakume kopurua** igotzea lagungarria izan daiteke, noski; kasu askotan, beharrezkoa. Betiere, **zenbaki hutsen fenomeno** errepikatzen **ez** baldin bada. Horretarako, honakoak proposatzen dira:

“Titular diren negozioan proaktiboak izatea” G3TK.

“Beraiek garatzea jarduera, ez titularrak izatea bakarrik” G3TK.

“Ustategia edo negozioa benetan kudeatzen dutenak emakumeak izatea” G3TK.

“Emakumeek nekazal-jarduerak jarduera nagusi gisa garatzea edo (familia-)negozioaren agintea eramatea” G3TK.

“Bere jardueraren garapen-eremuan emakumeak berak hartzea bere titulartasuneko enpresaren erabakiak” G3TK.

“Enpresa-jarduera ustategian bertan gauzatzea” G3TK.

Eskubide osodun langileak izatea ere funtsezkoa da.

“Langile-eskubideak eskuratzeko neurri politikoa aldatzea pausu garrantzitsu bat litzateke: alegia, bakoitzak bere baserrian lan egitea eskubide guztiekin. Neurriak lirateke kotizazioetan, forma juridikoak emateko presio fiskala jaistean, lan-banaketa errazteko neurri desberdinetan, dependentzi legea aldatzean...” E2TK

Eta emakumeak **ikusaraztea**, eta beraien **balioa sinetsarazi**: erabakien **protagonista** izan behar dira, parte hartu, eta **informazioa** jaso:

“Elkarteetatik beren lanari eragiten dion informazioa iritsi behar zaie bai edo bai. Informazioa + organoetako ordezkartza = boterea” E3BA.

8 izan dira elementu erraztaileen inguruan **‘Ez dakit’** erantzun dutenak. Hala ere, horietako bik, dieta potenteak proposatu dituzte.

“Ez dakit, uste dut gizon eta emakumeen arazoa dela. Dieta potenteak jartzea? Ez dakit” G3TK.

Eta, batek, jasotako erantzunak partekatzea.

“Ondorioren bat ateratzen baldin baduzue, partekatu mesedez” E2BB.

OZTOPOAK

Behin elementu erraztaileak ikusita, erabakigune horietan emakumeen parte hartzea zailtzen duten elementuak aztertuko dira jarraian.

Bibliografia ezberdinetan identifikatu eta elkarrizketatutako emakumeekin kontrastatutako hainbat oztopo jasoko dira lehenik, EAEko nekazal-emakumeek erabakiguneetan parte hartzerako orduan topatutako eragozpenen argazkia egiteko. Eta erakundeei helarazitako galdetegietan azaleratutakoak ondoren, galdetegia erantzun dutenen ustetan emakume horien parte hartzea zerk oztopatzen duen irudikatzeko.

Kexa

Banaka elkarrizketatutako emakumeen %52ak jaso du kexaren bat, reprotxeren bat, toki hori berea ez balitz bezala, ez zegokion tokiren baten balego bezala. Orokorrean, emakume horiek beraien espazioa defendatzeko jarrera argia azaldu zuten.

"Errespetua irabazi nahi baduzu pultsu batekin izan behar du. Halako reprotxe baten aurrean 'Etxera noa' esango banu... Nik esan nion: 'Begira, uste dut errua ez dudala nik hemen egoteagatik: botoa eman duzue, ni atera naiz, eta etorri naiz, baina ez horretara'. Eta noski, badiotsut sarrera gogorra dela" (C1Y1).

"Umearekin joaten nintzenean (bularra ematen zion bertan) uneoro esaten zidaten, baina orokorrean ez. Halakoak hesi bat dira, baina niri hesi horiek laguntzen didate esaten 'Ba orain izorratu egingo zara gehiago etorriko naizelako'" (A2Y2).

"Hori etxetik hasita, etxe mailan eta herri mailan ere bai. Egunero ibiltzen zara hara eta hona, eta emakumeen zeratik atera egiten da hori, emakumeak etxean egotekoa izan behar baitu. Bere momentuan min eman zidan, baina aurrera" (C2Z4).

Gaitasunak eta iritziak kuestionatzea

Elkarrizketatutako emakumeen %38ari bere gaitasunak kuestionatu zaizkio bilera espazioren baten bere ibilbidean zehar, eta %71ri bere iritziak. Are gehiago, elkarrizketatutako emakumeen %48ak bere iritziak baliogabetuak izan direla sentitu du.

"Batzuetan sotilki, baina bai" (B1Z3).

Mespretxuzko komentarioak

Elkarrizketatutako emakumeen %52ak jaso ditu mespretxuzko komentarioak bilera espazioren baten bere ibilbidean zehar.

"Mespretxuzko komentarioak asko, garai batean asko. Gaur egun gutxiago, baina azkena izan zen batzorde ondorengo bazkari batean. 14-15 lagun inguru izango ginen, eta nik entzuteko bezala esan zuen gizon batek 'Bai, baina horiek ez dute ezer egingo, emakume zera horiek'. Eta horrek indar gehiago ematen dizu" (C3Y4).

Gehienak, atzetik:

"Aurpegira ez, baina atzetik bai, eta azkenean bueltan-bueltan iristen dira" (B1Z3).

"Nitaz asko hitz egiten dute, baina esan dizut non: tabernan eta atzetik. Aurrez aurre ez dira ausartzen" (C1Y1).

Horrez gain, norberarekiko izan ez arren, emakumeekiko mespretxuzko komentario ugari entzun behar izan dituzte elkarrizketatutako emakume zenbaitek. Hori oso normalizatuta egon omen da, orain aldaketa bat sumatzen duten arren.

“Emakumeek ez dugula balio entzun dugu, eh? Junta batean esan gizonari ‘Zure emaztea hartuko dugu juntarako’, eta gizonak ‘Nire emazteak ez du balio horretarako’. Nola ez duela balio? Ze minusbalia dauka ba ez hartzeko? Eta horiekin nora joan behar duzu? Ez etxen ez kanpoan, horiek” (C2Z4).

“Izan ere, gogoratzen dut niri ez zitzaidala tokatu, baina nirekin batzordean zegoen beste emakume bati gertatu zitzaion, niri ere berdin gertatu ahal zitzaidan arren. Eskualdeetako bilerak egiten genituenean, gu adi egoten ginen bertaratzen ziren emakumeekiko, beraiek parte hartzean engaiatzeko, honako edo harako ordezkaritza proposatzeko... Ordezkariek aukeratzerako orduan ikuspegi hori genuen. Bileretan emakumeak ikusten zenituen, fijaszen joaten zinen, eta “Hau aukeratuko dut ordezkari gisa”. Bada bileretako batean gizon batek nire kideari zera esan zion: ‘Aizu, nire emaztea ez jarri, horrek ez du erratza pasatzeko ere balio’” (CoY4).

Emakumeen bizitzako alderdi pertsonalak

Elkarrizketatutako emakumeen %48ak sentitu du bilera espazioaren baten bere bizitzako alderdi pertsonalak atera direla harira etorri gabe.

“Horrekin negar asko egin nuen nik, gazte-gaztea bainintzen. Beno, gaztea... hogeitaka urte izango nituen, eta bi ume, eh” (C3Y4).

Aurrez aurre izan ez arren, emakume horiek batzordean parte hartzeagatik zenbait kide beraiei bizitza pertsonala eraiki eta zabaltzeko eskubidez sentitzen zirela dirudi, honako pasartearen arabera:

“Esango zuten, ‘Baina bat-batean emakume hauek nondik atera dira, zertara datoz hona?’ Bigarren emakumea izan nintzen ni junta probintzian sartu zena. Gure eskualdetik bi joaten ginen, eta azkenean, pareja ginela esaten zutela gure belarrietara iritsi zen. Eta, besteak, bilera batean esan zien ‘pareja gara bai, bi gatzelako’” (C3Y4).

Eta, erabakiguneetan parte hartzeagatik berriz ere, erabakigune horietan izan ez arren, beraiei bizitza pertsonala afera publiko bilakatu eta, zenbaiten bikoteei, halako komentarioak egin izan dizkiete:

“Nik gogoratzen dut nire senarrari ‘Eta zuk uste duzu hori ez dagoela beste batekin’ bezalako esaldiekin joaten zitzaizkiola. Batzuetan sinestezina da inbidia hori. Eta halako komentarioak emakumeengandik ere etortzen zirela esan dezaket” (CoY4).

“‘Laster andrea beste batek harrapatuko dizu, ez da normala-eta andrea beti kanpoan ibiltzea’. Eta ‘beti kanpoan’ izan zitekeen hilabeteetan bitan ateratzea bilera batera, edo ikastaro bat egitera, adibidez” (C3Y4).

Bilerara deitua ez izatea

Elkarrizketatutako emakumeen %24ari gertatu zaio bere ibilbidean zeharreko bilera espazioaren batean bileretara deitua ez izatea.

“Niri bulegoan bertan gertatu zait. Ordu asko sartu ditut eta gertatu zait nire pareko gelan elkartzea batzuk erabaki batzuek hartzen eta gauzak diskutitzen atea itxita, eta kristalaz bestalde ni egotea, lehendakariorde izanda, eta nik parte hartu ez bilera horretan. Hori pasatu zait asko, eta esaten nizun bezala, muturren aurrean. Hori oso frustrantea da” (B1Z3).

Ehuneko hori emakumeak jakitun izan direnekoa da, momentuan bertan edota ondoren enteratu direnetakoa. Hala ere, askoren erantzuna izan da ‘nik dakidala, ez’.

Gatazkak

Ikerlanean zehar adierazi da erabakiguneetan parte hartzeak emakumeen bizitzako hainbat esparrutan duela eragina: bilera espazioetako esperientzian, jakina; baina baita kale-espazioan, bueltan-bueltan iristen zaizkien esamesekin; edota espazio domestikoan. Jarraian, azken espazio horietako gatazketan jarriko da arreta.

Elkarrizketatutako emakumeen %43ak bikote-gatazkak izan ditu bere parte hartzearen harira. Hala ere, bizipenak oso ezberdinak izan dira emakumetik emakumera. Batzuen kasuan, oso puntuala izan da.

“Behin edo behin bai, noski, 50 urte daramazkigu elkarrekin-eta, denetarako denbora dago” (C1Y2).

Beste batzuen kasuan, gatazka horiek beren bikoteak beraiekiko duten ardura eta babesetik interpretatu dituzte.

“Eztabaida izan dugu, bai. Nik ere ulertzen dut, askotan etxera haserre edo negarrez iristen zarelako, eta ‘Baina zertarako zoaz?’ esaten dizulako... Ni babestu nahian esan izan dizkit halakoak” (A1X1).

“Gatazkak, eztabaidak? Bai, bai. Baina ez parte hartzeagatik, eh, nire iritzia defendatzeagatik baizik. ‘Baina zu erotuta zaude, gainera botako zaizkizu denak, baina nora zoaz?!’” (B1X2).

Emakumeen parte hartzeak aldaketak dakartza agendetan, eta beraien denborarengan eragin handia du. Emakumeen eguna arduraz betea egonik, parte hartzeari eskainitako denbora, oro har, lehenago beste jardun batzuei eskaintzen zutenetik hartzen dute. Kasuaren arabera, baina orokorrean ez da ordu kopuru itzela asteen. Hala ere, ordu gutxi horiek, eragin zuzena eta sakona dute ingurukoen antolaketa eta usteetan.

“Bikotekidearekin, hasieran, ordutegietan-eta bai... baina negoziatu egiten da. Parte hartzen hasi aurretik 24 orduz beti prest nengoenez, ‘Hau egingo dugu, bestea egingo dugu...’ izaten zen. Orduan, hasieran, berak ‘Egin dezagun hau gero’ esan eta nik ‘Ezin dut bilera dudalako’, hori berria izan zen. Orduan nik gogoratzen dut behin esan zidala ‘Orain nik egokitu behar al

dut zure ordutegietara?', eta esan nion 'Bai, hain zuzen ere, hori da'. Hori kostatu zen. Baina behin negoziatuta, esaten duzu: 'Hau da dagoena. Nahi baduzu ondo, eta, bestela, kudeatu ezazu zuk, nik ere nire eskubidea daukat eta'. Argi utzi behar duzu" (CoY4).

Sarriegi suertatzen da bileren maiztasuna eta luzeegi hartzen dituzten tarteak, etxeko kontuak bestearen kargu gelditzen direnean (otorduen prestaketa, haurren zaintza...).

"Gatazkak, gatazkak... ez. Baina batzuetan 'Berriro? Orain zer daukazu?' Tira, mutil, badaukatu eta kito. Hau da, gatazkak, berez, ez, baina batzuetan bai, 'Baina berriro joan behar al duzu?' Halakoak" (C1Y2).

"Ni bilera ondoren beti gelditzen naiz zerbait hartzen, beti, beti, nahiz eta nire bikotekideari gustatu ez, niri izugarri gustatzen zait eta. Eta bikoteak beti bidaltzen dizkit 'Bazabiltza berrikerian?' eta tankerako mezuak. Esaten du 'Aizu, hau ez da haurtzaindegi bat'" (A2Y2).

Beste emakume batzuentzako, harremana bere osotasunean zaildu duen kontua izan da.

"Nire bikotearekiko harremana zaila izan da. Niri pertsonalki asko jan dit, ez da erraza izan, eta are gutxiago harremana lehengoratzeko" (B1Z3).

Elkarrizketatutako emakumeen %43ak ere familia-gatazkak izan ditu bere parte hartzearen harira. Berriz ere, bizipenak oso ezberdinak izan dira emakumetik emakumera: espazio ezberdinetan, eragin handiago edo txikiagoarekin...

"Familia-bazkarietan, karguak hartzen hasi nintzela-eta, inoiz sortu da gatazka (irribarre egiten du): '(Emakumeek) Dena hartu nahi duzue, dena hartzen ari zarete' (ahots zakarra jartzen du). Horrelako esaldiak atera ohi dira. Azkenean zuri inposatu dizute. Nire kasuan, ni ez nintzen borondatez eskaini horretarako, eta gainera esaldi horiek entzun behar dituzu. Eta zure artean 'Errealitatea beste bat da-eta!' diozu. Ni hor banago beste erremediorik ez dudalako da, eta gainera zaparradari eutsi behar" (B1X2).

"Amarekin. Bikotea gehiago izan da bultzatzekoa. Amarenak erreparo gehiago eman dit, eta beti ibiltzen da aitzakiak asmatzen ni bileretara ez joateko" (B1X1).

Negoziaketa

Derrigorrean erabakiguneetako beraien parte hartzea oztopatuko duen elementu bezala kontsideratu ez arren, parte hartzerako orduan etxean negoziaketarik dagoen galdetuta, erantzuna argia da: emakumeen %93ak baiezkkoa dio. Hala ere, negoziaketa horren izaeran dago aldea, bakoitzak zer ulertzen duen negoziaketatzat.

"Nire ustez, gero eta gutxiago, baina noski negoziatu egin behar duzula, negoziatu egin behar duzu. Bikotekidea baduzu eta seme-alabak badituzu eta erantzukizunak badituzu, negoziatu egin behar da beti. Etxe barruko negoziazioak ditugu beti, beti, beti" (CoY4).

"Nik uste dut etxeko babesa behar dela horrelakoetan parte hartzeko, oniritzia... Bai, behar da. Gizonak ere, eh. Ezin da joan bilera batera *a contracorriente*, ezin dituzu egin gauzak *a*

contracorriente, zure etxekoak aurka egon eta bilera horietara joan. Edo ezin duzu ordezkaritza bat hartu ez badaukazu etxekoen babesa, ze behar duzu norbait momenturen batean delegatzeko” (B1X1).

“Kontsultatu bai, baina erabakia norberana da” (BoZ1).

ERAKUNDEEI LUZATUTAKO GALDETEGIA

Galdetegia erantzun zuen pertsonaren ustez, gaur egun erabaki organoetan emakumeen partaidetza altuagoa izatea zerk oztopatzen duen galdetu zen, eta 51 erantzun jaso dira, elkarte bakoitzeko bat. Hala ere, erantzun batzuk bitan banatuta aurkeztuko dira jarraian, gaika taldekatu baitira ekarpenak.

Galdetegia erantzun duen pertsonaren ustez, **oztoporik ez** dagoela adierazi da 7 erantzunetan.

Oztopoak identifikatu dituzten erantzunen artean, parte hartzeko **borondate falta** jaso da, “gizonen parte hartzea oztopatzen duen kontu berdina”¹⁶. Borondate hori ere neutrala ez dela jakina da honezkero. Bidean dauden bestelako oztopoek ere zuzenean eragiten dute horretan, nola ez. Ohitura, **tradizio eta inertziek** badute pisua. Hori izan da oztopo bezala identifikatu den beste elementuetako bat. Emakumeak sektorean beti egon izan dira, baina ez erabakiguneetan. Erabakiguneetan, gizona izan da ikusgai.

“Sektore honetan, historikoki, gizonak bete dituzte erabakiak hartzeko organoak” G3TK.

“Landa-eremuetan, kudeaketa-organoetan gizonen parte hartzeko inertzia mantentzen da” E3TK.

“Ohitura falta: orokorrean, gizonak ikusiagoak izan dira horrelako karguetan sektorean” E1LH.

“Emakumeak zenbait elkarten parte hartzeko ohiturarik ez dutela eta, ohituraz, lehen sektoreko ordezkaritza gizonezkoen esku izan dela” G2TK.

Eta, toki batzuetan, **gizonak ez** dira **tokia uzten** ari.

“Gizonak ez dira lekua uzten ari, eta emakumeek erakunde askotan egon behar dutela sentitzen dute, ordezkaritza eraginkorra egiteko baino gehiago ‘kopurua betetzeko’” E2TK.

“Emakumeen parte hartzearekiko gizon gehienen jarrera eta jokabidea oztopo handi bat da” E2BB.

Tradizioaren pisuaz harago, jarraian aztertuko diren beste alderdi batzuk ere eragina dute dudarik gabe. Hala ere, emakumeek espazio horietako **ordezkapenari uko egitea** da hainbat elkartetan identifikatutako beste oztopo bat.

¹⁶ G3TK profila.

Estatutuak planteatutako neurritik eratorritako derrigortasuna ere ez dute mesedeko topatu, automatikoki emakumeengan **gizonengan ez dagoen exijentzia** bat ezartzen delako, eta emakumeen parte hartzea beraien nahitik jaio beharrean, **derrigortasunetik** sortzen da.

Elkarteek **ez** dituzte aktibo dauden eta bazkide diren **emakume asko** identifikatzen gainera.

“Ez dago ia emakumerik azpisektore honetan” E2BB.

“Emakume bazkiderik eza nekazal-elkarteetan” E3TK.

“Elkarte honetan ez da emakume bazkiderik geratzen” G3TK.

Ez da berritasuna emakumeek, orokorrean, **ez** dutela **denborarik** sobera, lan-karga eta bestelako ardura kopurua medio. Erantzukidetasun eza eta kontziliazio arazoak oztopo nabarmena dira, noski.

Zenbait ekarpenek nekazal **jardueraren izaera** bazkideen eta emakumeen inplikazioarekin erlazionatu dute.

“Arraza hauek ez dira profesionalak. Denbora eta lehentasunak” E2BB.

“Bileretara joateko denborarik ez, ez dira lanaldi osoko nekazariak” E2TK.

“Dedikazio absolutukoak ez direnez, bazkideei kosta egiten zaiela inplikatzeko” G3TK.

Ekarpenetako batek lan fisikoa eta generoa lotu ditu¹⁷.

“Gure kasuan, pisuko lana denez, gizonezkoak gehiago gerturatzen dira” E2ID.

Ikerlanean zehar identifikatu den beste fenomeno bat ere eragozpenen zerrendara gehitu da: **zenbaki hutsak**, eta horrek sektorean aktibo diren emakumeengan duen eragin negatiboa. Teoria eta praktikaren arteko aldeak emakume gutxi batzuek espazio asko okupatu behar izatea dakar, ez datozelako bat ustez elkarteetan dauden emakumeen eta aktiboki daudenen kopuruak.

“Emakume titular batzuk familia-ustiapeneko egoera jakinengatik daude, ez bertan lan egiten dutelako” E2BB.

“Benetan jardueran dabilzan emakume bazkideen falta. Bazkide diren 8 emakumeetatik hiruk sektorean lan egiten dute, eta beste bostak gizon abeltzainen emazteak dira” G3TK.

“Ez dakit, baina elkarte honetan emakumeak bazkideen %20 dira. %20 horretatik erdiek beraien izena jartzen dute, baina abeltzainak gizonak dira, eta %40ko ordezkariak dute batzordean. Azkenean 4 edo 5 emakume abeltzain ditugu eta hainbat kargu bete behar dituzte, zerbait ez dago ondo. Arrazoibide honek beste elkarte batzuentzat ere balio du” G3TK.

“Beste arazo bat emakumeen titulartasun batzuk dira, ustiapenak jarrai dezan edo laguntzaren bat jaso dezan. Aldiz, eguneroko kudeaketan benetan ez dute parte hartzen” G3TK.

Eta oztopo horri, **adina**rena ere gehitu dio ekarpen batek.

¹⁷ Emakume batek egin du baieztapen hori.

“Nagusiki bi oztopo zehaztuko nituzke: ustialekuko titulartasuna eduki bai baina ardurarik ez, eta adina” G2BB.

Batzordea eratzen dutenak kide diren **bestelako erakundeek jarritako ordezkariak** baldin badira, horien hautaketen menpe gelditzen da erakundea.

“Gure kasuan bazkideak ez dira pertsonak, eta bazkideek edozein pertsona izendatu dezakete” G3TK.

Azken ekarpenek honakoak jaso dituzte:

Berdintasun errealaren falta (E2BB).

Berdintasun legea ez betetzea (E3BA).

Emakume asko **eskubide osodun langileak ez izatea** (E2TK).

Emakumeen **ikusgaitasunik eza** (E2TK).


Eta, errealtatearen kontrara, emakumeei kargu horietan egoteko **balio ez dutela sinetsarazi zaiela**.

“Sinetsarazi diete emakumeek ez dutela balio kargu horietan egoteko, ez daude ahaldunduta, uste dute ez dakitela, gaizki egingo dutela, eta abar. Egia esan, alderantziz da: beraien ekarpenak, oro har, baliozkoagoak dira, zentzudunagoak, enpatikoagoak, ausartagoak...” E2BB.

PARTE HARTZEAREN BALANTZEA

EMAKUMEEI EGINDAKO BANAKAKO ELKARRIZKETAK

Orain arteko guztia kontuan hartuta, elkarrizketatutako emakumeei beraien parte hartzearen balantzea egiteko eskatu zitzaien, 1 oso txarra izanik, eta 4 oso ona. Batezbesteko puntuazioa 2,9 izan zen.



25 Grafikoa: Banaka elkarrizketatutako emakumeen parte hartzearen balantze pertsonala.

Balantzea egiterako orduan kontuan izan zituzten aspektuengatik galdetuta, honako erantzunak jaso ziren, eta honela taldekatu dira:

Elkartea

"Balantzea egiterako orduan baloratzen dudana da ea hor sartzea erabaki nuenean nituen helburuak bete ditudan edo ez, edo ea betetzeko bidean dauden behintzat. Helburuak elkartearrekiko, ez nirekiko" (B1Y1).

Elkartzea

"Beti ikasten da elkarteetan, ze norberaren errealitatea oso pobrea da: ni gaizki nago, nik arazo hau daukat... Baina partekatzean ikusten duzu ez zarela zu, denok askoren kontu bat dela. Baina hori ikusteko irten egin behar da" (C3Y4).

Jendea zaindua egon izana

"Maila pertsonalean, talde horietan pertsonak zainduta dauden edo ez" (B1Y1).

Ezagutza eta kontaktuak

"Kostu ekonomikora bagoaz, 1. Arlo pertsonalean, hau da, maila globalean, 2-2,5 esango nuke. Izan ere, araudien, aldaketen eta bestelakoen jakinaren gainean egotearen onura ere ematen dit. Informazio hori ere hor nagoelako daukat. Ezagutza eta kontaktuak baloratzen ditut, hori esango nuke dela ateratzen dudana gauza positibo bakarra" (A2Y0).

Aurkia eta ifrentzua

"Positiboki, heldutasun maila bat hartu dut, hitz egiteko prestutasun bat; elkarrizketa baten aurrean, adibidez, lehen ez nuena. Gogorra izan da bidea, baina lehen nituen tresnak egoerak kudeatzeko eta orain ditudanak oso desberdinak dira. Alde horretatik 4 bat.

Baina pertsonalki jaso dudana tratua, nire buruarekiko jarri dudana exigentzia maila, hartu ditudan belarrondokoak, etxeko gatazkak, gutxietsita sentitu naizen momentu horiek denak kontuan hartzen baditut... 1 bat" (B1Z3).

"Zer jartzen dudana balantzaren alde positiboan? Ikasi dudala nola funtzionatzen duen elkarte batek gutxi gorabehera, eta bestelako izaera edo pentsamoldea duten pertsonekin tratatzen. Zer negatiboan? Ez didatela kasurik egin" (A1X3).

Gauza txarren gainetik, onak gailentzen dira ordea.

"Oso jende ona aurkitu dut, eta horrek balantzea ona izatea eragin du. Beste gauza txar batzuk ere badaude, baina, azkenean, onak gailentzen dira" (B1X2).

"Balorazio positiboa egiten dut, esperientzia guztietatik ikasten delako. Une txarrak izan arren, denetarik ikasten da. Pertsonalki izan dudana hazkuntza balioesten dut, jakinduria, eta noraino iritsi naizen, nork esango zidan? Ni oso lotsatia nintzen, baina tira, batzuetan bizitzako arazoek indartsuago egiten zaituzte" (CoY4).

"Pertsonalki oso aberasgarria izan da eta ni gustura gelditu naiz. Ezagutzea, ikastea... negatiboa da ez baldin badiozu probetxurik ateratzen. Helburua bera lortu ez arren, askotan probetxuzko beste mugimendu batzuk suertatzen dira. Eta etxetik ateratzea bera niri oso probetxugarria iruditzen zait" (C2Z4).

5 ENE, ETA EMAKUMEEN PARTE HARTZEA

Ikerlan honen abiapuntuan jaso da Emakume Nekazarien Estatutua izango zela lan-ardatzetako bat, aztergaiarekin duen lotura zuzenagatik. Izan ere, ENEk finkatutako neurriek eragin zuzena izan dute emakumeak erabakiguneetan sartzearekin. Atal honetan zehar ikusiko da eragin horren nolakotasuna, berriz ere ikuspegi ezberdinak kontuan hartuz.

Parte hartzen duten emakume gutxi horiek, ia-ia modu automatikoan, parte direneko elkarteetako batzordeetan bukatu dute. Kasu batzuetan, eramangarria izan daiteke egoera hori; beste askotan, ez. Kasu batzuetan ondo jasoak izan dira espazio horietan; beste askotan, ez.

IRAKURKETA

Irakurketari dagokionez, **elkarrizketatutako emakumeen** %4ak soilik irakurri du ENE osorik; %48ak irakurri du horren zati bat. Emakume horietatik askok adierazi dute ulertezintasuna.

Aldiz, elkarrizketatutako emakumeen %48ak ez du ezer irakurri. Eta estatutua irakurri ez dutela erantzun duten emakume guztiak batzorde bateko kide dira gaur egun (2021). Batzuek bazekiten estatutua existitzen zela, entzuna zuten zerbait; baina erantzun hori eman zuten emakumeen %30ak (elkarrizketatutako emakume guztien %14) ez zekien estatutua existitzen zenik ere.

FORMAZIO ETA SENTSIBILIZAZIO EKIMENAK

Galdetegia bete duten 51 entitateei ENEn adierazitako emakumeen parte hartze orekatua ezartzen laguntzeko formazio edo sentsibilizazio ekimenik gauzatu al duten galdetuta, ezezkoa erantzun dute gehienek (%56,9), baiezkoen kopurua esanguratsua den arren (%43,1).

Aldiz, **banaka elkarrizketatutako emakumeen** %14ak bakarrik adierazi du puntu horren inguruko lanketaren bat egin dela elkartearen bitartez, lanketarik egin ez dutenen %86arekin alderatuta.

Edukien lanketaren inguruan galdetuak izan direnean gertatu bezala, jakin arren ez dutela zertan bat egin galdetegia bete duten elkarteek eta elkarrizketatutako emakumeek parte hartzen dutenek, alde nabarmena dago bi agertokiaren artean.

LANKETA

Galdetegia bete duten 51 entitateei ENEren edukien elkarte-mailako lanketaren inguruan galdetuta, horietatik herenak erantzun du (%33,3) osorik egin duela ENEko edukien lanketa; gehienek (%60,8), edukien zati bat landu dute soilik; eta gutxi batzuk baino ez dira inongo lanketarik egin ez dutenak.

Hala ere, erantzun horiek ez datoz bat emakumeei egindako **banakako elkarrizketetan** jasotako emaitzekin: emakumeen %24ak soilik egin du ENEren nolabaiteko lanketa bera parte deneko elkartearen bitartez.

Jakin arren ez dutela zertan bat egin galdetegia bete duten elkarteek eta elkarrizketatutako emakumeek parte hartzen dutenek, alde handiegia dago bi agertokiaren artean.

Emakumeen %76ak ez du ENEren inolako lanketarik egin. Lanketarik egin ez dutela erantzun duten emakumeen %81a (emakume guztien %62) elkarte bateko batzordekide da gaur egun (2021).

Elkarrizketatutako emakumeen arteko sentipen orokortua da ez dela egon eta ez dagoela ENEren edukia lantzeko, zabaltzeko eta hedatzeko interesik.

“Joe, mila gauzatarako egiten dituzte triptikoak azalpenekin, panfletoak, iragarkiak... Diru pilo bat erabiltzen dute horretarako, eta honetarako ez?” (A2Y2).

ENEren orokorreko lanketatik III. tituluko 19. artikulua aipatzen duen ordezkaritza gaian zentratuz, are baxuagoa da lanketa. Soilik elkarrizketatutako emakumeen %14ak egin du puntu horren inguruko lanketaren bat elkartearen bitartez, lanketarik egin ez dutenen %86arekin alderatuta.

“Teknikariari aurretiko lan bat egon behar zela esan nion, ezin genduela esan ‘Ala, etorri hona emakumeak. Oso jatorrak zaretenez mordoak aginduko dizue, denek entzungo zaituztete eta kasu pilo bat egingo dizute’. Kontua ez da gezurra esatea, ezta kea saltzea ere. Eta orduan erabaki zen hurrengo bileran ENEren gaia jorratzea: zer zioen, zer ez... Hausnarketa bat egin behar zela proposatu genduen, buelta bat eman behar geniola, eta elkarteko kide ginen emakumeak gonbidatu behar genituela. Hortaz, etortzen ziren gizonei beraien emazteak bilerara animatzeko eskatu genien, baina... Egia esateko, ez da hain erraza” (A2Y0).

Gainera, nolabaiteko mitoak ere eraikitzen joan dira: dokumentua lortzea zaila dela [interneten igota dago, eskuragarri], 200 orritik gorako testu juridiko konplexua dela [17 orrialdeko dokumentua da]... Elkarrizketatutako emakume batek adierazi zuen 2018tik daramatela berak parte hartzen duen elkarte batetik ENEren inguruko aurkezpen, ikastaro edo antzekoren bat eskatzen, bertako edukiak ezagutarazteko. Eduki horiek oso espezifiko eta konplexuak zirela

kontsideratuz, administrazioarekin jarri ziren harremanean, ez zutelako nahi edukien inguruko gaizki ulerturik sortzea, eta horrek berme bat eskaintzen ziela uste zutelako. Atzetik ibili ondoren ere, arrazoi ezberdinak argudiatuta, 2021eko lehen seihilekoan oraindik aurkezpen hori gauzatu gabea zegoen, eta epe laburrean gauzatzeko antzik gabe.

Topaketa kolektiboetan parte hartu zuten emakume askok ENEren lanketa ardatz bezala ikusten dute: bai oraingo egoera ulertzeko, salbuespen gutxi batzuk kenduta ENE onartu zenetik ez delako hedapen eta lanketa-proposamenik egin ez elkarteen ez administrazioaren partetik; eta baita etorkizuneko konponbide bezala, ENEren ulermenik gabe, bere aukera eta indarguneak ezagutu gabe, zaila delako aplikatzea.

A- Badakizue zein den honen guztiaren arazoa? Estatutua 2015ean hasi zela. Landatzen dudan zuhaitz batekin konparatuko banu, txikitatik zuhaitz bat landatzen badut eta nik nahi dudan forma ematen badiot, sektorea sensibilizatuz baldin banoa... Guk inposizio gisa sentitzen dugu, beraiek ere inposizio gisa bizi izan dutelako. Sektorea moldatuz gero, bihar nahi duguna egin ahal izango dugu zuhaitzarekin. Baina ez, guri 2015etik 2019a berdin-berdin hazten utzi digute, eta enbor lodi bat genuenean 'ez, ez, ez, orain adar hori harantz joango da, eta bestea honantz' esan dute. Eta orduan zer? Ba adar batek amore ematen duela, beste batek kraska, beste bat herrenka daramazula... eta ez. 2015ean abian jarri zenetik, sensibilizazio-kanpaina bat egin behar zen sektorean bertan sektorekoekin, baina ez zen egin. Eta horren orde, zer? 2019an esan dela 'ei, neska-mutilak, jakin hemendik bi hilabetera hau daukazuela, eta bestela, poltsikoa ukituko dizuegu'.

Emakume asko egoera horrek zuzenean zeharkatzen du gainera.

A- Ni 2 elkartetan nago, eta bata izan da ni naizen bezalakoa naizelako, eta bestea emakume bat behar zutelako. Hitz batez, ez dakidala zer egiten dudan hor. Niri oso tristea iruditzen zait. Joaten gara eta erabakiak hartuta daude, eta orduan zertarako nago hor, ez? Errespetu guztiarekin, baina horrela sentitzen dut. Horretarako nahiago dut etxean gelditu edo beste lan batzuk egin.

A- Nik ez nekien ENE martxan jarriko zela, ez nekien zer zen ere, eta bat-batean egon behar izan dut. Oraintxe bertan bost batzordetan nago.

A- Ni 2019an sartu nintzen emakumeen presentzia behar zelako, eta, hori dela-eta, orain banago hirutan.

Bigarren denbora mugarriaren berariazko lanketa

Lanketa orokorretik harago, galdetegia bete duten 51 entitateei ea elkartean ENEko **bigarren denbora-mugarri** horren¹⁸ lanketarik egin den galdetuta, 51 erantzunetatik %72,5 baiezkoa izan dira, eta %27,5 ezezkoa.

¹⁸ 2021eko urriaren 22a, batzordeetako emakumeen presentzia orekatua sustatzen zuena.

Erantzun hori arrazoitzeko eskatzean, galdetegia bete duten 51 elkarteetatik 41k egin dituzte ekarpenak.

Baiezko erantzunekin lotuta, 2021eko mugarrira dela eta, zenbait erakunde etxeko lanak eginda iritsi dira datara.

Elkarteko bazkideen eta batzordekideen kopuruaren arabera, elkarte batzuen helmuga izan da emakumearen presentzia bermatzea, gutxienez emakume ordezkari bat izatea.

Erakundean bertan aldaketak egin behar izan dituzte batzuek, "Legera egokitzeko".

Askotan, lanketa egin da:

1- **Informazioa helarazten.**

"Elkarte guztiekin, honen inguruan informazioa helarazi da" E2ID.

"Informatuta daude eta ahal duguna egin dugu" E2BB.

2- **Eskariak egiten.**

"Bazkideak entitateak dira, eta ahal den heinean ordezkarien izendapena aldatzeko eskaria egin da" E2TK.

"Bazkide diren bi emakumeei deitu diegu batzordean parte hartzeko" G3TK.

3- **Gaia emakumeekin lantzen.**

"Emakume bazkideen artean batzordera sartzeko borondatea aztertu da" G3TK.

"Emakumeekin biltzen gara, beraien parte hartzearen garrantziaz kontzientziazteko" G2LH.

"Emakumeak erakundeko batzordean parte hartzera animatu ditugu, eta kasu batzuetan ezagutu ez ditzaketen alderdi berriei buruzko prestakuntzan laguntzen saiatu gara" G3TK.

Zenbaitetan, lanketek esperotako emaitzak ekarri ez arren.

"Egin den lana emakumeekin hitz egitea da, batzordean parte hartu nahi zuten ikusteko, eta azkenean beraien ordezkariak joaten diren emakumeak jarri dira" G3TK.

Erakunde batzuetan, orain hasi dira.

"Momentu honetan hasi gara" E2TK.

"Erabaki organoetan emakume gehiago izateko prozesuan gaude murgilduta" G2TK.

Eta, beste batzuetan, lanketa eginagatik ere ez dute helburua lortu.

"Lan egin da, baina ez dago emakume titularrik; sektore hau profesionala da, eta (titular bezala) azaltzen dena bertan lan egiten duena da, beste azpisektore batzuetan ez bezala" E2BB.

"Ez da bete, emakume bazkide gutxi daudelako" E1BB.

"Parekotasuna bermatzeko ahaleginak egin ditugu" G3TK.

Gainera, erakunde bakoitzak bere konpromisoa berrestea beharrezkoa dela jaso da, beti emakumea 'beste erakundeek' jartzea espero gabe.

"Batzordea forma juridikoa duten erakundeek osatzean, aldaketa 'benetakoa' izan dadin lan egin behar da, 'emakumea jartzen duena beste erakunde bat izatea' espero gabe" EzTK.

Kasu batzuetan, prozesu horren harira, erakundetik harago ere izan du emakumeen ordezkartzan eragina.

"Erabaki dugu emakumezko ordezkariak beste erakunde batzuetara ere bidaltzea, gureaz gain" G3TK.

ENeko bigarren denbora-mugarri horren harira elkartean lanketarik egin **ez** dela erantzun dutenen artean, gehiengoak eskatutako baldintza betetzen du jada. Beste kasu batzuetan, ez da informazioa iritsi, ez da hedapenik egin. Aldiz, lanketa ez egiteak ez du esan nahi mugarri horrek eraginik izan ez duenik:

"Ez da ezer landu, baina 2021eko ekaineko azken hauteskundeon ondoren, une honetan batzordean 4 gizon eta 4 emakume egotea lortu da" EzBB.

"Ez dugu lanketarik egin, baina kosta egin zaigu eskakizuna betetzea, batzordea aldatu behar izan dugu" G3TK.

Eta eragin zuzena du horien funtzionamenduan.

"Ez dakit landu dugun, baina gai honek lan eta arazo handiak ematen dizkigu batzordearen funtzionamenduan" G3TK.

ERAGINA

Ea beraiek parte hartzen duten batzordeetan ENEk eragina izan duen galdetuta, elkarriketatutako emakumeen %48k erantzun du baietz, 2019 eta 2021eko denbora mugarri eta dirulaguntzekin harremanean.

"Nire kasuan bi aldiz atera naiz batzar orokorrak aukeratuta, eta bietan batzorde horretan emakumearen ordezkartza egon behar zelako; ezartzen hasia baitzen 2021erako, laguntzak jasotzeko, emakume bat egon behar zela" (B1X2).

"Ni nagoen elkartean, normalean bozketa izaten da hautaketa prozesua. Batzuetan jendea proposatzen da, ez da hautagaitza bat bere horretan, baina gero bozkatu egiten da. Ni, adibidez, pertsona batek baja hartu zuelako sartu ninduten, eta orduan ni sartu ninduten bozketarik gabe eta ezer gabe, emakume bat behar zelako eta dirulaguntza baten esleipenaren zain geundelako. Orduan esan zidaten: "Aizu, axola zaizu?" (A1X3).

Eragin horiek negatibotzat jo dituenik ere badago.

"2019ko eragina, izatekotan, txarra. Aplikatzen hasi dira tokirik ahulenean. Elkarte hori emakume horrena ere bada, eta elkarre horri egiten zaizkion kenketak, emakume horrengana ere badoaz. Emakume horrek esango du 'Estatutua horretarako? Gure elkarteari sosak kentzen...'. Hori nik lehenengo egunetik esan nuen, hau aplikatzen hasi zaigu guri non min emango. Nik horrela jaso dut.

2021ekoaren eragina, zenbaitetan bai, nabaritu da. Baina zer da prestatzen ari direna? 'Emakume hau hartu behar dugu eta ekarri behar dugu', baina zergatik? Ez dabil sakoneko lankekarik egiten, bai zera!" (C2Z4).

"Ezagutzen dudan elkarre batean emakume bat sartu zuten bere iritzia kontuan hartzeko asmorik gabe, legea betetzeko, eta utzi egin zuen azkenean. Eta gero, adibidez, badakit zenbait elkartetan, ondoren bozkatuak izateko hautagaiak aukeratzeko gutunean, 'Legeak emakumeak ateratzera behartzen gaitu' jasotzen zela. Eta noski, elkartean badaude emakumeak, baina ziurtzat jotzen da gizonak aterako direla. Orduan, esan zuten 'Derrigorrez, boto gehien jasotzen dituzten emakumeak aterako dira'. Hortaz, aurkeztu ez den eta nahi ez duen jendea sartu dute batzordera, eta araudia betetzeagatik erdi engainatuta sartu dira" (A2Y2).

"Nire iritziz, estatutuaren inposaketa horrek ekarri behar zuenaren kontrakoa eragin du. Izan ere, 'Emakumerik etorri nahi ez duenez, bazkide emakumerik ez dugunez, ezin izango dugu kobratu, ez baitago hemen batzordera sartu nahi duen inor'. Ados, baina zuek zerbait egiten ari zarete hemen jende berria sar dadin? Izan ere, errua besteei botatzea da errazena, ez dutelako etorri nahi, eta guk dirulaguntzak kobratzeari utziko diogu, ez baitago etorri nahi duen emakumerik. Ea, ez gara ulertzen ari, ez gara ezer ulertzen ari. Eta tira, nik guzti honek izan beharko lituzkeen helburuen kontrakoa lortzen ari garela uste dut" (A2Yo).

Hauteman den eraginetako bat izan da emakumeengan eragin duen presio gehigarria, gizonen kasuan existitzen ez dena.

"Izan nintzen batzordeetako batean nik badakit botoa eman zidatela eta lehendakari atera nintzela beste erremediorik ez zutelako izan, dirulaguntza lerro bat galduko zutelako bestela. Nire erantzuna 'Dimititu egingo dut' izan zen, baina elkarrearen estatutuek dimitituz gero automatikoki joan behar zinela zioten. Estatutuak aldatu zituzten arazo asko egon zirelako, inork ez zituelako karguak bere gain hartu nahi kargudun guztiak gizonak zirenean ere, eta bide hori aurkitu zuten konpontzen saiatzeko. Nik ez nuen elkartetik alde egin nahi, orduan 'Beno, saiatuko naiz' esan nuen. Egia esan, esperientzia onerako izan zen, kasu horretan onerako izan zen. Batzordekide batek asko lagundu zidan, eta betiko eskertuta egongo naiz. Beste leku batzuetan ez, ez naiz gustura sentitu, eta ez dut kargua berrituko. Eta berdin zait nire kontzientzian laguntza kobratuko ez dela geratzea. Presio erantsia da, gizonak ez duten presio erantsia. Eta gero, zure izaeraren arabera... Egongo dira emakumeak berdin-berdin zaienak, baina nik, adibidez, buelta asko ematen dizkiet gauzei, eta orduan niretzat presio gehigarri bat da" (B1X2).

Eta kargua uztea erabakitzerako orduan, jakitea emakumeak uzten duen ardura hori ez dela gainerakoan artean modu bertsuan banatuko, beste emakume bati tokatuko zaiola oso-osorik.

"Gaur egun ez da buruhauste handiegia batzordeetan egotea, eramangarria da gutxi gorabehera. Baina niretzat, gaur egun nagoen bi elkarreak uztea elkarre horietan dagoen beste emakume bati 'Hartu lekukoa' esatea da. Ni banoa, baina zu sartuko zara. Teorian,

batzordea berriro beharko genuke aurten, eta esaten didate 'Zu ondo zaude, ezta?' Baina nik badakit uzten badut ez dela gainerakoen artean banatuko ardura, ez; ni ez naiz gainerakoei ardura hori ematen ari, beste emakume bati ematen ari naiz" (A2Yo).

Parte hartzen duten batzordean eraginik nabaritu ez arren oso hausnarketa interesgarri bat jaso da:

"Gure kasuan ez dugu nabaritu, %40a ere betetzen baitugu, baina benetako eraldaketa ez da junta baten 4-6 egotearekin lortzen. Batzuetan gizon bakarra nahikoa da" (A1Yo).

Galdetegia bete duten 51 entitateei ENEko **lehen denbora-mugarri** horrek¹⁹ ea elkartean eraginik izan zuen galdetuta, ia bi herenek baiezkua erantzun dute (%62,7), eta herenak pasatxo ezetz (%37,3).

Erantzun hori arrazoitzeko eskatzean, galdetegia bete duten 51 elkarteetatik 41ek egin dituzte ekarpenak.

Baiezkoen artean, aldaketak 'legera egokitze beharrazatik' egin direla izan da gehien errepikatutako ekarpena. Kasu askotan, batzordean bertan eman da aldaketa (edo bide horretan daude), eta beste batzuetan estatutuetan. Kasu bateren baten, bai batzordean bai estatutuetan izan du eragina. Berri ona da sentsibilizazio lanak gehitzeko balio izan duela elkarre batzuetan.

ENEko lehen denbora-mugarri horrek elkartean eraginik izan **ez** zuela erantzun zutenen artean, gehiengoak eskatutako baldintza betetzen zuen jada. Erantzunetako bat emakumeekin egindako lanketan azaldutako aspektu batekin bat dator:

"Emakume bat genuen batzarrean, nahiz eta senarra etorri" G3TK.

Baita ondorengo ekarpen hau ere, sektoreko errealitatearen ezagutza behar-beharrezkoa dela aldarrikatzen baita.


"Parte-hartzearen ehunekoak eta zifrak jar daitezke, baina gero sektorearen errealitatea eta (emakumeek) erakundearen parte hartu nahi duten ikusi behar da. Belaunaldi berriekin, agian, errazagoa izango da" E3ID.

¹⁹ 2019ko urriaren 22a, batzordeetako emakumeen presentzia sustatzen zuena.

BALORAZIOA

EMAKUMEEI EGINDAKO BANAKAKO ELKARRIZKETAK

Elkarrizketatutako emakumeei ENEk parte hartzearen inguruan proposatutako neurrien inguruko balorazioa egiteko eskatu zaie, 1etik 4ra: 1 *Txarra*, eta 4 *Oso ona*. Batezbesteko puntuazioa 2 izan da. %10ak 4 bozkatu du, %10ak 3, %57ak 2 eta %23ak 1.



26 Grafikoa: Banaka elkarrizketatutako emakumeen balorazioa ENEk parte hartzearen inguruan proposatutako neurrien inguruan.

Denetariko erantzunak egon dira, eta jarraian kezka sortzen duten aspektu nagusiak jasoko dira emakumeen testigantzen bitartez.

Egoera zein den ikusita, une honetan, mugimendua sortzeko bide zilegia dela ikusten dute emakume batzuek.

"Momentu honetan gauzak behartzeko modu bakarra dela esango nuke, azken finean diru publikoa jasotzeko derrigor dutelako erakunde hauek. Beste gauza batzuekin eskatzen zaien bezala, emakumeen presentzia ziurtatzeko modua ere izan daitekeela iruditzen zait, oraintxe bertan behintzat" (B1X1).

"Nire ustez, gertatzen ari dena ikusita, hau da, sektorean ez direla konturatzen emakumeak nola baztertzen diren, beharrezkoa ikusten dut. Ez baduzu zuk egin behar, beste irtenbide batzuk bilatu behar dira. Izan ere, bestela, ez legoke emakumerik, edo ia ez legoke emakumerik. Nik pentsatu nahi dut honek balioko duela pixka bat emakumeak sartzeko eta bultzatzeko. Ezin dut sinetsi horretara iritsi behar denik, baina beharrezkoa dela dirudi. Nahiago nuke borondatezkoa balitz, inork behartu gabe irtetea, bakarrik irtetea; hori izango litzateke politena, ezta?" (A1X1).

"Zer iruditzen zaidan? Ba ongi iruditzen zait lege bat atera izana karguetan emakumeak egon behar direla dioena, dauden gutxiek beren iritzia eman ahal dezaten. Orduan, luzarora hau ondo etorriko dela deritzot. Nire ustez, azkenean, estatutua oinarria da gero jarraitzeko, abiapuntu bat... orain arte ez zegoelako ezer. Ez badago ezer beharrezko ordezkaritza hori islatzen duenik, ez jasotzen duenik, ba ez da ezer betetzen eta kito. Estatutuaren ondorioz, batzorde baterako deitu ninduten, eta bestela batzorde horretan ez litzateke emakumerik egongo. Ekarpenik ezin izan dut egin, ez didatelako utzi, baina ikusi dut zer dagoen" (A1X3).

Baita bestelako ahotsek tokia izan dezaten:

"Nik ez dut administrazio honen oinarri ideologikoan sinesten. Uste dut gakoa ez dela emakumeak organoetan egotea, ez baitago hausnarketa sakonik. Oinarri super produktibista eta kapitalista sustatzen baldin baduzu, hori emakumeen kontra doa. Hortaz, inkoherentea da. Ondo dago, eta uste dut parte hartu behar dugula espazio horietan justu irakurketa kritiko hau entzunarazteko" (B1Xo).

Lanketa eta pedagogia falta.

Lehenago ere aipatu izan da, baina lanketa erraztu eta bultzatu ez izana bereziki faltan bota dute emakumeek.

"Ondo iruditzen zait, baina arauaren inguruko lanketa gutxi egin da. Hau da, arau bat betetzea eskatzen baduzu eta ez baduzu zergatik esaten, azkenean inposizio ilogiko bat da, eta jendeak ez du onartuko. 'Hau egin behar duzu. Zergatik? Nik diodalako'. Eta horren ordezt esaten baduzu 'Hau gertatu delako egin behar duzu hau, onura hauek ditu...' Hori herritarrengana iristen da, azkenean ez da arau edo eskakizun zentzugabea, logikoa da, eta guztiontzat ona izango da. Eta uste dut pedagogia asko falta dela" (A2Y2).

"Niretzat egin behar zen lan bat ikusarazteko elkarreki eta gaudenoi zer aportatzen duen emakumearen ikuspegiak. Ze gizonezkoek esaten dutenean (eta hor kriston borroka dago batez ere elkarte jakin batzuetan) 'Emakumea derrigortuta sartu behar dugu'. Barkatu, eh, ukuiluan behiak biltzen zenbat urte eman zituen zure amak derrigortuta? Edo bazegoen konbenio bat? Beste lanketa bat egon behar zen hor, kideen artean. Baina ez denez inongo zabalpenik ez interesik egon hori lantzeko... 2019an esan zuten egingo zela lanketa, eta ez zen egin ezer. Eta niri ez esan dirurik ez dagoela" (C3Y4).

Papera vs. Errealitatea.

Behin eta berriz jaso den beste kontu bat izan da teoriaren eta praktikaren arteko aldea.

"Ni estatutuaren planteamenduak dioenera joaten banaiz, gaur hasi eta 6 urtera, orain lan bat egiten dugu 4 urtez, hau eta bestea... Zuk planteamendu hori ikusten duzu eta esaten duzu 'Ondo dago'. Baina gero zuk errealitate hori ikusten duzu eta esaten duzu 'Desastre hutsa da'. Teoriara joaten banaiz, 3 (1 eta 4ra); praktikara joaten banaiz, 1. Praktika hondamendia izan da niretzat, inposizio gisa bizi izan dugulako eta gauza bat inposizio bat denean ez duelako funtzionatzen. Hemen elkarten kontua adabaki bat izan da niretzat, baina adabaki txar bat" (A2Y0).

"Mantsoegi doa dena. 2015ean onartzen da, oso esanguratsua urriaren 15ean onartzea aho batez legebiltzarrean. Kanpokoentzat eredugarria da, baina ezin da esan itzela denik, ze papereko intentzioetatik harantz, ez da ezer egin. Alde batetik, emandako argudiaketan, prozesu bat bezala planteatu behar dela, denok ados. Baina ez da ezer egin, eta zigor bide bat baino garrantzitsuagoa iruditzen zait adostasun eta kontsentsua bilatzea, aurrerabide bat, polikiago baina goazen. Ezer ez egitetik, zigorra dator orain. Oso zalantzarria da dena" (A1Y0).

Lan saio kolektiboetan ENE hasieratik ezagutu eta sorrera hartan bere balio eraldatzailean sinesten zuten emakumeak egon ziren. Askok aitortu zuten desilusia sentitzen dutela orain. Ikusi dute ez dela baliabiderik eskaini (aurrekontu, aholkularitza, hedapen), eta ez zaiola jarraipenik egin.

C- Legea betetzeko egingo da ahal den bezala, ze elkarte batzuetan oso naturala izango da, baina beste batzuetan behartuta, eta, agian, gainera lehengo bezala jarraitzeko.

Orduan, garrantzitsua litzateke jarraipena. Eta estatutuaren garapenean, nolabait, ea benetan emakumeen ordezkartza parekatu hori egotean, ea beste era batera funtzionatzen den ala ez: ea harremanak diren berdinetik berdinerara, eta benetan emakumeen parte hartze handiago batek ea bermatzen duen beste aire bat, eta beste berdintasun bat. Elkarte batzuetan bai oso-oso funtzionamendu patriarkala egon da, eta ea horrekin hausten dugun. Niretzako garrantzitsua litzateke hori.

Eta garrantzitsua da baita ere aztertzea benetan elkarte batzuetan ezinezkoa den emakumeak egotea, emakumeak bertara joatea, zergatik ez dagoen inongo gogorik horra joateko. Batzuetan naturalki emango delako, baina beste batzuetan...


Hala ere, itxaropena ez da galdu: baliabideak eskaintzen diren momentuan ENEk aldaketa positiboak ekarri litzake.

C3- Oso zaila da ezer aplikatzea baliabiderik ez badago, eta jarraipena egiten duen jenderik ez badago. Nire ustez, desengainua izan da garatzen ari den moduagatik; baina, benetan, baliabidez hornituz gero, oso aldaketa garrantzitsua izan liteke sektorean lan egiten dugun emakumeentzat.

Elkarteen balorazioa


Galdetegia bete duten 51 entitateei ENEko **lehen denbora-mugarri**ari lotutako neurrien inguruko balorazioa egiteko eskatu zitzaaien 1etik 4ra (1 Txarra eta 4 Ona). 51 erantzun jaso ziren. %9,8ak 1 eman zion; %25,5ak 2; %33,3ak 3; eta %31,4ak 4.

Era berean, ENEko **bigarren denbora-mugarri**ari lotutako neurrien inguruko balorazioa ere egiteko eskatu zitzaaien Neurri horren inguruko balorazioa egiteko eskatu zitzaaien 1etik 4ra (1 Txarra eta 4 Ona) galdetegia bete zutenei. 51 erantzun jaso ziren. %9,8ak 1 eman zion (lehenengo denbora-mugarriari bezala); %33,3ak 2; %25,5ak 3; eta %31,4ak 4 (lehenengo denbora-mugarriari bezala). Hemen dago bien arteko alderaketa:



27 Grafikoa: Erakundeei zuzendutako galdetegia bete zutenek ENEko 2019ko neurrien gaineko balorazioa eta 2021eko neurrien gainekoa (eskuman).

Oro har, Emakume Nekazarien Estatutuak emakumeen ordezkaritza eta parte hartze orekatua lortzeko egindako planteamenduaren inguruko balorazioa egiteko eskatzean, 1etik 4ra (1 Txarra eta 4 Ona), honakoak izan ziren 51 elkarteetatik jasotako emaitzak: %7,8ak 1 eman zion; %35,3ak 2; %31,4ak 3; eta %25,5ak 4.



28 Grafikoa: Erakundeei zuzendutako galdetegia bete zutenek ENEk parte hartzearen inguruan planteatutako neurrien balorazio orokorra.

Nahi izanez gero, erantzun hori arrazoitzeko aukera eskaini zen, eta 23 ekarpen jaso ziren. Ekarpene bakoitza dagokion puntuaketaren atalean kokatu da, baxuenetik altuenera, eta parentesi artean dago atal bakoitzeko ekarpen kopurua.

1 (4)

“Oso egoera tristea sortu da. Batetik, elkarte guztiak emakume berberen atzetik dabilta, beren batzordeetan sar daitezen: batzuk agobiatuta daude, beste batzuk dirulaguntzak jaso ahal izateko objektu sentitzen dira... Bestetik, batzordeetarako emakumeak ateratzen dira, inoiz batzordeetara joaten ez direnak. Beren senarrak edo semeak joaten dira” G3TK.

“Ekainean, bi emakume bazkideek baja eskatu dute, batzarrean parte hartzeko deia egin dietelako” G3TK.

“Betetzeko oso zaila den hertsapen ekonomikoa da” G3TK.

“Batzordearen aukeraketa asko baldintzatzen duelako eta batzordearen funtzionamenduak ordaintzen duelako. Hiru elkarte ordezkatzeko dituzten bederatzi pertsona dira gure entitateko asanblada. Batzar horretara iristen diren emakumeak senarrek ordezkatzeko dituzte, edo elkartei mesede bat egiteko sartu dira, oso egoera tristea” G3TK.

2 (8)

"Integrazioak eta parte-hartzeak, positiboa den estatutu bat ez ezik, jendartearen hezkuntza-aldaketa bat ere behar dute" G2LH.

"Nire ustez, emakumearen parte hartzea borondatezko erabakia izan behar da, eta batzorde batean nahitaez egon beharra dela-eta parte hartze arazoak ditugu" G3TK.

"Zaila da borondatez batzordeko karguren bat izan nahi duten emakumeak aurkitzea. Abeltzaintza-jarduera hau osagarria da, kasu askotan ez da dedikazio osokoa" G3TK.

"Elkarte batzuetan zaila da legera egokitzea" G3TK.

"Zaila da; izan ere, konfederazioa 5 federaziok osatzen dute, eta horietako ordezkariak lehendakariak dira; beraz, federazioetan emakume lehendakariak ez badago, guztiz zaila da" G3TK.

"Zaila da ordezkariak betetzea bolondresik ez badago" G3TK.

"Batzuetan, zaila da neurria betetzea, emakumeek beraiek zuzendaritza batzordeko kide izateari uko egiten diolako" E1BB.

"Ez txarra eta ez ona, elkarrekin honetan inoiz ez da inor sexuarengatik ez beste ezerengatik diskriminatua izan; baina ehunekoak betetzea derrigortzeak zailtasunak eta arazoak ekartzen ditu" G2BB.

3 (7)

"Zaila da, asko sozietateak eta enpresak baitira, beraien ordezkariekin" E2BB.

"Zaila da batzarretan planteatzen denean" E2BB.

"Helburua ondo dago baina emakume batzuk erreko ditugu bidean, kargu gehiegi hartuko dituztelako. Sektorean parte hartzea arazo bat da, ez bakarrik emakumeena baizik eta gizonena ere. Eta noski, hau guztia proportzioan egin behar da ustiatzearekin" E2TK.

"Lehenik eta behin, kooperatibako organo nagusietan emakumearen presentziaren normalizazioa bermatzeko ona da, baina uste dut hurrengo urratsa sexuak bereiziz kuporik ez jartzea izango litzatekeela, lanpostu bakoitzean hori betetzeko kualifikazio handiena duenak egon beharko luke" G3LH.

"Funtsezkoa iruditzen zait helburua. Izatekotan, ez nago ados berau betetzeko eskakizun eta neurri hertsatzaileekin: gure kasuan milioi bat euro dugu jokoan" G3TK.

"Uste dut neurria ona dela, baina berau betetzeko plangintza ez" E2TK.

"Pozik gaude ekarpenekin, bereziki, emakumeekin" G3TK.

4 (4)

"Askotan, zaila da aplikatzea" E2BB.

"Batzarretan emakume gehiago izatea gustatuko litzaidake, baina horrek badu bere konplexutasuna" E2BB.

"Nire ustez, Estatutuaren III. titulua da benetan aipagarria den gauza bakarra. Gainerako artikulua Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legetik kopiatu eta pegatutako zatiak dira. Bide batez, sistematikoki betetzen ez den legea..." E3BA.

"Ibilbidearen hasiera bezala hartzen dut. Arazoa ez da duen edukia, eduki hori ezarri eta errespetatzea baizik" E1LH.

EMAKUMEEI EGINDAKO BANAKAKO ELKARRIZKETAK

Gipuzkoa eta Arabako emakumeei ea zerbait faltan bota ote duten galdetu zitzaien, eta %64ak eman zuen baiezkoa. Honako gabeziak hauteman dira:

Hedapena.

“Ezagutzea, hasteko” (B1X1).

“Publizitate gehiago eman beharko liokete, jende askok ez baitaki existitzen denik edo ez baitaki zertaz ari garen. Publizitate gehiago eman edo landu” (A1X3).

Aplikazioa.

“Aplikazioa eta ulergarritasuna” (A2Y2).

“Hilabeteetako lanketa bat egin zen zenbait emakumeren partetik, dena eztabaidatu, adostu... prozesu luze baten bitartez. Iritsi gara puntu batera non garaia den hartu diren erabakiak aurrera eramateko, zerbaitetarako egin da lanketa hori ere bai.

Beste behin dut erabilia sentitu izanaren sentsazioa. Bai, hau da aurrera eramateko baina gero hor gelditu da, beste gauza pila bat bezala. Orduan faltan bota dut horrek errealitatean isla konkretu bat izatea. Difusiorik ere ez da egin. Eta hori emango da errealitatean praktikan jartzen den momentutik. Orduan bai jendea hasiko da enteratzen zer den hau” (B1Z3).

Elkarteetako oinarriekin lanketa.

“Nik uste dut beste aurre lanketa bat behar zuela horrek, ez horrela segituan desafio hori eginda. 2015ean onartu zenetik, administrazioak ez du ezer egin. Zergatik ez dira hasi emakume horiek elkarte horretara joan daitezen gauzak nola egin zitezkeen aurretik irudikatzen? Ez al du ezer jartzen estatutu horrek horren kontura? Niretzako da hori punturik txarrena, horrela hastea. Ez dela baserritarrekin kontatu eta ezer egin. Zer hartu da kontuan? Elkarteei neurri hori jarrita, zenbat emakume joango dira hara horregatik? Nor erakarriko du?” (C2Z4).

“Egoera aldatu nahi baduzu, zerbait egin behar duzu: prestakuntza bat egin behar duzu, edo dinamika batzuk, edo zerbait egin behar duzu 6 urteren buruan, 6 urte tarte dezentea baita gutxieneko %40a lortzeko. Baina ez da ezer egin. Ez da dinamikarik egin elkarteetan, ez da ezer egin. Eta agian horretan gastatu beharko litzateke dirua, eta gauzak egin espazio horietan dauden emakumeei ikusgarritasuna emateko edo laguntzeko, eta ea beste emakume batzuk ere animatzen diren hor sartzera. Niretzat dena izan da apur bat zalapartatsua, zalapartan egin da; egin behar zen eta egin da eta kito, eta ez” (A2Y0).

Emakumeen ikusgarritasuna.

"Ba bai. Zerbait egin izana, batez ere landa-lana. Ez batzorreetan, baizik eta elkarteetan, are gehiago oinarrian. Oinarrizko lan gehiago bazkideekin. Azkenean, konprometituta dauden bazkideak badituzu, baten batek gora salto egingo du. Baina zuk goikoa bakarrik lantzen baduzu, goikoek egin dezaketen jauzi bakarra beherantz egitea da, baina ez da inor egongo gora salto egiten duenik. Eta lana era askotakoa izan daiteke. Ikusaraztea, komunikabideetan ateratzen dena gaur egun, oraindik ere, ez delako asko zaintzen. Egunkari batean ikusi nuen erreportaje bat. Bost abeltzain ziren, lau gizon eta emakume bat. Bakoitzaren argazkia agertzen zen, eta emakumearen argazkia traktore mordoa zen. Eta nik esaten nuen: 'Tira, ezin dut sinetsi, baina hau zer da? Gero nola nahiko dugu emakumeek saltoa ematea ez badiogu argazkirik ere jartzen?' Bada, agian hausnarketa bat ere egin beharko da. Hemen badiardi hausnarketak guk bakarrik egin behar ditugula, baina gu hor egotea nahi duzue, eta, bestalde, ez gaituzue ikusarazten" (A2Yo).

Ezagutarazi eta aliantzak eraiki: bazkideen artean, batzordean, lantaldeetan.

"*Impasse* horretan, bazkideen artean, agian errazagoa da gazteengan, aliatuak lortu, sentsibilitate bat, abeltzainen artean sentsibilizazio bat landu. Ez dakit, nik uste dut aliatuak ere funtsezkoak direla hemen. Hau da, ez dute aitaren papera hartu behar, ez, hori ere ez da, baina ikuspuntua ere zabaldu. Izan ere, niretzat ez zen ondo egin, eta abeltzainek ez zuten egin zen jardunaldi horren berri izan (2019-12). Bilera horretan berrogei bat pertsona eta hiru abeltzain geunden: bi gizon eta ni, emakume bat. Gainerako guztia teknikariak ziren, eta ni txiripaz enteratu nintzen. Xede-publikoa ukitu duzu? Ez. Beno, kito. Baina zerbait egin duzu, ezta? Oso ondo. Bilera hartan niretzat azkenean lortu zuten gauza bakarra estatutua teknikari batzuei ezagutaraztea izan zen, eta teknikariek zuk nahi duzuna jakin dezakete, baina teknikariak ez dira batzordeak osatzen dituztenak" (A2Yo).

"Bertako jendeak, guzti hori dinamizatuko duen lantaldeak, barneratuta izan behar du. Zenbaki batzuetara heltzea baino garrantzitsuagoa da hori" (BoZ1).

Zenbait emakume atsekabearen eta kexaren arteko punturen baten sentitzen ziren. Emakume batzuek hainbeste inplikatu eta hainbeste lan eskaini ondoren, bere garaian funtzionatu zezaketen kontuak jada zaharkituak gelditu zirelako susmoa zuten, baina minetik, ez baitzitzaien praktikan aukerarik eman hori frogatzeko.

ERAKUNDEEI LUZATUTAKO GALDETEGIA

Galdetegia bete duten 51 entitateei ENERen ibilbidean gaur egundaino ezer faltan bota duten galdetuta, 51 erantzunetatik %52,9 baiezkoa izan dira, eta %47,1 ezezkoa.

Erantzun hori arrazoitzeko eskatzean, galdetegia bete duten 51 elkarteetatik 24k egin dituzte ekarpenak.

Baiezko erantzunen artean, honela laburbildu daiteke jasotakoa:

Lehenik eta behin **informazioa**: elkartearentzat, batzordearentzat, teknikarientzat.
 Bigarrenik, **kontsulta** egitea: ez beraien errealitatea ezagutzeko, ez ondorioak baloratzeko.
 Emakumeen partaidetzaren **benetako balorazioa** egitea.
Sentsibilizazio orokorra eta **hedapen** progresiboa.
 Batzordeetako **gizonekin berariazko sentsibilizazio-lanketa**, trabak jarri beharrean, horien inplikazioa lortzeko.
Emakumeak ahalduentzeko prestakuntza.
Administrazioak eredua ematea.
 "Elkarteei eskatzen zaigu baina administrazioek ez dute errespetatzen. Adibidez, aldundiek mahai sektorialak eratzerako orduan, emakumeen presentzia Zero edo ia Zero da" E1LH.
 "Loteslea ez den eta alderdi bakarra behartzen duen neurri sorta bat dela iruditzen zaigu. Administrazioa ez da behartzen beste modu batera lan egitera, eta benetan neurri horiek positiboak izatera. Egun bizi dugun egoerari ez dio behar bezala erantzuten. Ez ditu benetako neurri positiboak egikaritzeko pausuak zehazten. Borondate politikoa falta da" E2TK.
 Elkarte batzuen **errealitatea kontuan hartzea**.
 "Gure moduko entitateetan parekotasuna bermatzeko irizpiderik ez da agertzen, eta ez daukagu erabakitze erraztasunik" G3TK.
 "Kasu batzuetan, nahita ere, ezinezkoa da emakumeen parte-hartzea lortzea" G2TK.
Derrigortasuna birplanteatzea.

LASTERBIDEAK

Lan honen berariazko helburuetako bat izan da ikustea estutuaren 19. artikulua proposatutakoak ze mugimendu sortu dituen, hala izatekotan, eta mugimendu horiek nondik sortuak izan diren, zerk bultzatuak.

Mugimenduetako zenbait arauak bilatutako emaitzekin bat ez datozen moduek elikatu dituztela antzeman da, eta beharrezkoa da identifikatzea zeintzuk diren horiek etorkizuneko konponbideetan erantzun bat bilatu ahal izateko.

Hortaz, identifikatu diren estrategiak jasoko dira jarraian, 'lasterbide' en katalogo bat. Eta, hala badagokio, oinarritzen direneko zirrikitua.

Bai atal honetan baita hurrengoan ere, emakumeen kodetzea sinplifikatu da: Adin tartea eta egun dagoen batzorde kopurua baizik ez dira adieraziko, eta errepikatzen diren profilen artean ez da bereizketarik egingo.

1. Jarri nire emaztearen izena

"Nik orain parte hartzen dudana batzordean beste emakume bat dago. Ustiapena bere izenean dago, baina beti doa senarra bileretara. Batzordea berritzea tokatu zenean, batzordekideek (denak gizonak) inoiz joan ez den emakume horren izena proposatu zuten. Nik ez diot aurpegirik jartzen. Esan zuten: 'Begira, nahi baduzue, emakume horren izenak segi dezala, baina senarrak jarraituko du etortzen'. Orduan nik emakume bakarra izaten jarraitzen dut, eta oso gaizki sentitzen naiz. Batzordeko kideen artean bozkatu zen, eta denak ados zeuden. Ni

isildu egin nintzen, eta ez nuen ezer esan. Baina belarrondoko eder bat bezala jaso nuen. Zer esan dezakezu hor, ez duzula nahi halako amarrurik egitea? Oso egoera bortitza da. Proposatzen ari diren egoera horrekin bat ez natorrela esango dut? Eta zure kontzientzian geratuko da, zuk ezetz esaten baduzu, ez dela laguntza-lerro hori jasoko, emakumea zarelako eta hori ez duzula onartzen esaten ari zarelako. Hor hainbat gauza elkartzen dira: batetik, haientzat argi zegoen gizonak joaten jarraituko zuela; bestetik, sektorean pisu handia duen ustiapena zen, eta gauzak berdin jarraitu ezean gizonak dimititu egingo zuela esan zuen" (B1).

"Orain, 2015eko urriaren 15etik onartuta dagoenean eta oraindik jarraibide asko bete ez direnean, eta betetzen hasi behar direnean bestela dirulaguntzen gai ekonomikoan eragingo dielako, zera diote: 'Ez dago emakumerik'. Edo beste batzuek: 'Jarri nire emaztea, baina ni etorriko naiz'. Bere garaian, estatutuaren sustatzaileetako batekin hitz egin nuen, eta esan zidan artekarien bidez eskatuko zutela bileretako aktak sinatzea. Nolabait bilatu behar da modua, bestela estrategiak bilatzen dituztelako: 'Ah, bai, egon daitezela emakumeak, jarri nire emaztearen izena'. Orduan horrek min ematen du. Lehen planoan sufritu dugunoi min ematen digu" (Co).

"Nik parte hartu dudan batzordeetako batean asmoa jarri da emakumeak egoteko, eta batzordean izendapena duen pertsona bertaratzeko. Beste elkarte batzuetan ez da hori egiten, eta nik arazoak izan ditut beraiekin. Izena emakumearena jarri, eta gero gizona joaten da bileretara. Hori iruditzen zait elkarteari zigor bat jartzeko nahikoa arrazoi, hor ikusten delako gure inguruan dagoen matxismoa. Emakumea baldin badago batzordean, berak joan behar du" (C3).

2. Batzordekide kopuruaren murrizketa

"Badakizu zein izan den 2021eko denbora mugarriari begira egin dugun lanketa? Batzordeko kideen kopurua murriztea. Batzordean sei kide baldin badaude, hiru emakume egon behar dira. Baina batzordean hiru kide baldin badaude emakume batekin nahikoa da, eta nirekin kito. Zer iruditzen zaizu? Elkarte guztietan gertatzen ari da. Beste adibide bat: 6 ordezkari batzorde bat, 2 lurralde historiko bakoitzeko. Lurralde bakoitzeko bi ordezkari, estatutuak aldatu dira eta ordezkari bat izatera pasa da. Batzordea lurralde bakoitzeko ordezkari banak osatzen dute: hiru lurralde daude, hiru ordezkari. Emakume bat dagoenez, bete egiten da, eta, gero, batzordean ordezkari bakoitzak aholkulariaren figura izan dezake, aholkulariak ez baitira kontuan hartzen estatutua aplikatzerakoan. Bakoitzak aholkulari bat darama, eta dagoeneko, hiru eta hiru, sei, lehengo berberak. Jokaldi hori mota eta tamaina askotako elkarreetan egin da. Ez da gaizki etorri, bestalde, batzordeak sinplifikatu direlako, batzuetan saltsa ederra prestatzen zelako. Orduan, maila teknikoan, teknikari batzuei ongi etorriko zitzairen sinplifikazioa, orain praktikoagoak izango direlako. Estatutuak ekarri duen aldaketarik handiena izan dela esango nuke, gauzak sinplifikatzea. Alde batetik, orain jende gutxiago dagoenez, batzordeak pragmatikoagoak eta eraginkorragoak dira; baina, bestalde, galera bat ere eman da, zenbat eta jende gehiago parte hartu, orduan eta anitzagoa delako, orduan eta ikuspuntu gehiago daudelako. Horren balorazio bat egin beharko da" (A2).

Lasterbide hau estatutuaren I. tituluko 7. artikuluko 5. puntuan oinarritzen da. ENEko egiturari dagokion atalean azaldu den bezala, 7. artikuluko definizioak biltzen ditu: 'horietako batzuk kontzeptu orokorrak estatutuaren esparrura moldatzeko dira; eta gainerakoetan, beste arau

batzuetan definituta dauden kontzeptuak bildu dira, testua errazago ulertu eta erabiltzeko'. 5. puntuan 'ordezkaritza orekatua' definitzen da. Gogoratu nahi da 2021eko urriaren 22tik aurrera halakoa izan behar dela emakumeen ordezkariak sektoreko elkarte eta erakunde zuzendaritza-organoei dirulaguntza publikoak jasotzen jarraitu ahal izateko. Letra lodiak gehitu dira:

5.– **Ordezkaritza orekatua:** lau lagun baino gehiagoko kide anitzeko organoei, ordezkariak orekatua dago baldin eta sexu bakoitzak %40ko ordezkariak badu gutxienez; **lau lagun edo gutxiagoko kide anitzeko organoei, bi sexuak ordezkariak daudenean.** Sozietate zibiletan, merkataritza-sozietateetan eta kooperatiba-sozietateetan, sexu bakoitzaren esku dauden partaidetza sozialen edo botoen ehuneko edo kopuruaren arabera neurtuko da ordezkariak.

Hortaz, zenbait erakunde eta elkarte hartutako bidea hori izan da, beraiei zuzendaritza-organoei kide kopurua murriztu, emakume batekin nahikoa izateraino. Ikerlanean zehar identifikatu den beste pausu sofistikatuagoa da aholkularien izendatzea, lehenagoko batzordeen funtzionamendu berdina ahalbidetzeko.

3. Biribiltzea

"Zuzendaritza-batzordea 6 kidek osatzen dute, eta emakume bi daude. Kalkulagailua hartuz gero, %33,3 dira emakumeak, herena. Bada 6ren %40 2,4 da, eta biribiltzea aplikatuz gero, komaren ondoren 5 baino zenbaki txikiagoa datorrenez, 2 da emaitza. Eta hala esaten dute, lasai-lasai. Etxerako emakumerik ez dutela bilatzen (ezkongabeak dira batzuk), eta ea nolatan bilatuko duten elkarterako. Gainera, kontsulta egin omen dute, eta baieztatu erantzuna jaso, balio duela horrela. Sinestezina da" (A2).

Berririo ere estatutuaren I. tituluko 7. artikuluko 5. puntua ekarri behar da, ENEren aplikazioarako ordezkariak orekatuaren definizioa argitzeko. 6 pertsona badira, lau lagun baino gehiagoko kide anitzeko organoa da, eta beraz, sexu bakoitzak %40ko ordezkariak izan behar du **gutxienez**. $2/6 = 33,3\%$. Zifra hori %40 baino txikiagoa da. Ikerlan honen egileak ezagutzen ez duen informazio berririk ez egotekotan, ez litzateke balekoa izango aukera hori.

4. Emakume bazkideei harpidetza uzteko gonbidapena luzatzea

"Nire belarrietara iritsi da elkarte batzuk emakume bazkideei harpidetza uzteko esaten dabiltzala, bazkideen artean gutxiengo emakume kopuru bat izan ezean batzordean ez dutelako zergatik egon" (A1).

Lasterbide hau estatutuaren III. tituluko 19. artikuluko 4. puntuan oinarritzen da. Estatutuak finkatutako emakumeen partaidetza ezin dutela bete egiaztatzeke neurria ezartzen du, eta segimendu-batzordeak horren arabera salbuespena jartzeko ahalmena.

4.– **Segimendu-batzordeak salbuespenak jarri ahal izango ditu;** horrela, eskaerak balioesteko ardura duen administrazio-organok estatutu honek finkatutako emakumeen partaidetza ezin dutela bete egiaztatzen duten elkarte eta erakunde kasuak segimendu-

batzordeari igorriko dizkio, eta segimendu-batzordeak aztertu egingo ditu eta irizpena igorriko dio eskaerak balioesteko ardura duen administrazio-organoari. **Ezinezkoa dela ulertuko da, baldin eta elkarteko edo erakundeko emakumeen kopurua txikiagoa bada presentzia orekatua izateko ordezkaritza-organoetan parte hartu beharko luketenen bikoitza baino.**

Kasu honetan, emakume bazkideen kopurua presentzia orekatua izateko beharrezko emakume ordezkarien bikoitzaren azpitik gelditzea lortuz gero, eskaerak balioesteko ardura duen administrazio-organoak segimendu-batzordeari igorriko lioke kasua, eta hark kopuru horiek hala direla baieztatu ondoren, salbuespena ezarri ahalko luke.

5. Joan egin da, emakumerik ez egotea justifikatuta dago.

"Adibidez, batzordean zegoen emakume bakarrak dimisioa eman ostean, gizon bat jarri zuten bera ordezkatzeko. Eta lehendakariak bileran esan zuen lehenengo gauza izan zen emakume bat hautagaitzan ez edukitzeagatik kendu ziezaioketen dirulaguntza zela kezkatzan zuen gauza bakarra. Eta esan zuen Eusko Jaurlaritzari ikusarazten saiatuko zirela ez zela hautagaitzaren errua, baizik eta emakumea joan egin zela, hori justifikatuta dagoela, eta dirulaguntza izan behar dutela. Hori jendaurrean esan zuen. Hau da, begira zeuk. Hori ezin da esan, gero Kristo guztia izorratzen duzu-eta. Izan ere, gainerakoen artean zabaldu zen lehen zurrumurrua izan zen 'Beno, hemen balio badu, orduan gure elkarteetan ere gauza bera egin dezakegu, emakumeak apuntatu eta bost egunetan alde egin dezatela. Eta justifikatuta dago'" (A1).

Azken honek ze ibilbide izan duen ezin izan da jaso lana bukatu den unean (2021-09). Aldiz, argudio hori erabiltzeko hautu irmoa azaldu da elkarte jakin batzuen aldetik. Jakiteko dago jaso duten erantzuna.

6 PROPOSAMENAK

Ikerlan honen helburu behinetako bat da egungo egoeratik etorkizuneko egoera hobeago bat lortzeko proposamenak jasotzea, egungo egoera hori bizi eta ezagutzen dutenen ekarpenetatik abiatuta.

Banakako elkarrizketetan, egoeraren bakoitzaren irakurketa jaso ondoren, proposamenak egiteko tarte bat eskaini zen, norberak beretik, sentitutako gabeziei erantzuteko batik bat.

Bestalde, **lan saio kolektibo** bi gauzatu ziren. 3 ordukoak izan ziren topaketak: Araban AZALA Sormen Espazioan, eta Gipuzkoan DINAMOA Sormen Gunean. Emakumeentzat topaketa atsegin eta aberasgarria izateko ahalegin berezia egin zen, espaziotik bertatik hasita. Nekazal-emakumeak sormen-eremuetara hurreratu eta sormen-eremu horiek nekazal-emakumeak jasotzea beste maila bateko saretze interesgarria kontsideratu zen. Balorazio-galdetegi bat bidali zitzairen emakumeei ondoren, eta gehienek oso positiboki baloratu zuten topaketa, baita espazioen hautaketa ere.

Lurralde historiko bakoitzean topaketa jaso zuen espazioaren sarrera labur baten ondoren, banakako elkarrizketetan oinarrituta gauzatu zen nekazal-emakumeen parte hartzearen inguruko lehen argazki bat aurkeztu zitzairen emakumeei. Ondoren, solasaldirako tarte ireki zen, ikusitakoaren gaineko askotariko iritziak jasotzeko, edota hortik abiatutako (gaiari lotutako) bestelako hausnarketak partekatzeko.

Talde txikietan banatu ziren emakumeak gero, eta beraien esperientzian oinarrituta, galdera zehatz batzuen inguruko proposamenei forma eman zitzairen galderatik galderara aldatuz zihoazen taldeetan. Talde bakoitzean esandakoen ideia nagusiak idatziz jasotzeko arduradun bat izendatu zen. Ideien polinizazioa eta kutsu denen amalgama zen topaketaren helburuetako bat.

Bertaratutako emakumeekin talde txikietan honakoa landu zen: emakumeen parte hartzea areagotu eta hobetzeko egin zitezkeen ekintzen multzoa, norbanakoaren esku zeudenetik hasi eta maila ezberdinetako administrazioei eskatu beharrekoetara.

Aurkezpen ondorengo solasaldiaren eta talde txikietako lanketen audioak grabatu ziren Araba eta Gipuzkoan; horrela, elkarrizketatutako emakumeen hitzak txertatu dira testuan zehar beste behin, emakumeek paperetan idatzitakoa beraien berriketaldien transkripzioekin osatu eta aberastuz²⁰.

3 kategoriatan banatuko dira emaitzak:

1. Bai gaur egun bai etorkizunean emakumeen parte hartzea areagotzeko **norbanakoaren eskura** dauden ekintza edo neurriak.

²⁰ Tertulia-espazio horietan sortutako ekarpen denei egin zaie tokia. Ekarpene horiek talde txikietan jaso dira, eta talde txiki horren barruko adostasunetik sortu; hau da, emaitzen atalean jasota egoteak ez du esan nahi parte-hartzaile guztien onespina dutenik. Hala ere, batzuekiko enfasia hauteman daiteke jasotako berriketaldi zatietan edota komatxoaren arteko aipamen ezberdinetan.

2. Bai gaur egun bai etorkizunean emakumeen parte hartzea areagotzeko bakoitzaren **erakunde** mailan bultzatu daitezkeen ekintza edo neurriak.
3. Bai gaur egun bai etorkizunean emakumeen parte hartzea areagotzeko maila ezberdinetako **administrazio**ek bultzatu ditzaketen ekintza edo neurriak.

1. NORBANAKOAREN ESKURA DAUDEN EKINTZA EDO NEURRIAK

Kontzientzia hartu

Kontzientzia hartu: beharrezkoa da emakumeok parte hartzea.

Gogoa izan: erabaki-eremuetan parte hartu nahi duten emakume gehiago behar dira. Bazkideek ez badituzte elkarteak elikatzen, hil egingo dira.

Ordezkaritza baloreen jarri: inoiz gehiago ez "bileratxo bat dut....". X-ko ordezkaria naiz eta bilera bat dut.

Konfiantza izan

Trabak gainditu, norbere barrukoak lehenik: gure burua baloratu, konplexuak eta pentsamendu mugatzaileak baztertu, GAI GARA.

"Guri gertatu zaigu, emakume gehiago bilatzeko prozesu horretan, esatea 'animatu zaitezte emakumeak, parte hartu behar dugu', eta topatzea 'ez, zer dut nik hor esateko ba...?' Nik uste dut funtsezkoa dela beldurra kentzea: badirudi gerrara joango direla, eta jan egingo dituztela, eta azkenean hori guk landu dezakegun zerbait da".

Jarrera

Jarrera proaktiboa izan: ez itxaron inork zure parte hartzea proposatzea, inor zure arazoak konpontzeko azaltzea... Gaur egun dagoena gustatzen al zaigu? Ezezkoa bada, elkartu zerbait berria sortzen hasteko; formula berriak bilatu behar dira

"Lekuetan agertzea, egotea, beharrezkoa da".

"Ni sartu nintzenean itxaroten zuten teknikariek konbokatzea bilera bat egiteko. Baina behar bat sortzen bada, eta premiazkoa bada, gai izan behar dugu guk nahi dugun ordu/tokia jarri eta elkartzeko. Protagonista izan. Eta sinetsi behar dugu ahal dugula".

Parte hartu: ekarpenak egin, aktiboki parte hartu, ez bakarrik egon egotegatik.

Protestatu, konforme ez gauden horren aurrean.

Ezagutu

Ezagutu.

Elkartea. Haren funtzionamendua ezagutzeko ardura hartu: oinarriak, kudeaketa, helburuak, egoera, aukerak...

"Ni elkarteke lantalde batean sartu nintzenean konturatu nintzen ez ditugula elkarteak ezagutzen. Nik ez nuen ezagutzen elkartearen funtzionamendua nolakoa zen. Zerbait badakizu baina benetan ez dakizu. Orduan, bat-batean sartzen zara, talde bateko ordezkaria zara, eta konturatzen zara ez dakizula elkartea zer den, nola funtzionatzen duen, nola kudeatzen den, zer dagoen... eta hori joaten zara ikusten eta

ikasten denborarekin. Orduan, niretzako, ezagutza hori aurretik izatea garrantzitsua da”.

Elkartekide emakumeak. Gainerako emakumeak ezagutzeko ahalegina egin. Gauza on asko etor daitezke ahalegin txiki horretatik.

Zaintza

Zaindu.

Besteekiko harremanak: gainerako batzordekideekiko, gainerako elkartekideekiko, etxeokiko, gertukoekiko... parte hartzearekin lotutako testuinguruetan.

Norbere burua: bai fisikoki (deskantsatu, otorduak errespetatu...), mentalki (pentsamendu motak, horien abiadura/kopurua...), emozionalki (aliatuak aurkitu, erasoetatik babestu), energetikoki (jasan daitekeen baino zama gehiago ez hartu)...

Norbere burua zaintzea izango da parte hartzea denboran iraunarazteko gakoetako bat.

Laguntza eskatu: erabaki-guneetan parte hartzeko laguntza behar badugu, eskatzen ikasi behar dugu: familian, lagun taldeetan, lanean...

Emakumeen arteko aliantzak

Emakumeak elkartu, sektore ezberdinetakoak, elkar indartzeko.

“Baserritar emakume gutxi gaudenez, neska gazte batzuk gure artean hitz egin dugu elkartzen hasteko asmoarekin, gure buruengan konfiantza hartzeko. Ikusita nola aurreko emakumeek urteetan zehar bide bat egin duten, orain agian atzetik beste talde bat egitea, edo elkartzea tokatzen dela ikusten dugu. Edo behintzat, hasieran, gure kabuz elkartu ikusteko elkarre ezberdinetan nola bizi dugun egoera, ze bizipen ditugun, ze behar... asmo hori dugu gu geu indartzeko”.

“Beste sektore batzuetako emakumeekin harremanetan jarrita, gaur hemen gauden bezala, bakoitzak bere elkartean egiten duena partekatu dezakezu. Ez dakit, ez dugu biltzeko asti askorik, baina WhatsAppeko taldeak izan daitezke, zuen sektorean nola zaudeten galdetzeko, zenbat emakume zareten jakiteko...”.

Elkarre bereko emakumeak bildu, bat egin.

B- Gizonak batuago daude.

C- Bat-eginda jaio dira.

Lagun egitea: emakumeen artean antolatu, parte hartzeko eragozpenak izan ditzaketen horiei lagun egiteko, baina menpekotasun bilakatu gabe.

B- Emakumeak kooperatibetako bileretara bakarrik joatearena... Agian, baten bat joango da, baina niri 18-20 urterekin burutik pasatu ere ez zitzaidan egiten.

C1- Lagunduta joateak konfiantza ematen du.

C2- Baina zure irizpidea, zure nortasuna izaten ikasi behar duzu. Ni 7-8-9 gizonekin egon naiz batzordean, eta berdin zitzaidan, eta hor jarraitzen dut oraindik. Elkarteari buelta eman diogu. Emakumeok ikusi behar dugu uste duguna baino gehiago egiteko gai garela, uste duguna baino ekarpen handiagoa egin dezakegula.

Ordezkaritzan dauden gainerako emakumeak babestu.

"Gehienetan atzetik egiten da lana, eta gero aurrera bidaltzen da beste bat. Gainontzeko kideen babesa behar da".

"Gure artean, babesa eman behar diogu elkarri, bestela, ez goaz ondo. Ez dugu ezer egiten hona gaur kexatzera etortzearekin. Ezer ez. Gure esku dago gainerako emakumeei gure babesa ematea".

Positiboa ere balioan jarri

Estatutuak ematen digun aukera aprobetxatu batzordeetan egon ahal izateko.

"Ni aurten batzorde batean atera naiz eta banoa, gauzak hobetu nahi ditudalako; ez naiz beti esaten ariko errua elkarteak edo batzordeak duela, ez delako berritzen edo ez dituelako gauzak aldatzen. Iaz emakume bat sartu zen, eta aurten bi gaude. Hurrengo urterako hiru izango gara, eta agian hiruren artean zerbait aldatzea bideragarriagoa da".

Ordezkaritza esperientzia onak ikusaraztea eta balioan jartzea: dena ez da iluna eta zaila, argiuneak ere badaude.

Ikuspegia aldatu: ez da galeraren ikuspuntutik hartu behar (denbora, energia, dirua...). Parte hartzeak aberatsa izateko potentzial handia du (norberarentzat, etxaldearentzat, elkarrearentzat...), eta ikasketa iturri.

"Batzorde edo talde eragilean inplikatzekoan, ardura da, baina ez galera. Norberari edo etxeari aportatzen dionaz gain, lan horrek zure kideei eta elkarte horretako denei aportatzen die".

2. ERAKUNDE MAILAN BULTZATU DAITEZKEEN EKINTZA EDO NEURRIAK

Elkartea

Elkartek demokratizatu.

“Elkartearen egitura berrikusi: batzuk oso egitura hierarkiko eta patriarkalak mantentzen dituzte, apurtu beharrekoak”.

Elkartek humanizatu, ez dadila dena egituratuta etorri. Kargutik pertsonara salto egin, eta pertsona hartu kontuan. Harreman pertsonalago bat.

“Biltzen garen pertsonak gara, eta dimentsio hori kontuan hartu behar da entzun, egokitu eta elkarrekin sortzeko”.

“Sentsazioa dut, orokorrean, suertatzen diren eztabaida eta hausnarketetan ez zaiola garrantzirik ematen momentu batean pertsona bati entzuteari: ez gaiarekin lotuta, baizik bere egoerari, nola dagoen etxean... Kide da, bilera berean gaude, baina bilera ez doa pertsonarengana, gelditzen gara pertsonak jartzen duen titulu horretan. Eta, beharbada, pertsonen arteko topaketa balitz, funtzionamendua beste bat litzateke, aberatsagoa askoz”.

Elkartearen kontzeptua berrikusi, **proiektu bat izan**.

“Elkartek zeri erantzuten dio administrazioaren eskakizun eta denboretatik harago? Zein da elkartearen funtsa? Behar zehatz batzuei erantzunez sortu zen: berrikuspenik egin ahal da? Garai hartako beharrek jarraitzen al dute? Berriak sortu al dira? Agian orduko eta oraingo beharrak antzekoak izango dira, baina nekez berdinak”.

Egituran dauden pertsonak **sektorean egondakoak izan behar dira**, emakumeen egoera ulertzeko.

“Sektoreko teknikaria ezin du izan ez bada sektoreko profesionala izan; lehendakaria ere ezingo da izan. Sektoreko teknikari eta lehendakari orok sektoreko lan profesionaletan esperientzia izan behar du. Guri sektorean aritzeko praktikak exijitzen zaizkigun bezala, elkarreetako egituretan egoteko exigentzia bat izan dadila”.

“Sektorean lan-esperientziarik ez duenak, ezin du ulertu/defendatu”.

Talde eragileetan inplikatu

Une batean edo bestean, denok talde eragiletik pasatu.

“Juntatik pasatzen zarenean konturatzen zara: juntan ez dago ez dakit zein eta egiten da junta, junta gu gara”.

“Zuzendaritza aktiboa baldin bada, zuzendaritzak daraman dinamika hori zuzendaritza barruan ez dagoen (eta komisio eta lantaldeak egin arren) bati oso zaila da dena transmititzea. Oso garrantzitsua da elkartekide denak batzordeetatik pasatzea, momentu batean edo bestean. Bestela, barruan ez bazaude lanean, ez da ezagutzen”.

Talde eragile eta batzordeak

Aniztasuna ikusi eta erakutsi: Elkaratearen baitan dauden azpisektore eta eredu ezberdinak kontuan izan eta ahotsa eman, jaso. Batzordean azpisektore bakoitzeko ordezkari bat jarri.

“Badago joera bat diru gehien mugitzen dutenek kontrolatzeko elkarateak, eta, ezinbestean, horien beharrak gehiago asetzen dira, denenak kontuan hartu beharrean. Orduan, beharrezkoa da errealitate ezberdinetako pertsonekin elkartzea. Ideala izango litzateke elkarate horretan azpisektore/eredu bakoitzeko norbait. Elkaratekideak ez badira identifikatuta sentitzen ez dira joango. Elkarateko kideen beharrei erantzutea da kontua, eta zure mesedetan ari direla ikusiz gero, zure egiteko modua ere kontuan hartzen dutelako, horrek ematen dio zentzua, bazkide zara zerbaitegatik. Ez bazara ulertua sentitzen edo ez baduzu ikusten zuregatik ere begiratzen dela, ba zure aldetik egiten duzu bidea”.

Talde eragile eta batzordeek harremana izan behar dute kideekin.

“Azken batean, nik uste dut elkarateak ordezkatu behar duela bere oinarria. Niri iruditzen zait elkarateetan oso interesgarria dela (elkaratearen tamainaren arabera ere izango da) bazkideekin elkartzea, egotea, telefonoz bada ere jakinda modurik onena ez dela. Iruditzen zait zenbaitetan talde eragile edo zuzendaritzetan, hor dauden kideak eta kide arruntak oso urrun daudela, ematen du bi esferetan daudela, eta azkenean gertatzen da halako urruntze bat, eta arrakala izugarria sortzen dela eta heldu zaitezkeela zure kideak zu bezalako moduan ez ezagutzera”.

Elkarateko kide guztiei informazioa helarazi.

“Oso garrantzitsua da niretzat informazioa argia izan dadila, eta partekatua, gardena”.

Elkarlana: elkarateko kideen profil osagarriak baliatuz.

Esperientzien transmisioa bultzatu, ordezkari berriak prestatzeko.

Elkarateetan, **nekazal-jarduera jarduera nagusitzat duten ustiategiak lehenestea.**

“Horrek isla izango luke ondoren elkaratekideen egituraketan. Denetarik egon daiteke elkaratean, baina, sikiera, lehentasuna eman sektoretik bizi garenoi. Gure bizimoduak ez du beste profiletakoekin zerikusirik, animaliak hobby bezala dituenarekin, ustiapenean lan egin ez arren titularra den pertsona horrenarekin...”

Berdintasunaren aldeko apustua

Elkarateei eskatzen zaie **berdintasunaren aldeko benetako apustua** egitea.

“Horretarako, barne-egitura trebatzea ezinbestekoa da, zertaz ari diren jakiteko, eta genero ikuspegia eta berdintasun politikak aplikatzeak zer suposatzen duen jakiteko. Gaur egun elkarateetako egiturak ez dute beharrezko prestakuntzarik”.

Genero ikuspegia elkarateko geruza guztietan bermatzea.

“Elkarateek bertako kideak berdintasun kontuetan sentsibilizatzeko ekimenak sustatu behar dituzte, eta ordezkari eta langileentzako formazioa. Azken hau exigentzia bat izatea proposatzen da”.

Elkarteak **gehiago inplikatzeari** ENEn gaian. ENEn egiten duen proposamena eta haren onurak elkarteetako egituraren integrazioa, eta oinarrian jendarteratzea. Eta sustatu dezatela. Horrekin, zera lortuko litzateke:

- Elkarrekin **berdintasunaren inguruan dagoen ikuspegia aldatu**: inposatzailea dela uste da.
- **Pedagogia egin**: emakumeen ordezkariaren beharra ikusarazteko.

Zergatik ez dute parte hartzen emakumeek?

Bazkideak, eta, bereziki, emakumeak, **elkarrekin ez parte hartzeko arrazoiak aztertzea egin**.

“Ezin denean lortu inor etortzerik eta arazo hori dagoenean, gizon zein emakume, lanketa egitea: zerk funtzionatzen du elkarte honetan? Zerk ez? Jendea erdi behartzen ibili beharrean, pixka bat harago joatea: zergatik ez du funtzionatzen? Elkarrekin izan behar dira gure beharrei erantzuteko.

Ezingo du elkarrekin batek lan guzti hori bere gain hartu, baina aliantzetatik, baterekin eta bestearekin egotetik... Elkarte mailan aztertzea hori egitea bultzatu. Elkarte horretan, eta aztertzea horretan, emakumeak baldin badaude eta beraien arazoei erantzuteko balio baldin badu, ziur hortik zerbait atera daitekeela”.

“Guk, adibidez, horren inguruko inkesta bat egin genuen, eta justu hori galdetzen genien emakumei, ‘Zergatik ez duzu parte hartzen?’. ‘Ez dut jakingo’, ‘Ez naiz gai izango’ eta halakoak atera ziren, ‘Ez dut denborarik’ baino gehiago”.

Emakumeen ahalgintza

Emakumeak ahalgintzeko formakuntza, genero ikuspegiarekin.

Emakumeentzako ahalgintze espazioak sortu (elkarte barruan edo hortik kanpo, baina elkarteak izan dezala horiek sustatzeko ardura): ondoren espazio mistoetan indarrez eta konfiantzaz parte hartzeko.

Emakumeentzako espazioak

Emakumeentzako espazio propioak sortzea. Mugitzen hasi. Estatutuaren markoa baliatu.

“Elkarrekin, emakumeak biltzeko guneak sortzea. Emakumeen talde bat osatu, talde eragile antzeko bat, eta beste emakume batzuk ere topaketa horietara joan daitezen animatu, gure (emakumeen) diskurtso propioak eraikitzeke; emakumeek beren buruarengan konfiantza har dezaten”.

“Gonbidatu beharra dago. Egongo da emakumeren bat, ustiapenean lanean ari dena, baina bileren gaia ‘senarraren gaia’ izatea. Ba, agian esan behar zaio berak etorri behar duela; agian, emakumez osatutako bilera bat egin behar da. Horrela behintzat elkar ezagutuko dugu, nik ez baitut emakumeen erdia ezagutzen, eta elkar ezagutu ezean ezin gara elkartu”.

Bilerak

Birplanteatu **bilerak antolatzeko modu berriak**. Batzordea osatzen duten partaideen arabera pentsatu bilera-dinamikak, ahalik eta parte hartze handi eta pluralena bermatzeko.

Garatu **emakumeen parte hartzea erraztuko duten mekanismoak**, beraien ahotsa jaso eta kontuan hartzeko.

“Adibidez, erabakiak talde handietan hartzen dira normalean, eta zailagoa da emakumeek beraien ahotsa helaraztea”.

Mantrak berritu: “orain arte horrela funtzionatu dugu” eta antzekoak, kanpora.

“Adineko pertsona bada ere, pertsona batzuekin aurrera joan daiteke, eta beste batzuekin beti estankatuta gelditzen gara, hori gertatzen da gaur egun, hori da txarrena. Esaten baldin badizute “orain arte horrela funtzionatu dugu”, ea ze pausu eman dezakezun abiapuntu horretatik. Niri hori oso hotza iruditzen zait, oso hotza eta motza”.

Egokitu bileren ezarpena kideen egoeretara: lan-karga, momentu pertsonala...

“Elkarteak hedadura handia badu, talde eragile edo batzordeetan parte hartzeko zailtasun handi bat izaten da bileretara bertaratzea, distantziagatik. Ohiko elkarteetako egitura zurrin hori izaten dugu buruan ‘bulego batean bildu behar gara beti’, ‘ezdakitzer beti...’. Bildu behar diren pertsonetara egokitu daiteke funtzionamendua: erditze garaian artzainenean egin, landaketa-sasoian estuen dabilzanenean... Badaude adibide interesgarriak. Saiakera garrantzitsua da, eta ikuspegia behetik gorakoa”.

Emakumeekin adostu: bileren ordutegia/tokia, hasiera ordua eta amaiera ordua.

Ordutegiak bete eta errespetatu, batez ere hasiera eta amaiera orduak.

Presentzialtasuna noiz eta zertarako: aurrez aurre biltzeak beste balio bat du emakume gehienentzat, baina elkarteetatik baloratu beharko litzateke gai jakin batzuentzat bestelako formula batzuen alde egitea. Orain arte bai ala bai presentzial izan den bezala, ez da esaten guztiz bestaldera egin eta bai ala bai birtualak egitea. Bileren helburuaren arabera, bata edo bestea planteatzeko proposatzen da.

“Agian ez da bilera guztietara aplikatu behar, baina ordu erdiko bileratxoak horrela konpondu daitezke, eta norberari ordu erdi baino ez dio suposatzen”.

Gai-zerrenda prestatu, bilerak efizienteagoak izateko eta alde zuzenetik lanketa eta ekarpenak ahalbidetzeko.

Bilera amaituta, erabakien/ondorioen laburpena.

“Erantzunei buruz ere hitz egin behar da. Bilera bat egiten dugu, bai, baina zertarako balio izan duen. Bestela, proposamenak egiten badira baina erantzunik jasotzen ez bada... Bilera amaitutakoan erabakien/ondorioen laburpena egin dadila, bilera emankorra izan dela ikusteko. ‘Gutxienez zerbaitetarako balio du, ez naiz bazkaltzera bakarrik etorri’”.

"Emakumeek beraien ekarpenak baliagarriak direla ikusten badute, animatzeko aukerak igoko dira. Kontua da askotan ez dela ikusten egindako lanari erantzun bat ematen zaionik".

Planifikatu

Erreleboa planifikatu: esperientziaduna eta hasiberria eskutik.

"Nik uste, juntetan, gizon-emakume horretaz gain egon beharko lukeela adin kontua; hau da, urteetan proiektuan daudenak, eta proiektuan berriak direnak. Ez dut esaten 50/50, 60/40... Esan nahi dudana da, azkenean norbaitek azaldu behar dizu nola funtzionatzen duten gauzak, bestela beti 'berria'...".

Egoerak aurreikusi.

"Elkarteetako baja batzuk bat-batekoak izaten dira, baina beste batzuk aurreikusi daitezke. Hutsik gelditzen diren postu horien kudeaketa beste modu batean egin daiteke, gazte/emakumeekin elkarlanean. Horrela bai ala bai etorriko zela dakigun egoera baten aurrean kaosa sortu beharrean, arazoa sortzea bera saihestu daiteke".

Emakumeak eta bileretako parte hartzea

Emakumeen parte-hartzea lantzea.

"Emakumeen parte-hartzea sustatzea, bileretara gehiago joan daitezen, horrek ematen baitie azkenean beldurra. Izan ere, batzordeetarako emakume gehiagoren bila gabiltza, baina askok esaten dizute "ni bakarrik nora noa". Ba, bakarrik egon beharrean bi edo hiru bagaude...".

"Ni egon nintzen elkartean, lan-mahai bat egin genuen elkartearen barruan punta-puntako jendearekin, bai gizonekin bai emakumeekin, eta horrela landu zen egia. Batzordeko kide bakoitzak bi parte-hartzaile eraman behar izan genituen lan saiora, gizonak zein emakumeak. Izan ziren emakumeen artean, denek ez zutelako onartu joatea, horietako askori ez lieke axola izango orain kargu bat izatea edo onartzea. Oso ondo egon zen".

Emakumeak bileretara joan ahal izateko baliabideak eskaintzea: espazioak, langileak...

"Niri pasatu zait jada ama izatearena, baina uste dut emakume askori erraztu diezaiekeela joan ahal izateko, ziurtzat jotzen delako zure senarrarekin edo dena delakoarekin utziko duzula, baina ez da ematen, gero zure umearekin joaten zara edonora. Espazioak egokitzea izan daiteke aukera bat, edo pertsona gaitu bat jar diezazutela zu joan zaitezen, baita helduentzat ere, edo ukuiluan gauza bera".

Bileretara laguntzea: epe labur bateko jarraipena.

"Garrantzitsuena seguru sentitzea da. Egon dadila norbait elkartearen partetik inoiz bilera horietan egon ez den pertsona horrekin. Gero bi bilerarekin nahikoa da, baina bai, lagun egitea ondo dago. Kargua aldatzen denean, izan dezala gidari bat, transmisio bat eman dadila. Gero martxa hartuko du. Hasieran errespetua ematen dizu guztiak: erabakiak hartu, paperak sinatu... baina gero egin egiten da".

Emakumeek parte hartzea erraztea.

TEKNIKARIAK

“Teknikariek gure parte-hartzea hobetzeko ekimenak proposa ditzakete. Lanak ezin dituzu beti utzi (gaur hiriburura, bihar bestera...). Teknikari asko ditugu, eta haiek ere gerturatu daitezke, eta gero beraiek izan erabakigune jakin batzuetara esateko ditugunak eramango dituztenak. Nik uste dut gehiago landu beharko genukeela teknikarien gaia. Guri batzuetan hain zailak egiten zaizkigun lan horiek erraztu ditzatela. Azkenean, gure denbora mugatua da, beti egon behar duzu presaka... Teknikariek ere beren lanak izango dituzte, baina baliteke arduradun batzuk ustategietara hurbiltzea, gaur egun zer arazo dauden ikusteko, eta teknikari horrek eraman beharreko lekura eramateko. Eta gero, ordura artekoekin, bilera baten eguna edo dena delakoa iristean arazo horiek guztiak bertan lantzea. Azkenean, zenbat urterako egon behar dugu guk hor, bileretako ordezkartizan? Izan ere, ezin da emakumea egotera behartuta egon; azkenean, denera iristen ez garenean izaten dugu arazoa. Emakume batzuk ez dute parte hartzeko interesik izango, baina, nire ustez, badaude emateko asko duten eta ekarpenak egiteko gogotsu dauden emakumeak, baina ez direnak iristen. Garrantzitsua da emakumeen esperientzia ona izatea parte hartzen dauden bitartean, eta horretarako sormena behar da, eta baliabideak”.

ALDE ADMINISTRATIBOA

“Eta gero alde administratiboa dago. Niretzat, adibidez, askotan arazo bat izan da sinaduraren gaia: 'Aizu, guk errekurtsio bat jarri behar izan dugu eta lehendakari gisa sinatzera etorri behar duzu'. Barkatu, hemendik hiriburura orri bat sinatu eta bueltan etortzeko joan behar dudala esaten ari al zara? Izan ere, horrek ez dit laguntzen nik honetan guztian parte hartu nahi izatera, denbora galtzea baita. Nik paper bat sinatu behar dudan bakoitzean hiriburura etorri behar badut besterik gabe, ez”.

Esperientzia positiboak berreskuratu eta ikusarazi

Iraganeko esperientzia positiboak berreskuratu eta ikusaraztea.

“Adibidez, genero-berdintasunaren gaian aldaketak egin dituzten emakumeek osatutako batzordeetakoak, egon egon direlako. Espazio horietako emakumeen bizipenak kontuan hartzea, esperientzia, ikaskuntzak eta erronkak transmititzeko”.

Ospakizunak txertatu

Lorpen handi eta txikiak ospatu, poztasuna berreskuratu: ospakizuna funtsezkoa da lortutakoen garrantziaz jabetzeko, eta talde-kohesioa eraikitzeko.

“Dena egiteko zegoen lehen, eta lortu ahala hartzen genituen pozak, horrek ere asko lotzen du, animatzen du. Gauza asko aportatzen ditu”.

Baliabideak

Finantzazioa: elkarte barruan berdintasunaren aldeko ekimenak gauzatzeko diru-partidak gorde.

Hitzarmenak berrikusi.

“Elkartera berdintasunaren inguruko kontu batekin hurbiltzean, elkartetik Emakundera bidaltzen zaituzte. Adierazle bat baldin bagara, baliabideak jarri ekimen propioak garatzeko autonomia izateko”.

Baliabiderik ezean, elkarteek erakundeei laguntza eskatzea.

“Berdintasunari dagokionez, agian elkarteek laguntza eskatu beharko liokete administrazioari: emakumeek parte hartzea lortzeko gai ez badira, laguntza eska dezatela formaziorako, pertsonala kontratatzeko... Ez esan 'dirua kenduko didazu eta loreontzi bat jarri behar dut'. Ez, ez, ez, ez. Laguntza eskatu”.

3. ADMINISTRAZIOEK BULTZATU DITZAKETEN EKINTZA EDO NEURRIAK

Sektorearekiko

Sektorera hurbildu

Lurreratu: erakundeak bulegoetan sartuta daude, ez dira tokira hurbiltzen.

“Arduradun politiko eta teknikoak guregana gerturatu”.

“Ezin da aldaketa sozialik egin bulegoetatik”.

Eta, bereziki, **sektoreko emakumeengana** gerturatu.

“Administrazioari eskatuko nioke emakume bezala jaisteko sektorera, jaisteko gure mailara, gerturatzea, hor goian gelditu gabe. Goikoa ezagutzen dute, baina sektorea ez dute bizi eta ez dute ezagutzen”.

Sektorea ulertu

Administrazioko postu horietan dauden pertsonak **sektorean egondakoak** izan behar dira.

“Sektoreko teknikaria edo politikaria izan ahal izateko, lehenago sektoreko profesionala izan izana eskatzen dugu. Sektorea benetan nolakoa den eta nola funtzionatzen duen ulertzea ezinbestekoa da”.

Sektorea eta sektoreko emakumeak balioan jarri

Jendartea eta administrazioa sektoreak duen balioaz jabetzea oso garrantzitsua da. Haatik, **nekazal-emakumeak baloratzeko** ezinbestekotzat jotzen da **sektorea bera baloratzea**. Azpi baloratutako sektore baten baitako azpi baloratutako kolektibo izaerari buelta emateko, lehen sektorea eta emakumeen kolektiboa baloratzeko gakoak dira²¹.

“Administraziotik ez da sektorea baloratzen, are gutxiago sektorean lanean gabiltzanak. Oso harreman asimetrikoak ematen dira, eta horrek ez du laguntzen elkar ulertzen. Haiek gugana etortzen direnean, nik ez dakit non dagoen baina aldare batean jartzen dira, goitik behera begiratzen gaituzte. Ez dago gure lanarekiko eta gure pertsonarekiko errespetu asko”.

Sektoreko estatistikak berregin, benetan bertan lan egiten dutenekin

Administrazioak neurriak ezartzea **titularrak** diren **eta ustiapenetan lanean** diharduten emakumeen kopuruak **bat egiteko**.

“Zenbaki desitxuratuek kalte egiten digute sektoreko emakumeei, zentzu guztietan. Hori konpondu beharra dago”.

²¹ Parte hartu zuten zenbait emakumerentzat kontraesana da nekazal-emakumeen parte hartzea eskatzea, sektoreko emakume bezala duten paperaren garrantzia nabarmentzea, gero praktikan alde guztietatik sektorea gutxien dela sentitzen duten aldi berean.

Harmonizazioa

Administrazioko maila eta egitura ezberdinen arteko harmonizazioa, sektorean eta azpisektoreetan.

“Maila ezberdineko administrazioek funtzionamenduak harmonizatzea, probintzien artean, kasu: bestela, konfederazioen funtzionamendua kaltetuta ateratzen da, batarentzako ona dena besteak ezin duelako egin, bestela dirulaguntza galdu dezakeelako. Sektore berdinarekin berdin funtzionatu behar dute 3 aldundiek, gutxienez. Arau, betebeharrak eta eskubideak berdinak izatea. Probintziak elkarren kontra jartzeko modu bat da bestela, bat egin beharrean eta indarrak batu. Horrek elkartegintzan eta emakumeen parte hartzean eragin zuzena du”.

Formakuntza

Sektoreko formakuntza berrikusi: ezin da existitu berdintasun ikuspegia kontuan hartzen ez duen nekazar-formakuntza planik.

Formakuntza programekin batera **ekintza zehatzak** egon behar dira.

Elkarteekiko

Sustatu berdintasuna bultzatzen duen ehun asoziatiboa.

Zaindu: elkartearen erritmoak ezin dira administrazioaren tempoek baldintzatuta egon.

Lagundu: sektore asoziazionistaren zaharkitzapen eta zurruntasunarentzako konponbidea bilatzen.

Berrikusi: elkarte zaharkituekin dituzten hitzarmenak, horietatik ezin baita sektorea berrasmatu.

Inplikatu: elkartearen eta horiek eratzen dituztenen benetako beharrak zeintzuk diren ezagututa, ekin.

“Askotan, badakite elkarteetan zer gertatzen den, eta arduradunei ez diete exijitu beharrekoa exijitzen”.

Neurriak betearazi.

“Lehen pausu bezala, emakumeen presentzia ez duten elkarteek diru-laguntzak kendu behar bazaizkie, kendu. Ez da epe luzerako formula, baina nonbaitetik hasi behar da serio hartzen kontua. Hortaz, betearazi legeak”.

Diskriminazio positiboa: emakumeak dituzten elkarteentzako laguntzak.

“Estatutua berrikusi: isunak ezarri beharrean, aurrera begira, parte hartzea sustatzeko pizgarriak eskaini”.

“Batzordeetan emakume asko dituzten elkarteek dirulaguntza gehiago ematea”.

Finantzazioa: elkarteak diruz hornitu, berdintasunaren inguruko ekintzak kideen borondatezko lanaren menpe egon ez daitezen.

Nekazal emakumeekiko

Parte hartzearen inguruan

Sektoreko maila guztietako pertsonekin **nahitaezko kontzientziazio-jardunaldiak**, erabagiguneetan emakumeen parte-hartzearen beharraz jabetzeko.

“Gizonek emakumeak onartzea nahitaezko onarpena izan da. Orduan, bide hori urratu behar da. Oso zaila da gaiari buruz sentsibilizatzeko edo kontzientziazteko bilera baten bitartez ezer egitea, ez delako inortxo ere joango. Herbizida bota ahal izateko fitosanitarioen txartela derrigorrezkoa den bezala, laguntza publikoak kobratu nahi badituzu, agian 3 orduko prestakuntza, sentsibilizazio, kontzientziazio edo dena delako ikastaro bat ezar dadila”.

Emakumeen ekarpenak eta parte-hartzea sustatu eta erraztea emakumeak kontuan hartuz, beraiekin, ez beraiekin kontsultatu gabeko derrigortasunaren bitartez.

Talde eragile eta batzordeetan **ardurak hartu eta parte hartu ahal izateko baliabideak jarri**.

“Iparraldean eta Europako beste lekuetan egiten dena da, ordezkatzeko aukera ematea. Estatutua martxan jartzeko hori egin beharko da agian. Horrelako politikak behar ditugu, bestela ez dago zereginik”.

Saretzea sustatu

Sektorean benetan lan egiten duten emakumeen saretzea sustatu.

“Benetako emakume titular guztiekin bilera bat antolatu, adibidez”.

Nekazal-emakumeen topaketak eta bidaia antolatzea, beste leku batzuetan zer egiten ari diren ezagutzeko eta beraien arteko kohesioa sustatzeko.

“Baina aktibo gauden emakumeentzat, ez paperean jarrita dauden eta inork ezagutzen ez dituen emakumeentzat”.

Elkarrekin elkarlanean, **emakumeen espazio propio horiek egituratzen lagundu**. Estatutuaren barruan garatu ahalko liratekeela uste dute.

“Emakumeen espazio propioak didaktikoak eta ludikoak izan behar dute geure burua motibatzerako orduan: atentzioa ematen duten gauzak egitea, mugitzen hasi.

Ikusgarritasuna eta sentsibilizazioa

Komunikabideetan (TB, irrati, prentsa...) **publizitatea** egitea: nekazal-emakume profesionalen inguruan, ENEn inguruan, ...

Sektorean aritutako **emakume historikoen ikusgarritasuna bermatu** antolatzen diren foroetan, erabagiguneetan ere garrantzitsutzat har daitezen.

Sektoreko emakume profesionalaren ikuspegia sustatzea, ikastetxeetan informazio-, formazio- eta sentsibilizazio-bilerak eginez.

“Nekazal-emakume profesionalaren irudia ikusarazi eta sustatu gazteen artean”.

Egitura efizienteak

Langileria prestatu: ENEEn inplikatu behar diren langileek berdintasunaren inguruko formakuntza izan dezatela, elkarteak gero egoki dinamizatu ditzaten.

Birpentsatu: pertsonengandik gertu dauden eta efizienteak diren egitura berriak.

“Nekazal-sektorearen orbitan dauden egitura batzuk karga handia dira sektorearentzat. Gehiegizko egitura bat dago, eta horren mantentzean jartzen da energia handia. Elkarreei bideratutako dirulaguntza asko zeharka egitura horiek mantentzeko izaten dira, sektorean gaudenoi zuzendu beharrean. Emakumeon kasuan ere aplikagarria da. Europako dirulaguntza asko guri ez zaizkigu iristen. Elkarreetan parte hartzeko ilusioa kentzen du horrek”.

“Egituratzea beharren arabera izan dadila, baserritarren beharren neurria eraikitakoak, eta horrela gusturago parte hartuko genuke. Baserritarrei bideak zabaltzeko, antolatzeko, autonomia hobetzeko izan daitezela egiturak”.

ENE

ENEren inguruan informatzea.

ENEren gaineko lanketa.

ENE aplikatzea.

7 ONDORIOAK

Nekazal emakumeen egoera, printzipioz, ez da samurra: emakumeak dira sistema patriarkal baten barruan; emakumeak, sektore maskulinizatu baten barruan; landa-eremuan kokatzen dira lurraldea klabe urbanoetatik irakurtzen duen jendartean; landa-eremuan kokatzen dira, eremu horrek izan dituen eta oraindik dituen ezaugarri jakin batzuekin, emakumeentzako kode eta jantzi berariazkoak (eta murriztaileak); nekazal-jarduerari emanak daude, sistema kapitalistak galbideratua eta azken hamarkadetan landa-nortasunaren dimentsio ekonomiko eta sinbolikoan zentraltasuna ikaragarriki galdu duena; historikoki ez da beraien lanen ez erregistrorik ez aitortzarik egin, berdin ustiapenean zein etxean, ez baita espazio horien banaketarik existitu; ez dute tokirik izan esfera publikoan, ez dute ahotsik izan, ez dira ikusgai egon²².

Hala ere, emakume horiek izan dira eta dira gure lurraldearen sostenguan giltzarri. Aldamio ikusezinak.

Eta kontua da ikergai izan diren erabakiguneek sektorearen (eta jendartearen) osaera eta izaerari erantzuten dietela: bai eraketan, bai funtzionamenduan. Erabakigune horietan hezurmamitzen diren genero rolen pisua, emakumeek topatzen dituzten erresistentziak eta matxismoa sektorean (eta jendartean) daudenak dira, horien lagin bat dira, horien isla. Hortaz, zaila da sinestea erabakiguneetan soilik eraginda sektoreari buelta eman ahal zaiola. Palanka-puntu gehiago behar dira.

Sektorean erabakimenaren, ikusgarritasunaren eta erreferentzialtasunaren neurria izan dira gizonak, eta, areago, gizonezko adinekoak. Adultismoa sektoreko beste ezaugarri bat da, gazteak gazte izateagatik hierarkia ikusezinetan beheratzea. Eta ordezkariak eta ikusgarritasunari dagokienez, sektore maskulinizatua irudikatu da, sektorearen beraren biziraupenerako behar-beharrezkoak izan diren eta diren emakumeak ekuazio horretatik baztertuz. Zer esanik ez emakume gazteak, doblezka. Irudikapen horrek erantzuten dio historikoki zatiezin izan diren landatartasun eta nekazal-jardueraren egiturazko genero rolei, emakumeekiko desberdinkeria, aitortza faltari. Aipatutakoekin, gizon adineko ez diren bestelako profilak parte hartzea, ordezkariak eta zilegitasuna irabazi egin behar dute, topo egiten duten erabakigunearen arabera izango delarik borroka eta emaitza.

Gainera, badaude azpisektore batzuk bereziki gogorrek emakumeen presentziari begira. Historian zehar egon dira, eta egoten jarraitzen dute, gaur, 2021ean.

Edonoren parte hartzearen esperientziarako, baina bereziki emakumeentzako, badaude zaindu daitezkeen eta lagungarriak diren zenbait gako: bileren ordutegi eta tokiak parte-hartzaileen egoera eta beharrak kontuan hartuta adostea, gai zerrenda izatea, hasiera eta amaiera ordua zehaztea.

Bileren funtzionamendua bera ere berrikustea komeniko litzateke kasu askotan. Gidatuko duen norbait izanez gero, dinamikoago eta eraginkorragoak izan daitezke; hitza izateko espazioak berariaz sortu daitezke betiko inertzien esku utzi ordez; ardura-hartzeak modu orekatuan banatu,

²² Ezohiko salbuespenak egongo ziren, aparteko aleak.

gatazka eta desadostasunak kudeatzeko protokoloak garatu, elkar errespetatzeko eta iritzi eta ekarpenak berdin baloratzeko moduak ezarri.

Eta, jakitea, kanpo-faktore eragingarriak dauden arren lehen sektoreko erakundeetako erabakiguneetan emakumeen parte hartzeari forma ematen diotenak, barne-faktoreak ere badaudela, eta garrantzitsua dela horiek ere ekuazioan txertatzea. Bien arteko atzeraelikadura harremana dago, batzuek besteengan dute eragina.

Komunikazioa behar-beharrezkoa izango da soluzioak kasuan kasuko egoerei erantzuteko. Beti izango da errazagoa asmatzea galdetzen.

Berebiziko garrantzia du erabakiguneetan emakumeen presentzia areagotzea, ez bakarrik elkarren arteko aliatu posible bezala, egoteko eta izateko beste moduak identifikatzeko orduan baita. Gizonen artean denetarikoa erreferenteak daude, denetarikoa profilak: emakumeengan, sinplifikazio arriskutsu bat aplikatuz, apartekoak edo loreontziak. Askotariko traben gainetik aurrera egiten dutenak, eta egongo ez balira bezala daudenak. Eta non daude tarteko guztiak? Premiazkoa da hori aldatzea.

Historikoki, gizonek parte hartu dute, parte hartu ahal izan dutelako: beraien neurriko ordutegiak, tokiak, moduak. Ustiapeneko lanak izaten ziren kontziliatu beharrekoak. Gainerako guztia bere horretan eusten zen, ez zen bere egitekorik aurreikusten. Aldiz, historikoki, emakumeek ezin izan dute parte hartu: orain arte aipatutakoez gain, ordutegiak, tokiak, moduak ez direlako beraientzako pentsatuak izan. Ustiapeneko lanez gain, etxeko lanak, zaintza lanak, denak ziren (eta, oraindik ere zenbait kasutan dira) bere ardurako. Horregatik (ere) izan dira gauzak izan diren moduan. Ez da kasualitatea.

Eta, horregatik, emakumeen parte hartzea faboratzeko elementuen artean da hain garrantzitsua babesa: erabakiguneko gainerako kideena, forma zurrunka malgutzeko eta gaurkotzeko; erakundeko bazkideena, beraien sostengu eta baiespenarekin zilegitasuna emanez; beraien etxeko edo ingurukoena, historikoki emakumeen gain egondako arduren kudeaketarako nahitaezkoa. Gizonek ez bezala, emakumeek parte hartzeko egundoko sarea behar dute, erabakigune horietatik gaindi doana. Emakume horiek hor egoteko, emakume horiek hor egotea ahalbidetzeko egin beharrekoa egiteko prest dagoen egitura oso bat behar da. Talde lan saioetan ere hala jaso zen, norberak aurrean egoteko hautua egin arren, aurrera egiteko atzean aliatuak izatea ezinbestekoa dela. Eta, esan gabe doa, horretarako emakume horiek hor egotearen garrantzia eta beharraren kontzientzia izatea nahitezkoa dela. Bestela, sarri aurkitzen dena da aurkakotasuna, aurrez aipatutako maila guztietan.

Beharrezkoak dira emakumeen presentzia/sarrera errazteko berariazko birgaitze prozesuak, aspektu guzti horiek kontuan hartuko dituztenak.

Hala ere, nortzuk dira erakundeetako erabakiguneetara sarbidea duten emakumeak? Eta nortzuk ez dutenak?

Gaur egungo antolamendua kontuan hartuta, titulartasuna giltzarri den faktore bilakatzen da parte hartzea ahalbidetzeko orduan, horrek eskainiko baitu elkarteetan parte hartu ahal izateko giltza; eta, ondorioz, ordezkaria izan eta erabaki organoak osatzekoa. Eta ikerlanean jaso den bezala, hiru taldekatze daude titulartasuna, parte hartzeko eskubidea eta sektoreko jarduna kontuan hartuta. Horietako bakarra da zuzena: titularrak diren, parte hartzeko eskubidea duten eta sektorean diharduten emakumeek osatutakoa. Gainerako biek sistemaren disfuntzio bat

adierazten dute: batak historikoki emandako desitxuraketa jasotzen du, titularrak ez diren, parte hartzeko eskubiderik ez duten eta sektorean diharduten emakumeena; besteak desitxuraketa berria, titularrak diren, parte hartzeko eskubidea duten eta sektorean ez diharduten emakumeena.

Esan daiteke hiru talde hauen existentziaren ulermenak gaur egungo emakumeen parte hartzearen inguruko gako asko eskaini ditzakeela.

Emakume Nekazarien Estatutua sektoreko egoerari buelta emateko sortu zen: emakumeek nekazaritza-sektorean duten lan-egoera arautzeko, haien lana duintzeko, ikusarazteko eta arautzeko, ustiatzearen titulartasuna eskuratzea sustatzeko, emakume nekazarien eskubide profesionalak, sozialak eta fiskalak modu eraginkorrean gauzatzeko. Horretarako guztirako neurriak jasotzen ditu, oso-oso interesgarriak, eta, zehazki, 19. artikulua (emakumeek gizartearen eta politikan duten parte-hartzeari buruzkoa) erabakiguneetako ordezkariak orekatua ezartzen du dirulaguntza publikoak jasotzen jarraitu ahal izateko. Onartu eta 6 urtera (2021eko urriaren 22) %40ko ordezkariak ez dutenak ezin dute laguntzak jasotzen jarraitu, tipifikatuta dauden salbuespenak salbuespen.

Baina, kontuak hainbat dira. Batetik, oso tresna baliotsua izan arren ez da haren hedapen orokorturik egin erakundeetan, are gutxiago oinarrien artean. Erabakiguneetan estatutua existitzen dela ez dakiten emakumeak daude; eta existitzen dela jakin arren, gehien-gehienek ez dakite zer dion, ez da lanketarik egin, ez da bere ahalmena eta potentziala ezagutzen. Ez da tresna bezala kontuan hartzen. Eta beste muturrean daude erabakiguneetara ailegatu direnak erakundeak estatutuaren zehapenak ekiditeko, dokumentuaren lanketarik eta ezagutzarik gabe, gehienak. Lanketaren eta ezagutzaren inguruko datuak bat ez datozen arren emakumei edo erakundeetako kideei galdetuta. Bestetik, emakumeen ordezkariak hori nortzuek elikatzen dute? Titular diren emakumeek, sektorearekin harremana izan edo ez. Eta kanpoan gelditzen dira sektorean jardun arren titulartasuna ez dutenak.

Behin eta berriz jaso den kontua izan da teoriaren eta praktikaren arteko aldea. Elkarreentako bazkide-zerrendetan emakumeak badaude, baina asko ez dira bileretara bertaraten; elkarreentako erabakigune zenbaitetan ere emakumeak badaude, baina batzuk ez dira bertaraten. Horien ordezkariak senarrak, semeak, aitak, nebak. Hortaz, arau batzuk planteatzeaz gain, arau horiek betetzen direla ziurtatzeko moduak ere planteatu behar dira.

Ezinbestekotzat jotzen dute emakume askok elkartearen oinarriari buelta ematea. Elkarreentako bazkideek eratzen dute, eta horiek dira gero batzordeak osatzen dituztenak. Oinarrietan haize berririk sartu ezean, ezinezkoa da batzordeak orain arteko moduak ez diren beste batzuek elikatzea. Eta, printzipio berbera aplikatuz, oinarrietan parte hartzen duten emakume gehiago egon ezean, ezinezkoa da batzordeetan betikoak ez diren emakumeak egotea, hain onuragarria litzatekeen emakumeen arteko txandakatzeko baterako, adibidez.

Izan ere, hauteman den eraginetako bat izan da emakumeengan eragin duen presio gehigarria, gizonen kasuan existitzen ez dena. Erakundeak dirulaguntzak jasotzen jarraitzeko egon egin behar dute, bai ala bai. Eta kargua uztea erabakitzerako orduan, badakite uzten duen ardura hori ez dela gainerakoaren artean modu bertsuan banatuko, beste emakume bati tokatuko zaiola oso-osorik. Hori praktikan legea betetzen duten erakundeen kasuan. Eta, hala, emakume ugari kexu dira, kide diren elkarreentako erabakiguneetan egon behar dutelako derrigorrean, eta, gauzak aldatu ezean, egon beharko dutelako: paperean dauden emakume asko ez dituztelako inoiz ikusi, eta

nekazal-jardunean dauden beste batzuk ez dutelako sarbiderik. Fikziozko bazkideen gaia ez da samurra, praktikan existitzen ez den agertoki bat marrazten dutelako zenbakiek.

Kupo eta ehunekoena kontu arantzatsua da, aldeko eta kontrakoak dituen. Egoera zein den ikusita, une honetan, mugimendua sortzeko bide zilegia dela ikusten dute emakume batzuek, baita bestelako ahotsek tokia izan dezaten. Baina sistema horri buelta bat ematearen beharra ere nabarmendu da: erabili nahi izatekotan pizgarriak eta neurri positiboak aplikatzeko erabiltzea aldarrikatzen dute zenbaitek, neurri zigortzailea izan beharrean, beraiek ere erakunde horietako kide direlako. Beste batzuk, aldiz, bai teoriarik zein praktikan adierazle makurra dela diote: teoriarik, hori ez delako praktikaren berme; praktikan, elkarriketatutako emakume batek esan bezala, batzuetan gizon bakarra nahikoa delako erabakiguneen funtzionamendu ez berdinzalea ahalbidetzeko.

Elkarte gutxi batzuek era naturalean egin dute trantsizioa, badaude halako kasuak ere, baina askok ENERen eraginez eraldatu dute batzordearen osaketa. Eta ez beti hasierako helburuak bilatutako emaitzekin.

Oinarriekin lanketa falta nabarmendu dute bai emakumeek bai galdetegia erantzun duten erakundeetako kideek. Berdintasun gaien inguruko lanketa, emakumeen parte hartzearen behar eta onurez jabetzeko; batzuek barne eta besteak kanpo uzten dituzten moduak identifikatzeko; profil berriak erakartzeko. Hala ere, elkarteen maila guztietara hedatu beharko litzateke lanketa, emakumeen aldarriari kasu eginez. Berdintasunaren inguruko informazio eta formazioa eskaini eta jasoz gero, pausuak emango lirateke. Askok bidea hori dela dakite, baina ez dakite nola egin. Administrazioaren eragin-eremu argi bat identifikatzen da hor. Estatutuak bere baitan jasotzen du jada. Hortaz, hori aplikatzea baino ez litzateke faltako.

Bestela, sektoreko emakume askoren sentipena da bete ditzakegula formak, baina aldatu gabe fondoak. Eta nahi dena da benetan emakume horiek hor egotea, ez beraien osasun eta ongizatearen kostura. Arazoak aktore asko ditu, bada konponbideak ere aktore asko izan beharko ditu. Ezin da izan soilik emakume horien kontua.

Lanean jaso bezala badaude emakumeen eskura dauden ekintza edo neurriak. Horiez gaindi, beste batzuk daude erakunde mailan aktibatu beharrekoak. Azkenik, administrazioaren eskumenekoak. Harremanduta egon behar dira hiru eskala horietako ekimenak, engranaje bat eratu eta hala funtzionatu. Emakume askok sentitzen dute balio handiko tresna bat dagoela mahai gainean, estatutua, zeinak lanean zehar iradokitzen diren aspektu asko jasota dituen jada. Egingarri bilakatzeko baliabideak jartzea baizik ez da gelditzen.

AIPATUTAKO LANAK

- Atance Muñiz, I., & Tió Saralegui, C. (2000). La multifuncionalidad de la agricultura: Aspectos económicos e implicaciones sobre la política agraria. *Estudios Agrosociales y Pesqueros*(189), 29-48.
- Baylina Ferré, M. (1997). Metodología cualitativa y estudios de geografía y género. *Documents d'anàlisi geogràfica*(30), 123-138.
- Baylina Ferré, M. (2004). Metodología para el estudio de las mujeres y la sociedad rural. *Estudios Geográficos*, 65(254), 5-28.
- Baylina Ferré, M., & Salamaña i Serra, I. (2006). El lugar del género en la geografía rural. *Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles*(41), 99-112.
- Díez Bedmar, M. C. (2007). Las mujeres en el mundo rural. Reflexiones generales y contextualización. *Sumuntán*(24), 67-78.
- Eizagirre, M., & Zabala, N. (d.g.). *Investigación-Acción Participativa. Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*. <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/132helbidetik eskuratua>
- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. (2014). *Landa Garapeneko Programa Euskadi 2015-2020*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- EMAKUNDE. (2012). *Landa-garapena eta nekazaritza. Generoaren arabera eraginaren ebaluazioa*.
- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzako Estatistika Organoa. (2016). *Emakumeak Landa Eremuan*. Vitoria-Gasteiz: Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas, Viceconsejería de Agricultura, Pesca y Política Alimentaria y Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad. Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzako Estatistika Organoa. (2016). *Las mujeres en el sector agrario vasco: agricultoras*. Vitoria-Gasteiz: Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas, Viceconsejería de Agricultura, Pesca y Política Alimentaria y Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad. Eusko Jaurlaritza.
- Fernández Aguerri, M. J. (2002). *Retos y problemática de la mujer en el ámbito rural. El papel de las agrupaciones de este sector de población en el desarrollo rural*. Madrid: Jornada Temática sobre Políticas de relevo generacional e incorporación de la mujer al mundo rural.
- Fichas técnicas sobre la Unión Europea. (2021). *Hacia una política agrícola común posterior a 2020*. Estrasburgo: Parlamento Europeo.
- Galdós Urrutia, R., & Ruiz Urrestarazu, E. (2008). *Geografía del País Vasco*. Donostia: Nerea.

- García Bartolomé, J. M. (1999). Mujeres rurales, sociedad civil y desarrollo rural. J. M. García Bartolomé en, *Mujeres y sociedad rural: entre la inercia y la ruptura*. Madrid: Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación.
- García Yepes, J., & Rodríguez Rojas, P. (2018). Teoría fundamentada: ni teoría, ni fundamentada. *RES, Revista de Educación Social*(26), 160-176.
- IKT. (2011). *Las mujeres en el entorno rural*.
- Martínez León, I. M., & de Miguel Gómez, M. D. (2006). La importancia de la mujer en el medio rural español. (or. 23-24). VI Coloquio Ibérico de Estudios Rurales.
- Martínez León, I. M., & de Miguel Gómez, M. D. (2006). *La importancia de la mujer en el medio rural español*. Ponencia presentada en el VI Coloquio Ibérico de Estudios Rurales.
- Martínez León, I. M., Navarro Ríos, M. J., Martí de Olives, A., & de Miguel Gómez, M. D. (2009). El papel de la mujer, clave para un desarrollo rural sostenible. J. Aznar Márquez, A. Martí de Olives, M. J. Navarro Ríos, & A. Téllez Infantes en, *Desarrollo y trabajo de las mujeres en el medio rural* (or. 13-51). Madrid: Icaria.
- McDowell, L. (1992). Doing gender: feminism, feminists and research methods in human geography. *Transactions of the institute of British Geographers*, 399-416.
- Millán Jiménez, M. A. (2002). *Las mujeres en la agricultura y la ganadería*. Madrid: Jornada Temática sobre Políticas de relevo generacional e incorporación de la mujer al mundo rural.
- Ministerio de Medio Ambiente y Medio Rural y Marino. (2011). *Diagnóstico de la Igualdad de Género en el Medio Rural*. Madrid: Ministerio de Medio Ambiente y Medio Rural y Marino.
- Muñiz Espada, E. (2002). *Relaciones entre las experiencias agrarias y el mundo rural a través de la actividad de las mujeres*. Madrid: Jornada Temática sobre Políticas de relevo generacional e incorporación de la mujer al mundo rural.
- Murua Múgica, J. R., Eguia Peña, B., Malagón Zaldúa, E., & Albiac Murillo, J. (2006). *Coste de la no agricultura en el País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Pérez Serrano, M. (2011). Nuevos escenarios de formación laboral para alumnos con discapacidad intelectual. *endencias pedagógicas*(18), 173-206.
- Rodríguez Palacios, A., & VVAA. (2021). Las mujeres y el desarrollo rural: una aproximación con perspectiva de género. *19th International Congress on Public and Non-Profit Marketing. SUSTAINABILITY: NEW CHALLENGES FOR MARKETING AND SOCIOECONOMIC DEVELOPMENT (SAMPLE)*. Ponferrada: INTECCA-UNED.
- Sabaté Martínez, A. (1989). Geografía y género en el medio rural: algunas líneas de análisis. *Documents d'anàlisi geogràfica*(14), 131-147.
- Salgado Lévano, A. C. (2007). Investigación cualitativa: diseños, evaluación del rigor metodológico y retos. *Liberabit*, 13(13), 71-78.

- Sampedro Gallego, M. R. (1996). Mujer y ruralidad: Un análisis de las relaciones de género desde la perspectiva del hábitat. M. García de León, & F. y. Ortega en, *Sociología de las mujeres españolas* (or. 137-158). Madrid: Editorial Complutense.
- Sampedro Gallego, M. R. (1999). Las mujeres rurales ante el reto de la desagrarización. AA.VV. en, *Mujeres y Sociedad Rural. Entre la inercia y la ruptura*. Madrid: Instituto de la Mujer - Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.
- San Martín Cantero, D. (2014). Teoría fundamentada y Atlas. ti: recursos metodológicos para la investigación educativa. *Revista electrónica de investigación educativa*, 16(1), 104-122.
- Silva Pérez, R. (2010). Multifuncionalidad agraria y territorio. Algunas reflexiones y propuestas de análisis. *EURE*, 36(109), 5-33.
- Urkidi Azkarraga, L. (2018). Espacios agrarios y justicia de género: un caso de estudio en el País Vasco. *Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles*(78), 359-391.
- Vicente-Mazariegos, J. (1989). Las mujeres en la agricultura europea: elementos para su estudio sociológico. *Agricultura y sociedad*(51), 205-228.

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

4419

8/2015 LEGEA, urriaren 15ekoa, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak 8/2015 Legea, urriaren 15ekoa, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzkoa onartu duela jakinarazten zaie euskadiko herritan guztiei.

ZIOEN AZALPENA

Emakume nekazarien estatutu bat onartzeko arrazoia da emakumeek nekazaritzaren sektorean jasaten duten bereizkeriari aurre egiteko beharra: batik bat, profesionaltzat joak eta gizartean aintzat hartuak izateari dagokionez, bai eta beren eskubide profesional, sozial eta fiskalak egiaz gauzatzeari dagokionez.

Estatutu honen abiapuntuan emakume nekazarien eskubideak daude, eta eskubide horiek egiaz gauzatzea bermatzeko herri-administrazioek dituzten betebeharrak zehazten ditu. Hortaz, lege honek beharrezko neurriak jasotzen ditu nekazaritzaren sektorean emakumeek eta gizonen tratua eta aukera berberak izatea lortzeko eta genero-ikuspegia sektorearen arlo guztietan sartzeko, emakumeen eta gizonen baldintzak eta beharrak diferenteak izaki.

Historian zehar emakumeek jasan duten bereizkeria islatu egiten da emakume nekazari askoren egungo egoeran. Ustategien titularrak diren emakumeen proportzioa handitu egin bada ere, proportzioa desorekatua da oraindik. Ustategien titularrak diren emakumeen proportzioa ez dator bat emakumeek haietan egiaz egiten duten lanarekin; izan ere, askotan, lan horiek guztiz ikusezinak bihurtarazi dira. Emakume nekazariak ustategien titulartasuna eskura dezaten sustatzea da lege honen lehentasunetako bat, haien lana ikusarazteko eta haiek lan horren ondorio diren eskubide guztiak lortu ahal izateko. Lege honek hartzen duen beste esparru bat nekazaritza-ustategietan kontratatzen diren pertsonena da; izan ere, sektore horretan, emakumeen kontratazioa gizonena baino txikiagoa da nabarmen.

Baserritar gazteen egoerari dagokionez, desberdintasunak agertzen dira oraindik sexuen artean; izan ere, gazteen esku dauden ustategietan, titularrak diren emakumeen ehunekoa gizonena baino askoz txikiagoa da. Beharrezkoa da, beraz, neurriak hartzea, emakume eta gizon gazteen arteko egiazko berdintasuna sustatzeko eta emakume gazteek lan-aukerak izateko, hala nahi badute landa-inguruneetan jarraitu ahal izan dezaten eta belaunaldi arteko ordezkatzeko erdietsi.

Jardueraren neurri ekonomikoa zenbat eta handiagoa izan, emakumeek hartzen dituzten erabakien ehunekoa txikiagotu egiten da. Nekazaritzaren arloko erabaki-organoetan emakumeek duten parte-hartzea gizonena baino askoz txikiagoa da: agerikoa da, alde horretatik, bermatu egin behar dela emakume nekazariak erabaki-organoetan presentzia izatea eta parte hartzea. Esparru publikoan duten partaidetzan emakumeek jasaten dituzten desberdintasunei aurre egitea ezinbestekoa da, nekazaritzaren sektorean emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasuna erdiesteko.

Zereginak banatzeko ohiko ereduak desberdintasun handiak sortzen ditu emakumeen eta gizonen artean; eta hori azpimarratu beharreko beste alderdi bat da, emakumeak lan-merkatuan sartzea ez dadin izan lan-zama gehigarri bat, kasu askotan emakumeek ia osorik hartu dituzten etxeko lanak eta zainketa-lanak partekatu ezin dituztelako. Etxeko lanari eta zainketa-eginkizunei

gizonek eskaintzen dieten denboraren bikoitza baino gehiago eskaintzen diete emakumeek. Aitzitik, emakumeek gizonek baino askoz ere denbora gutxiago daukate aisialdirako.

Beste alde batetik, nekazarien laneko arriskuen prebentzioa gizonezkoen osasunari kalte egin diezaioketen alderdietan oinarritu da beti, gero emakumeengan eta gizonengan dituzten ondorioak orokortuz. Hala ere, lan-merkatuan sexuen artean dagoen lan-bereizketa handiaren ondorioz, emakumeak eta gizonak lan-ingurune diferenteetan aritzen dira, tentsio mota diferenteekin, baita sektore berean eta lanbide berean ere. Hori dela eta, emakumeen eta gizonen osasunaren gaineko faktore bereizgarriak aintzat hartu behar direla proposatzen da, eta nekazaritzako lanean emakumeen osasuna bermatzeko neurri egokiak hartu behar direla.

Azkenik, emakume nekazarien eta gizon nekazarien arteko egiazko berdintasuna lortzeko beste ezinbesteko zeregin bat da dagozkion neurri guztiak abiaraztea nekazaritzaren arloan gertatzen diren sexu-jazarpen eta jazarpen sexista kasuei aurre egiteko, kontuan izanda arlo horretako jazarpenen ezaugarri bereziek berariazko tratamendu bat eskatzen dutela.

Emakume Nekazarien Estatutu honek ez dauka aurrekaririk araudian, nahiz eta estatutuak lantzeko gomendioak eta baita aginduak ere ugari izan. Hala, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 157. artikuluko 4. paragrafoan adierazten denez, estatu kideek neurriak manten edo har ditzakete, abantaila zehatzak eskaintzeko, ordezkaritza txikiena duen sexuak autonomo-jarduerak egiteko erraztasuna izan dezan, edo sexu horretako pertsonak lanbide-karreran dauzkaten desabantailak saihestu edo orekatu daitezen.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko uztailaren 7ko 2010/41/EB Zuzentarauak, autonomo-jarduera bat egiten duten gizonen eta emakumeen artean tratu berdinarekin printzipioa ezartzei buruzkoak, esparru bat finkatzen du autonomo-jarduera bat egiten duten edo horrelako jarduera bat egiten laguntzen duten gizonen eta emakumeen artean tratu berdinarekin printzipioa betetzeko estatu kideetan.

Aipatzekoak dira, orobat, Kontseiluaren 1978ko abenduaren 19ko 79/7/EEE Zuzentzaria, gizarte-segurantzaren gaian gizonen eta emakumeen arteko tratu berdinarekin printzipioa progresiboki ezartzei buruzkoa, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko uztailaren 5eko 2006/54/EE Zuzentzaria, enplegu- eta langintza-gaietan gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren eta tratu berdinarekin printzipioa ezartzei buruzkoa.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1305/2013 Erregelamenduak, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren bitartez landa-garapenean laguntzei buruzkoak, estatu kideei aukera ematen die landa-garapenerako programen bamean azpiprograma tematiko batzuk sartzeko, landa-eremuko emakumeen berariazko beharrei helduko dietenak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezartzen ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren gaian botere publikoek euren jardunean erabili beharreko printzipio orokorrak; halaber, neurri batzuk arautzen ditu lege horretan, bizitzako esparru guztietan emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna eta tratu berdina sustatu eta bermatzeko, eta, bereziki, emakumeen estatus sozial, ekonomiko eta politikoa indartzeko eta haien autonomia bultzatzeko. Horren guztiaren azken xedea da berdintasunezko gizarte bat lortzea, bertan pertsona guztiak aske izan daitezen, bai esparru publikoan eta bai pribatuan, sexuaren arabera ohiko roletan ezarritako mugarik gabe beren gaitasun pertsonalak garatzeko eta erabakiak hartzeko, eta gizarte horretan emakumeen eta gizonen jokaerak, asmoak eta beharrak berdin kontuan izateko, balioesteko eta bultzatzeko.

4/2005 Legearen printzipioen artean daude: tratu berdina –bereizkeriaren debekutzat hartuta–, aukera-berdintasuna, aniztasuna eta diferentzia errespetatzea, genero-ikuspegiaren integrazioa, ekintza positiboa, sexuaren arabeko rolak eta estereotipoak desagerraraztea eta ordezkariak orekatua erabakiak hartzeko eremu guztietan.

Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legeak, berriz, emakume nekazariari babes irmo eta erabakia eskaintzen die, eta lehentasunez nahi ditu lagundu eta sustatu. Hala, 75. artikulua emakume nekazarien estatutu bat egiteko agintzen du eta emakumeei begira sustatu beharreko ekintza positiboak zerrendatzen ditu. Era berean, helburuen artean dago «emakumeei nekazaritzan eta elikagaigintzan egiten duten lana aintzatestearen alde egitea, sektorean jarrai dezaten laguntzea, eta beren bidea baldintza berdinetan gara dezaten laguntzea; halaber, elkarte eta taldeetan sar daitezen bidea erraztea».

Nekazaritza-ustategien titulartasun partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legeak figura hori arautzen du, landa-eremuan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna sustatzeko eta laguntzeko, emakumeei nekazaritza-jardueran duten parte-hartzearen aintzatespen juridiko eta ekonomikoaren bidez. Lege horretan, titulartasun partekaturik ez dagoen kasurako, ezkontidearen edo antzeko afektibotasun-harreman batez lotutako pertsonaren alde sortutako eskubide ekonomikoak arautzen dira, nekazaritza-ustategiaren titularren aurrean, ustategiaren egiaz egindako ohiko nekazaritza-jardueraren kontraprestazio gisa.

Estatutuak hogeita hamaika artikulua ditu, hiru xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bost azken xedapen. Sei titulutan egituratuta dago: xedapen orokorrak, nekazaritza-ustategien titulartasuna, emakumeen ordezkariak sektorean, gizarte-eskubideak, haien lana aintzatestea eta ikusaraztea eta, azkenik, estatutuaren segimendu-batzordea.

I. tituluan, xedapen orokorreari buruzkoan, estatutuaren xedea eta oinarrian dituen printzipioak definitzen dira. Orobat, definizioak dituen artikulua bat dago: horietako batzuk kontzeptu orokorrak arau honen esparrura moldatzeko dira; eta gainerakoetan, beste arau batzuetan definituta dauden kontzeptuak bildu dira, testu hau errazago ulertu eta erabiltzeko.

II. titulua emakumeei nekazaritza-ustategien titulartasuna eskuratzearen ingurukoa da. Emakume nekazariak titulartasuna eskuratzea sustatzeko neurriak jasotzen ditu. Titulartasun partekatua figura garrantzi handiko tresna izatera deitua dago, nekazaritzaren sektorean emakumeen eta gizonen arteko benetako eskubide-berdintasuna lortzeko; estatutu honek sustatzen du, bizikidetzaren unitateko kide biek lana ustategirako egiten dutenean, ustategiaren titulartasun-arau bide horri heldzea, laguntzak ematean eta esleipenak egitean ustategi horiek lehenetsiz, bai eta emakume nekazariak Gizarte Segurantzaren afiliatzeko laguntzak finkatuz.

III. titulua emakumeei nekazaritzaren sektorean dagokien ordezkariaren ingurukoa da. Hor, esku hartzeko hiru arlo nabarmentzen dira, tratu berezia ematen zaienak: Administrazioa eta haren enpresak; profesionalen erakundeak eta elkarteak, eta enpresa pribatuak. Hirurek izendatzaile komun bat dute: emakumeei nekazaritza-politikan parte hartzeko duten eskubidea gauzatzea eta emakumeak baliozko solaskidetzat hartzea haien interesak eta beharrak ordezkatzeko dituzten politikak bultzatzeko lanean. Arlo horiek diferente tratatuko dira; batetik, epe diferenteetan lortzeko modukotzat jotzen diren helburuengatik, eta bestetik, eta batez ere, helburu horiek lortzeko erabili nahi diren neurriengatik. Legeak helburu batzuk finkatzen ditu, eta epe batzuk ezartzen; epe horiek bukatzean, helburuak bete diren ebaluatu beharko da.

IV. tituluan, gizarte-eskubideei buruzkoan, lan-arlo batzuk azpimarratzen dira; beren berezitasunagatik nekazaritzaren sektorean berariazko tratamendua ezarri behar zaiela pentsatzen da. Horrela da ardura partekatuko kontziliazioari dagokionez, nekazaritza-jarduera ziurtatuko duten

programak bermatzeko; edo emakumeen aurkako indarkeriaren edo jazarpenaren arazoei dago-kienez, sektore horretan ingurune itxiago eta bakartuago batean gertatzen baitira eta horrek zaildu egiten baitu prebentzioa eta arreta.

V. tituluaren helburua da nekazaritzaren sektorean emakumeek egin eta egiten duten lana ikusaraztea eta aintzatestea. 4/2005 Legean ezarritakoa bildu eta sektore horretara moldatzen du, emakumeak bereziki ikusezin izan diren sektore batean haien lanaren errealitatea beti kontuan izango dela ziurtatzen saiatzeko.

VI. tituluari, azkenekoan, lege honetan xedatutakoa betetzen den egiaztatzeko segimendu-batzordea sortzen da. Izaera teknikoa eman nahi izan zaio; horrela, kargu publikodun bakarra dago harentzat ezarritako osakeran, landa-garapeneraren gaian eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzako titularrak, eta kasu horretan, gainera, eskuordetzea aurreikusten da. Irizpide tekniko berarekin, ebaluazioak egin eta txostenak lantzeko zeregin zehatzak esleitzen zaizkio batzordeari.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.— Xedea.

Lege honen xedeak hauek dira: nekazaritzaren sektorean emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa betetzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean jasotako printzipioetan aurrera eginez, eta emakume nekazariak beren eskubideak egiaz gauzatuko dituztela bermatzea, haien autonomia sustatzeko eta gizartean, ekonomian eta politikan duten tokia indartzeko, beren jardura ahalik eta profesionaltasun-, duintasun- eta segurtasun-berme handienekin egin dezaten, emakumeek sektore horretan jasaten duten bereizkeriari aurre eginez.

2. artikulua.— Printzipioak.

Lege honen printzipioak dira tratu berdina, emakumeentzako ekintza positiboa eragotzi gabe, aukera-berdintasuna eta genero-ikuspegiaren integrazioa.

3. artikulua.— Tratu berdina.

1.— Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren arloko administrazio, enpresa edo erakundeen aldetik, zuzeneko zein zeharkakoa, edozein delarik ere hartarako erabilitako era.

2.— Ez dira sexuagatiko bereizkeriatzat jotzen, emakumeak eta gizonak diferente tratatzea planteatzen badute ere, justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa duten neurriak. Horien artean sartzen dira honako hauetan oinarritzen direnak: emakumeentzako ekintza positiboa, arrazoi biologikoen-gatik sexu bateko pertsonen babes berezia emateko beharra, edo gizonak etxeko lanetan eta pertsonen zainketan sar daitezzen bultzatzea.

3.— Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek ez diete inolako laguntza edo diru-laguntzarik emango sexuagatik diskriminatzaileak diren jarduerari; ez eta pertsona fisiko edo juridikoei ere, baldin eta sexuagatiko bereizkeriagatik zehapen administratibo edo penalez zigortu badituzte, zigorrean ezarritako aldiak irauten duen bitartean.

4.— Debekatu egiten zaie nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen diru-laguntza eta laguntzen deialdietan parte hartzea, dagokion zigorra indarrean dagoen bitartean, sexuagatik egindako bereizkeria dela-eta zehapen administratibo edo penala

jaso duten pertsona fisiko edo juridikoei eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea betez debeku horrekin zigortutakoei.

4. artikulua.— Ekintza positiboa.

Nekazaritzaren sektorean emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lor dadin sustatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek aldi baterako berariazko neurriak hartu behar dituzte, sektore horretan dauden sexuagatiko desberdintasunak deuseztatu edo murrizteko. Halaber, aukerak ahalbidetuko zaizkio emakumeari, nekazaritza-jardueran eta landa-inguruneetan jarraitu ahal dezan, hala nahi badu; horretarako, zenbait ekintza eta laguntza sustatuko dira, eta horien artean garrantzizkoak izango dira Gizarte Segurantzaren afiliatzea erraztera zuzenduak.

5. artikulua.— Aukera-berdintasuna.

1.— Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek dagozkion neurriak hartu behar dituzte, bermatzeko nekazaritzaren sektorean emakumeek eta gizonen egiaz gauzatzen dituztela, berdintasunean, eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak.

2.— Aukera-berdintasuna ulertu behar da ez bakarrik boterea eta baliabide zein onurak eskuratzeko abiapuntuan edo hasieran dauden baldintzei buruz, baita horiek egiaz gauzatu eta kontrolatzeko baldintzei buruz ere.

3.— Halaber, nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek bermatuko dute eskubideak egiaz gauzatzen direla eta lege honetan araututako baliabideak eskuragarri daudela.

4.— Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek ez diete emango laguntzarik edo diru-laguntzarik pertsona juridikoei, baldin eta III. tituluan ezarritako ordezkaritza-baldintzak titulu horretan jarritako eran betetzen ez badira.

6. artikulua.— Genero-ikuspegiaren integrazioa.

Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, beharrezkoa baita emakume nekazariak profesionaltzat hartzea eta haiek beren eskubide profesional, sozial eta fiskalak egiaz gauzatzea, eta, horrenbestez, politika guztietan ezarriko dute nekazaritzaren sektorean emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak deuseztatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburu orokorra.

7. artikulua.— Definizioak.

1.— Emakume nekazaria: urteko errentaren % 50, gutxienez, nekazaritza-jardueretatik edo nekazaritza-jarduera osagarrietatik lortzen duena; betiere, ustiatagirako egindako nekazaritza-jardueratik zuzenean lortutako errenta ez bada guztizko errentaren % 25 baino txikiagoa, eta nekazaritza-jardueretan edo nekazaritza-jarduera osagarrietan lanean emandako denbora, berriz, nekazaritza-laneko unitateen arabera, lanean guztira eman duen denboraren erdia baino gehiago bada.

2.— Zuzeneko bereizkeria: egoera horretan, pertsona bati ematen zaion, eman zaion edo eman dakioken tratua ez da antzeko egoera batekoa bezain egokia, sexuagatik edo zuzenean sexuarekin lotutako inguruabarrengatik, hala nola diren haurdunaldia edo amatasuna.

Zuzeneko bereizkeriatzat joko da, era berean, beren edukian edo aplikazio praktikoan negatiboki emakumeei bakarrik eragiten dieten irizpideak edo ohiturak sartzea.

3.– Zeharkako bereizkeria: egoera horretan, neutroa dirudien xedapen, irizpide edo ohitura batek sexu jakin bateko pertsonak desabantaila-egoera berezian jartzen ditu beste sexuko pertsonen aldean, xedapen, irizpide edo ohitura hori bidezko helburu batekin objektiboki justifikatzerik egon gabe eta helburu hori lortzeko bitartekoak egokiak eta beharrezkoak izan gabe.

4.– Bereizkeria anizkoitza: egoera horretan, bereizkeria-faktore bat edo batzuk gehitzen zaizkio sexuari, kasu zehatz batean, eta hesi edo zailtasun bat sortzen dute, lehendik dagoenaz gain; edo, bestela, hainbat bereizkeria-faktorek, besteak beste sexuak, elkarreragina dute aldi berean, eta berriazko bereizkeria-modu bat sortzen dute.

5.– Ordezkaritza orekatua: lau lagun baino gehiagoko kide anitzeko organoetan, ordezkariitza orekatua dago baldin eta sexu bakoitzak % 40ko ordezkariitza badu gutxienez; lau lagun edo gutxiagoko kide anitzeko organoetan, bi sexuak ordezkariitza daudenean. Sozietate zibiletan, merkataritza-sozietateetan eta kooperatiba-sozietateetan, sexu bakoitzaren esku dauden partaidetza sozialen edo botoen ehuneko edo kopuruaren arabera neurtuko da ordezkariitza.

8. artikulua.– Emakume nekazarien aniztasuna.

Emakume nekazarien egoera diferenteak –zeinahi delarik ere horien arrazoiak: jatorri etnikoa, arraza, erlijioa, iritzia, gutxiengo nazional batekoa izatea, hizkuntza, jaiotza, adina, desgaitasuna, sexu-joera, ondarea edo beste baldintza pertsonal edo sozialen bat– aintzat hartuko dituzte nekazaritza-gaia eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek beren jarduketan guztietan.

9. artikulua.– Bereizkeria anizkoitza.

Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak emakumeen aurkako bereizkeria anizkoitzeko kasuez arduratuko dira, bereizkeria hori zein kasutan gertatzen den zehazteko beharrezko azterketak egingo dituzte eta enplegu eta zerbitzu-eskaintzako beren politikak egoera horiei erantzunez landuko dituzte.

II. TITULUA

TITULARTASUNA ETA TITULARTASUN PARTEKATUA NEKAZARITZA USTIATEGIETAN

10. artikulua.– Titulartasuna lortzeko eskubidea.

1.– Emakume nekazariak eskubidea dute, gizon nekazarien baldintza berberetan, nekazaritza-ustategiaren titulartasuna eta horrek dakartzan onura eta eskubide guztiak lortzeko.

2.– Aurreko 7.1 artikuluan definitu den erako emakume nekazari batek lana egiten duen ustategiak legezko figura bati lotu beharko zaizkio, dela titulartasun fisikoa edo dela elkartze bidezko titulartasuna, eta haren bidez posible izan beharko da lortzea emakume nekazaria titular izateak, ikusarazteak eta ahalduak dakartzan eskubideak. Lorbide hori ez zaie aplikatuko ustategian lana besteren kontura egiten duten emakume nekazariak, ez eta ustategian kontratatutako emakume profesional autonomoak ere.

3.– Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek bultzatuko dute emakumeek ustategien erregistro-titulartasuna lortzea, bai eta haien ustategiari dagozkion laguntzen, ordaintzen, ekoizpen-eskubideen, sarien, kuoten edo antzeko eragina duten beste neurri batzuen titulartasuna ere.

11. artikulua.— Titulartasun partekatuaren baldintzak.

1.— Estatutu honen ondorioetarako, titulartasun partekatuko nekazaritza-ustategiak hauek dira: nekazaritza-ustategia batera kudeatzeko, emakume baten eta ezkontidearen edo antzeko afektibotasun-harreman batez lotutako pertsonaren artean eratzen direnak.

2.— Nekazaritza-ustategia titulartasun partekatuaren araubidean duten titularrek nekazaritza-ustategien titulartasun partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legean edo hura ordeztzen duen arauan ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

3.— Ustategi horien zerga-araubidea Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lurralde historikoetako foru-erakundeek finkatuko dute.

12. artikulua.— Titulartasun partekatuaren araubidea.

1.— Ustategiaren ordezkaritza, administrazioa eta erantzukizuna bi titularrei egokituko zaie, urriaren 4ko 35/2011 Legean adierazten den bezala.

2.— Titulartasun partekatuko ustategi bat izendatzen bada entitate, kooperatiba, eraldaketarako nekazaritza-sozietate edo antzeko erakunde baten administrazioa, ustategiaren bi titularrek bietako bat izendatu beharko dute elkarren artean administrazio-kargu horretarako, bertako jarduerak pertsonala izan behar badu.

3.— Ustategiak sortzen dituen mozkinak urriaren 4ko 35/2011 Legeak adierazitakoaren arabera banatuko dira.

4.— Indarreko araudian jasota dauden eta ustategiari dagozkion laguntza, ordainketa, eskubide, kuota edo bestelako neurri baliokideak erdizkan esleituiko zaizkio titular bakoitzari.

5.— Esleipenaren ondoren, aurreko paragrafoetan aipatutako diru-sarreraren araubidea bikotearen itunetan edo ezkontza-itunetan xedatutakoa izango da, edo, bestela, dagokien ekonomia-araubidea.

13. artikulua.— Titulartasun partekatuaren erregistroa.

1.— Titulartasun partekatuaren araubidea duten ustategiek Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Ustategien Erregistroan utzi beharko dute jasota egoera hori.

2.— Bikoteko kide biak agertu beharko dira ustategiaren titular gisa erregistroan.

3.— Inskripzioa nekazaritza-ustategien titulartasun partekatuari buruzko urriaren 4ko 35/2011 Legean xedatzen den bezala egingo da.

14. artikulua.— Zabalkunde-neurriak.

Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek informazio-, zabalkunde- eta sentsibilizazio-kanpainak egingo dituzte emakumeek titulartasuna eta titulartasun partekatua lortzearen inguruan.

15. artikulua.— Laguntzak eta diru-laguntzak.

Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen laguntza eta diru-laguntzei buruzko arauetan, emakume nekazarien titulartasunari emango zaio lehentasuna, betiere Europar Batasuneko araudiak debekatzen ez badu. Leheneste hori honela egingo da:

a) Aurkeztutako eskaerak erkatu egiten diren prozeduretarako balioespen-irizpideetan, puntuazio bat finkatuko da, lor daitekeen gehieneko kopuruan gutxienez % 15 izango dena, titulartasun

mota hauek dituzten ustiategientzat: emakume baten titulartasuna; edo titulartasun partekatua; edo emakumeen esku dauden partaidetza sozialak edo ehunekoa gutxienez % 50 diren pertsona juridikoarena, kideak bi badira; edo gutxienez orekatua, gainerako kasuetan.

b) Diru-laguntzaren xedea jarduera bat egite hutsa denean, zenbateko bat finkatuko da, orokorrean ezarritakoa baino % 10-20 handiagoa, titulartasun mota hauek dituzten ustiategientzat: emakume baten titulartasuna; edo titulartasun partekatua; edo emakumeen esku dauden partaidetza sozialak edo ehunekoa gutxienez % 50 diren pertsona juridikoarena, kideak bi badira; edo gutxienez orekatua, gainerako kasuetan.

c) Eskaerak erkatu ez arren aurrekontuko partida agortzen denerako hainbanaketa aurreikusten den kasuetan, aurreko idatzi-zatian aipatutako ustiategiek zenbateko osoa jasoko dute, hainbatu gabe.

d) Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen laguntza eta diru-laguntzei buruzko arauetan hainbanatzea edo eskaerak erkatzea xedatzen ez denean, kuantifikazio-irizpideetan titulartasun mota hauek finkatuko dira, laguntza eskatzen duen ustiategiarentzat: emakume baten titulartasuna; edo titulartasun partekatua; edo emakumeen esku dauden partaidetza sozialak edo ehunekoa gutxienez % 50 diren pertsona juridikoarena, kideak bi badira; edo gutxienez orekatua, gainerako kasuetan.

16. artikulua.— Esleipenak eta bestelako neurriak.

1.— Kuota-esleipenez, nekazaritza-lurren funtsetako lursailak esleitzeaz, lantzeko administrazio-baimenaz eta antzekoez erabakiak hartzean, lehentasuna emango zaie titulartasun mota hauek dituzten ustiategien eskaerei: emakume baten titulartasuna; edo titulartasun partekatua; edo emakumeen esku dauden partaidetza sozialak edo ehunekoa gutxienez % 50 diren pertsona juridikoarena, kideak bi badira; edo gutxienez orekatua, gainerako kasuetan.

2.— Aurreko paragrafoan aipatutako ustiategiek lehentasuna izango dute nekazaritza-politika erkideko diru-laguntzak eskuratzeko, baldin eta ekarpenak egin badizkiete beren urteko errentetan izandako murriztapen nabarmenagatik konpentsazioa eskaintzen duten mutualitateei edo errentak egonkortzeko beste tresna batzuei eta bestelako uzta-aseguruei eta baldin diru-laguntzak halako ekarpenak finantzatzeko badira.

3.— Nekazaritzako elikagaien sektoreko eta landa-inguruneen enpresa-jarduerari laguntzeko neurrietan, lehentasuna emango zaie emakumeek sustatutako proiektuei, baldin eta aipatutako jardueretako proiektuen mota berekoak badira eta laguntza jasotzeko beste eskakizunak betetzen badituzte.

17. artikulua.— Emakumeak Gizarte Segurantzaren afiliatzera bultzatzea.

1.— Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek laguntza-programak finkatuko dituzte lana nekazaritzaren sektorean egiten duten emakumeak nekazarien Gizarte Segurantzaren afiliatzeko.

2.— Programa horiek aplikatuko zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoan dauden nekazaritza-ustiategien titularrak nahiz titularkideak diren emakumeei, baldin eta norberaren konturako langileen edo autonomoen araubide berezian sartzen badira, Gizarte Segurantzako nekazaritzako norberaren konturako langileen sistema bereziaren bitartez, edo une jakin batean dagokien araubidean: bereziki, Gizarte Segurantzaren sarteak erretiro-pentsioa jasotzeko eskubiderik ez diela sortuko kalkulatzeko denean.

III. TITULUA

EMAKUMEEN ORDEZKARITZA NEKAZARITZAREN SEKTOREAN

18. artikulua.— Sektore publikoan parte hartzea.

1.— Pertsona batzuk hautatu eta izendatu behar direnean Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten eta nekazaritzaren arloan zuzeneko eskumenak dituzten entitate guztien zuzendaritza-organoak eratzeko edo horietan kide izateko, emakumeen eta gizonen arteko ordezkaritza orekatua mantenduz hautatu eta izendatuko dira, salbu eta arrazoi oinarritun eta objektiboak badaude eta arrazoi horiek behar besteko zioen bidez azaldu badira.

2.— Laguntzen eta diru-laguntzen eskaerak balioetsi behar dituzten ebaluazio-epaimahaiek eta batzordeek osaera orekatua eduki behar dute emakume eta gizon kopuruan, salbu eta arrazoi oinarritun eta objektiboak badaude eta arrazoi horiek behar besteko zioen bidez azaldu badira.

3.— Sektore publikoa partaide duten nekazaritzaren arloko entitateetako zuzendaritza-organoak eratzeko edo horietan kide izateko pertsonak izendatu behar direnean, emakumeen eta gizonen arteko oreka mantenduz izendatuko dira. Sektore publikoa partaide duten entitateetat jotzen dira Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren xedapen gehigarri bakarrean zehaztuta daudenak, martxoaren 1eko 6/2012 Legeak emandako idazkeraren arabera.

19. artikulua.— Parte-hartze sozial eta politikoa.

1.— Emakume nekazariak baliozko solaskidetzat hartuak izateko eskubidea dute haien interesak eta beharrak ordezkatzeko dituzten politikak bultzatzean, autonomia susta dadin eta haien maila sozial, ekonomiko eta politikoa indar dadin.

2.— Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek sustatuko dute emakumeen presentzia gutxienez orekatua izan dadin nekazaritzaren arloan jarduten duten profesionalen, enpresen, sindikatuen edo bestelakoen elkarte eta erakundeek zuzendaritza-organoetan. Horretarako, elkarte eta erakunde horiei zuzendutako berariazko pres-takuntza-planak martxan jarriko dituzte.

3.— Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek ez diete ez laguntzarik ez diru-laguntzarik emango nekazaritzaren arloan jarduten duten profesionalen, enpresen, sindikatuen edo bestelakoen elkarte edo erakundeei, baldin zuzendaritza-organoetan emakumeen presentzia gutxienez orekatua ez badute. Estatutu honen bigarren xedapen gehigarrian adierazten den bezala ezarriko da neurri hori.

4.— Segimendu-batzordeak salbuespenak jarri ahal izango ditu; horrela, eskaerak balioesteko ardura duen administrazio-organoak estatutu honek finkatutako emakumeen partaidetza ezin dutela bete egiaztatzen duten elkarte eta erakundeek kasuak segimendu-batzordeari igorriko dizkio, eta segimendu-batzordeak aztertu egingo ditu eta irizpena igorriko dio eskaerak balioesteko ardura duen administrazio-organoari. Ezinezkoa dela ulertuko da, baldin eta elkarteko edo erakundeko emakumeen kopurua txikiagoa bada presentzia orekatua izateko ordezkaritza-organoetan parte hartu beharko luketenen bikoitza baino.

20. artikulua.— Emakumeen sustapena eta inoren konturako enplegua nekazaritzaren sektorean.

1.— Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen laguntza eta diru-laguntzei buruzko arauetan sistema bat finkatuko da, norgehiagoka-prozeduretarako,

publikotasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioak errespetatuz sektoreko enpresek emakumeen kontratazioari eta sustapen profesionalari lehentasuna emateko.

2.– Kasu horietan, emakumeei gutxienez enpleguen % 40 ematen dieten enpresentzat, balioespen-irizpideen artean puntuazio bat ezarriko da egitate horregatik, lor daitekeen gehieneko puntuazioaren % 15 gutxienez izango dena.

3.– Eskaerak erkatu ez arren aurrekontuko partida agortzen denerako hainbanaketa aurreikusten den kasuetan, aurreko paragrafoan aipatutako enpresek zenbateko osoa jasoko dute, hainbanatu gabe.

4.– Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen laguntza eta diru-laguntzei buruzko arauetan eskaerak erkatzea edo hainbanatzea xedatzen ez denean, balioespen-irizpideetan finkatuko da enpresa eskatzaileek gutxienez enpleguen % 40 emakumeei eman behar dietela.

5.– Aurreko paragrafoetan aurreikusitako lehentasunak ez zaizkie aplikatuko enpresei, zuzendaritza-organoetan emakumeen partaidetzak gutxienez proportzio orekatua ez badu.

21. artikulua.– Hitzarmenak.

Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek izenpetutako hitzarmenen klausuletan konpromiso bat sartuko da emakumeek entitate sinatzaileen jardute-eremuan eta haien erabaki-organoetan parte hartzea sustatzeko.

IV. TITULUA

GIZARTE ESKUBIDEAK

22. artikulua.– Ardura partekatuko kontziliazioa.

1.– Lana nekazaritzaren sektorean egiten duten pertsonen amatasunaren eta aitatasunaren ondorio diren eskubideak babestu egingo dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek, halako eran non, haurdunaldiagatik, edoskitzaroagatik edo seme-alaben zainketagatik nekazaritza-jarduera eten behar denean, lurraldean dauden ordezkapen-zerbitzuak edo gizarte-zerbitzuak erabili ahal izango baitituzte.

2.– Aldi baterako ezintasun, oporraldi edo atseden kasuetan, nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek bermatu egingo dituzte nekazaritza-jarduera mantentzea ahalbidetuko duten ordezkapen-zerbitzuak. Horretarako, ustategien titularrak emakumeak izatea sartuko da lehentasunezko irizpideen artean.

3.– Lana nekazaritzaren sektorean egiten duten emakumeek eskubidea dute aisialdirako, denbora librea izateko eta atseden hartzeko. Eskubide hori gauza dadin, nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek ordezkapen-zerbitzuak jarriko dituzte nekazaritza-jarduera mantendu ahal izateko, mendekotasuna duten pertsonen zainzaileen kasuan bereziki.

4.– Nekazaritzaren arloan ardura partekatua bultzatzen duten baliabideen informazio-, sentsibilizazio- eta zabalkunde-kanpainak egingo dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek, eta neurriak eta programak ezarriko dituzte etxeko lanetan eta mendekotasuna duten pertsonen zainketan gizon nekazariak zereginak beren gain hartzea bultzatzeko.

23. artikulua.– Osasuna lanean.

1.– Emakume nekazariak eskubidea dute haien osasuna babes dadin lanean, eta beharrezkoa da konponbideak aztertu eta aplikatzea gizonen eta emakumeen osasunean eragiten duten faktoreetan. Halaber, eskubidea dute aintzat har daitezen nekazaritzaren arloan emakumeen eta gizonen osasunean eragin dezaketen faktore bereizgarriak, beharrezko neurriak ezar daitezen emakumeen osasuna bermatzeko nekazari-lanean.

2.– Laneko osasunaren arloan eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek aintzat hartuko dituzte nekazaritzaren sektorean emakumeen eta gizonen osasunean eragiten duten faktore bereizgarriak; eta sustatu egingo dituzte horiek atzeman eta kontrolatzeko jarduketak, bai eta emakume nekazarien kasuan laneko arriskuak modu eraginkorrean ekiditeko neurriak ere.

3.– Jarduketa horietan aintzat hartuko dira bai sexu bakoitzeko pertsonengan eragina duten berariazko arrisku-faktoreak eta bai arrisku-faktore komunek emakumeengan eta gizonengan izan dezaketen eragin diferentea.

4.– Nekazaritzaren sektorekoak diren laneko segurtasun eta osasun politiketan, estrategietan eta planetan aintzat hartuko dira emakumeen eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza, igurikimen eta behar diferentek, eta osasun-maila berdintsuak lortzera zuzendutako helburu, jomuga eta jarduketak txertatuko dira. Edonola ere, hau egin beharko da:

a) Emakume nekazarien artean laneko arriskuen prebentziorako araudia aplikatzen den behatu eta kontrolatu, honela:

– Gai horren diagnostiko guztietan sexuaren aldagaia sartuz eta lortutako datuak sexuen arabera bereizita ustiaturik eta aztertuz.

– Emakume eta gizonen balio, rol, egoera, baldintza eta igurikimenetako diferentziak hobeto ezagutzea ahalbidetuko duten adierazleak identifikatuz eta definituz.

b) Lanpostu, lanabes, ekipo, lan-prozesu, arropa eta oinetakoen diseinuan emakumeen eta gizonen arteko diferentziak kontuan izatea bultzatu.

c) Arriskuen prebentziorako kontsulta- eta erabaki-organoetan emakumeen eta gizonen arteko osaera orekatua bermatu.

d) Informazio-, komunikazio- eta prestakuntza-planetan, emakumeen eta gizonen arrisku komunak eta berariazkoen gaineko informazioa ematera zuzendutako helburuak eta jarduketak sartu.

e) Osasunaren zaintzarako zerbitzuek beren jarduketa guztietan genero-ikuspegia sartzea bermatu.

24. artikulua.– Babesa emakumeen aurkako indarkeriaren eta jazarpen sexistaren aurrean.

1.– Lana nekazaritzaren sektorean egiten duten emakumeek eskubidea dute emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako informazio- eta arreta-baliabide eskuragarriak eta kalitatezkoak izateko; Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek aintzat hartuko dituzte sektorearen berariazko inguruabarrak, eta beharrezko neurriak ezarriko dituzte eskubide hori gauzatzea bermatzeko.

2.– Emakumeen aurkako indarkeria jasan duten emakume nekazariak eskubidea dute beren lana egiten jarraitzeko; herri-administrazioek beharrezko neurriak hartuko dituzte eskubide hori gauzatzea bermatzeko.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek ziurtatu egin beharko dute lana nekazaritzaren sektorean egin eta jazarpen sexista edo sexu-jazarpena jasaten duten emakumeek informazio- eta

arreta-baliabide eskuragarriak eta kalitatezkoak dituztela. Nolanahi ere, bide batzuk jarri beharko dira sexu-jazarpena edo jazarpen sexista jasaten duten emakume nekazariak arreta hori eskuragarri izatea ahalbidetuko dutenak, konfidentzialtasunaren bermearekin.

25. artikulua.— Prestakuntza-eskubidea.

1.— Lana nekazaritzaren sektorean egiten duten emakumeek eskubidea dute jasotzeko beren interesen eta beharren arabera prestakuntza, bai eta profesionalizazioari eta nekazaritzaren arloko informazioaren teknologia berriei, ikerkuntzari, garapenari eta teknologia-trekakuntzari loturikoa ere.

2.— Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek berariazko prestakuntza-programak jarriko dituzte, nekazaritzaren sektoreko emakumeei zuzenduak: batik bat, profesionalizazioari laguntzen diotenak, bereziki erreparatuz bai teknologia berriak eskuragarri izateari eta bai informazioaren gizaritearen inguruko prestakuntzari.

3.— Emakumeek lehentasuna izango dute nekazaritzaren arloko prestakuntza eta gaikuntzarako ikastaro eta programetan sartzeko. Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek etengabeko prestakuntzarako plan bat sustatuko dute nekazaritzaren sektoreari lotutako emakumeak ahaldundzeko.

26. artikulua.— Berdintasunean hezteak.

1.— Nekazaritzarako gaitzeko prestakuntzan, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek gizonak eta emakumeak berdintasunean hezteak bultzatuko dute.

2.— Besteak beste, neurri hauek hartuko dituzte:

a) Nekazaritzaren arloko prestakuntza ematen duten irakasleak baterako hezkuntzan trebatzea sustatuko dute.

b) Heziketa-planeko helburuetan eta nekazaritzaren arloko prestakuntzaren ebaluazio-adierazleetan baterako hezkuntza sartuko dute.

c) Genero-ikuspegitik aztertuko dituzte nekazaritzaren arloko prestakuntzan erabilitako materialak, materialik gomendagarrienak zeintzuk diren zehazteko, bai eta, halakorik badago, desegokiak izan litezkeenak ere, eta dagozkion aldaketak planteatuko dituzte.

d) Berdintasunaren gaineko moduluak sartuko dituzte nekazaritzarako gaitzeko programetan.

3.— Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek beharrezko neurriak hartu behar dituzte beren langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaian prestakuntza oinarritzakoa, mailakatua eta etengabea izan dezaten, estatutu honetan jasotako xedapenak betetzeko eta nekazaritzaren sektorean genero-ikuspegia benetan sartzeko ahalbidetuko duen behar adinako ezagutza praktikoa bermatzeko.

V. TITULUA

EMAKUME NEKAZARIAK AINTZATESTEA ETA IKUSARAZTEA

27. artikulua.— Emakumeen lana aintzatestea.

Lana nekazaritzaren sektorean egiten duten emakumeek eskubidea dute egin eta egiten duten lana ikusaraz eta aintzatets dadin; Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek sustatuko

dute emakumeak ikusaraztea eta aintzatestea, beharrezkotzat jotzen dituzten azterketa, informazio-kanpaina, sari edo beste bide batzuk baliatuz.

28. artikulua.– Azterketak, ikerketak eta estatistikak.

Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek, nekazaritzaren gaian eta beren ohiko jardueran politika sektorialak garatzean, genero-ikuspegia sartuko dute, neurri hauen bidez:

a) Nekazaritzaren arloko estatistikak eta azterketak egokitzeko neurriak:

– Egiten dituzten estatistiketan, inkestetan eta datu-bilketetan sexuaren aldagaia sistematikoki sartzea.

– Beharrezko adierazleak finkatu eta estatistika-eragiketetan sartzea, ziurtasunez jakiteko zer diferentzia dauden emakume eta gizon nekazarien balio, rol, egoera, baldintza, asmo eta beharretan, nola agertzen diren eta nola eragiten dioten elkarri nekazaritzaren sektorean.

– Beharrezko adierazle eta mekanismoak diseinatu eta txertatzea, jakin ahal izateko nolako eragina duten bereizkeria anizkoitzeko egoerak sortzen dituzten bestelako aldagaiek.

– Behar bezain lagin zabalak hartzea aldagai txertatuak sexuaren aldagaiaren arabera ustiatu eta aztertu ahal izateko.

– Eskura dituzten datuak emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, asmo eta behar diferentien berri izateko moduan ustiatzea.

– Lehendik dauden estatistika-definizioak berrikustea eta behar izanez gero egokitzea, emakume nekazarien lana aintzatesten eta balioesten laguntzeko.

b) Nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek azterketak eta ikerketak sustatuko dituzte, nekazaritzaren arloko emakumeen eta gizonen baldintza eta behar diferentiek aztertu ahal izateko, eta ez dute emango diru-laguntzarik, laguntzarik edo babes-neurririk genero-ikuspegia sartzen ez duten azterketa eta ikerketetarako.

VI. TITULUA

SEGIMENDU BATZORDEA

29. artikulua.– Sorrera eta osaera.

1.– Lege honetan xedatutakoa betetzen den egiaztatuz segimendua egiteko, segimendu-batzorde bat sortzen da, eta kide hauek izango ditu:

a) Landa-garapenaren gaian eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzako titularra edo hark ordezkari izendatzen duena. Batzordearen buru izango da.

b) Nekazaritzaren gaian eskumena duen saileko berdintasunerako administrazio-unitateko langileen artean hautatutako pertsona bat.

c) Nekazaritzaren gaian eskumena duen zuzendaritzako langileen artean hautatutako pertsona bat.

d) Nekazaritzaren gaian eskumena duen saileko lege-aholkularitzako langileen artean hautatutako pertsona bat.

- e) Foru-aldundien ordezkari bana, nekazaritzaren gaian eskumena duten sailetakoa.
- f) Emakunderen ordezkari bat.
- g) Landa Eremuko Emakumeen Batzordearen ordezkari bat.
- h) Eudel Euskadiko Udalen Elkartearen ordezkari bat.
- i) Hiru ordezkari Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzaren arloko ordezkaritza handieneko sindikatuenak.

2.– Gaiaren berezitasunagatik beharrezkoak baldin badira espezialistak edo zerikusia duketen beste pertsona batzuk, eta horiek batzordekide ez badira, batzordeburuaren eskariz deitu ahal izango zaie.

3.– Batzordean, emakumeek presentzia orekatua izango dute.

30. artikulua.– Funtzioak.

1.– Segimendu-batzordeak aztertuko du lege honen xedeak zenbateraino betetzen diren, eta urtero txosten bat egingo du, non ebaluatuko baita, bereziki, II, III eta IV. tituluetan xedatzen diren neurriek nolako eragina duten sektorean. Ahalik eta zabalkunderik handiena emango zaio txosten horri.

2.– Ikusten bada ez direla betetzen ari hartutako betebeharrak edo ezarritako helburuak, edo aurreikusitako epeetan ez direla lortzen ari, Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordeari bera-riazko komunikazio bat bidaliko zaio atzematen diren ez-betetzeen ingurukoa.

31. artikulua.– Funtzionamendua.

Segimendu-batzordeak berak finkatzen dituen arauak beteko ditu, eta arau horien ordezkia izango da, kide anitzeko organoei dagokienez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Landa-garapeneko elkarteak.

Landa-garapeneko elkarteek egokitu egingo dituzte beren estatutuak, lege hau indarrean sartu eta hiru urteko epean, emakume eta gizonen parte-hartze orekatua bermatuta egon dadin.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Laguntzak elkarte eta erakundeei.

1.– Nekazaritzako elkarte eta erakundeei ematen zaizkien laguntzak kuantifikatzeko irizpideetan guztira lor daitekeen puntuazioaren % 15 balioko du, gutxienez, emakumeen presentziak: lege hau indarrean sartu ondorengo lau urteetan egiten diren deialdietan, nekazaritzako elkarte eta erakundeen zuzendaritza-organismoetan emakumeak egoteak; eta hurrengo hiru urteetan, haien presentzia gutxienez orekatua izateak.

2.– Lege hau indarrean sartu ondorengo lehen lau urteak igarota, nekazaritzaren gaian eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek ez diete ez laguntzarik ez diru-laguntzarik emango nekazaritzaren arloan jarduten duten profesionalen, enpresen, sindikatuen edo beste-lakoen elkarte edo erakundeei, baldin zuzendaritza-organismoetan emakumerik ez badute; eta sei urteren ondoren, ez zaie emango zuzendaritza-organismoetan emakumeen presentzia gutxienez orekatua ez dutenei.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Hazilur.

Hazilur Enpresen Sustapena, S.A.k, Elikadura Sektorerako Euskal Fondoak, zeina nekazaritzako elikagaien sektoreko eta landa-inguruneen enpresa-jardueretan laguntzera bideratuta baitago, lehentasuna emango die emakumeek sustatutako proiektuei, baldin eta haren jarduerako proiektuen mota berekoak badira eta laguntza jasotzeko beste eskakizunak betetzen badituzte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten dira Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 76. artikulua eta lege honek ezarritakoaren aurka doan maila bereko edo apalagoko beste edozein xedapen.

AZKEN XEDAPENAK

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 14. artikulua aldatzea.

Hona hemen Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 14. artikuluko 3. paragrafoaren testu berria:

«3.– Nekazaritza-lurren funtsen aktiboak hainbat helburutara bideratuko dira lehentasunez; ondorengo hauek dira helburuok:

- a) Nekazaritzan ari diren emakumeak eta nekazari gazteak finkatzea.
- b) Nekazaritza-ustategi berriak sortzea, landa-guneetako exodoa eragozteko.
- c) Egun martxan diren nekazaritza-ustategiak handitzea.
- d) Nekazari-herrixkak edo lursail-eremuak sortzea, bertan nekazaritza-jarduerak gauzatu ahal izateko».

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 92. artikulua aldatzea.

Hona hemen Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 92. artikuluko 2. paragrafoaren testu berria, n) letra gehituta:

«2.– Kontseilua honako kideek osatuko dute:

- a) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritzako eta elikagaigintzako gaietan eskumena daukan titullarrak. Lehendakari-lanetan arituko da, eta Kontseilurako dei egiteaz eta landu beharreko gaiak zehazteaz arduratuko da.
- b) Sail horretako sailburuaren kabineteko zuzendaritzaren titullarrak, lehendakariorde-lanetan.
- c) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean nekazaritzako eta elikagaigintzako gaietan eskumena daukan saileko bi ordezkari; gutxienez, zuzendari-kargua dutenak.
- d) Arabako Foru Aldundiko ordezkari batek; gutxienez, zuzendari-kargua duenak.
- e) Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkari batek; gutxienez, zuzendari-kargua duenak.

- f) Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari batek; gutxienez, zuzendari-kargua duenak.
- g) Euskadiko Udalen Elkarteko (Eudel) ordezkari bat.
- h) Nekazarien elkarte profesional adierazgarrienen arteko bakoitzak 88. artikuluan ezarritako eran lortutako ordezkariak; gehienez 5, elkarte bakoitzeko.
- i) Euskadiko ekoizleen elkarteetako ordezkariak, lege honen 89.2 artikuluan xedatzen denaren arabera.
- j) Euskadiko nekazaritza- eta elikagaigintza-industrien elkarteetako hiru ordezkari, elkarteek adostasunez izendatutakoak. Txandaka daitezke.
- k) Euskadiko Basogintza Elkarteen Konfederakundeko ordezkari bat.
- l) Euskadiko Nekazaritza Kooperatiben Federazioko ordezkari bat.
- m) Nekazaritza-ustategien aholkulari gisa aitortuta dauden erakundeen ordezkari bat, erakundeok adostasunez izendatutakoak. Txandaka daitezke.
- n) Landa Eremuko Emakumeen Batzordearen ordezkari bat».

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA.— Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 4. artikulua aldatzea eta 25. puntua gehitzea.

Hona hemen Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 4. artikuluko 13 eta 14. puntuen testu berria eta artikuluko berean gehitutako 25. puntuaren testua:

«13.— Nekazari profesional: nekazaritza-ustategi baten titularra izanik, urteko errentaren % 50, gutxienez, nekazaritza-jardueretatik edo nekazaritza-jarduera osagarrietatik lortzen duen pertsona fisiko edo juridikoa; betiere, bere ustategian egindako nekazaritza-jardueratik zuzenean lortutako errenta ez bada guztizko errentaren % 25 baino txikiagoa eta nekazaritza-jardueretan edo nekazaritza-jarduera osagarrietan lanean emandako denbora, nekazaritza-laneko unitateen arabera, lanean guztira emandako denboraren erdia baino gehiago bada. Pertsona fisikoa bada, bere nekazaritza-jardueraren arabera dagokion Gizarte Segurantzako Erregimenean izena emanda egon beharko du.

14.— Nagusiki nekazari: nekazari profesionala, pertsona fisikoa izanik, errenta totalaren % 50, gutxienez, bere ustategian egindako nekazaritza-jardueratik ateratzen duena, eta, nekazaritza-laneko unitateen arabera, urtean lanean emandako denboraren erdia edo gehiago zuzenean nekazaritzarekin lotutako jardueretan ematen duena.

Pertsona juridiko batek nagusiki nekazaritzan jarduten duela ulertuko da, baldin eta bazkideen % 50, bakoitza bere aldetik, nagusiki nekazaritzat jo badaitezke lehen adierazitako baldintzak betetzen dituztelako. Sozietateak badira —forma juridikoa sozietate zibila bada salbu—, adierazitakoaz gainera, bazkideen partaidetzek edo akzioek izendunak izan beharko dute. Edonola ere, estatutuetan edo bazkideen batzar orokorraren erabakian, ezarrita egon beharko du lehen adierazitako baldintzak betetzea bermatuko dela, bazkideen artean tituluak eskualdatuz gero ere».

«25.— Nekazaritza-laneko unitatea: lege honen eta kontzeptu hau erabiltzen duten beste arauen ondorioetarako, nekazaritza-laneko unitateak osatzen dituzten urteko lanordu kopuruaren edo lanaldi kopuruaren barnean sartuko dira, ekoizpena ez ezik, nekazaritza-ustategian ekoitzi denaren eraldaketa eta merkaturatzea. Urteko lanordu kopuru hori edo lanaldi kopuru hori errege-lamendu bidez zehaztuko dira».

AZKEN XEDAPENETATIK LAUGARRENA.— Arauak egokitzea.

Autonomia Erkidegoko erakunde komunek eta lurralde historikoetako foru-organismoek beharrezko aldaketak onartuko dituzte beren arauetan, lege honek xedatzen duenera moldatzeko, legea indarrean sartzen denetik hiru urteko epean, hargatik eragotzi gabe lurralde historiko bakoitzak dituen eskumenak.

AZKEN XEDAPENETATIK BOSGARRENA.— Indarrean sartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Beraz, lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 16a.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

